

Kohesioa eta Elkarkidetzaren eraikitzen:

Euskal Herriko lurralde(ar)en liburu berdea

Kontzeptu mapa eta diagnosi partehartzailea



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

SARRERA	5
01 / EUSKAL LURRALDEA(K) KOHESIONATZEKO OINARRIAK: HISTORIA, KULTURA, BORONDATEA	10
02 / BASKONIAKO LURRALDEEN GEOPOLITIKA ETA ERAKUNDEETARA HURBILKETA	14
02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa	14
02.1.1. Globalizazio-prozesuaren ezaugarriak eta lurraldea ikusteko modu berriak	14
02.1.2. Tokikoaren eta globalaren arteko elkarreragina.....	15
02.1.3. Gobernantza globalizazioan.....	17
02.1.4. Munduko egoera	20
02.1.5. Europako egoera.....	22
02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan	23
02.2.1. Euskal lurraldeen erabakitze gaitasuna	23
02.2.2. Euskal lurraldeen harremanak instantzia politiko zabalagoekin.....	26
02.2.3. Euskal gobernantza modernoaren garapena.....	29
02.2.4. Euskal lurraldeen egituraketa eta kohesioa	31
02.2.5. Euskal lurraldeen arteko desoreka historikoak.....	34
02.2.6. Euskal lurralde-ardatzak eta sinergiak	35
03 / EUSKAL HERRIKO LURRALDEEN JENDEAK: GIZARTEA ETA KULTURA	37
03.1. Gure jendeak	37
03.1.1. Aniztasuna	38
03.1.2. Kohesio bidean.....	40
03.2. Euskal Hedabideen Sistema eta Ingurune digitala	44
03.2.1. Euskal Hedabideen Sistema	44
03.2.2. Ingurune digitala.....	45
03.3. Euskal lurraldea(k) eta kultura	48
03.3.1. Kultura eta ondarea.....	48
03.3.2. Kultur sorkuntza eta errepresentazioa	48
03.4. Euskal lurralde(ar)en marka	54
03.4.1. Sarrera	54
03.4.2. Testuingurua.....	54
03.4.3. Nazio markaren balioa.....	55
03.4.4. Nazio markaren kudeaketa.....	55
03.4.5. Euskal Herrirako izan ditzakeen onurak.....	56
03.4.6. Euskal Herrirako markaren egoera.....	58
03.4.7. Euskal Herria markaren erronkak.....	59
03.5. Lurralde narratiba nagusiak eta hauen ondorio materialak	60
04 / Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	66
04.1. Aurkezpena	66
04.2. Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak	66
04.3. Abiapuntuzko indar ideia nagusiak	67
04.4. Kontzeptuen definizioa	67

04.5. Proiektuaren prozedura.....	68
04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa	69
04.6.1. Erreferentziazko komunitate-kapitalen eredua	69
04.6.2. Giza kapitala	70
04.6.3. Kapital soziala.....	72
04.6.4. Azpiegitura kapitala	74
04.6.5. Kapital ekonomikoa	76
04.6.6. Kapital politikoa.....	78
04.6.7. Kapital kulturala.....	80
05 / Euskal Lurralde(ar)en Garapen Sozioekonomikoa	83
05.1. Sarrera	84
05.2. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian	86
05.2.1. Krisi Ekologikoa: energiá, klima-aldaketa, bioaniztasun galera	86
05.2.2. Lurralde-antolamendua eta iraunkortasuna	89
05.2.3. Erronka demografikoa: zahartzea, migrazio-prozesuak.. ..	93
05.2.4. Desberdintasunak eta desorekak: sozialak, lurralde-mailakoak, genero-arlokoak.....	97
05.2.5. Zainketen eta gizarte-zerbitzuen krisia.....	100
05.2.6. Ezagutzaren eta enplegu-eraldaketaren gizarte.....	103
05.2.7. Aurrerapen teknologikoak: iraultza digitala.....	109
05.2.8. Lehiakortasun globala, irekitasuna eta nazioartekotzea.....	112
05.3. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak	115
05.3.1. Euskal egitura ekonomikoa.....	115
05.3.2. Gizarte-egitura eta kohesio-elementuak.....	118
05.3.3. Ekonomia soziala eta beste ekimen batzuk.....	126
05.3.4. Lankidetzeta publiko-pribatua eta eragileen artekoa.....	133
05.3.5. Subiranotasuna, fiskaltasuna eta finantza-sistema	136
05.3.6. Kapital soziala.....	139
05.3.7. Denon oinarria, balioak.....	142
05.4. Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak.....	145
05.4.1. Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz	145
05.4.2. Lehiakortasuna, lurralde estrategiak eta jasangarritasuna	152
05.4.3. Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak.....	160
06 / Aurkibide analitikoak	167
07 / Nota aclaratoria.....	225

SARRERA

Orri zuri baten aurrean jartzea beti da erronka. Baina oraindik idatzita ez dagoena irudikatzea erronka zoragarria bihurtzen da modu kolektiboan gauzatzen bada. Idatziko ditugun orri zuriak “Euskal Herriko lurraldeen Liburu Zuriarenak” dira. Liburu Zuri bat non herri honek bere etorkizuna idazten joango den; orri zuriak modu partehartzailean idatziko direnak eta Euskal Herriko lurraldetasunaren eztabaida publikorako oinarriak jasoko dituenak.

Eta bide honi, Eusko Ikaskuntzaren leloari jarraituz, “asmoz ta jakitez” eman diogu hasiera, gure helburua zein den susmatuz eta bidean modu kolektiboan ikasiz ideien eta proposamenen etengabeko partekatzearekin.

Eusko Ikaskuntzak, bere xedea eta helburu nagusiak oinarritzat hartuz, DENOK GAI izeneko prozesu parte-hartzailea jartzen du abian Euskal Herriko lurraldeen herritarrekin eta gizarte zibil antolatuarekin batera XXI. Mendean agertuko zaizkigun erronka garrantzitsuenak eta lehentasunezkoak identifikatzeko.

Erdigunean “XXI. mendeko Euskal Herriaren gizarte iraunkorra” kokatuz eta etorkizuneko proiektzioa landuz, prozesu horren emaitza Eusko Ikaskuntzak epe ertain-luzean garatzeko eskatzen diren eremu desberdinen identifikazioa izan ze: *errealitate sozio-kulturala, eredu sozio-ekonomikoak, euskararen etorkizuna, egituraketa sozio-politikoak*. Horretaz gain, Eusko Ikaskuntzaren printzipioak gogoratu eta azpimarratu ziren: *berme zientifikoa, independentzia ideologikoa, belaunaldien arteko harremana, genero ikuspegia, erakundeen arteko elkarlana, herritarrekin harremana, euskara erdigunean, lurraldeen arteko zubigintza, disziplinartekotasuna*.

Ziurgabetasunaz eta mehatxuz, baina era berean, aukeraz beteriko garaia bizi dugu. Euskal Herriko etorkizuna inguruabar globalean kokatu beharra dago, baina beti hausnarketa propioa, irekia eta deliberatibo batetik abiatuta Euskal Herriko lurraldeek eremu deberdinekin –eredu politikoak, kulturalak eta sozio-ekonomikoak lotutako erronkei egokitzeko behar dituzten tresnak eskaintzeko.

Bestalde, giza garapena eta honekin lotutako gobernantza ezin uler daitezke kulturaren, kapitalaren, lurraldearen eta herritarren arteko mihiztaketa berrietan arreta jarri gabe. Horrela, prozesu hau ezinda ulertu gizarte zibilaren parte-hartzearekin gabe. Lehenengo helburua, prozesu eta emaitza gisa, gure lurraldeen demokratizazioan sakontzea eta aurreratzea da.

Bigarrenik, euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzaren indartzea eta sendotzea jartzen dugu analisirako eta deliberaziorako ardatz gisa. Helburu honekin, lurralde narratiba eta errealitate desberdinen ezagutzatik abiatuta, sinergia sozial, kultural eta ekonomikoak, eta gobernantza demokratikoan oinarritutako lurralde baitako eta lurraldeen arteko eredu inklusibo berriak ahalbideratuko dituzten tresnak identifikatuko ditugu.

Lurraldea identitatearen duen lur eremua den aldetik, komunitate baten eguneroko praxi kolektiboan gauzatzen den eremua den aldetik; bizitza gauzatzeko espazioa da, gure ekonomia eta gure

ongizatearen eremua da, auzokideekin harremanetan jartzen gaituen hura da. Lurralde hori bertan gurutzatzen den jendeek egiten duten hura da, bizi praktiken elkarrekintza da finean.

Ez gara ezerezetik abiatzen. Euskal Herriko lurraldeen kohesiorako oinarriak munduan egoteko eta mundua begiratzeko berezko era osatzen duten historia komun batean, pertenezkoa zentzu batean, hizkuntza eta kultura batean daude finkatuta. Paisaia fisikoari paisaia emozionala gehitzen zaio, ukiezina agian, baina partekatzen den balio sistema batean detektagarria dena.

Ardatz sozio-ekonomiko eta kultural desberdinen arteko gurutzaketak harreman sare dentsuak eta anitzaz osatutako espazioa definitu du, mundu konplexuan eta gorabeheratsuan kokatzeko beharrezkoa den kapital sozialean bilakatzen dena. Horregatik, indartzea bilatzen dugun kohesioa eta elkarkidetzaren dagoenetik abiatzen da.

Mundu garaikidean, gero eta konplexuagoa dena, eskala territorial adimentsua, lehiakorra, bidezkoa eta iraunkorra horren bilaketa partekatua izango da edo ez.

Horretarako, Euskal Herriko lurralde guztietako akademia, erakundeak, eragile sozialak eta herritarrak biltzen dituen lan eremu kooperatiboa aktibatzea bilatzen duen hainbat urterako prozesua dugu abian (2016-2020). Egungo mundu aldakorrean gure herriak behar duen hausnarketa estrategikoa gauzatzeko eremu kooperatiboa, alegia.

Kohesioan eta elkarkidetzaren oinarritutako etorkizuna diseinatzea nahi badugu, beharrezkoa da aurretik iragana ulertzea eta orainaren aukerak eta ahuleziak zedarritzea. Horregatik, lehenengo diagnostiko bat proposatzetik abiatu gara "Euskal Herriko lurraldeen Liburu Berdean". Lehenengo urrats honek, Eusko Ikaskuntzaren hausnarketatik eratortzeaz gain, Euskal Herriko gizartearen eskaerari erantzuten dio.

Liburu Berdeak euskal lurraldetasunaren askotariko dimentsioak zertan diren ezagutzen laguntzen du, geroan ere, lurralde honen gainean euskal komunitateak garatzen duen jardueraren kolektiboa emankorra izan dadin komunitatearentzat eta bertan bizi diren banakoentzat.

Cure lana ezagutza eta esperientzia anitzak biltzea izan da. Ikuskera ezberdinetako pertsonak mahai baten bueltan eseri gara eta ikusi dugu uste baino gehiago partekatzen dugula, eta herri honen lurraldetasunaren inguruan ideia kontsentsuatuak eraikitzeke elkarriketan jarraitu behar dugula.

Geure buruari galderak egiten saiatu gara, erantzunak orain bilatzeari ekin beharrean, Liburu Berdea lan kolektiborako tresnatzat hartzen baitugu. Begirada, ikuspegi eta, baita ere, terminologia irekitasunaren ondorioz, emaitza osatu gabea izan daiteke, agian. Onartzen dugu gaiak jorratzean desorekak egon daitezkeela, beharbada euskal lurralde guztietako datu eta errealitateak ez direlako behar bezala jasotzen; hain zuzen ere, batzuetan, lurralde guztiak aintzat hartzen dituen estatistikarik eta ikerketarik ez dagoelako. Lehenengo diagnostiko bat da, datorren urtetik aurrera garatzen joango garena gai eta perspektiba berriak integratuz.

Bestalde, ideia kontrajarriekin topo egingo dugu, gure asmoa ez baita izan kontsentsu batera heltzera, baizik eta gai desberdinen inguruan ahalik eta ideia anitz gehien jasotzea eta metatzea. Lan honetan parte hartu dugunok ez dugu egiletza partikularrik aitortzen, baizik eta kolektibotzat hartzen dugu. Jasotzen diren ideia guztiekin baliteke ados ez egotea ere, baina bat egiten dugu Liburu Berdeak gordetzen duenarekin. Elkarkidetzan oinarritutako marko berri bat diseinatzeko eredu hau dela ulertzen baitugu: iritzi ezberdinak topo egitea, elkar entzutea, elkar ulertzea, eztabaidatzea... eta kontsentsu berriei erantzungo dion eta desberdintasunak errespetatuko dituen mapa partekatu sendoagoa marraztea.

Horrela, Liburu Berde honek bi helburu nagusi bilatzen ditu: 1) Lurraldearen askotariko dimentsioak irudikatzen duen KONTZEPTUEN MAPA proposatzea. 2) Euskal lurraldeen kohesioa eta bizikidetzari dagokionean egoeraren DIAGNOSI PARTE-HARTZAILEA osatzea.

Horretarako, prozesuaren hasieratik metodologia metatzailea izatea aukeratu genuen. Prozesu metatzaile eta integratzaile hau osatu ahala, Liburu Berdearen zirriborro desberdinek begirada poliedriko baten ikuskera sendotzen joan dira; modu honetan, gai eta sentsibilitate desberdinak gehitzen joan dira Euskal Herriko lurraldeen egungo egoeraren lehenengo diagnosis osatuz.

Gai desberdinetan adituak diren pertsona batzuei ekarpenen eskakizunetik abiatuta, Liburu Berde honen edukia mintegi eta foro parte-hartzaile desberdinetan luzatutako hausnarketen emaitza da. Jarraian jasotzen direnak azpimarratzen ditugu:

Mintegiak:

- Lurraldea eta lurraldetasunaren kontzeptualizazioa: Liburu Berdearen aurkibidearen identifikazioa (Donostia, 2016.11.14)
- Kokapen teoriko orokorra: Euskal lurraldea(k) mundu garaikidean (Donostia, 2017.11.05)
- Lurraldetasuna: Euskal lurraldeen artikulazio juridiko-politiko (Donostia, 2016.11.26)
- Euskal lurraldeen *territorioak*: kohesioa eta identitateak (Donostia, 2017.01.14)
- Euskal lurraldeak: eremu fisikoa eta lurralde garapena (Donostia, 2017.01.28)
- Euskararen Etorbizuneko eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen: jabetu eta baloratu (Gasteiz, 2017.06.02)
- Euskararen Etorbizuneko eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen: kapitalen mapetatik abiatuta etorkizuneko eszenarioen konstelazioa (Gasteiz, 2018.02.23)
- Garapen sozio-ekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa (Donostia, 2016.05.24)
- Ekonomia berriak (Bilbo, 2016.06.10)
- Lankidetzak ekonomia (Bilbo, 2017.03.17)
- Kultura eta sorkuntza (Iruña, 2017.10.26)

Udako Ikastaroak UPV-EHU:

- Kohesioa eta bizikidetzatza: euskal lurraldeak eta lurraldetasuna XXI. Mendean. Gogoeta azken mendean (Donostia, 2017.09.13-15)

Gizarte Foroak:

- Lurraldea eta lurraldetasuna, kontzeptu mapa eta diagnosiaren kontrastea (Irun, 2017.06.17)
- Bizitza luzearen iraultza, erronkak eta aukerak (Irun, 2018.03.26)
- Oroimen historikorako belaunaldien arteko tailerrak (Hernani, 2017.12.21)
- Bizitza luzearen iraultza, erronkak eta aukerak (Zumarraga, 2017.11.23)
- Lizarrerriko herri txikien etorkizunaz (Aintzin, 2017.11.15)
- "Ezagutzaren gizartea II" (Donostia, 2017.10.09)
- "Ezagutzaren gizartea II" (Baiona, 2017.10.13)
- "Ezagutzaren gizartea I" (Bergara, 2017.07.11)
- Euskarari buruzko Iruñeko foro askotarikoa (Iruña, 2017.05.23)
- Mugaz gaindiko enpresagintza eta ekintzaitasuna eztabaidagia (Igantzi, 2017.04.10)
- Baserri guneek ba al dute etorkizunik? (Barkoxe, 2017.02.14)
- Energia berriztagarriak. Herrigintzatik sortutako ekimenak, etorkizuneko irtenbidea? (Bera, 2016.12.15)
- Etorkizuneko herri txikiak: Zer etorkizun nahi dugu? Zer egin horruntz joateko? (Zerain, 2016.11.19)
- Zaharkitzearen balio soziala (Donostia, 2016.12.14)
- Etorkizuneko diaspora(k): Euskal Herriaren kanpoko harremanen geroa (Baigorri, 2016.10.14)
- Hiri sortzaileak: hiri sortzaileen garapen dinamikak (Donostia, 2016.10.06)

Akademia, gizarte eragileak, kulturgintza eta herritarrak elkarlanean aritu dira ekimen hauetan. Aurkezten den bertsio honetara heltzeko, 300 pertsona parte hartu dute. Baina emaitza kuantitatibo gaineratik kualitatiboak nabarmentzen ditugu, orain arte elkarrekin eztabaidatzen egon ez direnak elkartu baitira eta, esperientzia honetan oinarrituta, elkarlanean jarraitzea nahi dutenak. Hau da, hausnarketarako konfiantza eta lankidetzan oinarritutako espazio egonkorra sortu dugula esan genezake.

Guzti honengatik, Liburu Berdearen ibilbideak ez du hemen bukatzen. Hemendik aurrera, hilabete hauetan gauzatuko diren HERRITARREN MAHALETATIK eta GIZARTE FOROETATIK sortuko diren emaitzekin joango da aberasten. Horrela, batetik, Liburu Berde honen edukia

osatzen joango dira eta, bestetik, Euskal Herriko lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzak sendotzeko proposamenen agenda partekatua joango garaosatzen. Hau da, Liburu Berdeak jasotzen duen diagnosia Liburu Zuriaren lehenengo edizioan modu progresiboan joango da bilakatzen. Non etorkizuneko erakundetze eta agenda sozialen oinarriak finkatzen lagunduko diguten, eszenatoki ezberdinak eta arkitektura aukerak jasoko diren.

Sortutako lehenengo emaitzak balio handiko lehenengo mugarri esanguratsuan partekatuko dira: Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua erakundearen mendeurrenaren markoan ospatuko dena. Kongresua 2018ko urria eta azaroaren bitartean gauzatuko da eta izaera prozesuala izango du, ardatz ezberdinekin lotutako saio espezifikoak gauzatuko direlarik lurralde desberdinetan. Itxiera Oñatin emango zaio azaroaren 23 eta 24ean.

Baina gure eginkizuna ez da bukatzen 2018ko Kongresuan. Sortzen ari garen lankidetzak espazioak jarraipena izango dugu datozen urteotan Eusko Ikaskuntzaren markoan. Eusko Ikaskuntza bere jatorritik izan baita Euskal Herriko gizartearen premien eta nahien zerbitzura dagoen erakundea. Eta bere mendeurrenean, herriarekiko konpromisua berresten duen.

01 / EUSKAL LURRALDEA(K) KOHESIONATZEKO OINARRIAK: HISTORIA, KULTURA, BORONDATEA.

1. Vasconia, Euskadi eta Nafarroa edo Euskal Herria deituriko komunitate historiko-antropologikoa Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Beherea eta Zuberoa lurralde historikoetan dago kokatuta¹ **Lurraldeen izendapena**
2. Euskal lurraldeen kohesioari eta elkarkidetzari buruzko hausnarketaren oinarria da, hain zuzen ere, identitate kolektibo, partekatu eta berezitua dagoela gune fisiko horretan. Identitate hori etnografia eta antropologiaren arloko adierazpen nabarien bidez gauzatzen da. **Kohesio elementuak**
3. Osagai kulturelek eta bizimoduei dagozkienek berariazko espazio komunitarioa ezarri dute gure lurraldeetan, harreman sare anitz sortuz. Ezaugarri horien dentsitatea eta lurraldeetan duten egituraketa aldatu egiten da denboran eta espazioan. Logika zentrifugoak eta zentripetoak txandakatu dira, eta sakon aztertu beharko lirateke horiek. Berriki, badirudi logika zentripetoak nagusitzen ari direla.
4. Euskal lurraldeetan historian zehar sortu diren elkarkidetzak sareak eta tresnak (komunalak, auzolana edo Arabako bereden sistema lankidetzak motak eta kooperatibak, elizaren sareak...) sakon ezagutzeko beharra azpimarratzen da, etorkizunean beharko diren elkarkidetzak moduak bideratzeko.
5. Anitzak dira euskal lurraldeak ordezkatzeko dituzten osagai sinbolikoak (ereserkiak, banderak, irudiak, mapak: hiruak bat, laurak bat, zazpiak bat...), baina badira erreferente komunak partekatzen den imajinario kolektiboaren zati direnak. **Nortasun berezituaren adierazle**
6. Euskara, euskal herriaren berezko hizkuntza, gure lurraldeak eta haiek partekatzen duten identitatea biltzen dituen funtsezko elementu bat da. Euskararen aitortzea eta babesa, aldatu egiten da lurralde horren egituraketa politiko-instituzionalaren arabera, ofizialtasun maila desberdinak baitaude lurraldez-lurralde: EAE-n du aitortzea zabalena, Nafarroan aitortzea ofiziala du, eta du, eta Iparraldean hasi da aitortzea eta babesa izaten.
7. Hizkuntza-sistemak lurraldea ulertzeko modu bat eraikitzen du. Arlo honi dagokionean egituraketa eta egitasmo instituzional komuna falta bada, kalte **Hizkuntz-bizikidetzak**

¹Euskal lurraldeen izendapen historikoa ez da mugatzen aurrez aipatu ditugun horietara, eta oinarrian den ikuspegi politiko, instituzional edo kulturalaren baitan dago. Eztabaidarako esparru irekia eskaintzeko helburuarekin, Eusko Ikaskuntzak bere ibilbidean erabili izan dituen izendapenak hartu ditu gu hemen, hots, euskaraz Euskal Herria eta gaztelaniaz Vasconia.

egiten zaio hizkuntzak duen kohesionatzeko funtzioari, penintsulako eta kontinenteko euskal hiztunak elkarrengandik urruntzeko joera gertatzen delako.

8. Hizkuntza nagusien –gaztelania, frantsesa eta ingelesa– eraginaren eta egungo hizkuntza-politiken kanpoko eta barneko mugen ondorioz, ezbaian dago euskal hiztunen komunitatearen etorkizuna, ugalketari eta garapenari dagokienez, euskararen ezagupena zabaldu egin da nabarmen, baina desberdina da lurraldeen arabera. Eguneroko erabilerak sendotuko du bere zabalkundea.
9. Kontraste handiak dituen lurraldea da Baskonia, bai lurraldearen bai paisaiaren aldetik. Paisaia fisikoak giza alderdiarekin elkar eragiten du, eta lurraldea osatzen. Paisaiak, hautemandako lurraldeak, garrantzi handia hartzen du, eta hortik sortzen da lurraldeari buruzko gaietan herritarrei hitza emateko beharra. Lurraldea antolatzeari buruzko hausnarketak gainditu egin beharko luke ustez hutsik dauden espazioak konkistatzean oinarritzen den ikusmoldea, planetaren mugen barneko elkar eraginari ekinez. **Paisaia**
10. Hiri-lurraldea, industria-lurraldea, landa-lurraldea eta espazio naturalak modu dinamikoan banatzen dira, eta banaketa hori antolatzen da nagusi den garapen ekonomikoko ereduaren arabera, baita ikuspegi ideologikoen eta praktika instituzionalaren arabera ere. Lurraldea homogeneizatzeko eta ezereztatzeko joera orokorrak zuzenean eragiten digu: eraikiriko espazioari lehentasuna emateko (etxebizitzak, azpiegiturak...) eta espazio naturalak eremu tematiko bihurtzeko arriskua dago, landa-garapen orekatua oztopatuz eta lurralde periferiko batzuk basamortu bilakatuz. **Lurralde garapena**
11. Giza garapen iraunkorrak bermatzen dituen ongizatea, justizia eta giza kohesioa lurraldea ondo antolatzearen arabekoak dira, neurri handi batean. Historikoki, bailaretako biztanleen arteko harremanak egituratzeak asko erraztu du kohesioa. Gure ustez beharrezkoa da ekimen eredugarriak aztertzea, euskal lurraldeen arteko harremanen dentsifikazioaren eta iraunkortasunaren inguruan. Gehiegi fokalizaturiko hirigintzak kalte egiten dio gure lurraldeek tradizioz duten nukleo anitzeko izaerari. Euskal lurraldeen aztarna ekologikoa oso handia da, eta horren ondorioz hausnarketa bat egin beharra dago gure garapen-ereduaren mugei buruz.
12. Euskal lurraldeen artean lehia pizten da askotan eskumenen arloan, eta, aldi berean, gabeziak sumatzen dira lankidetzaren esparruan. Horren ondorioz, espazioan zenbait desoreka ageri dira, eta, era berean, oinarritzko azpiegituren biderkatzeak kezka sortzen ditu. Lurraldeen arteko lankidetzaren eta koordinazio arloko tresnen inguruan sakontzeko premia hausnartu beharra dago. **Lurralde lankidetzaren**
13. Euskal lurraldeen espezifikotasun juridiko-politikoaren iraunkorra izan da historian. Erabakitze gaitasunaren norainokoaren eta alboko lurraldeekin erlazionatzeko moduen arabera, berezitasun politikoaren gauzatze instituzionala oso anitza **Berezitasun juridiko-politikoaren**

izan da, bai proposamen gisa bai egiazko estatus gisa. Azken mendeetan barrena, gerra-logika nagusitu da eztabaida horretan. Estatus hori oso neurri txikian oinarritu izan da gure lurraldeetako herritarren borondatean. Azken logika hori dezente indartzen ari da.

14. Hori horrela, euskal lurraldeetan oinarritu izan diren erakundeek askotariko izendapenak izan dituzte, bai elkarrekin batera bai banaka: Baskoniako dukerria, Iruñeko Erresuma, Nafarroako Erresuma, foru-lurraldeak edo salbuetsiak, besteak beste. XX. mendean, berriz, Espainian 30eko hamarkadan hasi zen estatutu-prozesutik abiatuta, hegoaldean beste zenbait izendapen garatu da: Euskal Estatua, Euskal Herria, Eus(z)kadi, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Kontinenteko lurraldean, aipamen generikoek -Euskal Herria (Pays Basque)- dagokion instituzionalizatzea ekarri dute XXI. Mendean, Euskal Herriko Hirigune Elkargoaren eskutik.
15. Euskal lurraldeetan kultura politiko berezitua hautematen da, ondoko lurraldeekin alderagarria dena. Zuzenbide piriniarraren esparru historikoari esker ulertzen da erakunde asanblearioek indar handiagoa dutela, bai eta lurralde arteko itunaren filosofia ere. Erreferente horiek kualitatiboki desberdinak dira, alboko lurraldeetako erreferenteekin konparatuz gero, eta kontzeptu federala dute oinarri. Hori horrela, historiografia kritiko bat egiteko beharra ikusten da, lurralde hauen historia behar bezala interpretatzeko.
16. Espainia eta Frantzia estatuen arteko mugak euskal lurraldeak banatzen ditu aspalditik. Banaketa horrek eragina du, era berean, penintsulako eta kontinenteko kultura politikoetan, eta, arrazoi hori dela eta, kultura horiek oso desberdinak dira alderdi askotan. Espainia eta Frantziaren arteko muga bera ere gure lurraldeen identitatea zehazten duen osagaia da. Hala ere, aurreko garaietan, euskal komunitatea kohesionatzen zuten elementuak ziren Pirinioak, eta barne eta kanpoko komunikazio eta loturarako bide. **Mugak**
17. Gaur, halaber, badakigu komunitate bat kohesionatzen duten osagaiak, tresnak eta prozedurak ugaritu egin direla: Azpiegiturak, hedabide sareak eta sare digitalak, erabakiguneak, legeak eta araudiak. Muga ezagunak gainditzeko aukera horiek baliatzeko beharra azpimarratzen da.
18. Badira modua bereizgarriak banakako ekimena eta lehia ulertzeko edota ekintza kolektiboa: auzolana eta komunalak, esaterako. "Guztiona dena", balio gisa, euskal lurraldeetako balio-sistemaren erdigunean dago. Balio horiek erreferentziazko osagai bihur daitezke jardunbide sozial, kultural, ekonomiko eta politikoetan, giza ikuspegitik iraunkortasunaren eta parekidetasunean oinarritzen den komunitatea eraikitzeko. Orain arte ezagutu ditugun balioen transmisioaren inguruko kezka nabaria da. **Balio-sistemak**
19. Zentzu honetan, foraltasun historikoak, Euskal Herrian gizartearen kohesioa **Foraltasuna kohesiorako**

bermatu eta garatzeko asmoz, instituzio juridiko desberdinen bidez garatu eta mantendu nahi izan dituen oinarrizko printzipioen islatze ditu: "euskal zuzenbide foralaren tradiziozko printzipioak dira: familia eta komunitatearen barne elkartasuna, generazio artekotasuna, askatasuna eta berdintasuna. **elementu gisa**

20. Azken urteotan azpimarratzekoa da gizarte zibilaren protagonismoaren indartzea. Bakegintzan edota erabakitze eskubidearen aldeko ekimenetan, esaterako, euskal herritarren eta lurraldeen arteko kohesiorako gizarte ekimen esanguratsuak piztu dira. Izan ere, XXI. mendean, behetik gorako logika horiek elkarlanerako eta elkarkidetzarako tresnak izan daitezke eta burujabetza kontzeptua birpentsatzeko aukera ematen dute. **Gizarte zibila**

21. Aurrekari historikoak oso garrantzitsuak dira, baina nabarmentzen da testuinguru historiko honetan lehentasuna izan beharko lukeela zilegitasun demokratikoak eta euskal lurraldeetako herritarren egungo borondateak, edozein proiektu politiko garatzeko garaian. Hori horrela, eskubide eta askatasunen jabe den euskal herritarraren kontzeptua, gero eta indartsuagoa dena, gure lurraldeen kohesio eta elkarkidetzarako gakoa da, etorkizuneko identifikazio prozesuetan lagungarri izango baita. **Herritartasuna**

22. Beharrezkoa irizten da munduan barreiatuta dauden euskal jatorriko herritarrekin loturak indartzea, euskal lurraldeetako gizarte kapitalaren zati garrantzitsua baitira, bereziki Amerikar kontinentean. Euskal komunitate globalarekiko harremanetan gabezia antzematen da, eta alde bakarreko logiken nagusitasuna. **Euskal komunitate globala**

02 / BASKONIAKO LURRALDEEN GEOPOLITIKA ETA ERAKUNDEETARA HURBILKETA

02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa

02.1.1. Globalizazio-prozesuaren ezaugarriak eta lurraldea ikusteko modu berriak

23. Globalizazioa askotariko dimentsioak dituen prozesua da, eta zuzeneko eragina du gure lurralde eta erakundeetan². Globalizazioak, prozesu historiko legez, ondorio desberdinak ditu, prozesua bera gidatzeko erabiltzen den ereduaren arabera. Krisi geopolitikoak agerian jarri du gaur nagusi den globalizazio-eredua interes geo-estrategiko jakinen gainean eraikita dagoen fenomeno dela – potentzia nagusiak eta korporazio transnazionalak-, eta interes horiek eragina dutela espazio komunitarioetan. Euskal lurraldeek eragin horri eusteko duten gaitasuna ez da txikia, baina indartu daiteke. **Globalizazio ereduak**
24. Nagusi den globalizazio-ereduak kolokan jartzen du demokratizazioa, joera baitu lurraldea, boterea eta eskubideak pribatizatzeko. Horrek kaltea eragiten die balio demokratikoei, hain zuzen ere balio komunitario eta kolektiboak eta askatasun pertsonala bateratzen dituzten horiei. **Globalizazio ereduak**
25. Globalizazio-prozesuan, badirudi espazio fisikoa ia batere garrantzirik ez duen zerbait bihurtu dela. Gaur egun, munduan dauden estrategia politiko, ekonomiko eta sozialak kontraesanean daude lurraldetasun-printzipioarekin. Teknologia berriek, komunikaziorako tresnek -internetek-, lurralde ezagunari territorio berriak zabaltzen dizkiete. **Lurraldetasuna globalizazioan**
26. Hala ere, benetan bizitzen ari garena eraldaketa-prozesu bat da, eta prozesu horrek lurraldetasun aldakor batera garamatza. Horren oinarrian tirabira bat dago, fluxu mota askoren arteko (pertsonena, ideologiena, finantzena...) mugikortasunaren eta erakundeen egituraketaren arteko tirabira. Modernitatearen espazio isomorfoak lausotu egiten badira ere, des-mugatzeak lurraldekatze berri bati bide ematen dio, lurralde kontzeptu berri bati.
27. Agerian geratu da espazio abstraktu globala amaitu egin dela, eta gaur egun berreskuratzen den espazioaren mugek ez dituzte oinarri finkoak, garai batean ezarri ziren kontzeptuek (lehia, muga edo lurralde-osotasuna) zituzten bezala. **Harreman gaitasunak globalizazioan**

²Tokiko-global harremanekin edo globalizazioarekin lotutako ikerketetan, interpretazio edo kontzeptu ezberdinekin egingo dugu topo. Eraldaketen alde anitzeko izaeran kokatzen da arrazoa; aldaketa globalen eta tokian sortzen diren ondorioen arteko harremanak ulertzeko asoziazio desberdinetatik abiatu baikaitzke. Horrela, globalizazio terminoak dimentsio desberdinetan (ekonomian, politikan, ekologian, komunikazioan, kulturaren, baita giza jakintza eta balioetan ere) tokiko kolektiboan edo banako aktoreen borondatearen gainetik eragiten duen indarra deskribatzen du.

Gaur egun lurralde batek nolabaiteko zentralitatea eskuratzen badu, harremanerako duen gaitasunari esker da. Baina harremanak kanpora begira bezala barrura begira ere eraiki behar dira multidimentsionala izan behar duen arkitektura baten baitan.

28. Munduan ez dago berdintasunik, ezta parekotasunik ere; hori agerian geratzen da, modu negatiboan, mota guztietako bidegabekeria- eta bazterkeria-egoerak ikusita, baina baita lurraldeen arteko desberdintasunekin lotuta dauden lehiakortasun-faktore desberdinak ikusita ere. Elkarren kontra dauden gizarte-eta garapen-ereduen arteko borrokaleku bihurtu da lurraldea.
29. Edonola ere, lurraldea erreferentzia garbia da oraindik ere, eskuragarri dauden **Lurraldearen erreferentzialtasuna** baliabideak bildu eta horien inguruko erabaki politikoak hartzeko; era berean, eta, neurri handi batean, elkartasunean, genero ekitatean eta giza garapen iraunkorrean oinarrituriko birbanaketa egiteko ere bai.
30. Testuinguru globala ezin da ulertu soilik espazioak, eragileak eta egiturak **Berrikuntza teknologikoa** kontuan hartuta. Berrikuntza teknologikoak ere kontuan izan behar dira, orain arte ezagunak diren geografiak aldatuko baitituzte: robotika, errealitate birtuala, 3D inprimaketa edo gauzen internet, besteak beste.

02.1.2. Tokikoaren eta globalaren arteko elkarreragina

31. Globalaren eta tokikoaren arteko harremanak konplexuak dira. Akatsa da globala **Tokikoa-globala** kapitalarekin, aurrerapenarekin eta zibilizazioarekin lotzea, eta tokikoa tradizioarekin eta lurraldetasunarekin. Tokikoa ez da kanpoko indar menderaezinen biktima soila, garapen-testuinguruak sortzeko gaitasuna baitu. Ezinbestean, alde biko elkarreragina sortzen da tokikoaren eta globalaren (edo tokikoz gaindikoaren) artean, bai eta lurraldeen edo tokiko espazioen artean ere.
32. Mundu globalizatuan bizi bagara ere, tokiarekiko harremana garrantzitsua da **Tokikoaren ikuspegi berriak** oraindik ere, baina ez usadiozko zentzuan. Besteekiko gertutasun fisikoak ez du esan nahi, derrigorrez, elkarrekiko mendekotasunera mugatuta egoterik. Era berean, urruntasun fisikoak ere ez du esan nahi komunikazioaren arloan urruntasuna egon behar duenik. Erdiguneari eta periferiari buruz hausnartu beharra dago berriro. Gertutasuna, auzotasuna, dimentsio asko hartzen dituen kontzeptua da: espaziala, kulturala, instituzionala, antolaketari buruzkoa, birtuala, elkartasunari, bizikidetzari eta enpatiari buruzkoa.
33. Nagusi den globalizazio-ereduak lurralde bati mehatxu egiten dion ala ez, **Globalizazioan kokapena** lurralde horrek globalarekin duen elkarreragiteko moduaren baitan dago, ez fluxu globaletatik babesteko duen gaitasunaren baitan. Hori horrela, munduan toki bat izateko, lotura hori egiteko modua bilatu behar da, eta ez lotura horri

kontra egiteko edo horren aurrean ixteko modua.

34. Arrazionaltasun-estandar globalak ezartzeak ez du esan nahi, derrigorrez, kultura berdintzea. Tokiko kulturak eta fluxu globalak ez dira ikusi behar, ezinbestean, elkarren kontrako gisa. Gertaera globalak indarrez sartzen dira, eta tokiko testuinguruetan baretzen edo indartzen dira. Euskal lurraldeak ahaldu egin behar dira, globalarekin duten lotura egituratzeko. **Tokiko ahalduntzea fluxu globalean**
35. Toki bati berezitasuna ez datorkio bereizketatik, baizik eta aniztasuna sintetizatu duen moduagatik. Horrela, euskaltasuna unibertsaltasunaren beste adierazpen bat da. Hala ere, ezin da gutxietsi akulturazioak duen arriskua, testuinguru honetan kultura eta hizkuntza merkatuaren logikaren baitan uzten baitira. **Kultura globalizazioan**
36. Funtsezkoa da norbere identitatea indartzea, gero eta elkarreragileagoa den nazioarteko ingurunearekin (gero eta elkarreragileagoa da globalki nahiz bizitzako alderdi guztietan) harremanak izateko. Lurralde-errealitate jakinek - kultura, osagai sozio-ekonomikoak, gizarte-berdintasun eredua, gizon eta emakumeen parekidetasuna, balioak, etab.- gero eta balio handiagoa dute, irekiagoa eta elkarreragileagoa den nazioarteko ingurunean. **Berezitasun kulturalaren balioa**
37. Mundua aberatsagoa izango da, baldin eta identitate propioak sortzeko konpromiso sendoa duten esparru geografiko ugari baditu. Identitate horiek ongizatea sortuko dute beren herritarrentzat eta munduarekin harremanetan jarriko dituzte komunitate birtual eta fisiko anitzen bidez, beste errealitate batzuekin etengabeko elkarrizketa sortuz.
38. Hori horrela, lurralde-ikuspegi komunitarioak aparteko oinarria ezartzen du elkarreragiteko gaitasuna emateko, lotura komunitario bat, gure gaitasunak indartzeko eta beste errealitate batzuekiko harremanetarako mekanismoak eskaintzeko. Euskal lurraldeek baliatu egin dute bidegurutze geopolitiko gisa duten kokapena. **Lurraldearen ikuspegi komunitarioa**
39. Kolektibo baten egitura kulturalak azaldu dezake herritarrek erakundeekiko duten atxikimendua, haietara jotzen baitute menderatze-egoerak saihesteko; hala ere, haren lurralde-esparrua antzina baino aldakorragoa da eta dimentsio anitzagoak ditu, eta haren nazio-erreferenteak askotarikoak izan daitezke. Euskarak alde horretatik badu erreferente propio eta singularra eraikitzeo eginkizuna, gutxietsi ezin duguna. **Lurraldearen ikuspegi instituzionala**
40. Komunitatea jada ezin da ulertu soilik harremanen tokiko egitura gisa. Bizitza sare anitzek osatzen dute, eta horietako bakar bat ere ez da eskusiboa. Euskal espazioa harremanen bidez eraiki da historikoki, eta haren malgutasunak konpromiso irekiagoak ahalbidetzen ditu. **Lurraldearen harreman gaitasuna**
41. Globalizazio-eredu hegemonikoak eskualdeak eta tokiko lurraldea behar ditu **Lurralde-adimenak**

metaketa gauzatzeko, ia beti demokratizazioaren kaltetan. Benetako lurralde adimendunek gizarte-kohesioa eta ongizatea sor dezaten, lurralde ahaldunduak bihurtu behar dira. Ongizatea funtsezkoa da lurralde-adimenerako. Adimena eta ahalduntzea sinonimoak izan daitezke gure lurraldeetan.

42. Hiriak eta eskualdeak bat etortzeak espazio trinkoak sortzen ditu, eta horiek toki egoki gisa har eta kudea daitezke, borondate politiko demokratikoa, lehiakortasuna eta ongizate kolektiboa sortzeko.
43. Irizpen-tartea³ edo subsidiarotasuna mekanismoak (mekanismo horiek daude estatuen eta estatu horiek partaide diren nazioz gaindiko erakundeen arteko harremanen esparruan) erabilgarriak izan daitezke lurraldeen eta espazio globalaren edo lurraldez gaindikoaren arteko tirabira horiek konpontzeko.
44. Erronka globalak -klima-aldaketa, gerrak, migrazioak, sexu-genero gatazkak, merkataritza, baliabide mugatuak eta biodibertsitatearen galtzea- gobernu guztiei, planetako biztanle guztiei dagozkien gaiak direla ulertzen da. Kosmopolitizazioak azkar aldatzen ditu erronka horiek aurrez aurre dituzten balio-sistemak eta lurraldeari eragiten dio, gizarte-mugimenduak eta tokiko eragile politikoak dinamika globalekin lotuz. **Erronka globalak**
45. Arrazoi politiko zein ekonomikoengatik indartzen ari diren migrazio prozesuek aukerak eta erronkak sortzen dituzte aldi berean. Gai honen inguruko erabaki politikoak hartzeko gaitasunak garrantzia berezia hartuko du datozen urteetan. Gure lurraldeetan balio abegikorak dira nagusi baina kudeaketa desegokia egingo balitz, litekeena da jarrera baztertzaila edo xenofoboak errotzea. **Migrazioaren inguruko erabakitze gaitasuna**
46. Identitatea baliabide erabakigarria da lurraldeen estrategietan. Funtsezkoa da norbere identitatea indartzea, aniztasunak (sexu-genero sistemak ezarritako bikoitasunaren gainetik, besteak beste), gizakiak ahalduntzen dituelako, erronka komunei erantzuteko gaitasun handiagoa eskainiz. Jakin behar dugu testuinguru horretan zein den euskal lurraldeen egoera. **Lurralde nortasunaren balioa**

02.1.3. Gobernantza globalizazioan

47. Estatuak da, botere tekniko-administratiboa duen autoritate gisa ulertuta, globalizazio-prozesua ezartzen eta antolatzen duen eragile nagusia. Estatuak egun dituen esku-hartze anitzak zabal daitezke, joera demokratizatzaileak eta/edo pribatizatzaileak indartzeko edo mugatzeko. **Estatu globalizazioan**

³Irizpen tartea kontzeptua, Estatuaren autoritate subiranoei eta nazioarteko epaileei oinarrizko eskubideen aplikaziorako eta interpretaziorako uzten zaien eremu ireki gisa definitu daiteke.

48. Lankidetzara irekita egoteak, beste pertsona eta lurralde batzuekiko elkarreraginak, indartu egiten du errotzea. Irekitzeak espezifikotasuna suntsitu ez dezan, elkarreragina errazteko gobernantza-ereduak egituratu beharko dira, baina komunitatearen barne-dinamismoarekin bat etorritik.
49. Eraldaketa-mugimendu globalekin etengabe elkarreraginean egoteko ahalegina erronka bat da, lurralde fisikoaren kudeaketa eta gobernantzarako eta haien politikak eta programak ezartzeko.
50. Tokiko (estatu gabeko nazioen) demokratizazio-prozesuek botere teknikoak-administratiboak dituzten espazioak sortu dituzte. Horrek espazio horiei gaitasuna ematen die gai publikoak eta erronka globalak kudeatzen parte hartzeko.
51. Lurraldeen berregituraketa ez da soilik kapitalaren eta informazioaren nazioarteko fluxuaren baitakoa; tokiko eragile, eragile sozial, sindikal, politiko eta ekonomikoaren baitakoa ere bada, prozesu hori babestu edo oztopa baitezakete. Euskal lurraldeen konfigurazioa erabakigarria izan daiteke, baina eragilerik garrantzitsuenak identifikatu behar dira eta behar adinako gaitasun ekonomiko eta politikoa eskuratu.
52. Eragile ekonomikoak testuinguru jakinetan kokatzen dira, baldintza politiko, instituzional eta kultural batzuetan jarduten dute, eta ezin dira haietatik bereizi. Ez-parekotasuna enpirikoa da, eta haren ondorioa, desberdintasuna, gaitasuna edo bidegabekeria izan daiteke, kudeatzen den moduaren arabera.
53. Desberdindu egin behar ditugu, batetik informazioaren gizartearen lurraldetasuna (uniformetasunerako joera du), eta bestetik ezagutzaren gizartearen heterogeneotasuna (elkarreragiteko mekanismo desberdinak egituratzen ditu parte hartzen duten pertsonen eta kolektiboaren artean).
54. Informazioa botere-taldeek eta eraginik handiena duten estatuak zehazten dute, eta berehalako erreakzioak eragiten ditu; horiek tokiko komunitatearen sendotasuna alda dezakete. Gure erronka da, hain zuzen ere, eraldaketa horiekiko irekita egotea neurri batean, baina gure hurbileko ingurunearen errealitatearen araberrako erantzuna emanez.
55. Ekonomia sortzaileak edo ezagutzaren ekonomiak lurraldea erreferentzi izatea eskatzen du, eta espazio egokiak aukeratzen ditu sareko harremana, trukea eta berrikuntza gauzatzeko. Lurraldeak esanahia hartzen du truke horiek errazteko, eta horrela garapena eta gizarte-berdintasuna eragiteko. Ezagutzaren benetako banaketa boterearen banaketarekin lotuta dago.
56. Ezagutzaren ekonomian lankidetzarako ekosistema propioak sortzeko gai izan behar dugu; ekosistema horiek lurralde-oinarria izango dira, banakoek,

Gobernantza
egokitzapena

Tokiko gobernuen
ahalduntzea

Tokiko eragileen
garrantzia

Eragile ekonomikoak

Ezagutzaren gizartea

Informazioaren gizartea

Ezagutzaren ekonomia

kolektiboek eta komunitateak gaitasun handiagoa izan dezaten arrakastarekin garatzeko eta modu globalean txertatzeko. Lurralde batek duen berrikuntzarako gaitasunaren oinarria osatzen dute bertan dagoen ezagutza esplizitua antolatzeak eta sare globaletatik eskuratzen diren informazioek.

57. Espazioa, lurraldea eta gizarte-espazioak iragazkor bihurtu dira, eta input gehiago dagoenez kudeaketa politiko bertikala zailagoa da. Hori horrela, lankidetzarako beharra sortu da. Demokraziaren kratos-a jada ez da lurralde bateko erakundeetara mugatzen: horiek beste lurralde batzuetako erakundeekin (eta eragileekin, ez nahitaez eragile instituzionalekin) duten elkarreragina ere hartzen du. Demos-ak ez dira jada monolitikoak eta hierarkikoak, baizik eta anitzak eta heterarkikoak. **Lankidetzarako ekosistemak**
58. Beraz, komunitate bateko kideen definizioa kasu bakoitzean erabakitzen den gai politikoaren arabera da. Oreka bat bilatzen da lurralde-autonomiaren eta lurraldean oinarritzen ez den autonomiaren artean (lurraldea partekatzen duten erakunderik gabeko komunitateentzat edo erakunderik partekatzen ez duten eta lurraldea banatuta duten komunitateentzat). **Kidetzak anitzak**
59. Maila askotako gobernantza (gaur egun ulertzen den moduan) ez da bateragarria demokratizazioarekin, nazioarteko eragile indartsuenen eraginez (potentzia handiak eta korporazio transnazionalak). Komunitateek, demos-ek, balioa ematen diote beren autogobernuari eta beste lurralde-eragile batzuekin harremanak izateko modua eta harreman horien norainokoa erabakitzeko gaitasuna aldarrikatzen dute. **Gobernantzaren erronkak**
60. Mundu berri honen gobernantzan giza-garapen iraunkorra lortze aldera, lankidetzak eta aliantza ekosistemak sortu beharko dira. Harremanak izateko identitate propioa indartu beharko da eta berdintasun handiagoa duten espazioak sortu beharko dira. Lurralde irekiak antzematen dira, pertsonak, oinarritzko komunitateak eta kolektiboen arteko lotura egituratuak. Horiek, berriz, komunitate birtual eta fisiko zabalagoekin lotzen dira. **Lankidetzak ekosistemak**
61. Espazioaren dentsitatea ez da gizartearen dentsitatearen baliokidea. Gertutasunak ez dakar, automatikoki, tokiko sare sendoak ezartzea. Hau izango da etorkizuneko erronketako bat lurralde fisikoen gobernantzan: behar bezala kudeatzea kanpokotasun politiko eta ekonomikoak, bai positiboak bai negatiboak, ezagunak nahiz ezezagunak. **Kanpokotasunen tokiko kudeaketa**
62. Lankidetzako balioen inguruan nolabaiteko adostasuna ikusten da erakundeen, enpresen eta gizartearen arloan. Euskal lurraldeetan badaude balio horiek, baina oraindik indar gutxi dute. **Lankidetzak aukera gisa**
63. Mundu globalean gobernatzeko, ezinbestekoa da gure erakundeek egiten duten ekarpena demokrazian sakontzearen, lankidetzak-balioen eta auto-kudeaketaren

arlotan. Horri dagokionez, euskal lurralde-egitura aukera handia eskaintzen duen erreferentea da.

02.1.4. Munduko egoera

64. Lurraldeen arteko lankidetzan oinarritzen den mundu komunitarioa gatazkan dagomundu "globalizatu" eta "interkonektatuarekin". Gatazka geopolitiko hori oso dinamikoa eta aldakorra den nazioarteko testuinguruan gertatzen da. **Auzi geopolitikoak**
65. Gaur egun aldeaniztasunerako joera antzematen da. Badirudi onartzen ari garela egungo munduak gune anitzak dituela, eta hainbat eragile kontuan izan behar direla erabaki eta akordio nagusietan. Badirudi EEBB eta Txina gainerakoak baino maila bat gorago daudela, baina ezin dira ahaztu Europar Batasuna, Errusia, India, Brasil, Turkia edo Iran, besteak beste. Hainbat dimentsio daude, eta eragile bakoitzak garrantzi handiagoa du gai batzuetan besteetan baino. Eragile berriak ere sortzen ari dira. **Eragile geostrategikoak**
66. Ardatz geostrategiko garrantzitsuak Pazifikorantz doazela ikusten da, eta, beraz, Atlantikoko espazioa, eta, ondorioz, euskal lurraldeak, periferian geratzen ari dira. Desbideraketa hori ez da derrigorrez negatiboa, gatazka-gune nagusietatik kanpo geratzen garelako. Hala ere, badago arrisku bat: gizarte zaharkitu eta baztertu batek giza garapenaren maila egokia sustatzeko beharrezkoa den indarrak ez izatea. **Ardatz geostrategikoen aldaketa**
67. Estatu guztiek, boteretsuenak barne, banaka hartuta ez dute beharrezko dimentsiorik edo baliabiderik gainerako eragileei beren baldintzak ezartzeko, bereziki nazioz haraindiko eragile ekonomikoei. Subiranotasuna ez da jada izan zena: ez da behin eta berriro esaten den esaldia bakarrik, egiaztaturiko errealitatea da. **Burujabetza ezbaian**
68. Hori horrela, testuinguruaren azterketa honetan ezin dira kanpoan geratu beste eragile batzuk, alegia, korporazio handiak. Haien eragin ekonomikoa eta politikoa etengabe hazi da azken hamarkadetan. Eredua eraldatu egin da, kapitalismo korporatibo globala indartze aldera. **Korporazio handiak**
69. Kontuan izan beharrezkoa da eredu berri honen helburua egitura oligopolikoak finkatzea dela, korporazio handiek mozkin-marjina handiak izan ditzaten. Kapitala gero eta kontzentratuagoa egoteak erabakitzeko prozesuaren kontzentrazioa dakar. Merkatu askeari buruzko akordio handiek -behar adinako eztabaida publikorik ez dutenek-, joera horiek indartzen dituzte. **Erabakien kontzentrazioa**
70. Finantza-arloko krisiak ezbaian jarri du globalizazio ekonomikoaren eraginkortasuna. Hori agerian geratzen da, kontuan hartzen badugu prozesu horrek herrialde batzuen eta besteen artean egitura-arloko desoreka larriak sortu **Finantza krisiaren ondorioak**

dituela, eta, bereziki, kontuan hartzen badugu finantza-sistemaren eraginkortasun falta eta kontrolik eza, giza garapen iraunkorraren kaltetan.

71. Ondorioz, gero eta desberdintasun handiagoa sortu da, eta desberdintasun hori etengabe zabaltzen ari da orain arte aberatsak eta aurreratuak irizten ziren gizarteetara. Horren eraginez sistemak orokorrean zilegitasuna galdu du herrialde askotan, eta, bereziki, mendebaldeko gizarteetan. Era berean, lehen periferiak zirenetan gero eta botere gehiago biltzen den gunek sortzen ari dira, eta, bitartean, lehengo erdiguneetan barneko periferiak eta gero eta pobrezia-gune gehiago sortzen ari dira.
72. Eraldaketa horren ondorioz, estatuak ez dute ahalmenik, nazioarteko akordio, itun eta arau mordoak mugatu egiten baitu haien ekintzarako tartea oso alderdi garrantzitsuetan, adibidez, aurrekontuen arloan edo politika ekonomiko eta sozialetan eta moneta-politiketan. Hala ere, egoera horretara ez ginatekeen iritsiko estatuen baimenik gabe, eta horrek esan nahi du estatuak ez dutela galdu beren botere guztia, arau hauek ulertu eta garatzea oraindik ere estatuen esku dagoela neurri handi batean, eta, baldintza jakin batzuetan, neurri asko berrikusteko aukera egongo litzatekela.
73. Era batera edo bestera, oraindik ere beharrezkoa da erakunde publikoen partaidetza aktiboa, estatukoena eta nazioartekoena. Askotan errepikatzen denaren kontra, bizi dugun garaian ez dago arauketa-eza, bir-arauketa baizik. Azken hamarkadetako historian, estatuak atzera egin du pixkanaka arlo batzuetan, baina nabarmen aurrera beste batzuetan, gizarte-sektoreen artean helburuak, lehentasunak eta aberastasunaren transferentziak bideratuz.
74. Estatuak botere publikoaren gune bati eusten dio: hori erabakigarria da gizarte globalizatuen kudeaketarako eta berreskuratze egin behar da, alegia, beste erakunde ez-publiko batzuei eman dien autonomiaren zati bat itzuli behar zaio.
75. Kasu askotan, Konstituzioaren aldaketa ari da gertatzen de facto, eta aldaketa horren eskutik estatuaren barne botere banaketa berrantolatzen ari da, beti ere, ikuspegi zentralizatzaile batetik.
76. Testuinguru honetan, ez dirudi arazo oso konplexuen irtenbidea soluzio sinpleak ematea edo aspaldiko estatu-nazioa berreskuratzea denik. Estatuak besterik gabe birzentralizatzeak, berez, ez du lagunduko erakunde publikoei zilegitasuna ematen. Egungo erronkei modu eraginkorrean aurre egiteko, estatuak barnetik eraldatuta egon behar du -egungo baldintzetara egokitzeko-, eta nazioz gaindikoa eta nazioarteko egiturekin lankidetzan estuan eta haiei lotuta.
77. Horren guztiaren ondorioz, euskal lurraldeei dagokienez, beharrezkoa da koordinatu egokietan aurre egitea estatutasunaren abantailei buruzko

Estatuaren ezina eta gaitasuna

Estatuen garrantzia

Zentralitatea

Estatuaren eguneratzea

Euskal estatua hizpide

eztabaidari.

02.1.5. Europako egoera

78. Europar Batasuna hausnarketa unean dago. Etorkizuneko eszenatokiak lantzen ari dira orain -Europako liburu zuria, horren lekuko-, eta euskal lurraldeen kokapenaren inguruko eztabaidak arreta berezia eskaini beharko lioke gai honi, ahal den neurrian bertako eta hango hausnarketan arteko elkar elikatzea bermatuz. **Europako etorkizuna**
79. Europako proiektuaren etorkizuna kolokan dago; horren ondorioz, zalantzan dago proiektu horrek ba ote duen gaitasunik bakea, oinarritzko giza eskubideak eta herritarren ongizatea bermatzeko. Europar Batasuneko egiturak eraginkorrak izan beharko dira, eta gainditu egin beharko da "gero eta integrazio handiagoa eta kosta ahala kosta" pentsamenduaren garaia. Arreta berezia jarriko zaio nazioarteko politikan eta defentsan ahots propioa izateko beharrari.
80. Europar Batasuna ez da soilik bere estatu kideen batuketa. Gai batzuei dagokienez batuketa baino askoz gehiago da, eta beste batzuei dagokienez, berriz, askoz gutxiago. EBk ez ditu estatuak erabat ordezkatzeko. Alemaniak, Erresuma Batuak edo Frantziak zeresana dute gai batzuetan; beste batzuetan, aldiz, ez dira iraganean bezain eragile garrantzitsuak. Hala ere, Europaren esparruan estatuen subiranotasuna indartzeko joera antzematen da. **Estatuen Europa**
81. Europako esparruan lurraldeen botere politikoa barnetik berrantolatuz eta gobernantza demokratikoa indartuz sendotu daiteke Batasunaren proiektua. Inork ez daki oraindik ere Europar Batasunaren rol berri hori egungo estatu-nazioak indartuz finkatuko den ala ez. Eta, kasu horretan, zein izan behar ote den komunitate historiko txikien estrategia agertoki politiko konplexu batean.
82. Europar Batasunaren egituraketa garatuz joan liteke, eta kultura anitzen arteko truke gehiago dauden espazio bihurtu, giza garapena sendotzeko; horrela, bere jardueraren gune den merkatu-kategoriatik aldentzeko litzateke eta espazio bat sortuko luke, bere lurralde eta kolektibo desberdinak sortzeko eta haien arteko lankidetzarako eta espazio globalarekin erlazionatzeko. **Lankidetzaren Europa**
83. Euskal lurraldeen testuingurua Europa da, eta bereziki Europa mendebaldea. Bereizketa garrantzitsua da, antzinako eta duela gutxiko historiagatik eta integrazio-prozesuari dagokionez estatu batzuen eta besteen arteko desberdintasunengatik. Europako integrazioa dago euskal lurraldetasunari buruzko eztabaida estrategiko honen erdian, hori baita gure erreferentzia-esparru geoekonomikoa, geopolitikoa eta balioena. Dena den, kontzeptualki Europa eta Europar Batasuna bereiztea komeni da, euskal lurraldeen kokapenari begira. Zentzu honetan, gertutik jarraitu beharko da Europako erakundeen **Euskal lurraldeak Europa**

bilakaera eta, ahal bada, bilakaera horretan eragin.

84. Hala eta guztiz ere, euskal autogobernuari eta aldaketa-proposamenei buruzko eztabaidek ez dute behar beste islatu, duela gutxi arte behintzat, errealitate hori. Egungo esparru politikoak ez du barneratu Europako integrazioak esan nahi duena, eta ez du hausnartu sakon eta publikoki horrek euskal gizartean duen eraginari buruz. Labur esanda, Frantziako errepublika eta Espainiako erresuma zubi kultura eta zubi administrazioak bihurtu dira Europarekiko harremanean. **Europaren eraginak**
85. Agertoki berri honetan modu estrategikoan kokatu behar dugu: gure lurraldeen beharrak zehaztu behar ditugu eta horiek asetzeko beharrezko arkitektura eraiki behar dugu. Euskal lurraldeak berriro kokatze horretan hainbat eragilek parte hartu behar dute: unibertsitate-sistemak, gizarte zibilak, enpresek, sindikatuek eta kultura- eta asoziazio-sare osoak. Ekintza bateratu horri esker gure lurraldeen kohesioa erraztuko litzateke, eta aniztasuna hobeto kudeatzeko aukera egongo litzateke. **Kokapen partekatua
Europar**

02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan

02.2.1. Euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna

86. Euskal lurraldeen antolaketa politiko-instituzionalari buruzko hausnarketak kontuan izan behar ditu testuinguru orokorra eta lurralde-garapen propiorako gaitasun endogenoa. Modernizazio-prozesua bizkortzeak eragina du lurraldearen, botere politikoaren eta herritarren eskubideen arteko antolaketan. **Erabakitzeko baldintzak**
87. Herritarren “erabakiaren desjabetzea” ari da gertatzen, eta hori gauzatzen dute kontrol demokratikoaren baitan ez dauden eragile globalek. Horregatik, berriro agertu da subiranotasunari buruzko eztabaida, hau da, botere publikoen eta herritarren erabakitzeko gaitasunari buruzkoa, komunitate politikoaren ugalketa eta giza garapen iraunkorrabermentzeko. **Erabakiaren desjabetza**
88. Demokrazian sakontzeko prozesuari kalte egiten dio balio indibidualistak gailentzeak, eta, beraz, modu globalean nahiz tokian gertatzen diren desdemokratizazio-prozesuak kezagarriak dira: gizarte-desberdintasuna, erabaki lotesleen inguruan herritarrek duten kontrol txikia eta bermeak murriztea arbitrarotasunaren aurrean. Ziurtasunik eza eta zalantza bizitzako esparru guztietara zabaltzen dira. Demokraziako askatasunaren balioak benetako jokabideekin bateratzeko beharra ikusten da. **Demokratizazioaren
erronka**
89. Aldi berean, “botere-guneak” identifikatzeko beharra azpimarratzen da. Lekutu, adierazi egin beharko lirateke erabakiak hartzen dituzten benetako guneak, **Erabakitzeko gaitasunen
mapa**

arroz-arlo. Lurraldean eragina duten eragile estrategikoak ez dira askotan ezagunak eta gardentasun eza horrek defizit demokratikoa dakar. Erabakitzeko gaitasunen mapa bat osatzea komenigarria litzateke.

90. Nagusi den globalizazioaren irakurketa hedatuenaren esanetara dagoen nazio-erakuntzaren ereduak, kosmopolitismo kulturala eta estatu-nazionalismo hutsala (banal nationalism) bateratzen ditu. Zaila da eredu horrek komunitate politiko konplexuen kohesioa eta bizikidetzaren iraunkorraren garapena bermatzea. Horri gehitu behar diogu, gainera, ziurtasunik ezaren eta bizitzaren kontrol-galeraren sententzia: guztiaren ondorioz, irtenbide ideologiko-politiko berriak plazaratzen ari dira. **Kohesioa eta bizikidetzaren ezbaia**
91. Subiranotasuna eta bizitzaren segurtasuna berreskuratzeko proposatzen den modu bat (batzuetan nagusi den ereduaren nahitaezko osagai gisa ulertzen dena) protekzionismoan, estatu-nazionalismo xenofoboan eta komunitatea ixtean oinarritzen da. Erantzun ideologiko hori ari da mendebaldeko estatu askoren politika publikoak gidatzen. **Irtenbide desegokiak**
92. Dena dela, estatu eta nazioen eraikuntzaren eta eraikuntza demokratikoaren prozesuek nahiz subiranotasuna berreskuratzeko logika berriak dituzte beste leku batzuetan. Logika horien oinarria lurraldeko gobernantza demokratizatzea eta herritarren ahalduztea da. Hori guztia giza garapenaren ikuspegi holistikoarekin eta eskubide eta askatasunen ikuspegi irekiarekin lotuta dago. **Irtenbide egokia**
93. Euskal lurraldeek horrelako eredu bat defenda dezakete, eta horrela "salbuespen eredugarria" bihurtuko lirake, justizia sozialari, multikulturalismoari, lehiakortasun ereduari, eta demokratizazioari dagokienez. Bere balio komunitarioetan eta eskala geografiko/biztanleen eskala egoki batean oinarrituriko ereduak. **Euskal lurraldeen irtenbidea**
94. Esparru honetan, "erabakitzeko eskubidea" paradigma politiko berri gisa proposatzen da. Paradigma horrek esan nahi du autodeterminazio-eskubidea egokitu egin behar dela erakunde propioak dituzten testuinguru demokratikoetara; erakunde horiek komunitatearen borondate demokratikoa adierazi eta kudeatzeko gaitasuna izango dute. Hori horrela, subiranotasunari eta gehiengo demokratikoak neurtzen diren eskalei buruzko eztabaidetan, zilegitasun demokratikoa neurtzeko funtsezko irizpidea herritarren erabakia, banakoen eta herrien determinazio askea da. Beti ere, bide baketsuetatik bideratuta. **Erabakitzeko eskubidea**
95. Aldi berean, ulertzen da globalizazioaren erronkei behar bezala erantzuteko lurralde sendoak behar direla, gobernantzako sare trinkoak eta parte-hartzaileak dituztenak, erabakitzeko eta politikak ezartzeko gaitasun handia dutenak. Erakundeek garrantzia hartzen dute berriro eta egokitu egiten dira, bitartekaritza politikoa aldaketan eta krisian dagoen testuinguruan. Lurralde eta erakunde **Erakundeen garrantzia**

eskala bakoitzaren ardurak eta erabakitzeko gaitasunak zehazteko beharra sumatzen da, herritarrak jakin dezan zertaz erabakitzen duen nork, zer eskatu nori.

96. Partekaturiko kultura bat oinarri hartuta lurralde batean memoria kolektiboa eraikitzea topagune bat da, partaide izatearen sentimendua finkatu eta komunitate politiko dinamiko bati eusten diona. Giza eskubideetan oinarritutako kultura partekatu batek konfiantza- eta segurtasun-espazioak sortzen ditu, eta horiek berrikuntza-prozesuak eta arriskuak hartzea errazten dute, gure garaiko erronkei eta zalantzei aurre egiteko. **Kultura partekatua**
97. Beharrezkoa izango litzateke gure ongizate-estandarrak bermatzen dituzten osagai kritikoak identifikatzea eta diskurtso propio bat egitea, hain aurreratuak ez dauden espazio politikoekiko mimetikoa edo konparaziozko ez dena. **Berezko ongizatea**
98. Nagusitasuna hartzen du komunitate batek duen gaitasun politikoak, bere erabaki publikoen arabera denboran eta espazioan barrena ugaltzeko. Komunitate politikoaren birsortze demokratikoari dagokionez, bereziki garrantzitsua da esparru sozio-ekonomikoan erabakitzeko gaitasuna, bai eta kulturaren, hizkuntzaren eta hezkuntzaren esparruetan ere. **Erabakitzeko gaitasuna**
99. Hala ere, garapen globalarekin bat etorritik, euskal lurraldeen etorkizunari buruzko erabaki garrantzitsuenak herritarrengandik gero eta urrutiago daude. **Erabakien urruntzea**
100. Gure kasuan, estaturik gabeko beste nazio batzuen kasuan bezala, egoera are larriagoa da, logika globalizatzaileaz gain autogobernua ahultzen duten beste alderdi batzuk ere badaudelako. Era berean, ezin da ahaztu estatu-nazioak zentralizazio-prozesuan murgilduta daudela; globalizazioaren biktima eta sustatzaile dira, aldi berean. **Erabakitzeko gaitasuna higitu**
101. Europako eraikuntza-prozesuak estatuz azpiko erakundearen erabakitzeko gaitasuna aldatu egin du, eta joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan diseinatu ziren eskumenak banatzeko ereduak ezin izan dute saihestu euskal lurraldeetako autogobernuaren zuzeneko gainbehera. Gaur egun ez dago haren gaitasunak babesteko berme-mekanismo eraginkorrik. **Berme falta**
102. Euskal Zuzenbidearen lehentasunari buruzko printzipioa (gure lurraldeetan tradizio handia duena) egungo euskal araubide juridikoaren zati da bere eskumen eskusiboaren esparruan. Hala ere, printzipio hori urratzen ari da Estatuaren egungo bir-zentralizazio-prozesuaren barnean. **Euskal Zuzenbidearen lehentasuna**
103. Euskal komunitatearen gaitasun juridiko-politikoak murrizte horren ondorioz, ahuldu egin da haren monopolio-maila, ez bakarrik zuzenbidearen, autoritatearen eta bere lurraldearen arloan, baita errealitate politikoak sortu eta birsortzearen arloan ere. Modu horretan, oztopoak jartzen dira erakundeek beren **Demokratizazioaren ahuleziak**

komunitateak adierazitako eskaerak betetzeko, eta, ondorioz, demokratizazio-prozesua gerarazi egiten da.

104. Autogobernuaren egungo esperientziak agerian jartzen du botere judizial propio bat eduki eta garatu beharra dagoela, aipaturiko demokratizazio-prozesu horren zerbitzura. **Berezko botere judizialaren beharra**
105. Penintsulako euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna estuki lotuta dago ekonomia-itunaren sistemak bermatzen duen zerga-autonomiari. Sistema hori salbuespenezkoa da Espainian eta Europan, eta desagertzeko arriskua alboratu ezin bada ere, aukera gisa ulertu daiteke, zerga-autonomiaren kudeaketan eredu berritzailea bihurtu daitekeelako lurralde-eskala handiagotan. Alabaina, itunak ez du eskaintzen gaur egun garai bateko autonomia politika publikoak garatzeko orduan. Krisiaren aitzakian eta Europatik datozen mugen eskutik, Hegoaldeko euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna arlo horretan murriztuz joan da azken urteotan. **Finantza-autonomiaren higatzea**
106. Ondorioz, beren estatu-matrizeetan egokitzapen bila zebiltzan estaturik gabeko nazio asko erabateko estatu-subiranotasuna eskatzen ari da, beren erabakitzeko gaitasunaren berme gisa. Eta testuinguru historiko honetan ideia batek indarra hartzen du, alegia, borondate kolektiboa (hainbat modutara demokratikoki adierazten dena) dela gakoa lurraldeko botere politikoa edozein modutara osatzeko. Agertoki honetan nagusitasuna hartzen du subiranotasunaren gaiak, baita ondoren hori konpartitzeko izan daitezkeen moduek ere. **Erabakitzeko gaitasunaren bermea**
107. Gobernantza-sareak ez dira neutralak botereari dagokionez, eta ez dute desagertarazten demokratizazioan aurrera egiteko lurraldeek eta komunitateek duten erabakitzeko gaitasunaren garrantzia. Hori horrela, "estatu" egiturak gobernantza-sareak ezartzen ditu eta erabakitzeko esparru demokratiko garrantzitsua bermatzen. Gure lurraldeek erreferentzia historiko garrantzitsu bat badute, Nafarroaren estatutasun historikoa. **Estatuaren garrantzia**

02.2.2. Euskal lurraldeen harremanak instantzia politiko zabalagoekin

108. Goragoko erakundeen -estatuaren eta nazioarteko komunitatearen- borondatea osatzerakoan euskal lurraldeen partaidetzari buruz hausnarketa egitean, kontuan hartu beharko litzateke partaidetza hori zer baldintza zehatzetan gertatzen den, batez ere lurralde horiei eragiten dieten erabakiak hartzean. **Erabaki-eremuetan partaidetza**
109. Gaur egungo mapan oinarrituta, lehenengo maila euskal lurraldeek Espainiako eta Frantziako estatuaren erakunde zentralen erabakietan parte hartzeari buruzkoa izango litzateke. Gaur egungo partaidetza-mekanismoek ez dute bermatzen lurralde hauen identitate politiko nazionala eta nekez harreman **Estatuaren eragina euskal lurraldeen estatusean**

horiek nolakoak eta norainokoak izan behar duten erabakitze gaitasuna.

110. Espainiako lurralde-egituraketaren zilegitasun demokratikoa ezbaian dago. Jatorrizko gabezia hori agerian geratu zen kontzientzia nazional desberdina duten herrien subiranotasun-aldarrikapenen inguruko eztabaida konstituzionalean. Horregatik, gaurko Espainiako botere zentralak ez dute aitortzen Espainiar nazioak duenaz aparte borondate eratzailerik, bakarra eta zatiezina baita haien ikuspegitik. **Nazio-aniztasunaren ukazioa Espainian**
111. Gabezia horren ondorioz, Espainiako estatuak ezin izan dio orain arte Konstituzioaren erreforma sakonari ekin. Eta horren ondorioz, belaunaldi berrien itun konstituziogilea eguneratzea oztopatu da. **Espainiako Konstituzioaren balizko erreforma**
112. Espainiako estatu federalaren eredurantz joateko, borondate demokratiko eratzaillea eduki beharko lukete nazio-kontzientzia duten penintsulako komunitateek. Hori izango litzateke abiapuntua geroko balizko batasun baterako. **Eredu federalerako baldintzak Espainian**
113. Frantziako estatuak batasun-izaera du funtsean, eta horren ondorioz deszentralizazioa oso mugatua izan da. Eskualdeek ez dute autonomia legegile edo betearazlerik; estatuak zerga nazionaletatik dagokien zatia ematen die eta beren beharren arabera erabil eta bana dezakete. Eskualdeak, departamentuak, barrutiak eta udalak edo kantonamenduak komunitateen sentimendu historikoak itxuragabetzeko sortu ziren. **Frantziako lurralde antolaketa**
114. Hala ere, Errepublikan lurralde-deszentralizazioko eta demokrazia berritzeko prozesuak abiarazi dira, eta horren ondorioz zabalitzen ari da beren borondatez eraturiko lurralde-kolektibitateen partaidetzarako espazioa. Hori da, hain zuzen ere, IEH-HELEPen edo Korsikaren kasua. Hori horrela, prozesu horien ondorioz lurralde-erakunde horietako batzuek zuzeneko zilegitasun demokratikoa dute gaur egun. **Deszentralizazioa Frantzian**
115. Hori horrela, Espainia eta Frantziako estatuaren filosofia konsoziatiboaren ahuleziak indartu egiten du euskal lurraldeek estatu etako sistema politikoetan estatutu "berezia" izateko egiten duten eskakizun historikoa, egungo euskal lurraldeen instituzionalizatzea desberdina dela kontuan izanik: mankomunitatea kontinenteko lurraldeetan eta foru-komunitatea eta autonomia-erkidegoa penintsulakoetan. **Euskal lurraldeen estatus politikoa**
116. Foraltasun historikoak (gure lurraldeek partekatzen duten filosofia politikoa da) esparru demokratiko konsoziatibo bat eskain dezake, beste estatu batzuekin egitura (kon)federalaren bidez erlazionatzeko. Egituraketa horren oinarria izango litzateke harreman parekide eraginkorra (aeque principaliter), eskumenen marko propioa urratzen duten kanpoko erabakiei betoa jartzeko aukera (foru-baimena) **Foru-filosofia kontsoziatiboa**

eta barne-subsidiariorotasuna.

117. Penintsulako euskal lurraldeen nazioarteko harremanei dagokienez, estatuak bere esku hartzen du, nazioarteko erakundeetan zuzeneko ordezkariak eta euskal erakundeek ukatu egiten die gehienetan ordezkariak propioa izatea. **Nazioarteko harremanak**
118. Nazioarteko itunak egiteko orduan, euskal erakundeek ez dute behar bezala bermatuta negoziatuetan hitza izateko eta ekimen propioak edukitzeko aukera. Gaitasun hori hein batean aitortuta dagoen arren, mugak ditu, nazioarte mailako ordezkari bakarra Estatuak baita. **Nazioarteko eremuan erabakitze mugak**
119. Euskal lurraldeen kanpo-ekintza ere aitortuta dago beren eskumenen esparruan, baina muga batzuekin, adibidez, ez dezala kalte Estatuaren kanpo-politika eta ez diezaiola sortu betebehar edo erantzukizunik; azken urteotan, gainera, Estatuak Gobernuaren koordinazioaren baitan dago.
120. Euskal lurraldeek eta Europar Batasunari buruz funtsezko lau gai aipa daitezke: 1) Batasunaren egiturak eta honen oinarri diren estatuak baldintzatzen dute euskal erakundeek parte hartzea bertan. 2) Europar Batasunaren eskumen esparruak mugatu egiten du euskal erakundeek eskumen-esparrua 3) Estatuak Europako arauak Estatu barnera ekartzeak euskal erakundeek eskumenetan eskusartzea dakar askotan, eta horrek ezereztatu egiten du lurraldearen autogobernua. 4) Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde-barruti bakarra egoteak mugatu egiten du euskal lurraldeetako herritarren ordezkariak. **Europar Batasunean parte hartze mugak**
121. Beste kontu bat da, noski, nazioarteko harremanetan gertatzen den bezala, harreman informalak izateko aukera, "nazioarteko ondorioak dituzten harremanak" deituak, nazioartean garrantzia dutenak. **Nazioarteko harreman informalak**
122. Badago aukera Europar Batasuneko erabakitzeko-prozesuetan parte hartzeko, Europako eta estatuak barneko arauak mekanismo horiek aurreikusten dituzten heinean. Horien arabera, autonomia-erkidegoak, haien legebiltzarrek edo gobernuak parte hartzeko aukera izango lukete Europako erabakitzeko-prozesuetan (Europar Batasuneko Zuzenbidearen goranzko fasean) edo haren xedapenak betetzekoan (Europar Batasuneko Zuzenbidearen beheko fasean). Estatuak asko mugatzen eta baldintzatzen dute aukera hori. **Europar Batasunean parte-hartze aukerak**
123. Estatutasunari buruzko eztabaidari kalterik egin gabe, egungo esparru politikoa asko gara liteke, esperientzia konparatuari soil eginez eta borondate politikoa irmoa balego, bai Estatuena bai euskal lurraldeena. Besteak beste: subsidiariorotasuna kontzeptua garatu eta hori gauzatu; partaidetza eraginkorra Europako araudia sortzerakoan; zuzeneko partaidetza erabakitzeko-organokomunitarioetan, eta estatukoaz aparte hauteskunde-barruti propioa. Era berean, nazioarteko itunetan legearen aukera guztiak aztertzea.

124. Askotan ez zaie behar adinako etekina ateratzen Europako esparruak eskaintzen dituen aukerei, bereziki garapen-proiektu jakinei dagokienez. Gure esparruan lurraldeen arteko koordinazioa falta da, eta horrek areagotu egiten du arazoa. Informazio falta handia nabari da Europako esparruan lankidetzak dituen aukeren inguruan, eta beharrezkoa ikusten da informazio orokorra ematea lankidetzak hori gauzatuko litzatekeen esparruen inguruan, tresnak ikusgarri gera daitezkeen.
125. Euskal diasporak eskaintzen dituen aukerak ez dira behar adina balioztatzen. Behar bezalako etekina atera behar zaie konektibitate globalari eta lan diplomatiko bateratu eta koordinatua egiteko egungo aukerari.
126. Laburtuz, euskal lurraldeak egungo Konstituzio-esparruan egokitzeari dagokionez adostasun nahikorik ez dago, eta nazioarteko harremanen esparruan ordezkartza falta nabaria, hain zuzen ere globalki kokatzea bereziki garrantzitsua den testuinguru batean.

Europar Batasunaren aukerak eskuratzeko tresnak

Euskal komunitate globala

Euskal lurraldeen kokapena, Estatuetan eta nazioartean

02.2.3. Euskal gobernantza modernoaren garapena

127. Azken bi mendeetan barrena, euskal lurraldeen barnean prozesu desberdinak garatu dira estatu eta nazio-erakuntzaren eta erakuntza demokratikoaren arloan; historikoki, gobernantza-eredu desberdinek bideratu dituzte prozesu horiek.
128. "Euskal Herria, Euskadi eta Nafarroa edo Baskonia" deituriko lurralde-egituraketaren garapena ezegonkorra eta gorabeheratsua izan da. Azken mendeko gobernantza-ereduek merkatuak zehazturiko logika jarraitu dute batez ere. Erakundeen gobernantza erlatiboki ahula izan da, erreferentziazko estatuek euskal autogobernuari aitormen mugatua egin diotelako. Azkenik, eta ezinbestean horri kontra eginez, gizarte zibilaren ekimen autonomoan oinarrituriko gobernantza oso esanguratsua izan da, eta kapital sozial indartsua sortu du gure lurraldeetan.
129. Hori horrela, erakundeen eta herritarren erresilientzia izan da gobernantza-ereduaren garapena zehaztu duen alderdietako bat Euskal Herriko lurraldeetan, eta eredu horren ezaugarria da identitate berezitu sendoa izatea.
130. Lurraldeen banaketa instituzionala da gure lurraldeen egungo gobernantza-ereduaren beste ezaugarri bat. Banaketa hori gure herriak duen aniztasunaren adierazpen instituzionala da, baina, aldi berean, ikuspegi, ebaluazio eta ekimen estrategiko partekaturako mekanismoak egituratzeko beharra nabari da.
131. XX. mende amaieratik aurrera, lidergo instituzionalaren gobernantza indartu da, bereziki penintsulako euskal lurraldeetan. Kontinenteko lurraldeetan, berriz,

Euskal gobernantza

Euskal erresilientzia

Estrategiak partekatzea

Gobernantza eredu desberdinak

gizarte zibilak sustaturiko gobernantza gailendu da.

132. Eragile sozio-ekonomikoen partaidetzak gobernantza publiko-pribatuaren sare oso garrantzitsuak sortu ditu, eta horrek ekonomiaren hazkundera eta industria-ehunaren garapena bideratu ditu. **Gobernantza publiko-pribatua**
133. Gobernantza publiko-herritarra edo herritarren-gobernantza funtsezkoa izan da demokratizazio-prozesuan (berdintasunaren areagotzea eta esparru publikoaren kontrola) eta herritarren eskariak sisteman barneratzerakoan. Gobernantza publikoa edo herri-gobernantza bat etorri izan da, normalean, arautu gabeko prozedura gatazkatsuekin. Esparru honetako jardunbide arautuek ez dute indarririk oraindik, baina, arlo batzuetan (euskararen normalizazioa, gizarte-ekonomia, hezkuntza...) gero eta garrantzi handiagoa du hirugarren sektoreak erakunde publikoekin duen lankidetzak. **Herritarren gobernantza**
134. Herri ekimenak geroz eta zilegitasun handiago lortzen hari dira udaletxe, gobernu zein europar batzordeekiko. Batik bat, herri desberdinetako udaletxeek zein Europako Hiriek, kooperatibekin akordioak hitzartzeko orduan, Europar Batasunak energia politiketarako ebatzitako aholkuak jarraitzen dituzte.
135. Teknokraziak eta merkatuak gidaturiko gobernantzaren nagusitasun erabatekoak eztabaida publikoa mugatzen dute; horien aurrean, tresna demokratikoen eskaera bat dago, euskal lurraldeetan lortu nahi den garapen-eredua eztabaidatu, adostu eta erabakitzeke. **Garapen ereduaren eztabaida publikoa**
136. Kultura organizatiboan nagusitu egiten dira maiz logika hierarkiko, zentralista eta klientelarrak. Gure gizartean kultura parte-hartzailea indartzeko, erakunde eta eragileen kultura aldatu behar da, baita lurraldearen ikuspegiari dagokionez ere. **Kultura organizatibo berria**
137. Kontinenteko euskal lurraldeek lurraldeko gobernantza-sistema propio bati buruz duten esperientzia erreferentzia izaten ari da lurralde garapen eredu gisa. Sistema hori horizontala da nagusiki, eta Garapen Kontseiluaren eta Hautetsien Kontseiluaren inguruan egituratzen da. Jardunbide egokia da, hain zuzen ere, lurraldeen artean eragileen arteko elkarrizketa sustatzen duelako eta ekintza publikoaren erdigunean jartzen duelako lurraldearen kohesioa eta oreka nahiz komunitate guztiaren onura sustatzen dituen lurralde-garapena. **Gobernantza horizontala**
138. Herritarrek parte hartzeko tresnak tokiko esparruan onartzen dira nagusiki, eta, oraingoz, mugatuak dira. "Demokrazia mediatikoa" indartzen ari da, teknologia berriek berehalakotasuna eskaintzen dute eta bitartekaritzarako ohiko egiturak (alderdiak, sindikatuak, komunikazio-enpresak...) krisian daude; horren guztiaren ondorioz, demokrazia parte-hartzaile eta zuzenekoaren tresnak behar dira, adibidez herritarrei galdetzea eta erreferenduma, besteak beste. **Kultura parte-hartzailea**

139. Espazio publikoan parte hartzea ez dago bermatuta modu bidezkoan kolektibo eta toki sozial guztientzat. Generoarekin, hizkuntzarekin, jatorriarekin, adinarekin eta lurralde-espazio periferiko jakin batzuekin loturiko gabezia demokratikoak nabarmenak dira. Gobernantza eredu orok eskklusioa mota bat edo beste eragiten du, botere harremanetatik at geratzen diren ideiak, gizarte eremuak, pertsonak... Horiek guztiak kontuan hartzeko begirada moldatu beharko da.
140. Gazteek parte hartze politikorako dituzten bideak urriak dira. Haien kezka, hausnarketa eta interesak instituzionalki ordezkatzeko modu zehatzik ez dago, politikan eragiteko gaitasuna erabat mugatzen zaielarik; are gehiago instituzionalki ahulak diren lurraldeetan. Beharrezkoa litzateke, politika publikoak erabakitzeke prozesuak formalki elikatzen dituzten gazte foro berezituak sortzea, batez ere gazteei eragiten dieten gaietan.

02.2.4. Euskal lurraldeen egituraketa eta kohesioa

141. Egungo gizarte modernoaren egitura eta praktika historiaren ondorioa da. Arauek, neurri handi batean, gizartean jada dagoena jasotzen dute, eta soilik neurri batean bihurtzen dira egoera politikoa egituratzeko tresna. Horregatik, sakonean dauden historiaren interpretazioek baldintzatu egin ditzakete estrategia politikoak. **Historia ulertzeko moduen eragina**
142. Aurrekari historikoen ikuspegitik, Baskoniarentzat estatus politiko berezitua defenda daiteke erreinu gisa ikusiz (egoera hori Gaztelako Koroak Nafarroa konkistatu ondoren galdu zuen, 1512an) edo ulertuz euskal lurraldeen autonomia foru-araubidearen ondoriozkoa dela, hain zuzen ere konkista haren ondorioz eratu zen Lurralde Historikoen foru-araubidearen ondoriozkoa. Gizarteko parte batek eskatzen du araubidearen zilegitasuna irakurketa historikoetatik bereiztea eta horren ordez gaurko estatusaren zilegitasun demokratikoa autonomia estatuaren erreferendumean eta aldiroko hauteskundeetan jartzen du. **Estatus politikoaren zilegitasunaren oinarria**
143. Aurrekari horiek ahaztu gabe, euskal lurraldeen autogobernu modernoa printzipio demokratikoan oinarritzen da, hau da, lurralde horietako herritarren borondate demokratikoan. **Estatus politikoaren zilegitasun demokratikoa**
144. Lurraldeen eta beraietako herritarren borondateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanak autonomia-erkidegoen hitzarmenak deiturikoen bidez egituratu behar dira gaur egun. Hitzarmen horiek Estatuaren baimenaren baitan daude. **Egituratzeko partekatuaren mugak**
145. Lurraldetasunaren printzipio irekia eta kontsoziatiboa euskal tradizio eratzailan finkatuta dauden printzipioak dira. Penintsularen esparruan, zenbait autonomia-estatutuk aurreikusten dute harreman historiko, kultural edo linguistikoa izan **Egituratzeko partekatua**

duten lurraldeak bateratzea. Printzipio honek egituraketa partekatua aurreikusten du, lurralde horietako herritarrek demokratikoki hori eskatzen badute. Testuinguru honetan, gure lurraldeen artean joera zentripetoak indartzen ari dira.

146. Gazteei dagokienez, Iparralde eta Hegoaldearen arte harremanak ahuldu direla esan daiteke. Aurreko hamarkadetan indartsuak ziren konexio eta mobilizatorako ardatz tranbertsalak -batez ere euskararen ingurukoak- galdu egin dira bizipen, hizkuntza zein erreferentzia kultural dibergenteen aurrean; elkar ezagutza gutxiagotu egin delarik.
147. 1978ko Espainiako Konstituzioaren IV. xedapen iragankorrak jasotzen du Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Autonomia Erkidegoarekin bat egiteko aukera. Gai horrek eztabaida politikoa eragiten duen arren, aukera eskaintzen du euskal herritarren borondate demokratikoan oinarritzen den lurralde-egituraketa egiteko.
148. Foru-printzipioaren barne-alderdiak ahalbidetzen du federalismoan eta subsidiariotasunaren printzipioan oinarrituriko egituratzea lurralde historikoen artean. Eredu horrek adostasunezko mekanismoei emango die lehentasuna erabakitze-prozesuetan, tresna bertikalak erabili aurretik. Euskal eredu (kon)federalak tradizio handia du, eta etorkizunean kohesioa gauzatzeko alderdi nagusietako bat da. **Federalismo printzipioa**
149. Ez dago egitura juridiko-politiko espezifikorik kontinenteko eta penintsulako euskal lurraldeak egituratzeko, Europako eta estatuetako ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen lankidetzaz-espazioak salbu. Une honetan, espazio horiek lurralde zabalagoak ere hartzen dituzte beren baitan. **Egituratze partekatua**
150. Esparru mugatuagoan, mugaz haraindiko lankidetzaz funtsezko alderdia izan daiteke arlo honetan. Lankidetzaz hori Europako Kontseiluaren edo Europar Batasunaren babesean izan daiteke. Kontuan izaten badugu nazioz haraindiko lankidetzaz buruzko hitzarmena duela ia berrogei urte sinatu zela, oso aurrerapen gutxi egin da arlo honetan. **Mugaz haraindiko lankidetzaz**
151. Mugaz haraindiko lankidetzazarako tresnen artean, badira gobernantza horizontalaren ereduak; horietan egituratzen dira eta burutzen dute lankidetzaz lurralde osoko eragile instituzional, sozial, ekonomiko eta kulturelek. Euskal lurraldeen kohesiorako "mugaz haraindiko lankidetzazaren" filosofia indartzea interesgarria gerta daiteke, orain arteko begirada nahiko kamutsa baita, lurralde eremu, gai eta erakunde jakin batzuetara mugatuta.
152. Ikuspegi politiko batetik, bereziki garrantzitsua izan daiteke euskal erakundeak, egituratzeko aukeraz baliatzea, izaera juridiko propioa hartuz, ordenamendu juridiko komunitarioan subjektu politiko izateko. Hau da, izaera juridiko-publiko **Erakundetzaz partekatua**

propioa duen erakunde bat eratzeko aukera izatea, Europar Batasunak aitortua eta Euskal Herriko zazpi lurraldeek osatua, eta erakunde hori Europar Batasunaren zuzeneko solaskidea izatea gai jakin batzuetan.

153. Akitania-Euskadi-Nafarroa Europako eskualdeak lurralde-ikuspegi estrategiko bat garatzeko aukera eskaintzen du, nahiz eta eskumeneren arteko asimetriak eta lurraldeko gobernantza horretan parte hartzen duten eragile kopuru mugatuak oztopatu egin dezaketen proiektu partekatuak kudeatzea. Edonola ere, lan handia egin beharko da euskal espazioa elikatu eta trinkotzeko, bere-berea duena -euskal lankidetzak-, ez galtzeko, lurralde eremu zabalagoan murgilduta baitago. **Euroeskualdea**
154. Zailtasun horiek gainditzeko lagundu dezake maila askoko gobernantza-sistema batek. Bertan parte hartuko lukete euskal lurraldeetako erakunde-maila guztiek eta, era berean, partaidetza publiko-pribatua eta herritarra sustatuko luke. **Gobernantza kultura partekatua**
155. Lurralde bakoitzak duen barneko boterea modu zentralizatuan edo deszentralizatuan gauza daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Lurralde Historikoen garrantzi handia dute finantza, politika eta administrazioaren arloan. Ikuspegi ekonomikotik, haiek kudeatzen dituztelako Itun Ekonomikoa eta finantza-iturriak. Ikuspegi politikotik, eskumen propioak dituztelako, batzuetan Autonomia Erkidegoak dituen eskumenerekin bat datozenak. Eskumeneri buruzko barne-eztabaida hori eztabaidagai izan da duela gutxi historian.
156. Era berean, irekita dago barne-deszentralizazioari eta toki, eskualde eta udalen esparruan boterea banatzeari buruzko eztabaida. Eskumenak berregituratzeko eztabaida irekia dago; egituraketa horrek subsidiarotasunaren printzipioa izango luke oinarri eta behar adinako baliabideak izatea bermatuko luke lurralde-eskala bakoitzean, eskumen-gaitasunaren arabera. Hori dagokionez, garrantzia hartzen du eskualde mailak. Kontinenteko eta penintsulako euskal lurraldeetako tokiko erakundeen artean desberdintasunak daude eskumeneren arloan, eta horrek zaildu egiten du ekintza partekaturako espazioak sortzea. **Eskumenak berrantolatzea**
157. Bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, alegia, zer garrantzi izan dezaketen lankidetzarako tresna bigunek (soft). Horietan ez dira egituratzen ohiko harreman politikoak, egitura politiko formalak eraikitzean oinarritzen direnak. Tresna horiek, esaterako, Lurralde Antolaketa arauetan aurreikusi izan direnak izan daitezke: esku-hartze publiko eta/edo pribaturako diagnostiko bateratuak egitea, funts ekonomiko bateratuak eratzeko eta egun dauden edo sortu behar diren esku hartzeko beste modu batzuk. **Lankidetzak tresna bigunak**
158. Hori horrela, tokiko erakundeen arteko lankidetzari mesede egiten dioten eragile instituzionalak egotea interesgarria deritzogu. Adibidez, EUDEL edo Udalbiltza. Aintzat hartu behar dugu, ordea, lurraldeen edo hauen baitako **Lankidetzak sustatzaileak**

organizazioen artean lehia egoerak eta ondorioz etenak sor daitezkeela. Lankidetzak berariazko etika bat ere behar du.

02.2.5. Euskal lurraldeen arteko desoreka historikoak

159. Euskal lurraldeak barne hartzen dituzten estatu-nazioen -Espainia eta Frantziaren- lurralde-egituraketa prozesuetan logika bertikal eta zentripetoak nagusitu izan dira. **Lurralde-egituraketa eredia**
160. Giza garapena arriskuan jarri da, desegokia den kategoria-ordena baten ondorioz: batasuna, lurraldetasuna, lurraldea, lurra (espazio fisiko gisa), eta, azkenik, herritarrak. Zenbaitetan, Lurralde-antolamendu horren ondorioz, "lurra" sakrifikatu egin da, sistemaren iraunkortasuna eta bizi-kalitatea arriskuan jarritz. Lurralde-plangintzan eta hark izan ditzakeen egituraketetan, herritarren partaidetza ez da nahikoa izan. **Garapen ereduaren krisia**
161. Egoera hori okerragotu egin da, euskal lurraldeek eskumen mugatuak izan dituztelako esparru honetan. Ondorioz, euskal lurraldeak barne hartzen dituzten estatu-nazioen eraikuntza-prozesuek desorekak eta lurralde-bazterketak eragin dituzte. **Lurralde-gaitasun gabezia**
162. Euskal gizartearen barnean tirabira egon izan da, eredu jakobino-demokratikoa jarraitzearen edo barne-joera federalizatzaileei (eredu anglosaxoi-liberala) lehentasuna ematearen artean. Hori horrela, kasu askotan, "Euskal Herriko lurralde-osotasunaren" gaia euskal lurraldeetako herritarren borondatearen aurretik jartzeak eragin ahal izan du lurralde-desegituraketan. Hala ere, gaur egun badaude baldintzak filosofia (kon)federal historikoa indartzeko. **Egituraketa mota ezbaian**
163. Gizarte-kohesioa ez dago soilik aberastasuna sortzearen baitan, baizik eta aberastasuna sortu eta lurraldean birbanatzearen baitan. Gizarte-kohesioa egoteko lurralde-kohesioa egon behar da. Beraz, demokrazia egoteko lurralde-kohesioa egon behar da. Ongizatea lurralde-mailakoa da. **Lurralde ongizatea**
164. Hala ere, zenbait joera sozio-ekonomikoek mehatxu egiten diete oso orekatuak diren logika federalei eta nukleo anitzekoei -garraio-ardatzak, hirigintza, demografia, hiriak indartzea, industrializazioa ahultzea...-, eta arriskuan jartzen dute lurraldearen barne-kohesioa. **Kohesio orekatua**
165. Bereziki larria da euskal lurraldeetako esparru akademikoen eta hezkuntza-esparruen arteko lotura falta. **Hezkuntza kohesioa**

02.2.6. Euskal lurralde-ardatzak eta sinergiak

166. Euskal lurraldetasuna zera da, tresna egokiak izatea lurraldeen arteko elkarrezagutza sustatu eta egungo edo etorkizuneko sinergia ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoak indartzeko. Modu horretan, lurraldeen arteko harremanak sendotuko dira, eta harreman horiei esker lurralde-garapen orekatua sustatuko da, herritarren ongizatea bermatzen duena. **Lurraldetasuna**
167. Testuinguru globala ezegonkorra da, eta horregatik guztiok batera jarri behar diogu arreta Euskal Herriaren (eta batzuetan haren inguruko hinterland-aren) egituraketa eta kohesioari buruzko funtsezko erabakiei. **Kohesioa**
168. Euskal lurraldeetan bat datozen ardatzak asko dira, bai kulturalak, sinbolikoak edo sozio-ekonomikoak. Ardatz horiek elkarrekin gurutzatu egin dira historikoki, eta sareko espazioak (sendotasun desberdinekoak) sortu dituzte. Gure gizarteen dinamismoak erraztu egin du guztion intereseko espazioak sortzea, banaketa instituzionalaz haratago. Horregatik, erakunde mailan sortuko diren sinergietatik haratago, gizarte zibilean dauden edo sortu daitezken ekimen partekatua dira (enpresa mailan, kirolean, kulturean...) euskal lurraldeen arteko kohesioaren giltzarriak. **Lurralde ardatzak eta sareak**
169. Euskal kultura eta euskara kohesio-osagai nabarmenak dira, gure lurraldeen barnean elkarrekin batera bizi diren hainbat identitatek (banakoek eta kolektiboek) partekatzen dituzten erreferentziak direlako. **Kohesio elementuak**
170. Euskal lurraldeetan oinarritu diren egitura politikoek ez dute erraztu sare horien garapena, edo sare horiek sendotzeko tresnak falta izan dituzte. **Kohesio-sareak**
171. Europako esparruak, kontinenteko lurraldeen instituzionalizatzek eta penintsulako lurraldeetan oztopo politiko batzuk hausteak erraztu egin dezakete etorkizunean euskal lurraldeen egituraketa eta kohesioa. **Kohesiorako aukerak**
172. Giza garapenari loturiko ikuspegi globalek, behetik gora (bottom-up) berrantolatzen dituzte lehen aipaturiko lehentasunak, zilegitasun demokratikoa eta iraunkortasuna helburu izanik. Hori horrela, lehentasuna izango lukete herritarrek eta lurrak, eta gero etorriko lirakeke lurraldea eta haren egituraketa; soilik azkenean etorriko lirakeke egituratze juridiko eta lurraldekoa gauzatzeko balizko prozesu demokratikoak. **Behetik gorako kohesioa**
173. Gobernantza horizontala gure ardatz historikoetan oinarritzen da eta ardatz horiek sendotzea du helburu. Gobernantza eredu horrek laguntzen du garapen-eskala eta justizia-komunitate egokiak lortzen. Horretarako beharrezko tresnak dira interes anitzak barneratzeko elkarrizketa, negoziazioa eta lankidetzaren funtzionala. **Gobernantza horizontala**

174. Nazioarteko testuinguruan gertatzen ari diren aldaketa ugariak direla eta, gure lurraldeen suspertze ekonomiko eta soziala gure ekintzen endogeneizazio erlatiboaren menpe dago. Bereziki, elikadura, osasun publikoa, etxebizitza, bizimodu lokalak edota klima bezalako oinarritzko ekintzak.
175. Aipatu endogeneizazioa, batez ere mugaz gaindiko gure eremuetan garrantzitsua da. Hainbat arazo gertuko espazio ireki hauetan soilik landu bait daitezke.
176. Euskal Lurraldeen kohesioan eta elkarkidetzan lagunduko duen organo baten sorreraz hausnartu beharra dago, "Euskal Herriko Garapen Kontseilu" gisa arituko litzatekeen organoaz, alegia. **Kohesiorako tresna berriak**

03 / EUSKAL HERRIKO LURRALDEEN JENDEAK: GIZARTEA ETA KULTURA

03.1. Gure jendeak

177. Lurraldea ez da ezer norbaitek zapaltzen ez badu, norbaiten begiek ikusi eta zedarritzen ez badute, norbaiten hitzek izendatzen, norbaitek abegitzat jotzen, norbaitek kontatzen, marrazten, kantatzen... Norbaitek aldarazten ez badu. Lurraldea ez da ezer bertan gurutzatzen diren gorputzik gabe. Jenderik gabe. Bizi praktikarik gabe. Bizitzarik gabe. Edo, beste era batera esanda, lurraldea bertan gurutzatzen den jendeek, hots, gorputzek, egiten duten hura da, bizi praktiken elkarrekintza. Gorputzen eta bizi praktiken elkargunea eta gurutzaketa da bizi dugun lurraldea. Eta lurralde honen gainean dabilzan gorputz guztiak, lurralde honen gaineko bizi praktika guztien egileak, gure jendeak. **Lurraldea: bizi praktiken elkargunea**
178. Era berean, ez da izenik gabeko jenderik. Ez da hizkuntzarik edo kulturarik ez duen gorputzik, eta ni eta bestearen, gu eta besteen artean nolabaiteko bereizketarik egiten ez duen bizi praktikarik. Zentzu bat behar du jendeak, identifikazio sinboliko bat, eta identitatea da zentzu horren iturria. Identitatea kultura -zentzu zabalean ulertuta- ezaugarri bat edo multzo bat aintzat hartuta zentzua eraikitzen duen prozesua da, autodefinizio prozesu bat. Autodefinizio horretan identitate ugari elkar litezke, bai norbanako batean, bai kolektibo batean. Eta, hain zuzen ere, aniztasun hori tentsio eta kontraesan iturri izan ohi da maiz. Identitatearen eraikuntza horretan adar ugari elkar lotzen dira: besteak beste, iragana, memoria kolektiboa, lurraldea, botere harremanak, erakundeak, alderdi biologikoa, sinesmenak, fantasia. Jendeak eta kolektiboek barneratu eta, aldi berean, berrantolatu egiten dituzte osagai horiek guztiak, edo horietako batzuk, eraikitzen duten identitatean. Espazio-denbora koordinatuek baldintzatutako prozesu etengabe batean. **Identifikazioa eta autodefinizioa**
179. Edonola ere, gaur egungo gizarteetan, muga politikoek ondo zedarritutako lurraldeetan bizi da jendea, ez errekek, edo mendiek, edo kulturek zehaztutako lurraldeetan. Nazio-Estatu deritzonak zehazten du lurralde hori guztiz modu arbitrarioan. Nazio-Estatu horren barnean bizi garenok herritarrak gara. Nazio-Estatu bateko herritar izateak dakar, berarekin, eskubide eta betebeharrak multzo bat. Zenbat eta demokratikoagoa izan antolaketa politikoa, are eta zehaztuago, garatuago, sakonago izango dira betebeharrak eta eskubide multzo horiek, sare konplexua osatzen baitute. Hala, erakunde andana arduratzen da gizarte demokratikoetan eskubide eta betebeharrak horien gauzatzeaz. Nor da herritar eta zertan datza herritartasuna? Batzuetan erlijioa, kultura edo hizkuntza, beste batzuetan, jatorri geografikoa... hainbat izaten dira oztopotzat edota ezinbesteko baldintzatutako herritar estatusa lortzeko jotzen diren ezaugarriak. Herrialde garatuetako herritartasuna lortzea pribilegioa baita, eztabaida sutsuak **Herritartasuna**

ikus ditzakegu herritartasuna ondo zehazte aldera.

180. Jende, gorputz eta bizi praktika horien gurutzaketa bizikidetza eratzailea da, baina, aldi berean, gatazka iturri. Tentsio horretan bilakatzen dira jendeen arteko harremanak, loturak, komunitatea, kohesioa; estutzen edo lausotzen. Denbora eta lekuaren arabera aldaerak izanagatik, tentsio horrek baditu konstanteak diren baldintza batzuk, jendeen arteko ondasun eta botere banaketan gertatzen den desberdinkeria eragile nagusi direnak eta zuzenean identitatearen adarkatze desberdinei dagozkienak. Hau da, indarrean den sexu-genero sistemaren arabera gizon edo emakume izatea, ondasun material eta inmaterialen irispidean klase batekoa edo bestekoa, eta identitate kolektiboari dagokiola multzo batekoa zein bestekoa (arrazializazioz, jatorriz, hegemonikoa ez den herri identitatez...) dira pribilegiarako bezala menderakuntzarako baldintza nagusi horiek. **Harremanetan parekidetasunik ez**
181. Identitateari lotutako hiru baldintza horiek (eta beste batzuk) elkarrekin gurutzatzen dira eta elkarren indartzaile dira, bai pribilegioen areagotzean, bai menderakuntzen handitzean. Halaber, baldintza horietako bakoitzean marrazten den botere lerroan betetzen duen lekuaren arabera, pertsona bera, gorputz bera, izan daiteke bizi praktika eta egoera batzuetan pribilegiatua eta beste batzuetan menderatzailea. Boterea, horrenbestez, sare konplexua da. Feminismoak ekarritako begirada interseksional hau presente izatea inportantea da jendeen arteko harreman sareen nondik norakoa artez atzemateko eta tentsioaren balantza bizikidetzaren aldera lerratzeko. **Interseksionalitatea**

03.1.1. Aniztasuna

182. Askotarikoak gara lurralde honen gainean gabiltzan jendeak, anitzak. Aniztasun horrek badauzka, batetik, XXI. mende hasiera honetako Mendebalde guztiarekin partekatzen dituen ezaugarriak: hots, anitz egiten gaituzte sexu-genero sistemaren arabera identitateak, ondasun material zein immaterialen irispidearen arabera edo klaseak, eta jatorriaren zein begirada arrazializatzaileen arabera atxikitako nortasunak. Eta haien arteko ezinbesteko zein eteganbeko txirikordatzak. Eta, bestetik, aniztasunak gurean badu ezaugarri propioak: herri identitateari dagokiola identifikazio diferenteetako jendeak bizi gara, identitate kolektiboko baldintzei beste interseksio bat erantsiz. Aniztasun horiek denak, gainera, elkarrekin txirikordatzen dira. Horrenbestez, bizikidetza eta kohesioa indartzekotan ezinbestekoa da aniztasunaren aniztasun hori bere osotasunean aintzat hartu eta kudeatzea. **Aniztasuna eta identitatea**
183. Aniztasunen arteko bat dugu nazionala, beraz. Nazio identitatea eraikitzeko elementuak objektiboak eta subjektiboak izan daitezke. Lehenen artean aipatu ohi dira hizkuntza, erlijioa, etnia, historia, etab. Bigarrenak, berriz, nazioaren identifikazio subjektiboan datza, bai eguneroko sinboloetan islatuta, edo **Aniztasun nazionala**

konpromiso politiko batean. Denak erabiltzen dira, modu batean edo bestean, eta funtsezko elementu bihur daitezke identitate propioa eraikitze bidean. Euskal Herriari dagokionez, batzuen ustez, badira elementu komunak identitatea markatzeko: batez ere euskara, baina beste batzuk ere izan litezke: ekonomian auzolana; demokrazia ulertzeko modua, etab.

184. Lurraldeen ezaugarria aniztasun askotarikoa den bezala, lurralde gehientsuenak nazio identifikazioari dagokionez ere anitzak dira. Nazio aniztasun horrek, agerikoa denez, intentsitate edota esanahi politiko desberdina eskura dezake, eta eragin desberdina izan lurraldearen kohesioan. Euskal Herria ere ez da salbuespena horretan, eta euren burua nazio desberdinarekin –edo desberdinekin– identifikatzen duten herritarrak ditugu bertan. Hiru nazio identitate dira nagusiak, bakarrak ez izan arren, eta elkarren arteko gurutzaketak ere konplexuak dira batzuetan. **Aniztasun askotarikoa**
185. Aniztasuna, baina, ez da nazio edo kultura mailako identitatara mugatzen. Gizarteko gizabanako eta gizarte sektoreen arteko diferentziak botere harremanei loturik doaz; eta, zentzu horretan, zentralak gertatzen dira maila sozioekonomikoari edo klase sozialari loturikoa nahiz sexu-genero sistemaren arabera. Eremuok aniztasunarekin lotu ohi diren arloetan (jatorria, hizkuntza, nazio identitatea...) kontuan hartzea garrantzitsua gertatzen da. **Klase eta genero aniztasuna**
186. Lurralde faktoreak ere loturak izan ditzake herritarren identitateekin. Jatorri aniztasuna gure inguruko herrialdeetan agerikoa den bezala, gure lurraldearen ezaugarri garrantzitsuena ere bada. Migrazio prozesuez ari gara horrela; izan ere, XIX. mende amaieratik, immigrazio prozesu esanguratsuak bizi izan dira Euskal Herriko eskualde zenbaitetan. Prozesu horiek XX. mende amaieran lurralde osora zabaldu dira, eta migratzaileen jatorriak ugaritu egin dira aldi berean. Prozesu horiek guztiek balorazio desberdinak eragin dituzte Euskal Herrian, arloaren arabera, baikorrak batzuk eta ezkorragoak besteak. Baina, oro har, Euskal Herria egun den moduan ulertzeko migrazioek ekarritako aniztasuna ere kontuan hartu beharrekoa dela azpimarratu behar da. **Jatorri aniztasuna**
187. Jatorriari loturiko aniztasuna kultura-aniztasunarekin lotzen da maiz. Dena den, aniztasun kulturala ezin da migrazioekin soilik lotu, gizarte oro berez kulturaren arloan ere anitza baita. Hala ere, gizarteko kultura desberdintasunak kohesioa eta aniztasuna aitortzeko prozesuan nola kudeatu behar diren gai garrantzitsu bilakatzen da. Euskal Herrian arlo horretan hizkuntza aniztasunak hartzen du zentraltasuna, nagusiki euskarak lurralde honen kohesioan nahiz aniztasunaren kudeaketan izan beharreko paperaren inguruan. Kultura-aniztasunari buruzko eztabaidan ezinbestekoa da euskal hizkuntzak egiteko nabarmena izatea. **Kultur-aniztasuna**
188. Jatorriari loturiko aniztasuna kudeatzeko ereduak ugari dira, eta kontzeptuen nahiz ikuspegiaren ugaritasun horrek argitasun falta du ondorioztat. Oro har, migrazio eta kultura aniztasunari buruzko eredu itxirik ez dago nazioarte **Aniztasunaren kudeaketa**

mailan, eta Euskal Herrian eztabaida horrek badu bere isla. Gurean, erronka batzuk mahaigaineratzen dira, nazio identitate eta kultura adierazpen gutxituak izatearen eraginez, zeinetan botere harremanek ere eragiten baitute, ezinbestean. Aniztasunaren kudeaketa, beraz, lurraldearen eta jendeen kohesioaren bidean gai nabarmena bilakatzen da.

189. Neurri handi batean, hori izan liteke eskolaren buruhausteen jatorria: aniztasunaren dimentsio askotarikoei erantzun beharra. Desagertu egin da, desagertu ere, hezkuntzak tradizioz izan duen oinarritako bat: hurrek sozializazioaren lehen aroa familian egitea. Horrela, eskolaren esku geratu da, nolabait, gizabanakoaren oinarritzko nortasuna garatzeko erantzukizuna. Aurretik ez bezalako ardura du egun eskolak hurrei arreta pertsonalizatua eskaintzeko eta aniztasuna kudeatzeko. Baina, bestalde, jendartean ez dago adostasun handiegirik aniztasun horren aurrean eskolak sortu behar lituzkeen balioei dagokienez, eta balio horiek zehazteko moduari dagokionez.

Eskola eta aniztasunaren kudeaketa

03.1.2. Kohesio bidean

190. Deskribatu dugun gizarte aniztasunak Euskal Herrian biltzen diren egoera, baldintzapen eta helburu desberdinak erakutsi dizkigu. Baina helburu horien artean badira, era berean, joera bateratzailea dutenak. Izan ere, helburu komunak lortzeko, elkarren arteko indarrak biltzea ohikoa izan da gizarte guztietan, eta Euskal Herrian ere adibide bat baino gehiago aurki dezakegu, maila lokal edo sektorialetan.
191. Herri txiki batean, edo auzo batean, auzolan proposamen ugari egon daiteke, modu batean edo bestean denontzako onuragarria izango delako, edo gutxienez kaltegarria ez delako izango. Eta berdin beste maila batzuetan, helburu argia partekatzen denean: urbanismo gai bat, herri bateko bizikidetzeta, euskararen aldeko ekimen bat, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko kanpaina bat. Maila lokaletik gora egiten dugunean, ordea, zaildu egiten da kohesiorako proiektuak garatzea, baldintzak eta helburuak biderkatu egiten dira eta.
192. Izan ere, edozein gizartetan etengabeko gatazkak sortzen dira maila askotan. Saihestezinak direla esan dezakegu, baina ez horregatik halabeharrez kaltegarriak. Are gehiago, askok garrantzi handia ematen diote gatazkaren izaera eraikitzaileari, gizartean egon daitezkeen injustiziak agerian utzi, eta aldaketa positiborako bidea izan daitekeelako. Behin oztopoak gainditurik, ordea, badago aukerarik kohesiorako proiekturik garatzeko?
193. Ez da erraza denontzako onura ekar lezakeen proiekturik zehaztea, lehenik eta behin, onura, ongizatea, garapena, aurrerapena edo halako kontzeptuen inguruko adostasuna egon beharko litzateke eta. Herrialde mailan ari garela,

Aniztasuna eta kohesioa

Kohesioa maila lokalean

Gatazka ere eraikitzailea

Kohesioa herrialde mailan

beraz, herrialde horren onura edo ongizate abstraktuak bilatu behar dira, eta horretaz herrialdeko biztanleak konbentzitu behar dira. Herrialde mailatik begiratuta, kohesioa termino zabaletan kokatu behar da.

194. Gizarte demokratikoetan onartzen da gure gizartearen abiapuntua aniztasuna dela eta interes gatazkak daudela maila askotan, baina, hala ere, denen arteko kontsentsua bilatzen dela, herri modura aurrera egiteko. Herri gisa definitzea, eta biztanle guztien arteko nolabaiteko helburu komunak bila daitezkeela onartzea dira herrialde baten kohesiorako abiapuntua. **Kontsentsua: kohesiorako abiapuntua**
195. Herrialde bateko biztanleen helburu komun eta zabal horiek bideratzeko, ezinbestekoa da giro egokia sortzea, denen arteko indarrak batu eta aurrera egin ahal izateko. Biztanleen kohesio maila eta batera aritzeko desioa neurtzeko, gizarte kapitala kontzeptua darabilgu. Baina neurtze hutsaz gain, gizarte kapitala modu aktiboan ere uler daiteke. Kasu horretan, gizarte kapitalaren bidez, komunitate batek jakin nahi du zer egin behar duen eta zein balio bultzatu behar den kohesioa bilatzeko eta elkarren arteko konfiantza sendotzeko. **Gizarte kapitala: kontzeptua**
196. Balioei dagokienez, gure gizarte esperientzia antolatu eta egituratzen dute, eta zentzua ematen diote. Indibidualak eta kolektiboak bereizi ditzakegu. Lehenen arabera, norbanakoaren helburuak hobesten dira, norberaren autoerrealizazioaren bidean. Bigarrenen arabera, norbanakoa taldean integratzea bilatzen da, eta uste da taldearen helburuak zaintzea taldeko norbanako guztientzat onuragarria izango dela. Hortaz, gizarte kapitalak egokienak diren balioak aztertzen ditu, komunitate bateko elkarren arteko konfiantza sendotzeko. **Balioak eta kohesioa**
197. Izan ere, konfiantza ezinbesteko elementua da herri baten kohesiorako. Maila desberdinetan aztertu dezakegu: hurbileko sareei dagokiena (familia, lagunak), kanpoko taldeei begira, instituzioei begira, eta berrikuntzarako eragileei begira. Konfiantza funtsezkoa da gizartearen autorregulaziorako, elkarrekintzarako edo instituzioen jarduera egokirako. **Konfiantza eta kohesioa**
198. Aurreko guztia, ordea, testuinguru batean kokatu behar dugu, eta jakina da Mendebaldeko gizarte aurreratuetan prozesu garrantzitsuak gertatzen ari direla: globalizazioa, teknologia berrien garapena, migrazioak, sexu-genero identitateen azalaraztea, indibidualizazioa pentsaeran, edo kontsumo mentalitatea. Identitatea kulturari oso loturik zegoen orain arte, baina kontsumoari loturik ikusten dugu gero eta gehiago. **Testuinguru aldaketa**
199. Gure gizartea gero eta konplexuagoa da, eta horrek guztiak gizarte harremanetan ere eragiten du: komunitate zentzua aldatzen ari da, norbanakoaren eta komunitatearen arteko harremanak birdefinitzen ari dira, eta bestelako parte-hartze moldeak sortu behar dira orain. Eta hori dena ez da **Komunitatearen berdefinizioa**

gertatzen kontraesan eta tirabira puntu berririk gabe.

200. Aldaketok ondorio negatiboak eta positiboak eragin dituzte. Alde negatibotik, nabaria da elkarren arteko konfiantza maila jaitsi egin dela. Besteak beste, krisi ekonomikoak, langabeziak eta lanaren baldintza kaskarrek zapuzketa sentrazioa zabaldu dute, eta konfiantza galera ekarri gizartera. Baina alde positibotik, esan dezakegu, aurreko denboretan ez bezala, norbanakoaren eta taldearen interesak, bienak, zaindu nahi direla gaur: norbanakoa ez da desagertzen taldearen barruan, eta lan kolektiboak antzeko interesak dituzten herritarren ekimenez sortzen dira. **Aldaketen ondorioak**
201. Euskal Herrira etorrita, desberdintasun handiak aurkitzen ditugu maila guztietan. Maila pertsonalean, desberdintasun nabariak daude aukera, baliabide eta babes sistemetan, eta horiek gizartearen sektore zabalei eragiten diete. Baina badira, gainera, desberdintasun espazialak: landa eta hiriaren artean, edo metropoli eta periferiaren artean. **Desberdintasun pertsonal eta espazialak**
202. Aldaketa ziklo honek irakurketa desberdinak utzi ditu Euskal Herrian ere. Irakurketa ezkorrak gizarte kapitala birsortzeko gaitasun falta salatzen du, Hego Euskal Herrian batez ere. Inertzia zaharrek gehiegi loturik, bertako gizarte zibila ez omen dago sendoturik, eta ez dago prestatuta egoera berrian aritzeko. Herri proiektua falta da; herri gisa, nora joan nahi den zehaztea. Irakurketa baikorrak, aldiz, lankidetzak esparru berriak sortzen ari direla azpimarratzen du, maila lokalean gehienetan, baina baita eskala handiagoetan ere, Ipar Euskal Herrian bezala. **Aldaketen ondorioak Euskal Herrian**
203. Irakurketa horiez gain, badugu zerbait berezi egiten gaituena komunitate gisa? Zer balio partekatzen dugu Euskal Herrian halako proiektu baterako? Historiari so eginez, asko aipatzen dira berdintasuna, zintzotasuna, lankidetzak, lanerako gaitasuna edo elkartasuna. Horrez gain, herri sentimendu sendoa ere ba omen dugu, eta auto-eraketarako gaitasuna: munduko herri txikien artean hizkuntza propioa zabaltzen ari den bakarretakoak gara. Hala ere, horrela aritzeak topikoetan jausteko arriskua dakar. Zerbait gehiago beharko litzateke. **Balio partekatutak**
204. Beharko litzateke denontzako proiektu kolektiboa, maila sinbolikoa eta materiala bil litzakeena. Sinbolikoa, Euskal Herriko marko geografikoak nolabaiteko batasun eta komunitate sentimendua ematen digulako. Baina materiala ere, agerian geratu beharko litzatekeelako proiektu horrek nolabaiteko onura ekarriko diela denei, nahiz eta euren interesak oso bestelakoak izan beste maila batzuetan. Belaunaldi, egoera sozio-ekonomiko, jatorri, hizkuntza, erlijio edota genero desberdineko subjektu eta egoerak barne hartuko dituen egitasmoa eraiki behar da, dena begirada intersektional batetik eginda, askok diskriminazio mota bat baino gehiago jasaten dute eta. **Proiektu kolektiboa**
205. Instituzioen papera funtsezkoa litzateke halako nazio proiektu baterako, baina **Instituzioak eta nazio-**

egia da beti ez dutela konfiantza irudirik helarazten, besteak beste, haiek ere **proiektua** krisian daudelako, halabeharrezko birmoldaketan murgilduta. Egia da, bestalde, eremu publikoari gehiegi eskatzen zaiola batzuetan, baina haien babes eta bitartekaritza ezinbestekoa da. Kultura berria behar dugu, instituzioak eta herri mugimenduak batera ulertuko dituen, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, baina elkarren osagarri modura.

206. Argi dago zeregin horretan berebiziko papera jokatzeko duela hezkuntzak, baina **Hezkuntza kritikoa** bera ezin muga liteke belaunaldi gazteak kontzeptu jakin batzuetan murgiltzera eta konpetentzia tekniko jakin batzuetan prestatzera. Horrez gain, erantzukizun osoa eskolaren gain utzi nahi izan gabe, beren ingurunera egokitzeko, eta kritikoki pentsatzeko eta komunikatzeko gai diren pertsonak hezi behar lituzke. Eta egungo jendartean erantzukizunez jokatzeko gaitasuna eta kontzientzia landu: ekimena, jakin-mina eta sormena sustatuz, eta erabakiak hartzeko eta talde-lanerako gaitasuna bultzatuz. Belaunaldi gazteek komunitate-zentzua eta elkartasunerako gaitasuna izatea oso garrantzitsua litzateke etorkizuneko jendartearentzat. Kohesio bidean, ezinbesteko lana litzateke, aldi berean, heziketa hori guztia pedagogia hezkidetzagilearen bidez garatzea, eta klase sozialaren eta jatorriaren arabera bereizkeria sozialak belaunaldi gazteekin lantzea.

207. Horrez gain, iritzi konpartitua izan liteke beste honako hau ere: hots, hezkuntzak **Hezkuntza eta euskara** harremanetan jarri behar duela norbanakoa ingurunearekin, bere arbasoen kultura-ibilbide luzearekin, eta beste kultura-ondare batzuekin. Hezkuntzak norbanakoari bere garaiko jendartearekiko konexio egokia eskaini behar lioke baina, beti ere, saiatu gabe programatzen eta bere berezitasunak desagerrarazten. Hortaz, aniztasun horren mesedetan, Euskal Herriko hezkuntzaz ari garen neurrian, euskararen normalizazioa, euskara erabiltzeko gaitasuna eta motibazioa garatzea, litzateke gure eskolak eskuartean duen erronka garrantzitsuenetarikoa bat. Belaunaldi berriak euskalduntzeak esan nahi baitu, hizkuntza minorizatu baten jabe egitea eta hizkuntza-kultura horren ardurak bere gain hartzea. Ikasleek dakartzaten ama-hizkuntzak onartu, baloratu eta ezagutarazi egin behar lituzke eskolak, bertako hizkuntzak irakasten dituen aldi berean. Hizkuntza-kultura-aniztasunari erantzun positibo bat emateko gai den herriak, askoz ere hobeto heziko baititu etorkizuneko belaunaldiak, eta horrekin batera baita jendartea bera ere.

208. Hezkuntzaren bidez, instituzioen bermeaz, herri mugimenduen dinamismoz, **Konfiantza berreraiki: bilgune espazioak** eta euskal gizartearen onarpenaz, konfiantza loturak eraiki eta sendotu behar dira. Gizarte kapitala ondo aztertzeke, komunitatearen eta gizartearen arteko loturak nolakoak diren aztertu behar dugu, lehenengo; gatazkatsuek diren gaiak heldu behar zaie, ondoren; eta bilgune espazioak sortu, azkenik, herri gisa batu gaitzakeen motor izan dadin prozesu guztian.

03.2. Euskal Hedabideen Sistema eta Ingurune digitala

03.2.1. Euskal Hedabideen Sistema

209. Komunikabideek ez dute errealitatea islatzen soilik: errealitatea eraiki ere egiten dute. Herri bat zer den eta zer ez den esaten dute, 'gure' eta 'beste' zer diren definitzen dute. Nazioaren eguneroko bizipen zuzena oso mugatua dute nazio kideek: beste nazio kide gutxi batzuekiko harremana, espazio fisiko gutxi batzuen esperientzia zuzena, eta abar. Alabaina bitartekotutako komunikazioaren bidez, pertsonak nazio osoa esperimendatzen du: zehatzago nazio osoaren errepresentazioa du esperimendatzen: lurraldea irudikatzen duen eguraldi mapa, nazio horren ordezkari eta erakunde politikoen jarduna, gizarteko erreferenteen presentzia, edota jende soilak ordezkatzeko duen 'beste kidea'. Nazioak, neurri handi batean, komunikabideen bitartez bizi gaitu nazio kideok.
210. Nazioa bezala, jendarteak ere ekoizten dute komunikabideak. Haietan imajinatzen da komunitatea, bertan markatzen dira kanpoa eta barrua, araua eta bazterra, hegemonikoa eta subalternoa, ohikoa eta exotikoa. Alegia hor ere jokatzen da komunitatearen izaeraren eta gaitasunen irudikapena. Zer garen, nortzuk garen eta ba ote garen. Horregatik da garrantzitsua, gainontzeko eremu guztietan legez, hemen ere intersektionalitatearen kontzeptua aintzat hartzea: hau da gurutzatu adina elkartzen garen izate, identitate, praktika eta diskurtsoak harilkatzea, elkar jostea. Eta, beti, aliantzak indartzea eta menderakuntza mailak bereiztea bainoa, eta, horretarako, garrantzitsua da menperatuak diren paradigmatik aliantzak sortzea, benetan jendarte kohesionatu, anitz, demokratiko eta justiziazko bat eraiki nahi bada.
211. Komunikabideez ari garelarik, modu zabalean ulertu behar dugu termino hau. Batetik azken urteetako aldaketa garrantzitsuek euskarri eta aztura berriak ekarri dituzte. Medio tradizionalen gain medio eta rol berriak sortu dira, eta denak dira landu beharrekoak herri eraikuntzaren ikuspegitik. Produktuen eskaintza, igorle-hartzaile harremana, kontsumo esperientzia eta bizimoduarekin txirikordatzeko modua bera aldatu dira. Iraultza handi bat suertatu da. Bestetik komunikazioa ez baita mugatzen informazioaren arloa, berdina hartu behar dira errealitatearen eraikitzailetzat aisialdira zuzendutako zein fikziozko edukiak, jendarteak horrela ere eraikitzen baita, mendeetan zehar kondairekin eraiki den moduan.
212. Komunikabideak lanabes ezinbestekoak dira egungo munduan gutxitako hizkuntzen berreskurapen, sustapen eta normalizaziorako. Euskara izanik gure lurraldearen kohesio elementu funtsezkoetakoa eta, halaber, gutxitua egonik, komunikabide sistema oso eta lehiakorra ezinbestekoa du etorkizunean

Komunikabideak,
nazioaren ekoizle

Komunikabideak,
jendartearen ekoizle

Komunikazio modu
ezberdinak

Komunikabideak eta
euskara

bizitzeko.

213. Euskal Herria ez da, gaur gaurkoz, komunikaziozko herria. Masa komunikazio egitura sendoenak, alde handiarekin, Espainia edo Frantzia mailakoak dira. Eta horri komunikazioaren globalizazioak ekarritako uholdea gehitu behar zaio. Euskal Herriko komunikabideei dagokienez, gutxi dira Euskal Herriko zazpi herrialdeetara zabaltzen direnak edota Euskal Herria erreferente gisa dutenak; hortaz bertakoek islatzen duten irudia, orobat, zatiketa autonomikotik datorrena da, oso aukera gutxitan agertuz zazpi lurraldeetako errealitatea. Bestetik komunikabide hegemonikoetan birsortzen den errealitateak ez du benetan garena islatzen. Boterearen gainagerpena dago (izan politikoa, ekonomikoa, generokoa, kulturala, linguistikoa edo bestelakoa), eta jendartearen sektore askoren azpiagerpena. Merkatuaren gehiegizko presentzia du (publizitate zuzen eta zeharkakoaren bidez), eta kultur balio batzuen bazterketa, beste batzuen mesedetan.
214. Egoera hau ez da patua. Inguruan ditugun estatuak ondo asko arduratu dira beren komunikaziozko nazioa eta beren irudiko jendartea ekoizten; gurean, azken hamarkadetan tresna garrantzitsuak izan arren, egiteke geratu da zeregin hau. Saioak badira izan, gehienbat herri ekimenetik etorriak, gure kulturaren tradizioari jarraiki. Baina saio horiek ez dira nahikoak izan euskal komunikazio sistema propio eta sendo bat eraikitzeko.
215. Nazioa ez da behin lortu eta betirako daukazun titulua. Egunero-egunero elikatu behar da; berez, eta beste batzuek beren nazioa eta beren jendartea egunero elikatzen dituztelako. Eta komunikabideek berebiziko garrantzia dute hor, arestian zirriboratu ditugun arrazoiengatik. Horretarako nazioa eta jendartea eraikitzea zuzendutako komunikazio politika bat behar dugu. Politika orokorra izan beharko du, dimentsio guztiak barne hartzen dituena: hizkuntza (euskarako nazioa eta jendartea eraikitzeko duen potentzialtasuna baliatuz), maila (tokikoa, herrialdekoa, nazionala) medio mota (medio tradizionalak, medio berriak, zinema, publizitatea...), eta eragileak (herri ekimena, ekimen publikoa, ekimen pribatua). Adostasun handian oinarritua izan beharko du (politikoa zein soziala). Eta gogoeta sakonaren ostekoa baina aldi berean presazkoa, honez gero oso atzean geratzen ari baikara.

Komunikazioan menpeko

Komunikazio politikaren hutsuneak

Komunikazio sistemaren beharra

03.2.2. Ingurune digitala

216. Ingurune digitala, komunikabideak bezala tresna bat izateaz gain, komunikabideak ez bezala, habitatu daitekeen espazioa ere bada. XXI. mende hasieran lurraldea ez den espazio bat dugu. Leku geografikoak eragina duen arren, espazio horretako mugak ez dira geografikoak: estatuek, enpresek, herritarrek eta komunitateek ezartzen dituzte harreman sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoak, eta muga hauek ez dute lur-eremu bat banatzen. Finean,

Ingurune digitala: definizioa

ingurune digitala IKT, Internet eta inguratzen gaituzten baliabide digitalek (app-ak, online sare sozialak, plataformak, gauzen Internetak) osatzen duten ingurunea da. Makina bidezko pertsonen arteko, makina eta pertsonen arteko zein makinaren arteko harremanak kontutan hartzen dira. Hizkuntzak, euskarak, zentraltasuna dauka, harreman hauen erdigunean dagoelako.

217. Ingurune digitalean (hauek tresnaz gain, espazio gisa ulertuta), hedabide klasikoetan ez bezala, herritarrek aurrez-aurre egoteko espazio partekatua dute: herri bereko biztanleek bertan aurkitu, ezagutu, elkar ikusi, edo hitz egin dezakete. Euskal Herriaren kasuan, distantzia geografiko zein banaketa administratiboak gaudituz, euskal herritarrok biltzeko espazio partekatua daukagu. Egunkariak, Telebista eta Irratiaren haria jarraituz, historian zehar lehen aldiz, zazpi herrialdeetako eta Diasporako (zortzigarren lurraldea) herritarrok batzeko aukera daukagu.

Ingurune digitala espazio gisa

218. Honek ez du esan nahi Ingurune digitala espazio askea denik edota Estatuak eraginik ez dutenik. Globalizazioaren eta Internet beraren logikek eragina dute espazio horretan: enpresa pribatu zein Estatuak araututako espazioa da. Enpresa pribatu hauetan (Microsoft, Google, Facebook) gauzatzen dira harreman sozial eta politikoak. Estatu espainol eta frantsesak, euskal herritarren bizitza eragiten dute Interneten ere; espazio horretan nor izateko (euskara, euskal kultura, euskal identitatea eraikitzeko), eskumen politikoa behar da.

Ingurune digitala ez da espazio askea

219. Horregatik, ingurune digitalaren inguruko politika publikoak garatu behar dira Gobernuetatik eta horretarako beharrezkoa da Teknologia saila sortzea edota eskumen politikoa izango duen bestelako figura bat sortzea.

Ingurune digitala arautuko duen saila

Ingurune digitalaz hitz egitea, demokrazia, justizia-sozialaz, burujabetzaz, software libreaz eta askatasunaz hitz egitea da. Espazio horretan ematen den errealitate juridikoa, politikoa, ekonomikoa, kulturala kontutan hartu beharra dago: euskal identitatea-hizkuntza-kultura-lurraldearekin erabat lotuta dago. Ez dago lurraldetasunaz hitz egiterik ingurune digitala kontutan hartu gabe. Ingurune digitala ez da herritarren edo administrazioen gainetik dagoen "hodeia", herri baten egunerokotasuneko errealitatean arnasten den eta hau gurutzatzen duen atmosfera da. Ez da espazio isolatu bat.

Sail honek, gainera, Gobernuaren eta enpresa pribatuen arteko bitartekaritza lanak egingo lituzke. Maila politiko batetatik, beharrezkoa da herri ikuspegia izango duen figura bat sortzea ingurune digitala eta, beraz, herria eta herritarren bizitzak baldintzatzen dituzten enpresa pribatuekin batera erabakiak har ditzan.

220. Bide honetan, euskal unibertsitate onlinea sortzea eta bertan egin daitezkeen ikerketak pausu garrantzitsua izan daiteke. Egingarria da proposamen hau eta batez ere beharrezkoa. Catalayunako UOC eredu hurbila da: estaturik gabe, politika estatalak garatzeko aukera ematen duen Interneten inguruko institutua

Ingurune digitala ikertuko duen institutua

sortu zuen (IN3 izenekoa). Administrazio publikoaren laguntzarekin, unibertsitateek herriaren arazoak identifikatu eta konpontzen dituzte, Catalunya, Oxford edo Argentinako kasuetan bezala. Euskal Herriko kasuan, online unibertsitateak lurraldeen arteko kohesioan lagundu dezake EAE, Nafarroa eta Lapurdiko unibertsitateetako ikerlariak gai hauen inguruan elkar-lanean jarritz. Unibertsitate online honek ere hezkuntza izango luke ardatz eta horrela, eskola, institutu eta unibertsitateetan teknologiaren inguruko ikasketa eta heziketa sustatuko litzateke. Azpimarratzekoa da euskal unibertsitate onlinearen bidean UEUK egin duen eta egiten ari den lana.

221. Ingurune digitala territorio berria da, leku geografikoa eta ingurune digitalaren espazioaren arteko uztarketa kontutan hartzen duen hirugarren dimentsioa. Ingurune digitala ez bada espazio isolatua eta leku geografikoko errealitatea zeharkatzen badu, gizartea leku off-linean zein ingurune digitalean bizi da aldi berean. Batez ere, Antropologia eta Politika zientzietan erabilitako kontzeptu batek, territoria, ondo azaltzen du aurreko bien uztarketaren eremua.

Ingurune digitala
territorio gisa

222. Leku geografikoak, Ingurune digitalean ditugun harremanak baldintzatzen ditu, eta alderantziz: ez da gauza bera Txina edo Euskal Herriko konektatzea edota Bilbo, Luzaide edo Donibane Garazitik konektatzea. Baina leku guzti horietatik, espazio bera partekatzeo aukera dago.

"Territoria": geografia +
internet

Hedabideen haria jarraituz, Ingurune digitalarekin batera, lurraldetasuna, distantziak eta lurralde kohesioak berdefinitzen dira. Adibidez, hainbat enpresarientzat Bilbotik Shangai hurbilago dago, Hendaia baino. Edota EAEtik, Madrilgo errealitate politikoa hobeto ezagutzen dugu, Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarrokoa baino.

Horrela ulertzen da leku geografikoaren eta ingurune digitalaren uztarketa eta ikuspegi orokorra ematen duen territorioaren kontzeptua: uztartuta daudenez, lekua ingurune digitala gabe ezin da ulertu, eta alderantziz; ikuspegi holistikotik ulertu beharra dago, territorio kontzeptutik.

223. Gainontzeko herriak bezala, gaur egun, ingurune digitala dela medio, Euskal Herriak lurraldetasuna gainditzen duen territoria du. Euskal Herriko zazpi lurraldeak, diaspora eta Ingurune digitala barnebiltzen dituena. Nola baliatu, Estatuaren eta merkatuen eragina izan arren, distantzia geografikoak eta muga administrazioak gainditzen dituen Ingurune digitalaren espazioa eta honen bidez sortzen den territoria euskal lurraldeen eta euskal herritarron arteko kohesioa garatzeko?

Nola baliatu ingurune
digitala kohesiorako?

224. Diaspora eta Euskal Herria batzeko espazio ezin hobea da. Lurralde kohesioan laguntzen du hurbilpen honek: batetik, muga administratiboak gaindituz zazpi lurraldeetako herritarrak batu daitezkeelako eta, bestetik, distantzia geografikoa

Lurralde eta herritar
euskal kohesiorako:
euskal komunitate
globala

gaindituz, hauek Diasporarekin batu daitezkeelako.

03.3. Euskal lurraldea(k) eta kultura

03.3.1. Kultura eta ondarea

225. Kultur ondarea komunitate baten emaitza bat eta, era berean, gizartea baliabidez hornitzen duen prozesua da. Iraganetik oinordetzan jasotzen diren baliabideak, orainaldian sortzen direnak eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzen direnak. Kultur ondareaz ari garenean, ondare materiala, inmateriala, naturala, eta egun, digitala ere, hartu behar dugu kontuan. **Kultur ondarea: lehena, oraina eta etorkizunaren lotune**
226. Ondare kontzeptua garrantzitsua da kulturarentzat eta garapenarentzat egungo gizartearen “kapital sozialaren” eraikitzailea baita. Kulturen eta identitateen etengabeko errealizazioan eragiten du eta belaunaldien arteko esperientzien, gaitasunen eta ezagutzen transmisio tresna garrantzitsua da. Horretaz gain, berrikuntza eta kreatibitatearen inspirazio tresna da; egungo eta etorkizuneko kultur produktuak eta etorkizuneko produkzio sozialak direnak. Kohesio soziala eta lurralde kohesioa sortzen eta mantentzen laguntzen du pertenezia sentimendua, banakoa eta kolektiboa, aberasten lagunduz. **Ondarea eta kapital soziala: kohesio soziala eta lurralde kohesioa**
227. UNESCOk adierazten duen moduan, baliabide horiek “ondasun hauskorak” dira eta, beraz, garapen eredu eta politika egokiak behar dituzte euren aniztasuna eta singularitasuna babesteko eta errespetatzeko. Kultur ondarea lotuta dago humanitateak aurre egin behar dien erronkekin: klima aldaketa, tentsio sozialak, hezkuntza, emigrazioa, osasuna, urbanizazioa, marjinazio eta desberdintasun egoerak besteak beste. **Ondarea eta erronkak**

03.3.2. Kultur sorkuntza eta errepresentazioa

228. Instituzioek kulturaren gizarte mailako balorazioa zailtzen dute. Kultura ez dute lehen mailako ardura gisa hartzen: aurrekontu oso baxua bideratzen zaio eta balore apaingarri edo dibertigarria atxikitzen soilik. **Kulturaren balorazioa gizartearen**
229. Merkatu-ikuspegi baten arabera egituraturik dago kultura eta kultur politika. Ekonomikoki errentagarri dena soilik hartzen da kontuan, ikuspegi kultural zein humanistaren galera handia eraginez. Testuinguru horretan, oso zaila da sortzailearen jarduna balioestea, bai ekonomikoki, bai sozialki.
230. Kulturak gizartearen duen ikusgaitasuna makroproiektuen bitartez egin da, ikusgarritasunarekin eta balore kuantitatiboekin lotuta, ez kulturaren balio propioekin. Honek kultur proiektuak, bestelako esparruetara ekarri dezaketen onuraren arabera neurtzea dakar (turismora, industriara...) kultur politikan zein

komunikabideetan islatzen den moduan.

231. Kultura hezkuntzarako, hausnarketan garapenerako, herri-loturak eratzeko zein gozamenerako ezinbesteko balio gisa hartu beharko genukeen arren, azken urteotako kultur politikak dibertsioari, entretenimenduari eman diote lehentasun osoa, aisiaren inguruangaratu den ideiarekin lotuz. Azken garaiotako joera honen begirada pean, aisiak izaera erabat kapitalista hartu du, guztiz onartuabaitago denbora libreabebetzeko zerbitzuengatik ordaintzea; kultura, aldiz, elementu publikotzat jotzen da. Beraz, kulturari onartzen zaion balio bakarraren baitan ere kontraesana sortzen da. **Kulturaren berezko balioak**
232. Kulturaren ikusgarritasuna, turismoan duen eragina eta beste arloetan sortzen duen onura ekonomikoa alde batera utzita, balorazio irizpide berriak behar ditugu.
233. Kulturak berezko balio anitz ditu, eta hauek bultzatu eta baloratu beharko genituzke gure gizartean irizpide berriekin; besteak beste: garapen kritikoa bultzatzen du, ikuspegi desberdinen hedatzea dakar, esperimendazio formal zein kontzeptualen garapena ahalbidetzen du, identifikazioak lortzen ditu, gizarte kohesioa eragin dezake; pertsonen, taldeen zein gizarte orokorrari irudiak eskaintzen dizkio eta sinboloak eraikitzen laguntzen die.
234. Kultura-industriak nahitaezkoak dira kulturaren egiten den lanari ikusgarritasuna eta aitortza emateko, eta kulturak sortzen duen onura ekonomikoaren erakusle ere badira. **Kultura eta kultur industria**
235. Bereizi egin behar ditugu kultura eta kultur-industria, biak nahasteak kalte egiten baitio kulturari. Lehen aipatu bezala, kulturak beste berezko balio batzuk ditu, eta ez luke zertan onura ekonomikoarekin loturarik izan. Kultur-industriekin nahastean, instituzioetatik onura ekonomikorako ahalmena lehenesten dute kulturaren beste baloreak bigarren maila batera eramanez. Bi kontzeptu hauek ez ezberdintzeak ekoizten ez duen kulturaren beharra zalantzan jartzea dakar.
236. Hezkuntzak izan beharko luke funtzio giltzarri kulturaren birzentratze eta birbaloratze honetan. Eskola-programetan sorkuntzarekin lotutako bidegehiago ireki beharko liriateke, ez soilik irakasgai zehatzen bitartez, baizik eta balore hauek programazioetan duten garrantzia berraztertuz. Irakasteko zein ikasteko beste modu batzuk bultzatzea ezinbestekoa litzateke honetarako. **Kultur Hezkuntza eta Transmisioa**
237. Kulturaren hezkuntza bat posible egiteko eskola kurrikularretan zein eremu hauetatik kanpoko hezkuntza eremuetan estrategiak garatzea beharrezkoa litzateke. Honetan gero eta formatuago dauden mediazioelkarte eta eragileen laguntza baliatu liteke, esaterako, ikastetxeetan errotik kulturaren trataera eta balioen txertatzea lantzeko.

238. Eremu kurrikularretan zein hauetatik kanpo Kultur Eskolak ere aukera ona litzateke, Bertso Eskolen bidetik, baina, bestelako kultur jardunari ere lekua egingo diena. Halako eskolek aukera emango lukete sarea sortzeko, formazioa eskaintzeko eta transmisio-lana egiteko.
239. Hedabideek funtsezko betebeharra dute kulturaren balioak zabaltzen, baina, orokorrean, gainazaleko ikuspegi merkantilista eskaintzen dute. Egoera hau, hein batean, hedabideen krisi orokorrarekin lotua dago, baina baita edukien aldetik egiten diren aukeraketekin ere, telebistaren kasuan bereziki. Zirkuitu nagusietan dabiltzan espektakuluen publizitatea da hedabideetan nagusi, ondorengo hausnarketarako lekurik gabe; kritika kronikak ordezkatu du euskal kulturaren inguruko hausnarketa sakonak murriztuz. Hedabideetan kultur politika sendo bat egituratu eta adostu beharko litzateke.
240. Kultur transmisioa zeharka landu beharreko lerroa da, bai hedabideetan, bai hezkuntzan. Horretarako, egitasmo bat diseinatzea beharrezkoa da: hedabideetan protokoloak zein kultur adituak kokatze beharrezkoa da, eta hezkuntzan ere curriculumari egokituriko material didaktikoak prestatzea funtsezkoa da.
241. Kultura oro da garaikidea. Ondarea historikoa izanik ere, gure balioan jartzeko modua garaikidea da, bizi dugun une eta testuingurutik egiten baitugu irakurketa hori. Ondorioz, ezin da kultura historiko eta garaikidearen arteko banaketarik egin. Une historiko berekoak baitira egun ekoizten den kultura eta aurretik ekoiztutakoaren gaurko irakurketa. **Gure kulturaren irudia eta proiektzioa**
242. Nahitaezkoa da folkloreak, tradizioaren eta egungo adierazpenen arteko oreka bat bilatzea gure herriaren irudia proiektatzeko orduan. Ezin ditugu garai historiko bateko ohiturak eta moduak idealizatu eta isolaturik mantendu, egungo gizartearen sorkuntzarekin lotu gabe, bi bide desberdin bailiran. Gure kanpo proiektzioa barne proiektzioa ere bada, gure herri izaeraren adierazpena den heinean. Horregatik, anitza, aberatsa eta gaurkotua izan behar du.
243. Euskal kulturaren garapena bultzatzeko ezinbestekoa izan da herrigintzatik egindako lana, hala nola eragileen esfortzu indibiduala. Hauek zenbaitetan instituzioen laguntzak jaso dituzte, baina orokorrean herritik edo banakakoarengandik datozen esfortzu eta errekurtsioetan oinarritu dira. **Kultura, herrigintza eta instituzioak**
244. Paradoxikoki, bigarren mailan edo zirkuitu propioetan garatzen den kultura honek aktibatzen duen ekonomia, beste esparrutako lanak bultzatuz (kudeaketa, salmenta, zerbitzuak eta lan-teknikoa) ez da sekula ikustarazten. Kultura, baliabideak xurgatu eta ezer eskaintzen ez duenaren irudiarekin proiektatzen da maiz, inguruan eragiten duen onura adierazi gabe.
245. Kultura gizarte-zerbitzua dela ikustarazi behar da eta, horretarako, gizarte-

zerbitzu modura egituratu behar dira kultur egitasmoak (ez errentagarritasunaren edo merkatuaren ikuspegitik).

246. Banaketa nabarmena dago instituzioek bultzatutako ekintza zein proiektu handien, eta herrigile, kulturgile eta sortzaile garaikideengandik datozen proiektuen artean. Lehenek zirkuitu ofizial gehienak betetzen dituzten bitartean, bigarrenak askotan zirkuitu propioak sortu edo ikusgaitasun handirik ez dituztenak okupatu behar izaten dituzte euren lana garatu eta hedatzeko. Banaketa honek espektakuluak, superproduktzioak lehenestera dakar publikoaren gehiengoa, eta kanpotik, Madril zein Paristik etorritakoa hobestera, maiz bertakoa ezagutu gabe. Kulturaren kontsumo pasibo eta masiboa bultzatu da, eta ondorioz, jendea ikuskizun handi batzuetara bideratu da, gainerako sare eta ekimenak itzalean geratu direlarik.
247. Publikoa eta pribatua denaren definizio berria ezarri beharko litzateke: herrigintza, esaterako ekintza pribatutik abiatzen denean ere, ez al da asmo publikoz egindako lana? Beharbada publiko/pribatu dikotomiara mugatu beharrean, hirugarren esparru bat eratu genezake: komuna. Dirua nondik datorkien zehaztu gabe eta instituzio publiko izan gabe, gizartearentzat kultur-truke, elkarketa eta hezkuntza irekia proposatzen duten eragileak bilduko litzuzke adiera honek.
248. Egoera honek euskal kulturaren prekaritate bikoitzera garamatza: prekario kultura izateagatik, eta prekario euskaraz izateagatik. Gutxi dira kultur sorkuntza euren benetako profesiozat, diru-sarreratzat, har dezaketenak. Honek, kultur ekoizpenaren kopurua eta maila jaisten du, ez baitu ahalbidetzen ikerketa, garapena eta dedikazioa beharrezkoa duten lanak garatzea. **Kultur langileen prekaritatea**
249. Kulturgileen profesionalizazio-ereduak sortzeko hainbat bide jorratzea komeni da: sortzaileen estatutua, zerga-eredu propioak, kontrataziorako bestelako ereduak... Hitzarmenak ados daitezke, sorkuntza-lanen ordainsariak eta baldintzak adosteko. Kultur elkarten antzeko fiskalitatea aitor dakieke kulturgileei. (Erretiroen auzia, esaterako).
250. Iparraldean badira artistei bizitzeko minimo batzuk bermatzen dizkietensistema fiskalak, intermitence izenekoa esaterako; aldiz, Hegoaldean, halako sistemak ez dira existitzen edo askoz ere prekarioagoak dira, nekez laguntzen diotelarik sortzaileari bere lanaz bizitzen. Honek profesionaltasunaren ideia bera zalantzan jartzen du Hegoaldeko sortzaile askorentzat, are gehiago instituzio fiskalen aurrean, euren diru-iturri nagusia ez baita sorkuntza izaten.
251. Artista profesionala zer den zehazteko beharra dago. Artista profesional aitortzakeitaldi, erakusketa edo enkargo gehiago eskaintzea dakar. Zentzu horretan, errekonozimendu profesionala eraikitze mekanismo batzuetan badagoenez kutsu patriarkalik edo joera matxistarik, emakume sortzaileak askoz

bide luzeagoa egin behar du aitortza hori lortzeko (eta hortaz, enkargu/lan horien proposamenak jasotzerako).

252. Ez dago esparru formalizaturik instituzio eta egileen arteko elkarriketarako, eta egile eta instituzioen arteko harremana
Egile eta instituzioen arteko harremana
Egon litezkeen bakanak, kontsultarako dira, instituzioen agendetara egokituak. Sektore desberdinen ordezkariak anitzek edota ordezkariak ofizialen gabeziak elkarriketa hauek modu bideratu eta argian ezartzea zailtzen dute. Ez dago egile eta instituzio arteko harremanetan funtzio indargetzailea betetzen duen estamentu edo plataformarik.
253. Egileek instituzioarekin duten harremana beti da aholku-emailea, ia inoiz ez erabakigarria. Ez dute kultur erabaki eta ereduaren gaineko trabak edo aldaketak proposatzeko gaitasunik, eta honek azkenean legitimitatea kentzen die kontsultarako organo horiei. Egoera honek sortzaile asko hauetan parte ez hartzeko erabakia hartzea erabaten ditu, egindako lanak, doakoa izaten dena gainera, eraginik ez duela sentitzen dutelako.
254. Kultur saretze sendoa ez da existitzen. Dauden loturak, eragileek eurek modu prekarioan eta instituzioen bermerik gabe egindakoak dira, gehienetan modu iragankorrean. Saretzeak sektorearen indarra ekarriko luke: errekurtsoen erabilera hobea, garapenerako denbora eta plataformen sortzea eta elkarkidetzat. Saretzea kulturaren
255. Gabezi honen aurrean ematen den atomizazioak, dauzkagun errekurtsoen erabilpen emankorrik ez egitera erabaten gaituzte. Esate baterako, kultur-zentroen eta kultur-teknikarien antolatze eta saretze egoki baten bidez, euren lanak askoz emankorragoa izango litzateke guztiontzat.
256. Kultur esparruen berezitasunak identifikatzeko beharra dago: alor bakoitzaren premiak, ahulguneak eta indarguneak. Sormenerako beharrezkoak diren baldintzak (materialak zein humanoak) identifikatzea eremuka (arte eszenikoak, arte plastikoak, bertsolaritza, literatura, musika, zinea...), eta horiek egikaritzeko bideak jartzea.
257. Eremu bakoitzak bere ezaugarri eta behar partikularrak izanda ere, osotara zehar-lerro izateko egiturak sortu behar dira: agenda partekatua, proiektu adostuak, eduki zein ekimenak non-nahi...
258. Kultur Koordinadorak sortzea litzateke aukera bat, maila lokalean zein Euskal Herri mailan, kultur agendak adosteko gutxienik, eta ahal denean, kultur egitasmo adostu bat elkarlanean osatzeko.
259. Egitura mistoak sortzea oso egokia izango litzateke: batetik, eragile sozialak (kultur elkarteak, kultur mugimenduak, sortzaileak...); bestetik, erakundeetako kultur arduradunak (edo kultur zerbitzu-arduradunak).

260. Azken urteotan ez da instituzioetatik kultur politika argirik egin. Kultur estrategiak egon dira, baina hartutako erabakiak ez dira euskal kulturaren garapen eta zabalkuntzarako izan, baizik eta kultur industrien eta makroproiektuek beste esparruei (turismoa, industria...) ekar dakieken onurak lehenetsiz. Estrategia hauek eta bultzatzen duten kultur eredia gizarteak onartzea ziurtatzeko, nahitaezkoa izan da kanpaina zabal bat bultzatzea, hedabideen bermearekin. **Kultur politikak**
261. Kultur politika kultur funtzioa ulertzeko moduaren isla da. Horregatik politika kultural adostuak sortu behar dira, epe luzerako izango direnak eta alderdien zein norbanako politikarien gaintetik egongo direnak. Honetarako, egile, eragile eta instituzioen elkarlana bermatu beharko litzateke, denen ahotsa eta erabakitze ahalmena kontuan hartuz.
262. Instituzioen helburua kultur proiektu iraunkor eta kolektibo bat eraikitzea behar du izan, eta halako egiturarik sortuz gero, sorkuntza-guneak eta kultur guneak egituratuzko lituzke premia kolektibo horiei begira, eta ez instituzioa bera legitimatzeko (edo instituzioan dauden ordezkariak legitimatzeko).
263. Artistek, museoek, aretoek eta zentroek autonomia izan behar dute proiektu artistikoak garatzeko. Lehenago aipaturiko indargetzaile baten beharra agertuko litzateke hemen beste behin, alderdi aldaketak edo interes politiko zehatzak proiektu artistikoen garapenerako oztopo izan ez daitezten eta sortzaileen ibilbide profesionalean eragin ez dezaten. Prozesu zein kontratazioen nolakotasuna definitzen lagunduko duen gida bat sortzea lagungarri izango litzateke egiteko honetan.
264. Instituzioek espermentazioa bermatu behar dute kulturaren, apustu ausartak egin, aurrerapena ziurtatzeko. Honetarako, onartu behar da bai instituzio mailan zein gizartean, kulturaren inbertitutako diruaren zati garrantzitsu batek ez duela bestelako onura ekonomikorik ekarriko; hain zuzen, osasunean, zientzian edo hezkuntzan gertatzen den bezala, gizartearen hobekuntzarako epe luzera egiten diren inbertsioak baitira. **Nolako kultura nahi dugu**
265. Kulturak transbertsala izan beharko luke, gure gizartearen arlo guztietan islatzen den ezaugarria. Alor ezberdinekin duen harremanean eta eraginean kontuan izan beharko litzateke, kultura gizartearen faktore askok osatzen dutelako (hizkuntza, hezkuntza, ikerketa, sorkuntza, identitatea, adierazpena...)
266. Euskal Herria kultu bat nahi dugu, kulturaren berezko balioak preziatzen eta bultzatzen dakiena. Kultura bere identitatearen muinean jartzen duena, eta bai barnera, bai kanpora begira, honekiko harrotasuna adierazten duena.

03.4. Euskal lurralde(ar)en marka

03.4.1. Sarrera

267. Lurralde arteko kompetentziek eta globalizazioak nazio identitatea lehia elementu bihurtu dute, izan ere, balio erantsia ematen die lurraldeei. Hauek singular bihurtzen ditu, interes taldeen aurrean desberdindu, ikusgarri egin eta nabarmendu. Nazio markagintzak aipatu identitatea fokatu, ikusgarri egin eta interes taldeekin konektatzeko estrategiak aktibatzen ditu. Nazioarekiko gure harremana zehazten laguntzen digu, identitate ezaugarri nabarmenenak erabiliz bide zidor papera jokatzen du nazioa eta bere interes taldeen artean. **Lurralde arteko kompetentzia**
268. Nazio markagintzaren oinarri den posizionamendu estrategikoak bi dimentsio elkartzen ditu; alde batetik, marketina espazioen komertzializazioarekin lotuta eta bestetik, zaletasuna eta begikotasuna eskuratzeko branding-a. Hauek enpresa munduarekin lotzen diren diziplinak izaki, garrantzitsua da markoa ondo kokatzea, ondoko desbiderakuntzak ekiditeko: sakontasuna galdu eta marka izen eta logotipora mugatzea; nazio marka edozein marka komertzial moduan lantzea, ondasun kolektibo izaera baztertuz; edo marka bitarteko moduan baino helburu moduan kokatzea. **Posizionamendu Estrategikoa**

03.4.2. Testuingurua

269. Lurraldeak harreman fluxuak (sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak...) gertatzen diren espazioak dira. Fluxu horiek emateko orduan interes taldeek espazioak interpretatzen dituzte eta lurraldearen ospeak garrantzi handia dauka horretan. **Lurraldearen ospea**
270. Nazio baten ospean hurrenez hurren hiru elementuk eragiten dute batez ere: Nazioaren estrategiak (identitateak eta praktikek), testuinguruak eta kompetentziak. **Estrategia, testuingurua eta kompetentzia**
271. Besteak beste, ondorengo hauek izan daitezke nazio markak elementu baliotsu bihurtzeko arrazoietakoz batzuk: **Kokapena: Globalizazioa, Postmodernitatea eta estatu egiturak**
- Nazio estatuen trinkotzea, berrien sorrera eta prozesu independentisten indartzea.
 - Mugaz gaindiko harremanak eta elkarrekintza ugaritzea.
 - Globalizazioaren ondorioz antzeko produktuz betetako merkatuan ezberdintzeko nahia.
 - Legitimazio modu berrien beharra, botere bigunaren agerpena, botere hertsatzailea pertsuasioarekin osagarrituz. Identitatea moldatu eta balio

moduan trukatu daitekeenaren kontzientzia.

- Komunikazio baliabideen bidez arlo publikoan eragiteko gaitasuna handitzea eta zabaltzea.
- Pertsonon memoriak atxiki ezin duen egunerokoan jasotzen den komunikazio mezu gaindosia.

03.4.3. Nazio markaren balioa

272. Nazio markek nazioaren balio proposamena sinplifikatu, sintetizatu eta komunikazio bitartekoen bidez interes taldeen esku jartzen dute, hauekin emozioetan oinarritutako konexio esanguratsuak eraikiz. Formula honek, barneko zein kanpoko interes taldeen arreta eskuratu eta nazioak beren bizitzetan duen posizionamenduan eta ospean eragiten laguntzen du. **Konexio esanguratsuak**
273. Hortaz, nazio marka dimentsio anitzeko eraikuntza bat dela esan daiteke, eta bere balio funtzional eta emozionalen eta “kontsumitzaileen” behar psikosozialen arabera kokatuko da ondoko onurak lortuz: **Balio funtzionala eta emozionala**
- Barne publikoan: Identifikazioa errazten du, konfiantza, atxikimendua eraginez eta ondoriozko kohesioa, elkartasuna, elkarlana, parte-hartzea, barne sinergiak eta kohesioa... bideratuz.
 - Kanpoko publikoan: munduan leku bat eskuratzeko, konfiantza eta balio erantsia sortzeko, “lagunak” egiteko, talentua erakartzeko, erabiltzen da.
274. Ospea honek, goitik behera baldintzatu dezake kanpoko inbertsioa, talentuaren kontsolidazioa edo adibidez hondamendi natural baten aurrean ematen den erantzuna. Hala ere, argi izan behar da, nazio markagintzak dagoeneko existitzen dena, ikusgarri egin, ordenatu, egituratu eta transmititu besterik ez duela egiten. Hortaz, ospea ez da komunikazio estrategien bidez sortzen edo asmatzen, irabazi behar da. **Ospea**

03.4.4. Nazio markaren kudeaketa

275. Ohiko marka komertzialek ez bezala, nazio markek ondasun publiko izaera ere badaukate. Helburu operatibo zehatzez gain, jendarte garapenarekin guztiz lotuta daude. **Ondasun publikoa**
276. Nazio/lurralde markek ez daukate jabego zehatzik, naziokide guztienak dira eta naziokideek eta eragileek betetzen dituzte edukiz, gizarte zibila markaren igorlea eta hartzailea da aldi berean. Berezitasun honek, marketinaren ohiko baliabideen bidez kudeatzea ezinezkoa egiten du. Herririk txikienak ere, korporaziorik handienak baino askoz konplikatuagoak dira, hots, korporazioek elkartzen dituzten akziodunen balioa daukate eta funtzionamenduari dagokionez, **Botere egiturak eta minimoa**

enpresako kideek lan kontratuen bidez funtzioak banatuta dauzkate. Herriek edo nazioek, ordea, ez daukate helburu bakar eta bateratzailerik, kontratu sozialak modu egituratu batean legeen esparruan bakarrik ematen dira eta horretarako botere eta egituraketa maila minimo bat izan behar da.

277. Nazio markagintzak interes publikoak kudeaketzen ditu, ondorioz, logika merkantilista baztertuta, markaren garapena lurraldearenarekin estu lotuta doa. Bide horretatik marka kapitalizatzea ekidin eta parte hartzearen bidez koherentzia eta sinesgarritasuna bermatzea funtsezkoa izango da. Beraz, komunikazio adituak ikusgarritasuna eta nabarmentasuna lortzen lagundu ahal badute ere, marka bera eta ondoriozko ospea naziokideek eraikiko dute beren jardun eta izateko erarekin. Markagintzak, kontu handiz, zeharkako diskurtsoak aztertu eta naziokideek bat egingo duten oinarrizko kontsentsua proiektatu eta interes taldeei balio-proposamen erakargarri eta ordezkazina eskaini beharko die.

Balio proposamena

278. Nazio/lurralde marka kudeatzeko oinarrizko baldintza:

Nazio marka kudeatzeko oinarrizko baldintzak

- Uneko gobernuen gaineratik, lurralde garapen estrategiek duten epe luzeko ikuspegi integrala izatea Konplexutasuna barnebiltzea, naziokide eta eragileen onarpena eta identifikazioa:kudeaketa
- Konplexutasuna barnebiltzea, naziokide eta eragileen onarpena eta identifikazioa: integrala.
- Herritar, erakundeak, eragile pribatuak eta komunikazio adituak eskuz esku aditze: konplexutasunak barnebildu.
- Prozesua dinamizatzeaz arduratuko den erakunde edo eragileak, zein erreferenteek herritarren zilegitasuna izatea eta koherentziaz jokatzela: lidergoa, zilegitasuna, koherentzia
- Marka legeek eta erakundeek zaindu beharko dute eta horretarako nahitaezkoa, edo oso garrantzitsua, da estatu egiturek ematen duten boterea izatea: boterea.

03.4.5. Euskal Herrirako izan ditzakeen onurak

279. Barrura begira onurak:

Barrura begirako onurak

- Nazioaren irudia egituratzen laguntzen du, hau enfokatuz, objektibatuz eta lerrokatuz. Ondorioz nazioa bera bisibilizatzea errazten da, nazio kideen atxikimendua eta komunitatearekiko kidetasuna indartuz.
- Nazio-garapenerako lehentasunak ikustarazi eta elkarlana ahalbideratzen laguntzen du, baliabideak optimizatuz.
- Ideia zentral sintetizatua adierazten du. Nazio-estrategiaren iparra

errazago ikusten lagunduz (zer gara, zer nahi dugu eta nola egingo dugu bidea) eta desbideraketak eta aurrerapenak neurtzeko erreferentzia bat eskainiz.

- Naziokideen pertzepzioak lerrokatzen ditu, nazio-garapen estrategia ordenatuz, eraginkortuz eta nazio harrotasun sentimenduak areagotuz.
- Naziokideei rol-sozialak indartzen ditu, elkartasuna eta elkarlana erraztuz eta kanpoko erantzuna ere hauen arabera bideratuz.

280. Kanpora begirako onurak:

Kanpora begirako onurak

- Kultura, ekonomia politika, teknologiaren elkartrukea nagusi den une honetan, nazio-markek bidezidor papera jokatzeko pertsona, eragile eta nazio/herrialde/estatuen artean.
- Euskal Herriak berak finkatutako nazio-garapen-estrategiaren arabera finkatutako bereizgarritasunean oinarrituz, Euskal Herriaren onurak eta abantailak komunikatzen lagundu dezake. Munduan ezagunak egin eta posizio bat eskuratuz. Inbertsioei eta ekonomiari lagundu, elkarlana bultzatu eta subirautea prozesurik abiatzekotan kanpoko aldeotasuna eskuratuz.
- Nazio-irudi eta produktu zein zerbitzuen arteko sinergia efektuak bultzatzen ditu, jatorri izendapena zein “co-branding”-aren bidez enpresen eta beste eragileen nazioarteko jardueran eraginez eta emaitza positiboak sortuz.
- Nazioaren eskaintza ezberdinak erlazionatzen ditu, nazioarekin lotutako enpresei, erakundeei, produktuei eta zerbitzuei bereizgarritasuna eskainiz, hauen arteko sinergiak eta elkarlana sustatuz, nazioaren ezaugarri positiboz bustiz eta munduko merkatuan abantaila kompetitibo orokorrak indartuz.
- Nazioaren balioa eta bertako erreferenteak argi azalduz, talentuak eta inbertsioak erakartzen ditu, balio ekonomiko, kulturala eta intelektuala bultzatuz.

281. Baina azaldu den moduan, nazioaren ospea ezin da komunikazio bitartekoen bidez asmatu, irabazi behar da. Euskal Herriaren arazo handiak daude maila horretan, izan ere ez dago zehaztuta eta adostuta markaren oinarri den balio proposamena, hots: misioa, bisio eta balioak.

Misioa, Bisioa eta Balioak

282. Marka komertzial baten ikuspegi hotzera joanda, ez gara ados jartzen enpresaren osaeran, produkzioan, ezta izenean ere eta kompetentziaren arauen arabera lehiatzera behartuta.

Adostasun eza

283. Kanpo baldintzapenei dagokienez, ez dago lehiarako aukera berdintasunik. Arauak Nazioen lehiaren kompetentzia zuzena diren Frantzia eta Espainia jartzen

Kompetentziaren arabera

dute. Besteen arabera irudikatzen dugu gure burua, hauetan integratuta edo erantzunez.

03.4.6. Euskal Herriran markaren egoera

284. Euskal Herria nazio/lurralde marka lurraldearen balioa transmititzen duen errekurtsu sinboliko integral eta konpartituena izatetik urrun dago. Lurraldearen ikuspegi politikoez, muga administratiboez eta ondoriozko egitura eta imajinariak, goitik behera baldintzatzen dute nazio marka bera. Eremu horretan dauden definizio eza, gatazkak eta bestelako trabak direla medio, enfokatu gabeko, lehiakideen galbahearen araberrako eta oihartzun eskaseko lurraldearen irudia transmititzen da. **Errekurtsu sinboliko integrala**
285. Egoera ez-normalizatu honen ondorioz, euskal lurraldea aipatzean, interpretazio oso ezberdinak egiten dira eta interpretazio hauetatik sortutako praktika, politiko, sozial, ekonomiko, kulturelek... lurralde erreferentzia berriak ere sortzen dituzte, horren adibide dira, Hego Euskal Herria, Euskadi, Basque Country eta egun Euskal Herria EA Erekin gero eta gehiago lotzeko joera edo Euskal Herria Ezker Abertzalearen proiektuarekin identifikatzea. Atzeritik ikusita, ordea, izen batek kontsentsu gehiago duela esan daiteke: Basque Country. **Euskal Lurraldea**
286. Frantziar estatuaren menpe dauden lurraldeei dagokienez, Pays Basque, ikuspegi ekonomiko, folkloriko eta turistikoa hartzen du batez ere. Lurraldea bera politikoki eta administratiboki onartuta ez dagoenez (Lurralde Elkargoa berria da), objektu, paisaia, ekimen zehatzekin lotzen dira kontzeptua eta sinboloak (lauburua, ikurrina eta koloreak). Pais Basque markak Frantzia estatu lurraldean oso ospe ona dauka eta ondorioz EH-tik kanpo ere erabiltzen da; hamaika adibide daude: Frantzia erdi aldeko azoketako hainbat gazta postu, Osegorreko jatetxe eta surf dendak, Lays Patatetan agertzen den zesta-punta jokalaria, Toulouseko restopeko oroigarriak edo Pariseko euskal txuleta makina... eta honek kontzeptuaren inguruko nahasmena areagotzen du eta sor-marken aferan lagundu ordez bertako laborariei kalte egiten die. **Pays Basque**
287. Azpimarratzekoa da ere, komunikaziorako eta kohesiorako baliabide nagusi diren hizkuntzen egoera, euskal lurraldeetan gehien-bat hiru hizkuntza erabiltzen dira, euskara, gaztelania eta frantsesa; horri gaur egun ingelesak munduan daukan presentzia gehitu behar zaio. Hortaz (migrazio-mugimenduari lotutako hizkuntz aniztasun eta trataeran sartu gabe) 4 hizkuntza behintzat kudeatu behar dira, eta salbuespenak salbuespen, ez dago lurraldeko kide guztiek uler dezaketen hizkuntza komun bat. Euskara gainerako hizkuntzekiko egoera diglosikoan kokatzen da. **Hizkuntzak: euskara**
288. Egiturazko baldintzapen politikoez gain, munduko ikuskera berriekin lotutako nazio identitatea ulertzeko era berriak sortzen ari dira. Une honetan Euskal **Ikuskera**

Herriko eragileak ez dira parametro horietan kokatzen ari eta lehengo parametro eta balioen arabera egiten dute nazioaren eta lurraldearen definizioa: baserriar giroa, berdetasuna, trikitia, RRV-a, misterioa, exotismoa, txikitasuna(keria), purutasuna,... Maila batean, euskaldun askori arrotza edo urruna zaio ikuskera murriztaile hori eta ondorioz termino horien arabera koherentsia eta atxikimendua ematea zaila da.

289. Nazioarteko kokapenari dagokionez, une honetan ez dago Euskal Herriaren ospea neurtzeko edo ezagutzeko ikerketarik, Nation BrandIndex eta Country Brand Index-en neurgailuen aldagaien arabera, pentsa daiteke egoera normalizatu batean, mundu mailako rankingean goiko postuetan kokatzeko aukera izan lezakela. Baina une honetan markarentzat berebiziko garrantzia daukaten ezagutza eta nabarmentasunean zentratuta, gatazka politiko militarren parametroak aldatu direnetik, Euskal Herria mundu mailan ezagutza oso eskasa dela pentsa daiteke eta Anholt-en arabera hau arazo handi bat da. **Neurgailuak**
290. Hala ere, mugapenak mugapen, nazio markaren erreferentziaren bidez, azaldutako egoera gaititu eta lurraldea egituratzen eta koheresionatzen laguntzeko aukerak ere sortzen dira. Ikuspegi politikoari zentraltasuna ematen ez zaionean, markaren atributu eta balioen arabera ikuspegi pragmatikodun aliantza "naturalak" ematen dira. Testuinguru horretan, aipatu lurralde muga administratiboak lausotu eta herri, eskualde, kostalde, landa eremu, eragile, sektoreen... arteko elkarlana bultzatuz kultura, ekonomia, jendarte... harremanetan oinarritzen den lurraldearen beste kontzeptio bat sortzen da. Horren adibide dira: Euskal Sukaldaritza Berria, Euskal Kostaldea eta surfa edo Euskal Rock-a adibidez... edo zehatzerago joanda askoren artean, Ikastolak, Real Club de Automovilismo, Tren, Banco... Vasco Navarro, Durangoko Azoka, Donostia 2016, Basque Luxury, Errigora edo Athletic bera ere. Esan daiteke nazio markaren argipean, lurralde muga administratiboez harantzago doazen, nazio lurraldetasunaren logika duten lurralde perimetro berriak sortzen direla. **Markaren atributu eta balioak. Aliantza pragmatikoak**

03.4.7. Euskal Herria markaren erronkak

291. Herri izaera eta adostasunak sortuko dituen erakundeak identifikatu: Eusko Ikaskuntza kasu. **Erakundeak**
292. Marka baino lehen, Herri proiektu partekatua bat diseinatu eta garatu: narratiba, estrategia eta nagusiak izango diren identitate-erreferenteak definitu beharra dago aurretiaz. **Herri proiektu partekatua**
293. Izate honetarako, adostasunak sortuko dituen izen bat identifikatu. **Adostutako izena**
294. Orduan bai, agendan nola sartu diseinatu, izan ere, euskal lurralde. **Agenda**

03.5. Lurralde narratiba nagusiak eta hauen ondorio materialak

295. Errealitatearen eta errealitateari buruzko diskurtso eta narratiben arteko harremana konplexua da. Errealitatea (harreman, sare eta prozesu sozialak eta instituzionalak) eta hari buruzko diskurtsoak erlazionatuak daude. Ezin daiteke bata bestera murriztu. Era berean, ordea, errealitate eta diskurtso bakoitzak neurri batean bere historia eta logika propioak ere baditu. Zentzu honetan, errealitatea ezin daiteke murriztu errealitateari buruzko narratiba eta diskurtsoetara. Baina aitortu egin behar da diskurtso eta narratibek etorkizun posibleak eta probableak moldeatu ahal dituztela.
296. Diskurtsoek eta narratibek garrantzia dute, beraz. Neurri berean, askotariko diskurtsoak eta narratibak daude, edo egon daitezke. Gainera, diskurtso eta narratibak osagarriak izan daitezke, baita gatazkatsuak ere. Nolanahi den, denborarekin narratiba, diskurtso eta ikusmolde batzuk nagusitzen dira.
297. Gaur egunean, ikuspegi batzuk gailentzeko prozesua negoziazio, artikulazio eta justifikazio konplexua, dinamikoa eta askotarikoa da. Alde batetik, diskurtsoek eta narratibek hitzarmen instituzionalen, koalizioen edota aliantza errealen premia izaten dute. Beste aldetik, eremu instituzional eta eskala ugariko prozesu sozialak, ekonomikoak eta politikoak gurutzatu ohi dituzte. Hori horrela izanda, narratiba eta ekintzaren arteko muga lausoa izatera heltzen da: bata bestearen beharra du, eta maila instituzional eta geografiko ugariko dinamiketan taxutzen dira.
298. Narratibek politika publikoen eta lurraldearen kudeaketan duten eragina demokratikoki kudeatu behar da eta hori dela eta gobernantza demokratikoaren ideiarekin lotu behar da.
299. Guztiarekin, lurraldearen dinamika sozialak eta instituzionalak, besteak beste, eskuartean ditugun narratiba eta diskurtsoekin gorpuzten dira. Euskal Herrian ere diskurtso eta narratiba diferenteak baditugu, elkarren artean gurutzatu ohi dira, eta lotura dute garapen eta berregituratze ekonomikoarekin, naziogintzarekin eta finantza-krisiari buruzko erantzunekin.
300. Metafora ekonomiko espazialen garapenak jatorria du 1970eko hamarkadan, Ipar Atlantikoan Fordismoaren krisia ematearekin batera. Zehazkiago, Ongizate Estatu Keynesiarraren berregituratzeari eta krisi politiko eta ekonomikoari lotua dago. Krisi horiek baldintzatu dituzte orduz geroko narratibak eta diskurtsoak, neurri batean.
301. Bigarren Mundu Gerraren ostean ezarritako eredu politiko eta ekonomikoa Estatu nazionalaren baitan konfiguratu zen, alegia, Estatu nazionalaren baitan gauzatu ziren gestio politiko eta ekonomikoa. Ereduaren krisiak, ordea, garapenari eta lehiakortasunari buruzko kontzeptualizazio berriak ekarri zituen. 1970eko

Narratiba eta errealitatea:
harreman konplexua

Narratiben ugaritasuna

Erakunde eta eskalen
ugaritasuna

Narratiben kudeaketa
demokratikoa

Narratibak testuinguruan

Erakunde eta eskalen
ugaritasuna

Nazioarteko
lehiakortasunaren
bizkortzea

krisiarekin batera, arreta berezia ipini zitzaien eskaintzan oinarrituriko estrategiei. Ordura artean manufaktura eta kontsumo masibo tradizionalak aldez edo moldez eskariaren gestioaren bidez bermatzea lortu baziren, ereduaren aldaketak desindustrializazioaren bizkortzea eta nazioarteko lehiakortasunaren biziagotzea ekarri zituen. Horri estuki lotuta, espezializazio malgua edo akumulazio malgua izango da lehiakortasun ekonomikoa bermatzeko marko instituzionalen bereizleeta bat, ez ordea bakarra. Gurean esandako hori guztia nola gauzatzen ari garen aztertu beharko genuke (indarguneak, ahulguneak, aukerak, balizko eraketa organikoa...)

302. Estatuari dagokionean, krisiak bi ondorio nagusi izan ditu: bata da Estatuaren funtzioetako batzuk erakunde supra-estatalek bereganatuko dituztela; bestea da Estatuaren funtzioetako batzuk erakunde azpi-estatalek beraganatuko dituztela. Euskal Herrian aldaketa horiek testuinguru berezi batean gertatuko dira: krisi industrial sakona, hiri industrial nagusien gainbehera, herrialdeen erakundetzea, egitura politiko eta instituzional konfederal baten azaleratzea, alderdi-sistema lehiakor baten egonkortzea, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan integratzea, besteak beste. Euskadiko Autonomia Estatutuak autogobernuarekin (edo Basque taxdevolution) eskaintzan oinarrituriko politikak bideratuko ditu. Nafarroa Garaian, ordea, eratzten den sisteman norik erabakitzen duen galdetzea zilegi da, jakinik, halaber, Ipar Euskal Herriaren kasuan orotarik nozitu duela ezer erabakitzeko eskumenik gabe.
303. Edozein kasutan, Nazio-estatuaren berreskalatze ekonomikoa, politikoa eta demokratikoa ere analisisian jaso behar da. Aldi bereko fenomenoak dira berzentralizazioa eta diskurtso eta narratiba berrirako sintesiak. Berdimentsionatzea ariketa politiko eta akademikoaren erdiguneko gaia da.
304. Horren ondorioetako bat da erabakitze-prozesuetan eta eremu ekonomikoaren jardunean hitzarmen instituzionalen ugaritzea. Baina hori ez da gertatuko soilik nazio-estatu egituraketa westphaliarraren berreskalatzea dela eta. Horrez gainera, proiektu estrategikoen formulazioan eta exekuzioan agente gehiagok ere parte hartuko du (sektore pribatua, kolaborazio publiko-pribatua, gobernu kanpoko erakundeak, bizilagunenak, etabar.).
305. Hala eta guztiz ere, erabaki-hartze konpartituen akordio horiek gradu, kalitate eta intentsitate oso diferentekoak izaten dira. Izan ere, botere-harreman asimetrikoek baldintzatu egiten dituzte baliabideak eskuratzea, antolatzea eta banatzea, edota koalizioak, interes ekonomikoak eta narratibak aktibatzea. Honen harira, publiko eta pribatuaren arteko kideztzak eta partenariatuak sarritan eredu bakarrekoak eta hegemonikoak izan dira. Neurri berean, lurralde baten gaitasun eta baliabide juridiko eta politikoen ere aukerak baldintzatzen dituzte.
306. Azken hamarkadetan, administrazio publikoen berezitasuna eskaintzan oinarrituriko strategiak diseinatu eta sustatzea izan da. Estrategia horren

Erakundetze prozesu
berriak

Nazio-estatuaren
berreskalatzea

Erakundearen ugaritzea

Erabaki-hartze
konpartituak

Eskaintzan oinarrituriko
politikak

eboluzioa hainbat aldaketari lotua dator: aldaketa kontzeptualak (Estatu post-nazional sustatzailea), aldaketa teorikoak (faktore endogenoen garrantzia, lodiera instituzionala, klusterrei loturiko abantaila konpetitiboa, eta abar), aldaketa politikoak (erregionalismo berriaren paradigma).

307. Aldaketa kontzeptual, teoriko eta politikoen mailaketa horretan, ordea, euren arteko garrantzia oso desberdina da. EAEko kasuan, Porter-ren lehiakortasunaren paradigma izan da nagusi. Era berean, 'newregionalism' delakoak arreta eskasagoa eta partziala merezi izan du. Zentzu horretan, Euskal Hiria brandingak ere, aukerak mugatu eta baldintzatu ditu.
308. Era berean, kapitalismo fordistaren berregituratze ekonomikoari eta ekonomia errealarri loturiko krisiari aurre egiteko, paradigma teoriko eta politiko berriek aldeko testuinguru instituzionala izango dute. Europar Batasunean, esaterako, ahalegin instituzionala berezia izango da, bereziki azpiegiturei loturik (Kohesio Funtsak, esaterako), eta balio erantsi handiko ekonomiaren testuinguruan (Lisboako estrategia). Honi lotuta, berrikuntza eta honen praxiari buruzko irakurketa ideologiko batek ere garrantzi berezia hartuko du. **Europar testuinguru instituzionala**
309. Hala ere, nazioarteko dinamika globalean, eskaintzan oinarrituriko estrategiekin batera, hitzarmen instituzional, ekonomiko eta politikoei ekonomia neoklasiko ortodoxoaren adopzioa eta egonkortzea ere hobetsi dute (marketizazioa, pribatizazioa, gastu sozial txikiagoa, finantziarizazioa, nazioarteko konpetentzia, lan merkatuko baldintzen higadura). **Ekonomia neoklasikoa**
310. Are gehiago, irudikapen ekonomikoa "ezagutzan oinarrituriko ekonomia" delakoak moldatzeak, diskurtso publikoetan bigarren mailan utziko ditu ekonomiaren finantziarizazioari, burbuila ekonomikoari, finantza espekulazioari edota inbertsioak ekonomia errealetik aldentzeari buruzko dinamikak. Gai hauei buruzko kezka gutxietsi egin da.
311. Dinamika horiek, gainera, lurraldeko dinamikak baldintzatuko dituzte. Horren adibideak dira akumulazio estrategiak garapen urbanoan, zoruaren espekulazioan, higiezinetan edota espazio herritarren pribatizazioan. Are gehiago, joera kontradiktorio horiek garapenari eta lehiakortasunari loturiko narratiba, kezka eta galderen estutzea eta mugatzea ere ekarri zuten. **Joera kontradiktorioak**
312. Horren aurrean, berriki, lurraldetasunari buruzko metafora ekonomikoek lehiakortasuna gainditzeko premia ere zabaldu dute. Zehazki, narratiba instituzionalaren berrikusketa bat exijitzen da, ekonomia politikoaren ikuspegian oinarriturikoa. Korrante ortodoxoan badira irakurketa berriak, baina ikusmolde heterodoxoak ere ari dira tokia egiten. Hori dela eta, arreta ipintzen zaie jasangarritasunari, justizia sozialari, lurraldeen arteko lankidetzari, auzolanari, berrikuntza sozialari edota commons delakoei. **Narratiba heterodoxoak**

313. Eskaintzan oinarrituriko estrategien helburuetako bat izan da nazioarteko inbertsioaren erakarpena ahalbidetzeko testuinguruen sortzea. Horren adibide dira, besteak beste, komunikazio azpiegiturak, poligono industrialak, berrikuntza sareen sustapena, giza kapitalaren garapena, eta abar. Baliabideen eta kompetentzia instituzionalen mobilizatzeari lotuta, agentzia politikoak sortu dira ordenamendu nazional eta internazionalari eta eremu instituzional diferenteei loturiko proiektu zehatzak artikulatu, garatu eta exekutatzeko. Neurri horretan, arazoei eta aterabideei buruzko narratibek eta hitz egiteko moduek, nahiz eta proiektu zehatzetara mugatuak egon, sarritan gainditu egiten dituzte hitzarmen instituzionalak, agente ugariaren arteko koalizioak, estrategia ekonomikoak eta konfigurazio territorialak. Iruditeria globalaren menpeko dira, alegia.
314. Narratiba eta estrategia politiko batzuk koalizio inter-instituzionalak eta politikoak aktibatzeari lotu dira. Koalizio horiek maila instituzional formalean jardun dute. Izan ere, koalizioek autonomia eta botere instituzional oso diferenteko entitate infraestatal, estatal eta interestataleko ordezkari eta delegatuak integratzen dituzte. Era berean, halako magnitudea duten azpiegitura-proiektuen garapenerako baliabideen logika, justifikazioa eta mobilizazioa hiri garapenerako estrategiei eta eremu estataleko eta supraestataleko iruditeriei lotu zaie. Gainera, narratibek inpaktu ekonomikoari ez ezik, urbanizazio prozesuei, hiri identitate kosmopolitei eta Euskal Herriko hiri nagusien etorkizunari ere erreferentzia egiten diote.
315. Zentzu horretan, Euskal Herriaren lehiakortasuna eremu metropolitano urbanoen hiri europar eta globalekin lehiatzeko duten gaitasunari lotzen zaio. Hori dela eta, helburu nagusia da azpiegitura komunikatiboak eta kulturalak sortzea (hiri garapenerako proiektu handiak) eta, aldi berean, Euskal Herria, euskal hiri-eskualde modura, hiriburuen nazioarteko zirkuituan inkluitzea (hiriak zerbitzuek eta finantzek domeinatuta daude.)
316. Ekimen horiei buruzko irakurketa kritikoa sendoa da. Honen arabera, hiriaren branding eta marketing praktikek helburu bat dute, alegia, hiriaren irudi erakargarri bat proiektatzea, kontsumo errazekoa, nazioarteko audientzia eta kontsumitzaileari zuzendurikoa. Sektore turistikoaren hedapen bat izango litzateke, manufaktura industriari loturiko aktibitate ekonomiko tradizionalei alternatiba modura. Halako dinamika batek bidelagun izango du subjektu ekonomiko berri bat, hain zuzen ere, higiezinari, zerbitzuei, finantzei eta kudeaketa kulturalari loturiko merkatuek osaturikoa.
317. Berrikuntza sare eta eskualdeek azpiegituren garapena sektore industriala dinamikoagoa egite aldera ere azpimarratu dute, ordea. Ikuspegi hauek gainera euskal lurraldeetako bizitzeko moduen berrikusketa kritikoa eta konparatua egiteko ezinbestekoak dira.
318. Ikuspegi eta paradigma politiko horiek Estatuaren rola lidergo politikoaren

Nazioarteko
lehiakortasunaren
bizkortzea

Narratiba ekonomikoak

Hiri-eskualdeak

Marketing praktikak

Sektore industriala
sendotzea

Estatuaren rola

hornitzaile modura azpimarratzen dute (esate baterako, klusterretan oinarrituriko politikak). Helburua da testuinguru instituzional bat sortzea baliabideak mobilizatu, praktika onak identifikatu eta euren exekuzioa eta zuzendaritza kontrolatuko duena, etorkizuneko eskenatokiak eskaintzearekin batera.

319. Halako estrategia batek eskatu du eskala diferenteko agente sozial eta politikoak (unibertsitateak, enpresak, merkataritza ganbarak, tokiko gobernuak) artikulatzea. Zentzu honetan, narratiba eta iruditeria ekonomikoak lehenesten ditu beste europar eskualdeen ekonomietan oinarrituriko garapen eta lehiakortasun estrategiak aintzat hartzea. Honen osagarri, hirien esperimendazio edota eskualdearen garapena eta lankidetzaren egitasmoak oso emankorrak izan dira. **Lehiakortasun estrategiak**
320. Bestalde, euskal euro-hiriak hobetsi du erakunde-arteak proiektuak sustatzea hezkuntzaren eta azpiegituren eremuan, mugaz bi aldeetako erakundeekin, Europar Batasunaren ekimen instituzional eta politikoen aterkipean. **Euskal euro-hiria**
321. Funtsean, eskaintzan oinarrituriko ekonomiak Estatuaren rol fundamentalak azpimarratu du. Estatuak nodo zentral eta estrategiko modura jardun du kapitalismo globalaren berregituratze espazialari loturiko prozesu desberdin hauek koordinatzeko. Bestela esanda, Estatuak rol fundamentalak jokatu du akumulaziorako aukera estrategiko berriak sor daitezkeen sektore ekonomikoak babesteko (e.g. eraikuntza, finantzak eta zerbitzuak, garraioa, puntako industria manufaktura eremuan, kultura, etabar.). Hauen inpaktua eta aktuazioa desberdina da maila espazialean (e.g. zentro urbanoak, lurralde-arteak azpiegiturak, produkzioa eta eskalako ekonomikoak, hezkuntza), baina enfasi globalarekin eskaintzaren horniduran (e.g. zentro kulturalak, abiadura handiko trenak, ikerketa zentroak), kapital globala mobilizatu, sortu eta erakartzeko bitarteko modura. **Estatuaren rola**
322. Joera oso diferentek antzeman daitezke, akumulaziorako jarraibide modura. Arau berri gisa uler daitezke, baina zertan erreferentzia egin gabe krisi politiko eta ekonomiko bati (e.g. Ipar Atlantikoaren Fordismoaren krisia) eta beraz gainditu eta nazioarteko oreka berri baten berrezartzeari. Honek ahalbidetu du, esaterako, Europar Batasunaren sakontzea eta euro zonaren sortzea, baita akumulaziorako jarraibide horien inguruko adostasun politikoa eta instituzionala ere. **Akumulaziorako jarraibideak**
323. Hainbat dira, testuinguru ekonomiko globalean, irekitzen diren eztabaidak. Bata da eskaintzaren ekonomiari buruzkoa eta sare egitura duen ekonomia globalizatuan baliabide naturalen auziari dagokiona. Bestea da lurraldean errota dagoen enpresa-eredua eta enpresen jabetzari buruzkoa. Hirugarrena da Euskal Herriaren posizio strategikoaren eta bere politiken ingurukoa (numantinoa, asimilazio hutsa edo adaptazio endogenoa sarean). Izan ere auzi **Eskaintzan oinarritutako politikak**

politikoak dira.

324. Hori dela eta, euskal lurraldeei buruzko narratibak argitzeari ezinbestekoa irizten zaio. Halako ariketa batek eskatzen du euskal lurralde eta tokiko dinamiken ezagutza zehatza, eztabaida kolektiboan geografia desberdinak balioan jartzeko, barrurako begirada etnografiko eta estrategikoan ulertuz. **Narratiben garrantzia**
325. Eginkizunak ugariak dira: lurraldeari buruzko metafora diferenteak identifikatzea eta hierarkizatzea; narratiba teorikoen eta jarduera praktikoen artean ikuspegi dinamikoa eta erlazionala indartzea; berrikuntza kontzeptuala, aniztasun ideologikoa eta ikuspegi partekatua ahalbidetzea; narratiben zilegitasun demokratikoa zaintzeko eta demokratikoki kudeatzeko behar diren gobernantza tresnak identifikatzea. **Narratiben kudeaketa demokratikoa**

04 / EUSKARAREN ETORKIZUNeko ESZENARIOAK ELKARREKIN ERAIKITZEN (E5)

04.1. Aurkezpena

326. e5 Proiektua Eusko Ikaskuntzaren Mendeurrenaren eta XVIII. Kongresuaren baitan gorpuztu den egitasmoa da, eta bere xede nagusia datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea da. Proiektu honek «Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)» izenburua hartu badu ere, ez du euskararen egoeraren analisia egiten. Analisia ez da euskararen egoeran zentratzen, euskaraz garatu nahi duen komunitateak garapen horretarako dituen kapital eta aktiboetan baizik. Hau da, foku zuzena ez da euskara, komunitatearen kapitalak baizik. Garrantzitsua da hau kontuan hartzea.

e5 proiektua

Zentzu horretan, era honetako galderak izan dira Eusko Ikaskuntzaren «Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)» proiektuaren hasieran agertu eta proiektua bera funtsatu dutenak.

- Zein baliabide edo aktibo ditu euskaraz garatu nahi duen komunitateak, nahikunde kolektibo horretan komunitate gisa ahaldu eta bere helburuetan aurrera egiteko?
- Nola proiektatu nahi du Komunitate horrek bere etorkizuna eta nolako eszenarioak irudikatu nahi ditu proiektio horretan?
- Eszenario horietara hurbiltzeko, nolako arkitektura diseinatu behar du?

04.2. Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak

327. Esan bezala, e5 Proiektua Eusko Ikaskuntzaren Mendeurrena eta XVIII. Kongresuaren baitan txertatzen den eta datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea asmo duen egitasmoa da. Eta horretarako, honako azpi-helburuak zehaztu ditu:
328. Gizarte-eraldaketarako praxia bultzatzen lagunduko duen marko interpretatibo berria lantzea, euskaraz garatu nahi duen euskal komunitatearen kapitalen analisietan oinarritua.
329. Komunitatearen kapital horietan oinarrituta, etorkizunerako amestutako eszenarioen konstelazioa irudikatzea.
330. Desiratutako Eszenarioen Konstelazio horretara iristeko bide-orriaren arkitektura

Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak

Euskal Komunitatearen Kapitalak

Amestutako eszenarioen konstelazioa

Bide-orriaren arkitektura

lantzea, ezagutza eta praktika mailako ekarpen anitzak jasoz.

331. Proiektuaren eredu metodologikoa Arakatze apreziatiboaren ikuspegian oinarritutako eraldaketa-hausnarketan fokalizatuko da. Sistemaren muin positiboan zentratzen den arakatze eta eraikitze prozesu kolaboratzailea, dauden indarrak apreziatuz eta balioan jarriz. **Arakatze Apreziatiboa**

04.3. Abiapuntuzko indar ideia nagusiak

332. Hizkuntza normalkuntza gisa izendatu izan den prozesua, eraldaketa prozesua da, gizarte aldaketarekin lotzen den komunitatearen praxi soziala. Praxi hori, aldakorra den gizartearen botere eta elkarrekintzazko egituretan eta espazioetan gorpuzten eta gauzatzen da, eta, aldi berean, gizarte-egituretan berrikuntzak eta aldaketak eragiten dituen praxia ere ba da. Hori horrela ulertuta, e5 Proiektua ondoko indar-idea nagusi hauetan oinarritzen da: **Abiapuntuzko indar-idea nagusiak e5**
333. Konplexutasuna: Egungo gizartea errealitate sistemikoa eta konplexua da. **Konplexutasuna**
334. Polizentrismoa: Gizarte indarrak anitzak dira, polizentrikoak. **Polizentrismoa**
335. Sinkronizazioa: Konplexutasunean, bateratasun uniformeak baino, heterogeneidateen sinkronizazioak har dezake balioa. **Sinkronizazioa**
336. Komunitatea: Fokua ez da euskararen egoeran jartzen, euskaraz garatu nahi duen komunitatean baizik. Bere egungo baliabide eta etorkizuneko proiektioetan. **Komunitatea**

04.4. Kontzeptuen definizioa

337. Komunitatea. Kontzeptu konplexu eta multidimensionalak. Garapen komunitarioaren ikuspuntu batetik (Eito eta Gomez, 2013; Hillery, 1955; Marchione, 2004), komunitatea giza-talde bat da, espazio/lurraldea, ezaugarri kolektiboak, harremanak eta interakzio pautak partekatzen dituen, eta bere garapenerako hainbat baliabide eta bere baitatik sortzen diren hainbat nahikunde eta demanda partekatuak ere badituena. **Komunitatea**
338. Euskal komunitatea. Bere gizarte garapenerako eta sozializaziorako perspektiban, eta hizkuntza aniztasunaren testuinguruan, lurraldeko hizkuntzarekiko (euskararekiko) identifikazioa, sentimenduak, eta jarrera eta portaera aktibo eta positibo komunak partekatzen dituen komunitatea (Hernandez, 2008; Kasares, 2012, 2015; Tejerina, 1992). **Euskal komunitatea**

339. Komunitatearen Kapitala. (Euskal) Komunitateak bere garapenean etorkizuneko helburuak erdiesteko sortu edota eskura dituen aktiboen (baliabideen) multzoa da. **Komunitatearen Kapitala**
340. Aktiboak. Eraitza berriak sortze aldera gara-indarra eduki dezaketen baliabide edota errekursoak dira. Aktibo horiek ahalbide berriak agerrarazteko baliatzen direnean, Kapital bihurtzen dira. **Aktiboak**
341. Kapitalen aktiboak izan daitezke ukigarriak (eraikinak, diru baliabideak, argitalpenak...) edo ez-ukigarriak (sare sozialak, lidergo ahalmenak, eragin politikoa...). Aktibo horiek areagotu edo agortu egin daitezke. Esate baterako, giza-kapitalaren alorrean pertsonen hizkuntza-lidergoak indartzeko inbertsioa egiteak ekar dezake gero pertsona horien gaitasunak eta ahalmenak areagotzea (giza-kapitala), pertsona horiek gizarte sare berriak sustatzea (gizarte kapitala), edo jardun politikoan eragitea eta hizkuntza politikak bultzatzea (kapital politikoa). Aitzitik, aktiboak agortzen direnean, ez dituzte baliabide edota ahalbide berriak sortarazten.

04.5. Proiektuaren prozedura

342. Proiektua, 2018ko azaroan burutuko den Eusko Ikaskuntzaren Mendeurren eta XVIII. Kongresuari begira egituratu da, 2017 eta 2018 zehar egindako hiru Mintegiren bidez. **Proiektuaren prozedura**
343. Lehen Mintegia 2017ko ekainean izan zen Gasteizen (jabetu eta baloratu). Bertan proiektua azaltzarekin batera, proposatutako eredia balidatzeko eta ekarpenak jasotzeko Kontraste-elkarrizketak gauzatu ziren, eta Komunitatearen Kapitalen Mapa lantzeko lehen Tailer Apreziatiboa ere bideratu zen. **Jabetu eta baloratu**
344. Mintegi horretan, proiektua aurkeztu ondoren, proposatutako ereduari ekarpenak egiteko eta berau balidatzeko kontraste-elkarrizketak egiteko tartea ireki zen. Partaideak hiruna kidez osatutako mahaitxoetan elkartu ziren eta emandako galdetegiari erantzunez proiektuari balorazio kuantitatiboa eman eta ekarpen kualitatiboak egin zizkioten. Jasotako erantzunen datuek adierazitakoaren arabera, proiektuaren bultzatzearen aldeko iritziz garbia azaldu zuten Mintegian elkartutakoek, bat eta bost bitarteko eskalan 4,5eko batez besteko balorazioarekin.
345. Mintegiaren ondoren, eta bertan egindako lehen talde-hausnarketari segida emanez, mintegian parte hartu edota interesa adierazi zuten pertsonen aditu gisako ekarpen pertsonala eskatu zaie Delphi moduko galdetegi baten bidez, honako helburuekin: Komunitatearen Kapitalen Mapeoari buruz Mintegian jasotakoetan sakontzeko, eta, proiektuaren 2. Mintegiari begira oinarri-materialak

prestatzeko.

346. Bigarren Mintegia otsailaren 23an egin da (imaginatu). Mintegi horretan, Kapitalen Maparen emaitzak azaldu eta Etorkizuneko Eszenarioen konstelazioa lantzen hasi da. Ondoren, berriro beste Delphia zabalduko da hausnarketan sakontzeko. **Imaginat**
347. Hirugarren Mintegia 2018ko ekainean egitea aurreikusten da (modelatu). Mintegi horren xedea Etorkizuneko Eszenarioen konstelazioaren emaitzak azaltzea eta Arkitektura Estrategikorako ekarpenak jasotzen hastea izango da. **Modelatu**
348. Azkenik, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren ekitaldiaren baitan, arloaren Kongresu-ekitaldia burutuko da (diseinatu eta eraiki). Bertan, prozesuan zehar egindako hausnarketa eta analisisien emaitzak azalduko dira, arkitektura estrategikorako ekarpenen komunikazioak eta aurkezpenak egingo dira eta geroko eraikuntzarako ondorioak eta proposamenak jasoko dira. **Diseinatu eta eraiki**

04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa

04.6.1. Erreferentziazko komunitate-kapitalen eredia

349. Proiektu honetan kapitalen analisirako proposatzen den erreferentziazko eredia, Emery, Fey eta Cornelia (2006) egileek komunitatearen aldaketa positiborako landutako Community Capitals Framework ereduaren egokitzea da. Ondoko irudian agertzen dena. **Erreferentziazko Komunitate-kapitalen eredia**

350.



351. Ereduaren eskema jarraituz, ondoko orrietan agertzen dira ekaineko Mintegian egindako lanketatik eta ondorengo delphia galdetegian jasotako erantzunen analititik eratorritako egungo Aktiboaren Mapa.

352. Gogoratu behar da, hasieran azaldu den moduan, analisi honetan ez dela euskararen egoera aztertu nahi izan. Hausnarketa honen bidez, euskaraz garatu nahi duen komunitateak bere xede horretarako eskura dituen aktibo/baliabideak eta horien eragin-ahalmena identifikatu eta kapitalen lehen diagnostikorako mapa osatu nahi izan da.

04.6.2. Giza kapitala

04.6.2.1. Kapital honen definizioa

353. Jendearen abileziak eta gaitasunak hartzen ditu bere baitan, baita gure ezagutzak eta oparotasuna areagotzeko kanpoko baliabideak eta jakinduria-esparru ezberdinak lortzeko abilezia ere. (Atxikimendua / Hitzunak / Gaitasuna / Ezagutza / Lidergoak...)

Giza kapitalaren definizioa

04.6.2.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

354. **Aktibo 01. Euskararen militanteak. Indarra, inplikazio maila.**
- Euskararen militanteak
- Euskararen militante aktiboek hizkuntza biziberritzeko hainbat eginkizun betetzen dituzte, hizkuntza bera erabiltzea (baita euren esparru profesionalean ere), euskal kultura kontsumitzen dute, jendea motibatzen dute etab. Azken batean palanka garrantzizkoa da hiztunen militantzia aktiboa eta motibazioa.
 - Indarra, inplikazio maila. Euskara biziberritzeko indar eragileen ahalduntzea dakarte.
 - Euskararen komunitatearen motorrak dira, euskaldunak aktibatu eta trinkotu zein erdaldunak erakartzeko lan gehien egin dezaketenak.
355. **Aktibo 02. Profesional kontzienteak eta aktiboak.**
- Profesionalak
- Erabileran, era naturalean, sozializazio eremu naturalean eguneroko bihurtuz.
 - Eremu sozioekonomikoa sustatzeko aktiboak dira.
 - Euskara zabaltzea esparru berrietara, baita profesionaletara ere.
356. **Aktibo 03. Hitzunak arlo askotan egotea.**
- Hitzunak
- ‘Ahobizi’ eta ‘lehen hitza euskara’ dinamikak aktibatzeke aukera. Horrek ulertzen dutenei ohartaraziko lieke badutela aukera, hobetu behar dutela, ikasi, apur bat erabili, asko garelako euskaldunak...

- Euskararen presentzia eta erabilera arlo gehiagotan areagotzeko aukera.
 - Ahalduntze kolektiboa eremu desberdinetan eragiteko.
 - Gero eta profesional kontzienteagoak eta aktiboagoak esparru ezberdinetan.
357. **Aktibo 04. Gaitasun-kompetentzia-indar emozionala. Motibazioa, zerbaiten alde egiteko ohitura.** Gaitasuna-motibazioa
- Proiektu komunak diseinatu eta garatzeko ahalmenean gehiago sinestea ekar dezakete, egunerokotasunean autogobernu maila berriak konkistatzeko gogo eta ikuspegia.
358. **Aktibo 05. Euskaraz ulertzen duten gero eta pertsona gehiago.** Euskaraz ulertzen
- Negozio aukerak euskaraz bizi nahi dutenentzat.
 - Gaitasun-kompetentzia-indar emozionala erlazioa areagotzeko aukera.
 - ‘Belarri-prest’ dinamikak aktibatzeke aukera.
 - Euskaldunak aktiboagoak izateko aukera.
359. **Aktibo 06. Euskararekiko atxikimendua.** Atxikimendua
- Atxikimendua indar gisa. Euskara aukera bat izango da eta aukera hori elikatuko duenaren bila jardun beharko dugu, seguruenik orain baino dezente anitzago.
360. **Aktibo 07. Etorkinak, integratu direnak, eredu direnak. Etorkinak euskaratik abiatzea beren errotzea Euskal Herrian.** Etorkinak
- Euskara biziberritzeko indar eragileen ahalduntzea dakarte.
 - Euskararekin integratziorako bidea. Lanbideratzea eta gizarte kohesioa.
361. **Aktibo 08. Eratzeko / Elkartzeko gaitasuna.** Sareak
- Agente sozialen sareak sendotzeko aukera gizarte esparruka (klusterrak).
 - XXI. mendeko aktibismoaren ikuspegi eta molde berriak sortzeko aukera, seguruenik likidoagoak eta sendotasun gutxiagokoak, baina egunerokoan txertatuagoak orain baino.
362. **Aktibo 09. Ilusioa. Erakartzeko gogoia.** Ilusioa
- Euskara biziberritzeko indar eragileen ahalduntzea dakarte.
363. **Aktibo 10. Euskaldun aktiboak. Ibilaldietara joaten direnak. Berbalagun kideak.** Euskaldun aktiboak

Euskara ez jakiteak ezatsegina bihurtzea norbanakoentzat.

364. **Aktibo 11. Arnasguneetako euskal hiztunak.** Arnasguneak
- Arnasgune berriak sortzeko balioa eta indarra.
365. **Aktibo 12. Belaunaldi berriak, hirietan inoiz baino euskaldunagoak.** Belaunaldi berriak
- Belaunaldi berriak ahalduntzeko aukera: a) inertziak dakarkien 'kristalezko sapaia' apurtzeko; b) hizkuntzaren erabateko normalizazioa hurrengo belaunaldien agendan egoteko.
366. **Aktibo 13. Euskaldun berrien konpromiso eta militzantzia.** Euskaldun berriak
- Erabileran eragina.
367. **Aktibo 14. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.** Hizkuntza Eskubideak
Bermatzeko Protokoloa
- Ezagutza handitzeko kanpo protokoloa.
368. **Aktibo 15. Euskalgintzak profesional onak eta konprometituak ditu, eta aktibista oso ondo formatuak.** Euskalgintzako profesionalak
369. **Aktibo 16. Euskaldunak + euskalzaleak.** Euskaldunak

04.6.3. Kapital soziala

04.6.3.1. Kapital honen definizioa

370. Jendearen eta erakundeen arteko elkarrekintzak aztertzen ditu, "gauzak eginarazten dituen itsasgarri soziala" da. (Erakundetzea / Nahikundea / Saretzea / Ekintzailtza / Zeharlerrokotasuna...)
- Kapital Sozialaren definizioa

04.6.3.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

371. **Aktibo 01. Euskalgintza/euskaldunak lobby moduan jokatzeko baldintzak daude.** Euskalgintza
- Lobbyaren indarrak politikan, zergen kudeaketa eta banaketan eta administrazioaren lan-lerroetan eragin zuzena eta esanguratsua izan dezake. Baita irakaskuntzan ere; hezkuntza arloko eragileek euskal komunitate horren (looby) partaide izan behar dute, lan munduarekin bat. Hizkuntzaren gaia (*language awareness*) arlo eta maila guztietan

txertatuko duen indarra, gizartearen egunekorokoan iltzatzerainokoa.

- Ahalduntze kolektiboa egiteko aukera beste sektoretan egin izan duten bezalaxe, esaterako LGTB mugimenduan kontsumitzaile gisa historikoki garatutako kanpainak.
- Euskara komunikaziorako tresna eragingarria bihurtzea, hiztunentzat beharrezkoa eta hiztun gaientzat erakargarria.
- Gizartean eraldaketa eragiteko aukera.
- Lan/ekonomia munduan euskararen normalizaziorako eta prestigiorako oinarriak finkatu

372. Aktibo 02. Pertsonen kolektiboen indarra.

Kolektiboen indarra

- Oso prestatuak, oso profesionalak, motibatuak, kontzientziadunak, elkarrekin ondo konektatuak, sarean lan egiten, erakundeetan antolatuak.
- Sarean gero eta gehiago lan egiteko aukera.
- Egoera minorizatua bizi duen hizkuntza komunitate kide gisa. Komunitate horrek, batera eta antolatuta jokatu, bere egoera hobetzeko duen ahalmenaren jabe izatea.

373. Aktibo 03. Euskalgintza sektore berritzailea da eta gizartean onarpena du.

Euskalgintza

374. Aktibo 04. Euskararekiko gizartearen inplikazio aktiboa lantzeko martxan dauden ekimenak.

Gizartearen inplikazio aktiboa

- Gizarteak behin eta berriz adierazi du euskararen aldeko ekimen aktiboa. Orain arteko lortutakoaren atzean hori egon da historian, eta gaur egun ere bai, aldeko jarrera dago, eta orain ere herritik sortzen ari dira erabileran eragiteko ekimenak. Hori sekulako balioa da, eta balio horri eutsi egin behar zaio; eutsi eta indartu.
- Erabileraren palanka eta horren ondorioz, hizkuntzaren prestigioarena, komunitatearen trinkotzearena, eta euskararen baliagarritasunarena.

375. Aktibo 05. Kapital sozialaren aniztasuna. Erakunde aniztasuna (ideologikoa eta sektoriala).

Aniztasuna

376. Aktibo 06. Hizkuntzarekiko atxikimendua.

Atxikimendua

377. Aktibo 07. Helburu bateratuen inguruko adostasuna.

Adostasuna

378. **Aktibo 08. Nahia (indibiduala) / gaitasuna (kolektiboa).** Nahia / Gaitasuna
- Erabilera bateratu batean, hizkuntza ohiturak aldatzen.
379. **Aktibo 09. Euskara ‘helburu’ ez duten zenbait erakundek euskararekiko atxikimendua (enpresak eta sindikatuak bereziki).** Atxikimendua
380. **Aktibo 10. Era guztietako elkarteak sortzeko tradizioa / zaletasuna.** Elkarateak
381. **Aktibo 11. Euskara gizarte sektore guztietara eraman dugu: jarduera guztietan.** Sektoreak
- Euskararen presentzia bermatzeko aukera egun euskara arrotza den sektoreetan.
382. **Aktibo 12. Kapital soziala sortzen eta birsortzen klabeak diren bi sektore indartsu: irakaskuntza, komunikabideen sarea.** Sektoreak
383. **Aktibo 13. Sinergia erakundeak - gizarte eragileak - pertsonak.** Sinergiak
- Horrekin batera erakundeak eta gizarte eragileen zein pertsonen arteko sinergia ezinbestekoa da. Erakundeetan orain arte ikusi ez den borondatea ikusten da gizarte eragileen lana errekonozitzeko, eta aukera ona da elkarrekin aritzeko.
384. **Aktibo 14. Beste arloetako gizarte eragileak euskararen mundura hurbiltzen dira.** Zeharlerrotasuna
- Euskararen aldeko eragileak izan daitezke etorkizunean.
 - Zeharlerrotasuna; diskurtsoetatik ekintzetara. Euskalgintzaren mugak gaitzitzeko aukera.
385. **Aktibo 15. Jende asko dago aldaketa sozialerako lan egiteko prest.** Aldaketa soziala

04.6.4. Azpiegitura kapitala

04.6.4.1. Kapital honen definizioa

386. Komunitatea sostengatzen duten ekimen, tresna eta baliabideekin du zerikusia. Azpiegitura kapitala sarri askotan komunitatearen garapenerako saiakeren ondorioa da. (Lurralde antolaketa / Hedabideak / Hezkuntza...)
- Azpiegitura kapitalaren definizioa

04.6.4.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

387. **Aktibo 01. Euskalgintzaren amarauna.** Herrigintza
- Kontseilua. Topagunea + herrietako taldeak. Behatokia. Aholkularitza profesionala. Errigora...
 - Euskararen ikasketa eta erabilera erraztasun-testuinguru baten garatzea. Norbanakoen gertuko harreman sarea osatzen duten jarduera guztiak euskaraz izatea.
 - Herrigintzak eragin handia du euskara zabaltzeko, bere balioa indartzeko, aldeko jarreretarako, hiztun kopuruak areagotzeko, motibaziorako, etab.
388. **Aktibo 02. Komunikabideak.** Komunikabideak
- Hekimen. Tokikom. Euskarazko / Euskal hedabideak. EitBren euskal adarrak. Erdal hedabideetako euskal kazetariak.
 - Euskararen presentzia normaltzen dute beren lehen eginkizunaren bidez, hau da informatzea.
 - Hedabideak ezinbestekoak dira hizkuntza normalizatzeko eta hizkuntza ikusaratzeko, eta kontsumitzeko.
389. **Aktibo 03. Administrazioa.** Administrazioa
- Euskara saila, Batzorde zerbitzuak. UEMA. Administrazioko Sail politiko-administratibo euskaldun eta euskaltzaleak.
390. **Aktibo 04. Irakaskuntza.** Irakaskuntza
- Sareak. Ikastetxeak. Sindikatuak. Guraso elkarteak. Euskararen festak. Euskal Curriculum. EKI (ikasmaterialgintza).
 - Euskararen ezagutza eta erabileran, eskolan ezagutza unibertsala bermatuz, eta jarraian, oinarrizko zutabeak lan mundua eta unibertsitatea, erabileran eragiteko.
391. **Aktibo 05. Euskal Komunitatea interneten.** Internet
- Blogariak/Youtuberrak. Puntu.eus. Baliabide teknologikoak. Euskal wikipedia.
 - Etorkizuneko gizartean Internet kontsumo iturria.
 - Gizartea euskaraz sozializatzeko eta euskararen lidergoa eraikitzeko duten balio handia.
 - Erabilera modernoa eta erakargarria.
392. **Aktibo 06. Unibertsitatea.** Unibertsitatea

- Euskal adarrak. Ikerketa guneak. Euskal taldeak.
 - Gizartea euskaraz sozializatzeko eta euskararen lidergoa eraikitzeko duten balio handia.
393. **Aktibo 07. Kultura.** Kultura
- Argitaletxeak. Disketxeak. Antzerki taldeak. Musika taldeak...
394. **Aktibo 08. Euskalduntze alfabetatze sareak.** Sareak
395. **Aktibo 09. Euskararako azpiegiturak.** Euskarazko espazioak
- Kafe Antzokia(k), Azkue, Oihaneder, Martin Ugalde...
 - Espazio horiek guztiak saretuz, estrategiak kopartituz, konplizidadeak sortuz, sinergia berriak sortzeko aukera.
396. **Aktibo 10. Aisialdia garatu ahal izateko azpiegiturak.** Aisialdia
397. **Aktibo 11. Euskaltzaindia.** Euskaltzaindia
398. **Aktibo 12. Euskara eta kulturagintzako eragileen arteko artikulazioa.** Sinergiak
- Sinergien bidez dinamika berriak gauzatzeko aukera.
399. **Aktibo 13. Lan mundua.** Lan mundua
400. Aktibo denak batera arituz gero, indar handia egin dezakete, eta sinergia berriak eragin ahalmena piztu. Eragin ahalmena
401. Itzela, atzean jende eta proiektu anitz dago. Prestigioan eta autoritatean asko irabaziko lukete. Prestigioa izanez gero, jende gehiago mugituko lukete, eta jende hori normalizazio eragile bihurtu.

04.6.5. Kapital ekonomikoa

04.6.5.1. Kapital honen definizioa

402. Eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak komunitatearen garapenean inbertitzea eta komunitatearen beharretarako ez dauden baliabide ekonomikoak lortzea litzateke. (Euskararen BPG ekonomian...) Kapital
Ekonomikoaren
definizioa

04.6.5.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

403. **Aktibo 01. Euskara ekonomia-munduan irabazten ari den prestigioa eta balio erantsia. Honen isla aurrekontuetan.** **Balio erantsia**
- Ekonomian eta lan munduan baliozkoa dela ikusten den momentutik jendeak kasu egingo dio, garrantzia emango dio, ezinbestekoa ikusiko du ezagutzea.
 - Enpresetan euskara txertatzea, planak martxan jartzea etab. ahalbideratzen du.
 - Balio erantsia zenbakietan adierazteko aukera, balio horren adierazpena errazteko.
 - Euskara ezinbestekoa izatea enpresa munduan, euskararen ezagutza aukera profesionalak areagotzeko ezinbesteko faktorea izatea.
404. **Aktibo 02. Aurrekontu publikoetan jasotzen diren baliabideak.** **Baliabideak**
- Euskarak, gehiago edo gutxiago, balio ekonomikoa ere badu. EAE-ko BPG-ren ehuneko garrantzitsua da euskara eta euskararen industria bat badugu.
 - Aurrekontuetan inbertsioak areagotuz, beste aktiboek egin lezaketena biderkatzeko aukera.
 - Finantziarioak proiektua aktiba ditzake, nahierara, eta gizartean (norbanakoetan) zuzenean eragin; kontsumo-irizpideetan, egunerokoan, prestakuntza aukeratzeko orduan...
405. **Aktibo 03. Euskaraz lan egitearen onuraren diskurtsoa. Konplizitatea, konfidantza, etekina.** **Lan mundua**
- Euskara zabaltzean eta bere balioa areagotzen eragina izan dezake.
 - Balio komertziala du. Enpresak hariak dira hau balioan jartzen. 'Euskara garatu eta bizi nahi duen komunitatea' zabaltzen eta indartzen dijoan neurrian 'aktibo' hauek balio handiagoa izango dute.
406. **Aktibo 04. Lana topatzeko duen balioa.**
- Euskararen prestigioa eta beharra areagotzea.
 - Euskara jakitea ez da zalantzan jarriko.
407. **Aktibo 05. Euskara lagungarria da sozialki igotzeko.** **Balio erantsia**
- Euskara gertutik bizi ez dutenak euskararen komunitatea erakartzeko eta biltzeko balio du.
408. **Aktibo 06. Norbanakoek eta familiek euskarari eskaintzen dizkieten baliabideak.** **Baliabideak**
- Euskarak, gehiago edo gutxiago, balio ekonomikoa ere badu. EAE-ko BPG-ren ehuneko garrantzitsua da euskara eta euskararen industria bat

badugu.

409. **Aktibo 07. Publizitatea, euskaldunontzat, euskaraz egiteak eskeintzen duen balio erantsia.** Balio erantsia
- Itzulpena gaindituz, erabilera ohituratu, lexikoa norberegianatu eta normaltasunerako urratsa eramateko aukera.
410. **Aktibo 08. Euskaraz garatzeko zenbait erakundek egindako inbertsioak errentagarriak dira.** Baliabideak
- Euskara garatzeko inbertsio gehiago behar da, ez da subentzio publikoen menpe egongo.
411. **Aktibo 09. Goi mailako enpresak, berritzaileak, nazioartekotze maila handikoak dira euskararen aldeko apustua egiten ari direnak.** Erreferenteak
- Balore kateak sortzeko (enpresa berritzailea - arrakastatsua - gizarte erantzukizuna - euskara) eta erreferenteak izateko aukera.
412. **Aktibo 10. Produktuak euskaraz jartzeak onura ekonomikoa du.**
- Euskararen presentzia eta erabilera gehietzen dira.
413. **Aktibo 11. Errigora proiektua.**

04.6.6. Kapital politikoa

04.6.6.1. Kapital honen definizioa

414. Komunitateak boterea bereganatzeko edo bertan eragiteko gaitasuna adierazten du, «agendan eragin eta inposatzeko boterea». (Lege-babesa / Erakundetzea / Ideologia - diskutsoa...) Kapital Politikoaren definizioa

04.6.6.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

415. **Aktibo 01. Geroz eta elkarrizketa normalagoa euskalgintzaren eta erakundeen artean.** Elkarlana
- Elkarrekin aritzeko borondatea eta ematen ari diren lehen urratsak.
 - Euskalgintzaren eta instituzioen artean konplizitateak garatzeko aukera.
 - Indar eta baliabideak optimizatzeko aukera.
 - Beheko politikek goiko politiketan eta alderantziz jarraipena izateko aukera.
 - Indarrak batuz, gero eta jende gehiago hurbilduko da. Inertzia handiagoz aurrera egiteko olatua eragiteko aukera.

416. **Aktibo 02. Elkarrekin lan egiteko gogo eta erabakia erakundeen aldetik.**
- Hizkuntza politikaren ekimenak bateratzen ari dira.
 - Eskolan eta administrazioan bezalaxe, beste eremuetan ere arauak eta erabakiak zehazteko aukera.
417. **Aktibo 03. Hizkuntza Eskubideak Bermateko Protokoloa.** Hizkuntza
Eskubideak
Bermatzeko
Protokoloa
- Normaltasun bidean sakontzeko erreferentzia.
 - Hizkuntza orokor baterako gida.
 - Agenda politikoan eragin eta proposamenak mahaiganeratzeko tresna.
418. **Aktibo 04. Hizkuntza politiken babes sozial altua.** Babes soziala
- Bestelako erabaki politikoak hartzeko aukera. Neurri ausartak hartzeko indarra.
 - Gizarteak babesten duen hizkuntza politika aktiboarekin ‘mundua’ mugiarazi daiteke.
419. **Aktibo 05. Euskararen lurraldean ‘batera’ aritzeko aukera dago.** Babes soziala
- Batera goiatzeanaren sentsazioa handitzea. Talde sentsazioa handitzea.
 - Euskararen lurralde osorako politikak jartzeko aukera.
420. **Aktibo 06. Etorkizunean erakundeetan aginduko dutenak euskaldunak izango dira.** Etorkizuneko
erakundeak
- Etorkizuneko zuzendariak elebidun izateak behar-beharrezkoa sinergiak ekar ditzake erakundeen artean, baita langile/erakundearen arteko harremanetan.
 - Euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen ikasketari prestigioa eta baliagarritasuna eransteko aukera.
 - Euskararen aldeko politikak eta baliabideak luzerako ziurtatzeko aukera.
421. **Aktibo 07. Erakundeetan euskara planak maila anitzetan.** Euskara planak
- Enpresa handietan legez aplikatzeko aukera.
422. **Aktibo 08. Euskararen legea. Bestelako lege eta arauak.** Euskararen legea
423. **Aktibo 09. Salbuespenak salbuespen, gero eta zailagoa da botere politikoa eskuratzea, euskararen kontrako jarrera esplizitu batetik.** Babes soziala
424. **Aktibo 10. Jarrerak aldekoak dira herritarrengan eta horiek bozkatzeko dute gero.**
425. **Aktibo 11. Erakunde publikoetan inoizko indarrik handiena.**
- Gizartearen eskakizunei erantzuteko aukera. Ideiak formalizatzeko eta instituzionalizatzeko, eta neurria askotarako babes ekonomikoa lortzeko

aukera.

- Ekimen gehiago eta eraginkorragoak antolatzeko aukera.

426. **Aktibo 12. Euskararen erabilera diskurtso berriaren muina.** Diskurtso berriak
427. **Aktibo 13. Euskararen ofizialtasuna (hala dagoenetan).** Ofizialtasuna
428. **Aktibo 14. Hizkuntza politika maila akademikoan.** Hizkuntza politika
- Kalitatezko hizkuntza erregistro guztietan.
429. **Aktibo 15. Nafarroan azken aldiaren euskararen normalizazioa bermatzea helburu duen hizkuntza politika adostu da.** Nafarroa

04.6.7. Kapital kulturala

04.6.7.1. Kapital honen definizioa

430. Jendeak “mundua ezagutzeko” modua islatzen du, kosmobisioa, talde horren barnean sustraitutako ohitura, ondare eta sinesmenak. (Sinbolikoa / Nortasuna / Arnasguneak / Balioak / Ondarea / Ekimenak...) Kapital Kulturalaren definizioa

04.6.7.2. Kapital honetan identifikatutako aktiboak, eta aktibo horien eragin ahalmena

431. **Aktibo 01. Nortasuna. Identitatea, komunitate baten tokia, nor izan.** Identitatea
- Oro har, euskararen hiztun-elkartea hedatzea eta trinkotzea.
 - Nor izatearen beharrari erantzuteko osagai inportatea eta hizkuntza propioarena, eta horrekin lotzen den komunitatearen garapena, eta iraunkortasunean eragin positiboa izateko gogoia sor dezake.
 - Euskal identitateak kohesioa ematen dio komunitateari, eta hizkuntza identitate horren oinarritzko elementu gisa ulertzea hizkuntza biziberritzeko gako delarik iruditzen zait, bereziki, erabilera handitzeko (gazteen artean, adb.) eta hiztun-kopurua handitzeko.
 - Gure kapital sinbolikoa sendotzea.
 - Euskal identitate berri bat sortzeko aukera (Mtz de Lunak aipatzen duen framing berria), zeinekin afiliazio politikoaz gaindikoa nortasun linguistikoa bat sortzeko litzatekeen Euskal hiztunen trinkotzea areagotu eta hiztun gutxiago izanda ere, batasun horrek ahalbidetuko luke euskararen erabilera areagotzea, besteak beste.
432. **Aktibo 02. Euskarak kohesio elementu gisa (integratzaile) hainbat gizarte sektoretan duen kontsiderazioa.** Kohesio elementua
- Integrazioarako duen balioaren pertzeptzioa, bertako komunitateko

partaide sentitzeko bide da.

- Euskararen komunitatea trinkotzen eta hedatzen, euskalduntzen ari diren ingurune erdalduneko kideak euskararen komunitaterantz erakarriz eta txertatuz.
- Belarriprest gehiago izateko bidea izan daiteke.
- Ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko palanka.

433. **Aktibo 03. Kultur sorkuntza aktiboa eta kalitatezkoa. Euskal sortzaileen oparotasuna eta ugaritasuna.** Kultur sorkuntza

- Saretuz gero mugimendu kultural garrantzitsua osatu daiteke, garai bateko 'ez dok amairu'-ren bertsio berritua XXI menderako. Kulturak (eta aisialdiak) sarri espazio publikoarekin ere zerikusia du: lanetik etxera eta etxetik lanera besterik mugitzen ez den gizartea ez da normalizatorako ona.
- Hitzun komunitatearen espazioa edukiz indartzeko aukera.
- Kultur sorkuntza oso oparo batek, eskaintza handitzea dakar, eta eskaintza zenbat eta handiago orduan eta samurrago jende gehiagoren interes eta gustuak asetzea.
- Espazio berriak eta 'prestigio' dutenak irabazteko aukera, jende gehiago euskarara erakarriz.

434. **Aktibo 04. Aniztasuna / Eleaniztasuna.** Aniztasuna / Eleaniztasuna

- Kultura anitzak -> Adierazpen kultur anitzak. Dinamismoa. Kultur espresio anitz eta aberatsak.
- Hezkuntza sisteman eragin zuzena eduki dezakete, haur eta gaztetxoek euskararen dinamismoa bizi dezaten.

435. **Aktibo 05. Euskarak balio sinbolikoa, hainbat gizarte sektoretan sentimendu positiboekin lotzen da.** Balio sinbolikoa

- Euskara erakargarri bilakatzen du, batez ere ezagutzen eta erabiltzen ez dutenentzat.

436. **Aktibo 06. Arnasguneetan denboran iraun duen ekimenak.** Arnasguneak

- Hizkuntzaren berreskuratze/hedapen-prozesu geografikoa.

437. **Aktibo 07. Euskararen biziberritzea bera balio bat bihurtu da (hemen, eta atzerrian).** Euskararen biziberritzea

- Nazioartean, hizkuntza gutxituen biziberritzean aitzindaritzat hartuz, eta horretaz baliatuz, orain arte jorratu gabeko esparruetara hedatzea euskararen normalizazioa, ikerketa eta aldi berean ezarpena bultzatuz (ezarpen-ebidentzia sortuz). Osasungintzaren esparrua izan daiteke une honetan lehentasunezkoa, duen garrantziagatik eta jardueraren

bolumenagatik (handiena).

438. **Aktibo 08. Singulitatearen indarra. Hizkuntza propioa izatearen balioa.** Singularitatea
439. **Aktibo 09. Ondarea.** Ondarea
- Harrotasuna eta parte nahi-izatea.
440. **Aktibo 10. Bertsolaritza eta beste kultur adirazpide batzuen erreferentzialtasuna.** Erreferenteak
- Euskara prestigiatu, balioa erantsi.
441. **Aktibo 11. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.** Hizkuntza
Eskubideak
Bermatzeko
Protokoloa
- Kohesio ideologiko-diskurtsiboa eta hizkuntza-eskubideen inguruko kosmobisioa eskuratzeko tresna.
442. **Aktibo 12. Euskaldun izateak ematen duen elkartasun eta batasun sentimenduak eragin zuzena ekonomia proiektuetan.** Balio erantsia

05 / EUSKAL LURRALDE(AR)EN GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

Atal honek hiru bloke handi ditu:

- Lehenik eta behin, zenbait erronka eta aukera global aurkeztuko ditugu, eta erronka horiei buruzko tokiko irakurketa, Euskal Herri mailan. Hain zuzen ere, lehen blokeak honako erronka eta aukera hauek jorratzen ditu: krisi ekologikoa; erronka demografikoa; gizarte-, sexu- eta lurralde-arloetako desberdintasunak eta desorekak; zainketen eta gizarte-zerbitzuen krisia; ezagutzaren gizartea sendotzea; enpleguaren eraldaketa; aurrerapen teknologikoa eta digitala; eta lehiakortasun globala eta nazioartekotzea.
- Bigarren blokean, Euskadiko ekonomiaren, enpresen eta gizartearen ezaugarriak eta balio bereizgarriak aztertuko ditugu. Horretarako, honako hauek hartzen dira aintzat euskal egitura ekonomikoaren baitan: gizarteratzea; gizarte-ekonomia; lankidetzaren publiko-pribatua eta eragileen artekoa; zerga- eta finantza-sistemak; kapital soziala; eta balioak.
- Azken zatian, hirugarren blokean, Liburu Zurian azterketa sakonagoa egiteko aukeratu diren lehentasunezko hiru hausnarketa-lerro aurkezten dira: ongizate-eredua, lurralde-estrategiak eta iraunkortasuna, eta, azkenik, enpresa-eredua eta lan-harremanen eredua.

Liburu Berdetik Liburu Zuria sortzeko prozesuan, beharrezkoa da diagnostikoaren ondoren etorkizuneko zenbait proposamen eta arkitektura egitea, gure lurralde aberatsagoa eta kohesionatua izan dadin.

Horretarako, egungo gizartearen erronka eta kezkekin bat datozen hiru gai nagusi aukeratu ditugu, hain zuzen ere pertsonak eta gizarte-kolektiboak, gure benetako lehengaiak, ardatz hartzen dituztenak.

Honako hauek dira lehenik eta behin 2018an Liburu Zurira begira landuko ditugun hiru gai nagusiak:

Euskadiko herritarren **Gizarte Ongizatean** arreta jartzea ezinbestekoa da; lehen ardatza, da, ardatz nagusia. Ez aurrerapenek ez ezagutzek ez dute zentzurik, baldin eta ez badute kohesionatzen, eta ez badira solidarioak. Herritarren ongizatea da helburua; horretarako, desberdintasunak txikitu behar dira, eta arreta jarri zainketetan, gizarteratzean eta gure gizarte-zerbitzuen sisteman. Hori lortzeko baliabideei soilik erreparatuz gero, gaizki bideratuko genuke partekatu nahi dugun ikuspegi orokorra, nahi dugun gizartea.

Bigarren ardatzaren xedeak **lurralde-estrategiak eta iraunkortasuna** dira. Produkzio-estrategiaz, sektore ekonomikoez eta aberastasunaren sorreraz hitz egingo dugu, bai eta iraunkortasunerako ereduaren eraldaketaz ere. Lurralde-estrategian, behar-beharrezkoa da lehentasunei eta hautaketa estrategikoei buruz pentsatzea. Enpresa-estrategiaz mintzatzea baino askoz ere konplexuagoa da, ordea, eta hautaketa horiek erabakitzea korapilatsua da, hainbat eragileri eragiten baitiete. Horrenbestez, lurralde-estrategia zehaztean, gure indarguneak eta gure berezitasunak aprobetxatu behar ditugu, eta adimentsu eta lankidetzan jokatu, eta gure harremanak trinkotu ere bai, erronkei aurre egiteko

erantzun berriak aurkitzeko. Lurralde-estrategia ekimen ekonomikoen, lurraldeen eta administrazioen artean gauzatu behar da ezinbestean.

Hirugarren ardatzak, **enpresa-ereduak, lan-harremanen eredu eta ekonomia berriak** aintzat hartzen dituenak, zentzuzko zirkulu bat ixten du. Aberastasunik gabe, ez dago ongizaterik, eta, enpresa-eredu eta lan-harremanen eredu argirik gabe, ez da aberastasunik sortzen. Eta, horretarako, eredu horiek gure lehiakortasuna handitzea ekarri behar dute, bai enpresa bakoitzarena, bai gure lurraldearena eta jarduera ekonomikoarena. Aldaketa teknologikoak hain bizkor gertatzen diren garai hauetan, guztiz beharrezkoa da gure inguruko ekonomia berri horiei eta hain berriak ez direnei arretaz, lotsarik gabe eta enpatiaz erreparatzea.

05.1. Sarrera

443. Mundu mailan garatzen ari diren demografia-, teknologia-, merkataritza-, **Joera-aldaketa** ekonomia- eta gizarte-adierazpideak ikusita, joera-aldaketak eta horren ondorioz sortzen diren zalantzek berekin ekarri dituzte planeta honetako erronka nagusiak identifikatzeko eta haiei buruz hausnartzeko prozesuak. Aldi berean, gure gizarteetan gertatzen diren aldaketa globalen izaera eta ondorioak direla eta, jabetzen ari gara toki- eta lurralde-mailan askotariko etorkizunak egon daitezkeela joera-aldaketarekin lotuta; horrek aktiboki pentsatzera eta jardutera bultzatzen gaitu, etorkizuneko egoerak zehazteko, eta nahi ditugun eta onar ditzakegun aldaketak eragiteko.
444. Adibidez, Millennium Proiektuak 15 Erronka Global identifikatu eta eguneratu ditu; **Erronka globalak** aldaketa globala ulertzeko esparru gisa erabil daitezke, baita etorkizuna hobetzeko agenda gisa ere. Honako hauek dira aipatutako erronkak: 1) Garapen iraunkorra; 2) Ur garbia denentzat; 3) Biztanleria eta baliabideak; 4) Demokrazia; 5) Epe luzeko politika globalak; 6) Informazio teknologikoa eta hedabideak; 7) Pobreziaren eta aberastasunaren arteko aldea; 8) Osasunaren aurkako mehatxuak; 9) Erabakitzeo ahalmena; 10) Bakea eta gatazkak; 11) Emakumearen egoera; 12) Nazioz gaindiko krimen antolatua; 13) Energia; 14) Zientzia eta teknologia; eta 15) Etika globala.
445. Bestalde, Nazio Batuen 2030 Agendak, 2015eko Garapen Iraunkorraren Gailur historikoan 150 estatu- eta gobernu-buruk baino gehiagok onartuak, 17 helburu unibertsal ezartzen ditu. Ustez, 2016ko urtarrilaren 1az geroztik, herrialdeek aintzat hartzen dituzte helburu horiek, 2030. urterako mundu iraunkorra lortzeko egiten dituzten ahaleginetan. Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) oinordekoak dira, eta haiekin lortutako arrakastak zabaltzea eta lortu ez diren helburuak lortzea dute xede.
- Garapen
Iraunkorreko
Helburuak**

446. Helburu berri horiek berezitasun bat dute: herrialde guztiak bultzatzen dituzte oparotasunaren aldeko neurriak hartzean planeta babesteko neurriak ere hartzera. Helburuen arabera, pobrezia desagerrarazteko ekimenekin batera, hazkunde ekonomikoa sustatzen duten estrategiak eta premia sozialei erantzuteko neurriak behar dira. Besteak beste, hauek dira aipatzekoak: hezkuntza, osasuna, gizarte-babesa eta enplegurako aukerak. Aldi berean, klima-aldaketaren aurka egiten dute, eta ingurumenaren babesaren alde.
- Dena den, erronka-multzo horri gure gizartean sortzen ari diren aldaketak eta hausturak gehitu behar zaizkio; izan ere, azken hamarkadetan gidatu gaituzten ziurtasunak eta joerak zabaltzeko eta indartzeko aukera galarazten dute aldaketa eta haustura horiek. Demografia-, teknologia-, merkataritza-, ekonomia- eta gizarte-aldaketa horien ondorioz, gure gizarteak (egonkortasun- eta ziurtasun-inguruneetarako pentsatuak, antolatuak eta gaituak) eta haiek osatzen dituzten eragile, estrategia eta baliabideak gidatu dituzten joerak (gehiago edo gutxiago aurreikus daitezkeenak) aldatzen ari dira.
447. Aldi berean, zenbait helbururen (hala nola hazkunde ekonomikoa, garapen iraunkorra eta giza ongizatea) izaera eta interrelazioa askotariko interpretazioen oinarri dira, eta hor dago giza garapen iraunkorra ulertzeko eta neurtzeko adierazle-multzo berri baten garrantziaren jatorria. Horrenbestez, batetik, agerikoa da aurrerapen ekonomikoa eta aurrerapen soziala oso lotuta daudela. Hala ere, bestetik, erabiltzen ditugun adierazle ekonomiko nagusiak ez dira nahikoa, oraindik ere, herritarren ongizateak izandako hobekuntzaren arrakasta ebaluatzeko. Hortik aurrera, beste etorkizun bat, egonkorragoa, sortu beharko dugu, beste gizarte sozioekonomiko bat oinarri hartuta, eta, gizarte-eredu horretan, finantza-sistema laguntza izango da, eta ez motorra, eta, hazkundean, kontabilitate ekologiko eta soziala ere hartuko da kontuan, eta ez soilik dirua lehenesten duena. Horrez gain, giza premien, gizarte-aurrerapenaren edo muga biofisikoekiko kontzientziaren gogoeta alternatiboek sorrarazi egiten dituzte gizarte-entorkizunari buruzko eztabaiden funtsa eta xedea zabaltzen laguntzen duten bizitza-ikuskerak eta praktika sozioekonomikoak.
448. Euskal Herrian arlo instituzionalean ematen ari den berritze prozesu batekin bat egiten duten aipatutako aldaketa guzti hauek. Bereziki Ipar Euskal Herriko Elkargo berriak, bere lan-agendarekin, aro berri honetan erronka horiei modu koordinatuan erantzuteko atak irekitzen ditu.

Joera-aldaketa

Ekonomiaren eta
gizartearen ikuskera
alternatiboak

Ipar Euskal Herriko
Elkargoa

05.2. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian

05.2.1. Krisi Ekologikoa: energia, klima-aldaketa, bioaniztasun galera

449. Antropozenoaren garaira salto egin dugu... Antropozenoa
- Askotariko ikertzaileek gizakiok biosfera aldatu dugulako ebidentzia zientifikoa adierazi dute. Esaterako, Geologia alorreko zientzialari ugari gizakiaren esku-hartzeak ezaugarritzen duen garai geologiko berrian sartu garela azaldu dute, alegia, Holozenotik Antropozenora jauzia jada egin dugula onartzen dute. Azken hamarkadetan gizakiok sorrarazitako eraginak eta aldaketak Lur planetaren bizitza bera kolokan jartzerainokoak dira, eta, ondorioz, baita giza espeziarena ere.
450. Hori guztia ez da ustea, zientziak babestutako ebidentzia baino. Krisi ekologiko larriaz berri emateko eta, ezinbestean, horri aurre egiteko beharraz sarri azaldu da komunitate zientifikoa; besteak beste, 2012 urtean Planet under Pressure konferentzian eta 2017an mundu-mailako 15.000 zientzialari baino gehiagok sinatutako bigarren aldarri nagusian (lehen 1992an izan zen). Krisi ekologikoa
451. ...muga biofisikoak gainditu baititugu. Muga biofisikoak
- Gizakiok biosferaren gain egiten dugun presioa planetaren jasateko ahalmena kolokan jartzen ari da. Goi-mailako aldizkari zientifikoetan (Nature, Science) argitaratutakoaren arabera, identifikatutako 9 planeta-mugetatik 7 kuantifikatu dira maila globalean; horietatik 4 behintzat gainditu ditugu jada: klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, fluxu biogeokimikoak (nitrogenoa eta fosforoa) eta lur-erabilera sistemaren aldaketa. Muga biofisiko horien gainditzeak, gainontzekoekin elkar lotuta dauden heinean, eragin itzulezinak izan ditzake bai Lur-sistemaren funtzionamenduan bai gizakion ongizate zein iraunbizitzean, gure "jarduteko eremu segurua" kolokan jarritz.
452. Gizakion jarduerak biosferan duen eragina azaltzeko ohiko adierazle bat aztarna ekologikoa da, zeinak azalera terminotan gizakiok kontsumitzen ditugun baliabideak produzitzeko eta sorrarazten ditugun hondakinak xurgatzeko behar dugun eremu produktiboa adierazten duen. Azken datuen arabera, 2012 urtean mundu-mailako aztarna ekologikoa 2,8 hektarea global per capita (gha p/c) ziren, eta planetaren bioahalmena ordea 1,7 gha p/c. Hortaz, defizit ekologiko egoeran gaude, zeina 1970eko hamarkada gerostik etengabekoa den. Izan ere, egungo belaunaldiok "kapital naturala jaten ari gara", alegia, etorkizuneko belaunaldien kontura bizi gara, eta horrek belaunaldi arteko ekitate eza nabarmena adierazten du. Aztarna ekologikoa
453. Hazkunde ekonomiko mugagabea oinarri duen eredu batek... Hazkundearen mugak
- Askotarikoak dira gizakion presioa biosferaren gain eragiten duten faktoreak,

besteak beste, hazkunde demografikoa, produkzio-kate globalak, kontsumo ohiturak eta nagusiki erregai-fosiletan oinarritutako eredu energetikoa. Horien guztian jatorrian, izan ere, hazkunde ekonomikoak gidatzen duen sistema sozioekonomiko globala dugu. Aitzitik, termodinamikaren legeek azaldu bezala, etengabeko hazkunde ekonomiko materiala planeta finitu batean ez da iraunkorra. Gainera, Ipar-Hego dialektikaren testuinguruan, orokorrean Iparra dugu ereduaren bultzatzaile eta onuradun nagusia Hegoak ondorio latzenak pairatzen dituen bitartean.

454. ...askotariko ondorio ekologiko latzak dakartza...

Klima aldaketa

Klima-aldaketa. Gizakion jardueraren eraginez, berotze-globala areagotzen ari da. Klima-aldaketaren Gobernu Arteko Aditu Panelaren (IPCC, ingelesez) arabera, berotegi-efektuko gasek mundu-mailako tenperatura $0,85^{\circ}\text{C}$ igoarazi dute azken 130 urteetan, eta 1950az geroztik $0,12^{\circ}\text{C}$ igoera izan da hamarkadako; 2100 urterako $2-4,8^{\circ}\text{C}$ igoera aurreikusten da agertokiaren arabera. Jakina denez, klima-aldaketak askotariko ondorioak dauzka bai Lur-sisteman beran (espezie biologiko askoren desargetze-arriskua areagotu, hondamendi ekologikoen areagotzea, etab.) bai arlo sozioekonomikoan (klima-migrazioen nabarmentzea, nekazal-sistemen eraldatzea, etab.). Hala, ingurumen-politiken esparruan nazioarteko lehen helburu bilakatu da klima-aldaketaren aurkako borroka.

455. Ekosistemen narriadura eta biodibertsitatearen galera. Milurteko Ekosistemen Ebaluazioak (MEA, ingelesez) adierazi duenez, azken 50 urteetan ekosistemek hornitutako ingurumen-ondasun eta -zerbitzu nagusien % 60 narriatuak izan dira edo era ez iraunkorrean kudeatzen ari dira. WWF-ren arabera, 1970 eta 2012 bitartean ornodunen biodibertsitatea % 58 murriztu egin zen. Zientzialari askok baieztatzen du planetak jasango duen seigarren espezieen iraungipen masiboaren aurrean gaudela, baina oraingo hau gizakiok sorrarazitakoa dugu.

Ekosistema eta biodibertsitatearen galera

456. Baliabide naturalen agortzea eta narriadura. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO, ingelesez) adierazi bezala, basogabetzeak 1990-2015 urte bitartean 129 miloi ha garbi desagerrarazi ditu; azken 30 urteetan, lur-azaleraren % 30ak nolabaiteko narriadura jasan du, besteak beste, larreen herenak, nekazal-lurren laurdenak eta basoen ia laurdenak; merkaturatzen diren arrain espezieen artean, % 10 soilik ustiatu egiten da bere birsortze-ahalmenaren azpitik, % 58 maximora ustiatu egiten da eta % 31 bere ahalmenaren gainetik (gehiegizko ustiapena); 1992 urtean 30 herrialdek baino gehiagok estres hidrikoa pairatu bazuten 2014an ia 50 herrialde izan ziren.

Baliabide naturalen agortzea

457. Petrolioaren goi-muga eta material estrategikoen agortzea. Eredu energetikoaren oinarri den petrolioa agortzen ari denaren inguruko ebidentzia geroz eta sendoagoa da; orokorrean, gainera, energia lortzeko erabili beharreko energia kantitatea geroz eta garaiagoa da, alegia, energia lortzearen kostu energetikoa hazkorra da. Berriztagarriak ez diren beste baliabide batzuk ere era hazkorrean

Eredu energetikoaren krisia

agortzen ari direneko ebidentzia geroz eta nabarmenagoa da (besteak beste, aluminioa eta kobrea). Esaterako, Europako Batasunak 20 lehengai kritikotzat jotzen ditu hornikuntza arriskuaren eta garrantzi ekonomikoaren arabera. Horrek guztiak balizko kinka larrian jarriko du sistema globala laster, ekoizpen-, garraio- eta merkataritza-berregituraketak bultzatuz.

458. ...eta baita gizakion ongizatean ere.

Iraunbizitza kolokan

MEAk adierazi bezala, ekosistemek askotariko zerbitzuak eskaintzen dizkigute gizakioi: euskarrikoak (lurzoruaren formazioa, mantenugaien zikloa, etab.), hornikuntzakoak (elikagaiak, ur edangarria, etab.), erregulaziokoak (airearen kalitatea, izurriteen kontrola, etab.) eta kulturalak (ezagutza, aisialdia, etab.); eta horiek guztiek gizakion ongizatea lau ataletan behintzat baldintzatzen dute, hots: segurtasuna, bizitzeko baliabideak, osasuna eta gizarte harremanak. Hala, ekosistemen narriadurak edo kudeaketa ez iraunkorrak gure ongizatean eragin zuzena du, iraunbizitza kolokan jartzeraino.

459. Euskal Herrian ere badauzkagu krisi ekologikoaren zantzuak...

Krisi ekologikoa

Iparraldeko beste zenbait herrialderen antzera, Euskal Herrian badira ingurumen-presioa eragiten duten faktoreak, besteak beste, lurzoruaren artifizializazioa, industria- eta garraio-azpiegiturek eragindako habitaten zatikatzea, garraio-modu eta ekonomia-jarduera jakinen kutsadura, kanpo-espezien inbasioa eta klima-aldaketa. Esaterako, CO2 isurketak bere horretan mantendu dira aldaketa nabarmenik gabe azken urteetan, zeina energia ereduarekin lotuta dagoen (kontsumitutako energiaren % 90 inguru jatorri fosilekoa da EAEn).

460. Argitaratu diren azken datuen arabera, 2001 urtean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) aztarna ekologikoa 4,6 gha p/c zen. Alegia, munduko biztanle orok EAEkoon bizi-maila bera izango balute 2,7 planeta beharko genituzke guztion bizi-mailari eusteko. Ordea, Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) aztarna ekologikoa 2005 urtean 5,6 gha p/c zen eta haren bioahalmena 3,4 gha p/c. Hortaz, baita NFEan ere defizit ekologikoa daukagu.

Aztarna ekologikoa

...nahiz eta Euskal Herriko lurraldetik kanpo izan eragin nagusiak.

Beste erara esanda, bai EAEko bai NFEko ekonomiak beren mugetatik kanpo eskuratzen dute eremu produktiboa, alegia, beste herrialde batzuetako eremu produktiboaren kontura bizi gara, eta horrek belaunaldi barneko ekitate eza nabarmena adierazten du.

461. EAEko ekonomiak lehengai material ugari behar ditu eta horietako asko inportatuak dira, jatorri herrialdeetan inpaktuak sorraraziz. Batetik, EAEak merkataritza-defizit fisiko (esportatutako eta inportatukoaren arteko diferentzia termino fisikotan) kronikoa du, eta hazkorra izan da azken urteetan; esaterako,

Menpekotasun
biofisikoa

defizit hori laukoiztu egin zen 1996-2010 denboraldian. Bestetik, 2005-2011 bitartean EAEko material eskakizun totala (zuzenean erabilitako input materialak eta horien erazketan sorrarazitako hondakinak eta erabili gabeko materialak) % 19 hazi zen 180t p/c izateraino, alegia, Iparraldeko herrialde askoren balioen gainera.

462. Euskal Herriko ekonomiaren jarduerak bere lurraldeaz kanpo dituen eraginak kasu konkretuetan dokumentatu dira; esaterako, euskal ekonomiak darabiltzan eztaingurak, palma-olioak eta atunak dituzten eraginak, hurrenez hurren, Bolivian, Indonesian eta Indiar Ozeanoan. Horiek guztiek zor ekologikoa sorrarazten dute, alegia, Euskal Herriak hirugarren herrialdeekiko duen zorra inpaktu ekologikoa dela-eta. Esaterako, 2005 urtean EAEko karbono zorra (zor ekologikoaren parte bat soilik) 5.348 miloi eurotan balioztatu zen (BPGaren % 9). Zor ekologikoa

05.2.2. Lurralde-antolamendua eta iraunkortasuna

463. *Lurraldea, giza jardueren babes fisiko, dinamiko eta konplexua.* Lurraldea
- Lurraldea, giza jardueren babes fisiko, dinamiko eta konplexu gisa, funtsezkoa da Herria garatuko bada. Era berean, giza jarduerak zuzeneko eragina dute lurraldean, eta lurraldea haien arabera antolatzen da, neurri handi batean.
464. *Lurraldeak dimentsio biofisiko eta soziala du.* Dimentsio biofisiko eta soziala
- Lurralde-espazioak ekonomiaren (dimentsio biofisikoa) eta gizartearen (dimentsio sozial, ekonomiko eta politikoa) arteko elkarrekintza etengabe eta ezezagokorraren ondorioz garatzen dira. Hori dela eta, kultura-paisaiei buruz hitz egiten dugu.
465. Ekosistemaren eta gizartearen arteko elkarreragin horretan, landaren (esparru fisikoa) eta hiriaren (gizarte-esparrua) arteko desberdintasunek eragindako joera handi batek hiri handiaren aldeko polarizazioa ekarri du. Hala ere, herriek eta landak hiriak hornitzen dituzte, eta, aldi berean, landan egoten ez diren ondasunak eta zerbitzuak daude hirietan. Zenbaiten arabera, prozesu hori Euskal Hiriaren sorrerarekin dago lotuta. Urbanizazioaren aldeko joera globala partzialki konpentsa daiteke, azpiegitura berdeen bidez, eta landaren/naturaren eta hiriaren arteko fusio harmonikoagoa bideratuz. Urbanizazioa
466. Esanak esan, gure ekuazio sozioekonomikoetan lurraldearen ahalmena baztertzeko eta bertan behera uzteko arriskua dago. Merkatuaren dinamikak eta gure bizitza- eta kontsumo-ohiturak landa-ingurunea alde batera uzten ari dira, bai eta, horren ondorioz, herriaren garapen sozial, politiko eta ekonomikorako duen garrantzi erabakigarria eta baliozua ere. Elikagaiak emateko ahalmenaz gain, beste ziklo eta ondasun batzuk hartu behar dira kontuan; adibidez, airearen kalitatea, uraren zikloa, biodibertsitatea, paisaiaren kalitatea edo ondarearen Landa-eremua

babesa. Ildo horretan, landa-eremuetan biodibertsitate handiagoa dago eremu naturaletan baino.

467. Alabaina, teknologia- eta kontsumo-aldaketek goitik behera aldarazi dute landa-produkzioa. Nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan, erabilera intentsiboak eta ongarri kimikoen ondorio kaltegarriak dituzte (besteak beste, tokiko ohitura eta espezieak galtzea). Baina badaude espezieen galera saihesteko proiektu interesgarriak, hala nola Aranzadiko germoplasma-bankua. **Ekosistema eta biodibertsitatearen galera**
468. Beste alderdi bat, gainerakoak bezain garrantzitsua, zementazioa da. Azken 35 urteotan, zementazioa euskal lurraldeetako historia osoan baino handiagoa izan da. Eta, neurri handi batean, lurzorua fosilizazio-prozesu hori hirietan edo ingurune naturaletan baino larriagoa izan da landa-eremuan; izan ere, hirigune handiek inguruko landa-lurra pilatu dituzte. Beraz, galtzaile nagusia nekazaritza-ingurunea izan da. Herrialdeen arabera, fenomeno hori bereziki kezagarria da Lapurdin, eta, herrialde horretako kostaldearen saturazioaren ondorioz, Nafarroa Beherean ere eragiten hasi da. Hori egia izanik, kontuan izan behar dugu gure artifizializazio-ehunekoa (EAEn) % 7 baino txikiagoa dela, eta azken urteotan, 2009az geroztik, Hego Euskal Herrian txikitze joera dagoela, baina ez Ipar Euskal Herrian.
469. Lurralde-plangintza azpimarratu behar dugu, eta bi kontzeptu/idea nagusi aintzat hartu: lurraldearen zama-edukiera eta mugak. Horrek galdera hau sortzen du: Zein neurritan dira euskal lurraldeak herritarrak euren kabuz hornitzeko gai? Baina, elikagaiez gain, beste gauza batzuk aztertu beharko liriateke: energia, biodibertsitatea, paisaia, etab. Bestalde, gogoetak beste kontzeptu/idea garrantzitsu bat azaleratzen du: aztarna ekologikoa. Izan ere, energia-baliabide eta baliabide materialen inportazioak askotariko eraginak ditu jatorrizko lurraldean. Gogoeta horiek elikadura-segurtasunari eta energia-horniduraren segurtasunari buruzkoen bidez osatuko dira. **Lurralde-antolamendua**
470. *Garapena lurralderatzeak gizarte- eta ekonomia-eredu bideragarriak adierazten ditu lurralde geografikoan eta eremu biofisikoan.* **Iraunkortasuna**
- Iraunkortasuna lortzeko, beharrezkoa da gizartearen, ekonomiaren eta ingurune naturalaren arteko erlazioak berriro pentsatzea; muga biofisikoek, berriz, beste gobernantza-eredu batzuk eskatzen dituzte. Garapena lurralderatzeak bizitzeko egokia den ingurunea, bidezko gizartea eta ekonomia bideragarria sustatu behar ditu lurralde geografikoan eta eremu biofisikoan.
471. 1990eko hamarkadaz geroztik, lurraldea antolatzeko tresna guztietan (LAJ EAEn, NLE Nafarroan eta SRADT Akitanian, eskualde kontinentalean) eta eskala txikiko plangintza guztietan, iraunkortasuna aipatzen da. Hala ere, bi gai garrantzitsu ager daitezke. Alde batetik, iraunkortasuna arriskuan jar dezaketen azpiegitura handiegia; beraz, garrantzitsua da inpaktuak hobeto kuantifikatzea eta **Lurralde-antolamendua**

ingurumen-adierazleak erabiltzea, hala nola artifizialtasun-tasa. Beste batetik, lehiakortasunaren gehiegizko balorazioa, den-dena antolatzen duen ardatz gisa, baita gure lurraldeen artean ere; horrek sorrarazi ditu lurraldeen arteko desoreka asko, eta kaltegarria da lurraldeen oreka eta kohesiorako.

472. Iraunkortasunean, kontuan hartu beharreko bi ardatzetako bat denborarekin lotuta dagoena da. Izan ere, zenbait gizarte- eta ingurumen-trantsizio epe laburrekoak dira. Beste trantsizio batzuk nabarmenagoak eta egiturazkoak dira, eta, beraz, denbora-eskala handiagoa behar dute. Bigarren ardatza espazioa da. Sortu eta sustatu behar ditugun eraldaketa batzuk gure ingurune, eskualde, herrialde edo herrian egin behar dira; beste batzuek, berriz, espazio zabalagoa behar dute, baita planeta-eskalakoa ere. Ondorioz, iraunkortasunerako estrategietan, askotariko denbora-tarteak eta espazio-eremuak hartu behar dira aintzat.

Iraunkortasuna

473. *Iraganeko inertziak gainditu eta lurralde-antolamenduan eragina duten jarraibide eta paradigma berriak sortzen ari dira.*

Lurralde-kultura berria

Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamenduko Jarraibideak (“politikak eta tresnak” ere bai) berrikusteko prozesu luze batean, hasierako onespren-fasean dagoen oinarritzko dokumentu bat argitaratu du, *proposamen-ziurtagiri* gisa. Dokumentu iradokitzailea da, zeharkako gaiak biltzen baititu; esaterako, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurraldearen oreka. Halaber, Lurralde Antolamendurako eredu adimenduna, iraunkorra, integratzailea, erlazionala eta parte-hartzailea da, besteak beste. Lurralde-kultura berri bat zeharkakoa izan liteke, eta eragina izan lezake eremu biofisikoko eta lurraldeko garapen sozial eta ekonomikoan.

Nafarroan proposatu den Administrazio Lokaleko mapa berriak, zein Ipar Euskal Herri Elkargo berriaren agendak ere zentzu horretan begiratzen dute, inplementazioari begira oso interesgarria suertatzen delarik.

474. Zentzu horretan, zenbait proposamenek iradokitzen dute jarraibide eta paradigma berriek lurralde-antolamenduaren iraganeko inertziak gainditu behar dituztela. Gainera, hau ere kritikitzen da: lurraldea metropoli bihurtzea; produkzio-, zerbitzu- eta finantza-jarduerak zenbait gunetan pilatzea; eta ingurumen-inpaktu handiko azpiegitura eta hornikuntzak hirien kanpoaldera ateratzea. Baina badago beste ondorio bat ere: landa-inguruneak hiri-ingurunearekiko duen mendekotasuna, lurralde-plangintzaren diseinuari eta kontzeptualizazioari dagokienez.

475. Hala ere, dudarik gabe, EAEko lurralde-antolamenduak ekarpen aipagarriak egin ditu. Bestalde, nahiz eta beti hobetu daitekeen, oso lurralde orekatua lortu du, beste eremu politiko batzuekin alderatuta.

476. EAEk lurraldea planifikatzeko eskumenak ditu. Hala ere, oinarritzko arauetan plangintza horren definizio kontzeptualik ez dagoenez, jurisdikzio hori zalantzazkoa da, Konstituzioak eskumena ematen baitio Estatuari lurralde batean zer egin daitekeen eta zer jarduerak eragin dezakeen erabakitzeak. Hortaz, ekimen publikoak lurralde-espazioa antolatzean benetan duen eragina erlatibizatu beharra dago. Gainera, gaur egun, euskal lurraldeetako administrazioek ez dute lurraldea bere osotasunean antolatzeko benetako botere politikorik. Lurralde-plangintza
477. Botereen banaketa erabakigarria da. Gaur egun, lurraldea antolatzeko botereak zenbait mailatan daude banatuta. Hona hemen: Europar Batasuna; Frantziako eta Espainiako gobernuak; Nafarroako, Akitaniako eta EAEko gobernuak; foru-aldundiak; Departamentuak; Udalak; eta Arabako kontzejuak. Lurralde-antolamendua
478. *Hurbileko espazioak estrategikoak dira lurralde-antolamenduan.* Hurbiltasun-eremuak (Lurralde-antolamendua)
- Politikaren eta erakundeen esparru guztiek bat egin behar dute beste lurralde-kultura bat diseinatzeko, ikuspegi integratzailea garatzeko eta tokiko espazioen balioa handitzeko.
- Lurraldea bizigarria izango bada, beharrezkoa da mugikortasun-eredu eta hurbiltasun-zerbitzuen sare egokiak diseinatzea. Horretarako, hiri eta herrien inguruneak aintzat hartu behar ditugu.
 - Lurralde-antolamenduek eta plan estrategikoek aurre egin behar diote lurralde-orekari lotutako hainbat erronkari. Dena den, lurralde-espazio eta mailak (makro, meso, mikro) antolatzeko, nolabaiteko malgutasuna behar da; lurraldeen mugak ez du zertan bat etorri erakundeen mugarekin.
 - Udal-erakundeak ez daude hirien edo metropoli-guneen beharren jakinaren gainean; hau da, eskumenen banaketaren arazoa dago alde batetik (esaterako, gizarte- eta osasun-esparrua), eta, beste batetik, lurraldeak antolatzen dituzten zerbitzuak modu mankomunatuan ematearen garrantzia.
 - Horren adibide dira Smart City eta Smart Citizen direlakoak. Izan ere, hiriak espazio integratzaileak har daitezke, lurralde-kohesioa eta berrikuntza inklusiboa sustatzeko. Horrekin batera, hiriguneen erakurpen-funtzioa orekatu daiteke. Hiri-inguruneak eta lurraldeak ez bezala aktiboak eta pasiboak sortzen dituzenez, funtzio hori du.
 - Banatutako instituzionalizazioak arazoak sortzen ditu zerbitzuak eta helburu komunak ezartzeko orduan. Ondorioz, muga horiek gainditzeko eta erakundeen eremuetatik harago komunitateak eratzeko, behar-beharrezkoa da deliberazio-metodoak balioestea.
479. *Lurralde-antolamendua orekatua, kohesionatua eta zeharkakoa izan dadin, lurraldea osatzen duten esparru guztien garrantzia hartu behar da aintzat.* Lurralde-antolamendua
- Lurralde-antolamendua orekatua, kohesionatua eta zeharkakoa izan dadin,

lurraldea osatzen duten esparru guztien garrantzia hartu behar da aintzat. Are gehiago, iraunkortasunaren helburua lurralde-plangintzan baliabide hidrikoak balioestea da, oinarrizko elementu gisa. Izan ere, balioespen horren bidez onartuko litzateke euskal lurraldeek aparteko funtzioa dutela lurralde-plangintzan; izan ere, neurri handi batean, lurraldeak bat datoz arroekin, eta arroa da lurraldearen oinarrizko unitatea, ekosistema naturalaren ikuspegitik. EAeko lurraldeak, gainera, lurralde-identitateak eta lurralde-errealitateak dira, eta hurbiltasuna sortzeko eremu fisiko egokiak ere bai (produkzio-, garraio- eta kontsumo-katean).

480. Ildo horretan, eskualdea elementu estrategikoetako bat da lurralde-plangintzaren politika berritzaile eta iraunkorrean. Beharrezkoa da gaur egungo eremu funtzionalak eskualde historiko eta geografikoekin bat etorraraztea. Nafarroa eta EAE horren adibide onak dira; ez, ordea, eremu kontinentala. Katalunian bezala, eskualde horiek izugarriko balioa izan dute azken mendeetan. Eskualdeak

05.2.3. Erronka demografikoa: zahartzea, migrazio-prozesuak...

481. *Euskal Herria, hiru milioi biztanleko herri demografikoki eraginkorra, Europako hegoaldeko iparraldean...* Demografia-egitura

Euskal Herriko demografiaren egitura eta dinamika Europako gainerako biztanleriaren antzekoak dira. Demografia-sistema eraginkorra du, jaiotza- eta heriotza-tasa txikikoa; hori dela eta, biztanleria-hazkunde egonkorra du, eta, horretan, migrazio-saldoak du eragin handia. Euskal Herriko biztanleriaren bizi-itxaropena 83,5 urtekoa da gaur egun; ondorioz, 65 urtetik gorako pertsonen kopuruak gora egin du.

482. Hala eta guztiz ere, Europako demografiaren prozesu bereizgarrietako batzuk nabarmenago gertatzen dira Euskal Herrian, Europako hegoaldeko gainerako biztanlerietan bezala. Hori gertatzen da, adibidez, jaiotza-tasa txikiarekin eta zahartze-prozesuarekin. Hegoaldeko probintzietan, gaur egun dagoen eta epe ertainean espero den zahartzea biztanleriak 1960ko eta 1970eko hamarkadetan izandako hazkundearen ondorioa da. Demografia-egitura

483. *... biztanleriaren tamaina pixkanaka handitzen ari da, migrazio-fluxuen ondorioz batik bat.* Biztanleria

Euskal Herriko biztanleriak gora egin du milurtekoaren hasieratik; hain zuzen, % 8,1 (236.000 pertsona gehiago). 2000tik 2008ra, urteko batez besteko hazkundea % 0,6koa izan zen, eta krisi ekonomikoaren garaian, berriz, % 0,3koa.

484. Lurraldeei erreparatuta, biztanleriaren dinamikak alde nabarmenak ditu; esate baterako, Zuberoan, biztanleriaren kopurua etengabe txikitzen ari da milurteko hasi zenetik (gutxienez), eta, Iparraldeko gainerako lurraldeetan, berriz, biztanle-

kopuruak gora egiten du, Euskal Herriko batezbestekoa baino gehiago. Izan ere, Iparraldeko biztanleria, batez ere Lapurdin, % 15,5 handitu da 2000. urteaz geroztik. Hegoaldean, biztanleria nabarmen handitu zen 2000ko hamarkadan, nazioarteko migrazio-fluxuei esker. Krisia hasi zenetik aurrera, biztanle-kopuruak behera egin zuen (hain zuzen, hazkundea negatiboa izan zen 2013tik 2015era bitartean), baina, geroago, lehengoratu egin zen; gaur egun, positiboa da berriro ere.

485. *Jaiotza-tasa azken urteotan handitu egin da, baina Europako herrialdeetako batezbestekoa baino txikiagoa da oraindik ere...* **Jaiotza-tasa**

Urtean, Euskal Herrian, 9 jaiotza baino zerbait gutxiago daude mila biztanleko; hau da, batez beste, Europako herrialdeetan baino gutxiago. Jaiotza-tasak apur bat txikiagoak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, Euskal Herriko gainerako lurraldeekin alderatuta.

486. Azken bi hamarkadetan, Hegoaldeko jaiotza-tasa handitu egin da, 1990eko hamarkadaren erdialdean minimo historikoak izan ondoren. Handitu egin da, batez ere, emakume zaharragoen ugalkortasuna handitu delako eta, neurri txikiago batean, migrazioagatik (ugaltzeko adinean dauden emakumeak etorri dira, eta emakume horiek seme-alaba gehiago izaten dituzte). Emakume bakoitzak 1,5 seme-alaba inguru ditu. **Ugalkortasuna**

487. *Eta beranduago izaten dituzte seme-alabak gainerako herrialdeetan baino...* **Amatasunaren adina**

Amatasunaren eta aitatasunaren adinak gora egin du urte hauetan, eta Euskal Herriak lehendik ere ugaltze-egutegi berantiarra zuela hartu behar da kontuan. Hegoaldean, Iparraldean ez bezala, jaiotzen diren 10 haurretik ia bat 40 urtetik gorako emakumeena da. Bestalde, 40 eta 44 urte bitarteko emakumeen taldeko jaiotza-kopurua ia bi aldiz handiagoa da 20 eta 24 urte bitarteko emakumeena baino, batez ere krisi ekonomikoa hasi zenetik. Horrek esan nahi du amaren adinagatik arriskutsuak diren jaiotzen ehunekoa Europar Batasuneko handienetakoa dela.

488. *Desberdintasunak daude Hegoaldeko eta Iparraldeko gizarte-politiken artean, eta horrek eragina du jaiotza-tasan.* **Familia-politikak**

Euskadin eta Nafarroan, gizarte-politikaren eta familien babesaren mailak handiagoak dira Estatuko batezbestekoak baino. Hala ere, alderdi demografikoei eta familien babesari dagokienez, eraginkortasun txikia dute. Hegoaldeak jaiotza-tasa nabarmen murrizten duen gizarte-egitura du. Frantziako estatuak laguntza-politika eraginkorragoak ditu familiei laguntzeko.

489. *Bizi-itxaropena handia da, eta etengabe ari da handitzen...* Bizi-itxaropena
- Bizi-itxaropena nabarmen handitu da azken urteotan, heriotza-tasak behera egin baitu adin guztietan, baina baita adin aurreratuetan ere. Gaur egun, Euskal Herriak bizi-itxaropen handia du Europako herrialdeekin alderatuta (Europar Batasunean baino 2,9 urte handiagoa).
490. *... eta, horrekin batera, osasun-egoerak ere hobera egin du...* Osasun-egoera
- Euskal Herrian, bizi-itxaropena handitzeaz gain, osasun-egoera hobetu egin da. Horrela, luzeago bizi gara, baina, gainera, osasun-egoera onean bizi garen denbora luzatu egin da, eta osasun-egoera txarrean bizi garen denbora, berriz, murriztu.
491. *...hala ere, gizarte-desberdintasun handiak daude, oraindik ere, heriotza-tasan eta osasunean.* Osasunaren gizarte-baldintzatzaileak
- Euskal Herrian, gainerako lekuetan bezala, gizarte-desberdintasun handiak daude heriotza-tasari eta osasunari dagokienez. Gizarte-mailak, generoak edo bizilekuaren ezaugarriek eragin handia dute bizitzaren iraupenean eta kalitatean. Gizonen bizi-itxaropena emakumeena baino zazpi urte laburragoa da, baina emakumeek osasun-egoera txarragoa dute gizonek baino. Gainera, bizilekuak izugarritzko garrantzia du gizonezkoen bizi-itxaropenean; 10 urteko aldea egon daiteke herrialde berean. Beheko gizarte-mailetan, jendea urte gutxiago bizi da, eta, gainera, urte gutxiago egiten ditu osasun-egoera onean eta urte gehiago osasun-egoera txarrean.
492. *Heriotza-tasaren beherakadaren ondorioz, jende gehiago iristen da zahartzarora...* Heriotza-tasa
- Heriotza-tasaren beherakadaren ondorioz, belaunaldi bateko kide gehienak 65 urte betetzera iristen dira; hori dela eta, beharrezkoa izan da adinak eta bizi-zikloa berriro definitzea.
493. *...eta 65 urteko eta gehiagoko biztanleen kopurua handitu egin da.* Zahartzea
- Euskal Herriko hamar biztanletik bik (% 21,3) 65 urte baino gehiago dituzte, eta kopuru hori datozen urteotan handitu egingo da. 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa handiagoa da Ipar Euskal Herrian (% 23,1), batik bat Zuberoan; han, biztanleriaren % 27 baino gehiago dira.

494. *Hala ere, Euskal Herriko adin-egituraren ezaugarri nagusia ez da zahartzea...* **Baby boom**

Hegoaldean, 40 eta 54 urte bitartekoen taldearen tamaina handia da nabarmentzekoa, eta 15 eta 29 urte bitartekoen taldearen tamaina txikia...

Hego Euskal Herrian, 40 eta 54 urte bitarteko biztanleen kopurua da guztietan handiena. Adin horretako taldearen tamaina handia 1960ko eta 1970eko hamarkadetako baby boomaren ondorioa da.

Baby boomaren ondoren, hurrengo bi hamarkadetan, jaiotza-tasa izugarri murriztu zen. Hain zuzen, gaur egun, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen taldea 40 eta 54 urte bitartekoen taldearen erdia da ia.

495. *... eta horrek etorkizunerako erronka handiak dakartza berekin...* **Belaunaldi-txandaketa**

Datozen urteotan, Hego Euskal Herriak belaunaldi-txandakatze konplexu bati ekin beharko dio. 2001. urtean, lan-merkatutik irteteko adina zuten 10 pertsonako, ia 20k zuten lan-merkatuan sartzeko adina. Gaur egun, ordea, 6 besterik ez dira, eta kopuru hori apurka murriztu egingo da hurrengo urteetan. Hegoaldean, ez dago hurrengo urteetan erretiratuko diren belaunaldiak ordeztzeko behar adina gazte. Hala ere, ez dira hartzen ari erronka horri aurre egiteko behar diren neurri politikoak eta sozialak.

496. *... migrazioak ugaritu egingo dira...* **Migrazioak**

Espero daiteke epe labur edo ertainean Hegoaldera datozen migrazio-fluxuak berriro haztea, baina ez dira 2000ko hamarkadako erritmora itzuliko. Fluxuen eragile nagusia belaunaldi-desoreka hori da. Hala ere, migrazioak ez dira belaunaldi-txandaketa zail horren irtenbidea, migrazioak ere bere erronkak eta zailtasunak baititu.

Bestetik, Ipar Euskal Herriak beste erronka garrantzitsu bati aurre egin behar dio, gazteen ihesa ahal den heinean geldiaraztea, joera horri erantzun lokal bat emanaz. Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean mugikortasun akademiko eta profesionala sustatzeak horretan lagunduko luke, aro berri bat irekiz.

497. *... eta jaiotza-tasa txikitu egingo da.* **Jaiotza-tasa**

Ugalkortasunik handieneko adinean dagoen biztanleria apurka-apurka murriztu egingo da; beraz, espero daiteke horren ondorioz jaiotza-tasak beharakada iraunkorra izatea. Gaur egun, jaiotza-tasa arrazoi horregatik ari da txikitzen, ugalkortasuna, emakume bakoitzak dituen seme-alaben kopurua, txikitzen ez bada ere.

05.2.4. Desberdintasunak eta desorekak: sozialak, lurralde-mailakoak, genero-arlokoak...

498. Euskal lurraldeak berdinzaleak izan dira tradizionalki... Desberdintasuna

Europako testuinguruan, euskal lurraldeek desberdintasun- eta pobrezia-tasak txiki samarrak izan dituzte. Hain zuzen ere, EAE erreferentziatzat hartzen badugu, desberdintasunak neurtzeko gehien erabiltzen den indizea (Gini indizea) EBko batezbestekoa baino txikiagoa izan da 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdetik hona, behintzat; hots, Belgikan, Holandan, Finlandian eta Suedian bezala. Diru-sarrerekin hain lotuta ez dauden beste adierazle batzuen arabera, azken hamar urteotan Euskal Herrian gabezia materialen tasak txikiagoak izan dira Europako eskualdeetako batezbestekoa baino.

499. ... neurri batean lan-merkatuak beste eskualde batzuetan baino desberdintasun gutxiago sortzen duelako. Birbanaketa

Izan ere, euskal lurraldeetan (EAEn behintzat, lurralde horri buruz datu gehiago baitaude eskura besteei buruz baino), pobrezia- eta lehen mailako desberdintasunen tasak txiki samarrak dira. Beste modu batean esanda, familien errenta eta erretiro-pentsioak, soldata atzeratutzat har daitezkeenak, soilik kontuan hartuz gero (eta ez ongizatearen estatuak ematen dituen pentsioez bestelako transferentzia ekonomikoak), Gini indizea % 30 ingurukoa da Euskadin, EB28koa baino txikiagoa; izan ere, 2005az geroztik eta, beharbada, lehenagotik, % 35etik gorakoa da. 2016. urtera begira, antzeko ondorioa atera dezakegu, transferentzia aurreko pobrezia-tasa edo diru-sarrera txikiak kontuan hartuta: Euskadiko tasa % 21ekoa, eta EB28koa eta Espainiakoa, hurrenez hurren, % 26koa eta % 29koa. Hortaz, produkzio-eredua da, eta ez hainbeste babes sozialeko sistema, EAeko pobrezia- eta desberdintasun-tasa txikien arrazoia.

Hala ere, Ezkerraldea edo Oarsoaldeak dituzten adierazle sozio-ekonomiko baxuak erakusten digute eredu produktiboa ez dela lurralde osora ongi hedatzen.

Eta bestetik, Ipar Euskal Herriko ekonomia eredu egoiliarak, txanponaren beste aldea erakusten digu, lurralde honek dituen migrazio tentsioak direla zein duen autogobernu maila apalarengaitik.

500. Babes sozialeko eredia ez da behar bezain eraginkorra pobrezia txikitzeko. Zergak eta transferentziak

Izan ere, euskal lurraldeen, edo behintzat EAEn, ezaugarri nagusietako bat da ekintza publikoen ondorioz (zergen eta transferentzia ekonomikoen bidez) pobrezia eta desberdintasuna murrizteko gaitasun txikia. EAeko egoera –geroago azaltzen denez, errenta bermatzeko euskal ereduari esker– Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino hobea bada ere, adierazi beharra dago Euskadiko prestazio ekonomikoek % 21 inguru murrizten dutela lan-merkatuak

eragiten duen pobrezia. Dena den, EBN, % 30 murrizten dute, batez beste (esate baterako, Danimarkan, % 52).

501. Diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak pobrezia eta desberdintasuna handitzea galarazten du.

Diru-sarrerak
Bermatzeko Errenta

Horri dagokionez, eta berriro ere arreta Hegoaldean jarriz, ez da gutxietsi behar diru-sarrerak bermatzeko sistemak pobrezia eta desberdintasuna saihesteko eta haiei aurre egiteko duen garrantzia. Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan indarrean dagoen Revenu de Solidarité Active (RSA) laguntzaren ildotik, Nafarroako Errenta Bermatuaren zein Euskadiko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) inguruan eratutako sistemak % 40 murrizten du pobrezia-aren hedapena. Pobrezia-aren hedapena murrizteaz gain, DSBEak pobrezia-aren intentsitatea ere txikitzen du; hau da, pobreak pobrezia-atalasetik bereizten dituen distantzia. Dena den, eredu horren mugak (pobrezia-aren murrizketaren ikuspuntutik) nabarmenak dira: benetako pobrezia-egoeran egoteagatik laguntza eska dezaketen biztanleen % 30 inguruk ez du lortzen, eta lortzen dutenen ia erdiek, hala eta guztiz ere, pobrezia-atalasearen azpian jarraitzen dute.

502. Edonola ere, muga horiek gorabehera, argi dago zein neurritan konpentsatzen dituen DSBEaren sistemak estatu-mailako pentsioen eta langabeziagatik prestazioen sistemaren gabeziak; izan ere, ez da nahikoa pobrezia gutxitzeko. Ildo horretan, esan beharra dago Euskadin pobreen diru-sarreraren % 38 DSBEtik datorrela, eta Estatuaren prestazioetatik jasotzen dutena % 18 besterik ez dela. Gainerako % 30a pertsona horiek lan-merkatuan lortzen dituzten diru-sarreretatik dator.

Diru-sarrerak
Bermatzeko Errenta

503. Itzulkin ekonomikoan eta gizarte-kohesioaren mantentzean duen inpaktuaz gain, DSBEaren ezaugarri nagusia hau da: krisi ekonomikoak biztanlerik pobreenen erosteko ahalmenean duen eragina arintzen laguntzen du, neurri batean behintzat. Hain zuzen, PGEI inkestaren datuen arabera, 2008tik 2016ra bitartean, euskal biztanlerik pobreenen (% 10) diru-sarrerak % 23 txikituko ziratekeen, DSBEaren bidez lortutako diru-sarrerak kenduta. Erdi- eta goi-klaseetako biztanleek (% 60), berriz, ia % 5eko hazkundea izan dute euren diru-sarreretan. DSBEaren sistematik eratorritako diru-sarrerak ere kontuan hartzen badira, ordea, ikus dezakegu biztanlerik pobreenen (% 10) diru-sarreraren beherakada % 7koa izan dela. Hortaz, sistema horrek nabarmen arintzen du krisiak Euskadin ere izan duen eragin bereziki larria, biztanleriarik behartsuenaren diru-sarrerak osatzen baititu.

Diru-sarrerak
Bermatzeko Errenta

504. Zergatik areagotu dira desberdintasunak?

Ezegonkortasuna

Euskadin, desberdintasunak areagotu egin dira krisialdian zehar, eta, izan ere, horren arrazoia pertsonarik pobreenen diru-sarreraren beherakada izan da, ez aberatsenen diru-sarreraren hazkundea. Desberdintasunaren hazkundea biztanlerik aberatsenek (% 1) gero eta diru eta aberastasun gehiago pilatzearen ondorioa

dela uste da, baina, egia esan, Euskadin, erdi-klasearen diru-sarrerak dira gehien handitu direnak: errentari erreparatuta, erdi-klaseen eta klaserik pobreenen arteko aldea da Euskadin benetan handitu dena, eta ez aberatsen eta erdi-klaseen artekoa. Gauza bera gertatu da Espainiako Estatuan. Desberdintasunak ez dira areagotzen aberatsak gero eta aberatsagoak direlako, pobreak gero eta pobreagoak direlako baizik.

505. Egoera horrek bi arrazoi ditu: alde batetik, dagoeneko esan dugunez, gizarte-babesaren eta zergen sistemak gero eta zailtasun gehiago dituelako merkatuak sortzen dituen pobrezia-tasak neurri handi batean murrizteko; beste batetik, Euskal Herrian ere, lan-merkatua gero eta desorekatuago dagoelako eta laneko ibilbide eta baldintzen ezegonkortasuna gero eta handiagoa delako. Horren guztiaren ondorioz, zenbait gizarte-taldetan, pobrezia-maila handiegia da, generoaren, adinaren, lan-egoeraren edo jatorriaren arabera. Datu horiek adierazten dituzte desberdintasunaren benetako gorabeherak: 15 urtez beherakoen pobrezia-tasa bost aldiz handiagoa da 65 urtetik gorakoena baino; adingabeak dituzten familiena bi aldiz handiagoa adingaberik ez duten familiena baino; familia-buru immigrante bat duten familiena zazpi aldiz handiagoa bertako familia-burua duten familiena baino; kide aktibo guztiak langabezian dituzten familiena 24 aldiz handiagoa kide aktibo guztiak lan egonkorretan dituzten familiena baino...
506. Desberdintasun-mota berriak eta zaharrak. Generoa
- Atal honetan, Euskadiko egungo desberdintasun nagusiak aztertu dira, batez ere diru-sarreraren ikuspuntutik. Dena den, desberdintasun horiek azpimarratu beharreko beste desberdintasun batzuk ezkutatzen edo sorrarazten dituzte. Lehenik eta behin, jakina, genero-desberdintasunak aipatu behar dira: emakumeak gizonak baino nabarmen egoera txarragoan daude (ordainsariak, enplegu- eta ezegonkortasun-tasak, bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko zailtasunak...) oraindik ere, Euskal Herriko lurralde guztietan.
507. Edonola ere, Euskadiko gaur egungo desberdintasunaren garrantzia eta eragina ulertzeko, beste aldagai bat ordeztzen ari da generoa: belaunaldi-aldagaia. Europako herrialde guztietan, pobrezia-arriskua gero eta handiagoa da seme-alabak dituzten familientzat eta gazteentzat: Euskadin, 24 urtetik beherako pertsonak biztanleriaren % 22 soilik dira, baina pobreen % 40 dira. Haurren eta gazteen pobrezia-arriskua handiagoa izateak ondorio larriak ditu gutxienez bi arlotan: alde batetik, 1980. hamarkadatik aurrera, egoera horrek ondorio demografiko argiak ditu (izan ere, emantzipatzea eta bizitza-proiektu autonomoak sortzea oso zaila da), eta jaiotza-tasek behea jotzen dute. Adina
508. Egoera horrek aukera-berdintasunean duen eragina are larriagoa da: pobrezia eta desberdintasuna areagotzeak haurrengan duen eragin nagusietako batek lotura du goranzko mugikortasun sozialaren aukera murriztearekin eta jaraunspen Aukera-berdintasuna

sozialaren gaia (berriro) sortzearekin, igoera sozialerako aukeren murrizketak ezaugarri dituen testuinguru batean. Hain zuzen, gero eta ebidentzia zientifiko handiagoen arabera, egungo diru-sarreraren arloko desberdintasunaren ondorioz, familia-testuinguruak gero eta eragin handiagoa du gazteen etorkizuneko bizi-kalitatean, eta, gainera, nor bere etorkizuneko bizi-baldintzetan eragiteko egin dezakeen ahaleginaren inpaktua gero eta ahulagoa da. Gösta Esping-Andersen egileak eta beste batzuek azaldu dutenaren arabera, desberdintasunak areagotzen ari direnez, desoreka handiak egongo dira familiek seme-alaben etorkizunean inbertitzeko duten ahalmenean, eta horrek, borondate politiko irmorik ezean, gizarte-itunaren oinarri den aukera-berdintasuna printzipioa arriskuan jar lezake.

509. Desberdintasun-mota horiez gain, nabarmendu beharreko beste hiru **Desberdintasuna** desberdintasun-mota daude gutxienez. Alde batetik, parte-hartze politikoari lotutako desberdintasuna, desberdintasun ekonomikoarekin zerikusi estua duena. Beste batetik, denbora erabiltzeko ahalmenean gero eta handiagoa den desberdintasuna: Euskadiko biztanleen laurdenak, gutxi gorabehera, pobreak dira denboran; alegia, askoz aisia gutxiago dute gainerako biztanleek baino, batez beste. Izan ere, datuek adierazten dute biztanleen % 40 pobrea dela denboran, dirutan edo bi ikuspuntu horietatik. Hirugarren desberdintasun-mota lurralde-ardatzari dagokio: desberdintasun horiek, itxuraz, ez dira krisialdian areagotu, baina Euskal Herriko zenbait eskualdetan, batez ere Bilbo Handian, zahartze-, langabezia- eta pobrezia-tasak batezbestekoak baino askoz handiagoak dira. Zalantzarik gabe, Euskadiko lurraldeen arteko kohesioa handitze aldera, ezinbestekoa da eskualde horietako pertsonen bizi-baldintzak hobetzea.

05.2.5. Zainketen eta gizarte-zerbitzuen krisia

510. Gizarte-zerbitzuek pertsona guztiei bizi osoan zehar euren autonomia hobetzeko eta osatzeko behar dituzten zainketak eta laguntzak eskaintzen dizkien jarduera ekonomikoaren sektorea osatzen dute. Horri esker, pertsonak autonomoak dira eguneroko bizitzako erabaki eta jardueretan, eta familiako eta komunitateko harremanetan. Oro har, aipatutako arloa funtsezkoa da pertsona guztien ongizatearentzat, eta, beraz, gizarte-zerbitzuen politika publikoa ongizatearen estatuko gizarte-politikatzat jotzen da. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea onartu zen, besteak beste, gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektibo perfektu, unibertsal, eskagarri eta auziperagarria bermatzeko. Eta Nafarroako kasuan, Gizarte Zerbitzuen 15/2006 Legean.
511. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da Euskadin gizarte-zerbitzuen sektore ekonomikoak edo, horren barruan, gizarte-zerbitzuen sistema publikoak ez dutela lortu ongizatearentzat funtsekoak diren beste batzuek (esate baterako, osasun-zerbitzuen sektore ekonomikoa edo osasun-sistema publikoa) duten garapen- **Gizarte-zerbitzuak**

maila. Esate baterako, garapen-maila txikiagoa dutenez, lurralde eta administrazio bakoitzak modu batean izendatzen ditu gizarte-zerbitzuak edo haien atalak, eta, askotan, ez daude elkartuta, antolamenduaren aldetik, zatikatuta baizik, eta, aldi berean, beste jarduera batzuekin nahasita.

512. Gaur egungo gizartean, ordea, zainketen krisia, zalantzarik gabe, gizarte-zerbitzuen garapena areagotu egin behar dela azaleratzen duen gizarte-fenomeno handia da. Zenbait faktorek eragin dute zainketen krisia. Hona hemen adibide bat: ezgaitasunak dituzten pertsonen bizi-itxaropena luzatu izanaren ondorioz, belaunaldi- eta funtzionaltasun-aniztasuna handitu egin da, eta, aldi berean, egitura eta balio patriarkal jakin batzuk zalantzan jartzeko eta gainditze erlatibo eta disfuntzionalerako prozesuak sortu dira. Egitura eta balio patriarkal horiek honako uste honetan daude oinarrituta: emakumeek merkatuaren esparruan, gizarte zibil antolatuan edo Estatuan parte hartzeari uko egin eta lehen mailako harremanetan, batik bat zainketa-harremanetan, jardungo zutelako ustean. Erlatiboa da, oraindik ere emakumeak arduratzen direlako gehienbat lehen mailako zainketez, eta disfuntzionalagoa, oso urrun jarraitzen dugulako lehen mailako zainketen eta zainketa profesionalen arteko oreka egokitik.
513. Hala, 2017an, Euskal Herriko biztanleriaren zahartze-mailak beste maximo historiko bat izan zuen: 64 urtetik gorako 130 pertsona, 16 urtetik beherako 100 pertsonako. Europako batezbestekoa (108) handiagoa da. Prozesu hori hurrengo hamarkadan areagotu egingo da, *baby boom* fenomenoko belaunaldia 65 urteko adinera iristean. Mendekotasun funtzionala (beste pertsona batzuk zaintzea edo haiei antzeko laguntzak ematea) duten pertsona gehienak adinekoak dira: EAEn, mendekotasun funtzionaleko egoeran dauden 10 pertsonatik zazpik 65 urte edo gehiago dituzte.
514. Bestalde, ugalkortasun-tasa (15 eta 49 urte bitarteko 1.000 emakumeko jaiotako pertsonak) lau puntu txikitu zen Espainian 2009tik 2016ra bitartean (42,6tik 38,5era), eta Euskal Herrian eta Europar Batasunean, berriz, ia ez zen aldatu (azken datuen arabera, 40,2 izan zen Euskadin eta 44,5 Europan). Euskadin, 2016an, espainiar nazionalitateko emakumeen ugalkortasuna 36,54 izan zen, eta atzerriko nazionalitateko emakumeena, berriz, 79,39. EAEko ugalkortasunari buruzko datuak positibo samarrak dira, urte hauetako krisi ekonomikoaren testuinguruan. Eta hori, adituen ustez, beste lurralde batzuetakoa baino gizarte-babeseko sistema hobea izatearen ondorioa da.
515. Dena den, esan bezala, biztanleriak zahartzen jarraitzen du, eta haur guztiek arreta behar badute ere (eta haien kopurua txikitzen ari da), biztanleriaren zahartzeak ondorio hau izango du: zainketak behar dituzten pertsonen kopurua handiagoa izango da zainketa horiek emateko ahalmen funtzionala duten pertsonen kopurua baino. Bestalde, proportzio hori ez da Euskal Herriko lehen mailako zainketen eskasia eragiten duen elementu bakarra; izan ere, demografiaren egituran eta dinamikan ez ezik, senar-emazteen arteko, familiako

Zainketen krisia

Zahartzea

Ugalkortasuna

Zainketak

eta komunitateko harremanen egitura eta dinamikan ere aldaketak ari dira gertatzen.

516. Horrenbestez, esate baterako, lan-adinean dauden (16-64 urte) emakumeek % 69,9ko parte-hartzea izan zuten lan-merkatuan, 2017an. Datu horiek argi eta garbi adierazten dute emakumeek ordaindutako enpleguari uko egiteko eta zainketetan jarduteko gizarte-araua pixkanaka atzean geratzen ari dela. Hala ere, Euskadin, EUSTATen 2015eko datuen arabera, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeek 4,9 ordu eman zituzten 15 urtetik beherako seme-alabak zaintzen, eta gizonek, berriz, 3,1 ordu. Funtzionalki mendekoak diren pertsonen zainketa aztertuz gero, desberdintasunak bere horretan jarraitu zuen: gizonek 1,5 eman zuten egunero, eta emakumeek, 2,3 ordu. Argi dago gizonek ez dutela euren gain hartu emakumeek utzitako zainketa-lanaren zatia. **Generoa**
517. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko familien eta familia-etxeen inkestaren arabera, familien % 25ek soilik dituzte haurrak edo nerabeak, eta, horrez gain, beste % 25 pertsona bakarreko familiak dira. Hala, Euskal Herrian, biztanleriaren % 12,7 bakardadean bizi da; ehuneko hori % 22,2koa da 64 urtetik gorakoen artean. SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren azterketek jakitera ematen dute familia-politiketan familia-ikuspegia zeharka erabiltzea ez dela eraginkorra, eta, horrez gain, familia-arrazoiengatik zerga-kenkariak lau aldiz handiagoak direla zuzeneko familia-prestazioak baino; gainera, diru-sarrera gehiago izateagatik errenta-aitorpena egin behar dutenek soilik lortzen dute kenkarien onura. Familiak babesteko politiken ahuleziaren adibide bat baino ez da. **Familia-politikak**
518. Hala eta guztiz ere, komunitate zientifikoaren adostasunek eta herritarren lehentasunek (inkestak adieraziak) argi eta garbi erakusten dute zainketen krisiari erantzuteko funtsezko tresna bat gizarte-zerbitzuak direla, eta, bereziki, etxean, komunitatean edo ingurune digitalean ematen diren gizarte-zerbitzuak, betiere familia-sorkuntza bultzatzeko prestazio ekonomikoen edo beste ongizate-tresna batzuen (hala nola erretiro- eta ezintasun-pentsioen) garrantzia ahaztu gabe. Izan ere, gizarte-zerbitzu horiek ematen dute prebentzio- eta pertsonalizazio-mailarik handienarekin jarduteko aukera, eta indartzen dute pertsonak euren eguneroko bizitzan eta familiako zein komunitateko harremanetan modu autonomoan moldatzeko duten ahalmena; hain zuzen, harreman horiek pertsonen laguntza-iturririk gustukoak dira, eta ezagutzaren komunitatearen ustez egokienak. **Gizarte-zerbitzuak**

519. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Elkartearen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa da gizarte-zerbitzuetan pertsona bakoitzeko gehien gastatzen duena. Hala ere, etxez etxeko gizarte-zerbitzuen estaldura (% 1,4 adinekoen kasuan) Espainiako batezbestekoaren (berez, nahikoa txikia) erdia baino txikiagoa da; haurren eta nerabeen harrera %44,5koa (harrera guztien gainean) da, eta Espainiako batezbestekoa % 60,9koa. Horrek agerian uzten du Euskadiko gizarte-zerbitzuen eredia oraindik ere bizitegi-zentro, eguneko zentro edo zentro anbulatorioetan oinarrituta dagoela, ez duela berrikuntzarik egiten, eta ez duela behar bezala indartzen pertsonak komunitatean zaintzeko eta haiei eguneroko bizitzan laguntzeko bidea. Gizarte-zerbitzuak
520. Alabaina, eraldaketa estrategiko hori egin ahal izango da datozen urteetan gizarte-zerbitzuetan inbertsio publikoek izango duten gorakadari esker. Hau da, orain arteko desoreka konpentsatu egingo da; izan ere, EAeko gizarte-zerbitzuetan, 1.000 milioi euroko gastu publikoa egiten da urtero, gutxi gorabehera. Kontuan izan behar da osasun-arloan 3.700 milioi eurokoa dela, hezkuntzan 2.700 milioi eurokoa eta pentsioetan 8.800 milioi eurokoa, ongizatearen estatuaren lau ardatz nagusiak aipatzearen. Pertsona guztiek ez dute zainketa profesionalen beharrik izango euren bizitza osoan, baina beste batzuek bai. Zainketa horiek izugarritzko kostuak izan ditzakete, eta ezin dira pertsonen familien edo ekonomiaren mende utzi. Hain zuzen, gizarte-babeseko sistema publikoaren adar nagusietako baten xede izan behar dute; hots, gizarte-zerbitzuen xede. Gizarte-zerbitzuak
521. Zorionez, berrikuntza teknologikoak (makrodatuekin, gauzen Internetekin, lankidetzeta-plataformekin, adimen artifizial banatuarekin eta abarrekin lotuak) eta berrikuntza sozialak (Euskadiko hirugarren sektoreko sare solidarioaren indarrean oinarrituak) gure gizarte-zerbitzuen garapena bizkortu dezakete. Garapen horretan, bide batez, askotariko irakaspenak lor ditzakegu hurbileko esperientzietatik. Nafarroan, esate baterako, zenbait prestazio ekonomiko gizarte-zerbitzuetan izapidetzeari utzi eta kenkari itzulgarritzat edo zerga negatibotzat hartzen dituzte, zerga-politikaren esparruan. Era berean, mugaz beste aldean, Ipar Euskal Herrian, lehen haurtzaroaren zainketa komunitarioak jorratzeko edo ezkutuko ekonomian zeuden zainketa-zerbitzuak azaleratzeko (eta erabiltzaileak ahaldunduz) bideak kontuan hartzeko modukoak dira. Zainketa-zerbitzuak

05.2.6. Ezagutzaren eta enplegu-eraldaketaren gizarte

522. Etorkizunaren zati bat aurretik ezagutu daiteke, gertatzen ari baita. Serie estatistikoek berresten dute... BPG eta enplegua, bestelako erritmoak
- 2016an, Euskal Herriak 10 urteko krisian galdutako BPG gainditu genuen. Hala ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtutako enplegua txikiagoa da: 80.000 lanpostu eta 30.000 lanpostu gutxiago Euskadin eta Nafarroan, hurrenez hurren.

Hau da, enpleguaren % 10 galdu dugu (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtua). Bestalde, BPGaren arabera, aberastasuna berreskuratu dugu.

523. Industriak pisu erlatiboa galdu du Euskal Herriko BPGari egindako ekarpenean: 2007an, % 28,1koa izan zen, eta 2016an, % 24,6koa. EAeko enpleguak antzeko pisu erlatiboa galdu du industria-sektorean, eta portzentajezko hamar puntu irabazi ditu zerbitzu-sektorean; termino orokorretan, % 60tik % 70era. Neurri batean, gorakada hori lehen industrialtzat hartzen zen lanaren zerbituzazioaren eta esternalizazioaren ondorioa izan da. Nafarroan, industriak BPGari egiten dion ekarpena ez zen txikitu, eta % 30 inguruan jarraitu zuen. Iparraldean, industriaren pisu erlatiboa nabarmen txikiagoa da; 2008an, % 16,9koa zen, eta, 2015ean, % 14,3koa. **Industriaren pisua**
524. EAEn negoziatutako hitzarmenei lotutako soldatapekoen kopurua % 40 murriztu da 10 urtean: 2007an, 508.000 langile zeuden, eta, 2016an, 303.000 langile. Bestalde, indarreko hitzarmenei lotutako langileen ehunekoia erdira txikitu zen denboraldi hartan. 2007an, langileen % 69 zeuden hitzarmen eguneratuei lotuta (EAEn), eta, 2016an, berriz, % 39. **Arazoak negoziazio kolektiboan**
525. Enpresa bakoitzaren barruan, robotizazioak eragin negatiboak ditu enpleguaren sorreran. Horrek ez du nahitaez esan nahi robotizazioak gehien eragindako sektoreetako langileek enplegua galtzeko arrisku handiagoa dutenik beste sektoreetako langileek baino. Dena den, bi ondorio negatibo eragingo ditu: alde batetik, soldatek txikitzeko joera izango dute denboraren joanean, eta, beste batetik, lehiakortasunaren gorakadaren ondorioz, enpresek askoz lanpostu gutxiago sortuko dituzte, nahiz eta gehiago produzitu. **Robotizazioa eta enplegua**
526. ... Hori alde batera utzita, hainbat zalantza daude robotizazioak beste jarduera eta lanbide batzuk sortzeko izan dezakeen eraginaren inguruan. **Etorkizuneko ziurgabetasunak**
- Euskal Herrian, aurreikuspenen arabera (Lanbide), datozen hamarkadetan lan-
eskaintzak ezingo dio hedapen-eskariari (lanbide berriak) aurre egin, ezta
ordezkapen-eskariari (merkatutik irteten diren pertsonak ordezkatzeko behar
diren pertsonak) aurre egiteko ere. Eta biztanleriaren zahartze-prozesua
progresiboa bada, gaur egun bezala, zailtasun horiek areagotu egingo dira.
527. Nolanahi ere, onartu egin behar dugu ordaindutako lana ez dela bide bakarra edo lehentasunezko bidea izango, behintzat pertsonen gizarteratzea lortzeko. **Gizarte-babesa indartzea**
- Produktzioaren robotizazioak eta lanbide tradizional askoren digitalizazioak gora egin dute azken urteetan. Hortaz, etorkizun hurbilean, behar bezala ordaindutako lan-
eskaintzek egiturazko defizita izango dute; hau da, lan-
eskaintza arrazoizkoa izango da kantitatearen aldetik, baina eskasa kalitatearen aldetik. Ildo horretan, agerian geratzen da beharrezkoa dela gizarte-babeseko gaur egungo mekanismoak indartu, birpentsatu eta zabaltzea, eta lan-modu berriak sustatzea,

lan-araudiaren babesean.

528. ...Gauzak horrela, aurreikus dezakegu langabe kronikoen kopurua handitu egingo dela eta langile pobreen fenomenoaren areagotu egingo dela...

Diru-sarrerak
bermatzeko errenta

Ondorioz, beharrezkoa da luzatu gabe Euskal Herrian diru-sarrerak bermatzeko errenta unibertsal eta baldintzarik gabeko orokortzearen inguruan sakon eztabaidatzea?

529. Enplegurik gabeko hazkundera eta soldatak izozteko arriskuak...

Errenta-politika
aldatzea

BPGaren hazkundera, baita % 3 ingurukoa bada ere, ez du bermatzen enpleguak eta soldatek gora egitea. Enplegu betearen duten herrialdeetan ere (Erresuma Batua, Japonia, AEB, Alemania), produktibitatearen hazkundera ez du soldaten igoera berekin ekarri. Lan-erreformen ondorioz eta ezohiko enplegu-motak (hala nola ordu zehatzik gabeko kontratuak, autonomoak eta autoenplegua) ugaritu egin direnez, soldatek pisua galdu dute errentaren banaketan. Ezin da ukatu enpresek oso ingurune lehiakorretan jarduten dutela, eta, 2008-2016 aldian, haietako askok marjina txikia izan dutela lan-baldintzak hobetzeko. Izan ere, kontratu berriei lotutako diru-sarrera txikiek ez dute zerikusirik behin-behinekotasunarekin edo produktibitate txikiko sektoreetan kontratatzeke joerarekin, baizik eta lan-merkatuko baldintza berrieekin; izan ere, antzeko ezaugarriak dituzten lanpostuetan desberdintasun nabarmenak daude, baita enpresa beraren barruan ere. Egoera horretaz jabetuta, errenta-politika klasikoaren ikuspegia aldatu beharko genuke, gaur egun soldatak ez baitira automatikoki aberastasunaren hazkunderarekin batera handitzen.

Hori dela eta, galdera nagusia saihestezina da, eta irmotasunez egin behar da:

Aberastasuna sortzen duen gizarte bat nahi dugu, langileek aberastasun horretatik onurarik ateratzen ez badute ere?

530. Hazkunderaren paradigma ekonomikoaren aldaketa.

Egiturezko
langabezia eta
lehiakortasuna

Krisiaren ondorengo egoerak aldatu egin ditu langabeziaren, soldaten, inflazioaren eta lehiakortasunaren arteko erlazioak; izan ere, gaur egun, zenbait eragile ekonomikok adierazten dute, hazkundera bere horretan jarraitzen bada, ez dela komeni langabezia-tasa % 16tik beherakoa izatea (Espainian). Ikuspegi horren arabera, langabezia-maila hori, egiturezkoa, komenigarria izango litzateke, ekonomiaren lehiakortasunari eta gaur egungo ziklo hedakorrari eusteko.

Baina, baldin eta hori soldaten gaineko tentsioa saihesteko bide bakarra bada, hazkunderaren egiturezko elementu bihurtuko genuke egun langabezian dauden langileen kolektiboaren (handi samarra) lan-bazterketa.

Ikuspegi horretatik, ezinbestekoa da nork bere buruari galdetzea...

Hazkunde ekonomikoa lor daiteke enpleguaren kontura, enplegu ordaindurik ezak desberdintasunetan eta haien kronifikazioan duen eragina indargabetzeko mekanismoak ezarri edo berriro pentsatu gabe?

531. Enpleguaren polarizazioa gero eta handiagoa da, eta egiaztatu egin da lanposturik prekarioenak oraindik guztiz beharrezkoak direla.

Enpleguaren
prekarizazioa

Gaur egun, prestakuntza-maila ertaineko zenbait lanbide tradizional desagertzen ari dira, edo ezin dute hartu lan ordainduaren eskariaren zati handi bat, batez ere industria- eta zerbitzu-sektoreetan.

Lan horiek, halaber, erdiko klasearen sostengua eta ongizatearen estatuen oinarri nagusia izan dira, laneko diru-sarreraren arabera zergen bidez; beraz, gizarte-kohesioak mehatxu bikoitzari egin behar dio aurre. Hauek dira mehatxuok: alde batetik, aberastasunaren lehen mailako banaketa okerragoa (enpleguaren galeraren edo dagoen enpleguaren prekarizazioaren eraginez), eta, bestetik, aberastasunaren bigarren mailako birbanaketa txikiagoa, ongizatearen estatua ahultzearen ondorioz.

532. Orobat, lan merkantilizatuaren polarizazio-prozesua joera orokorra da. Eta Euskal Herrian ere enplegu ordaindua bi ardatzen inguruan banatzen ari da. Batetik, oso kualifikazio-maila altuko enpleguak eta bestetik kualifikazio-maila oso baxuko enpleguak.

Lanaren polarizazioa

533. Egia da lan-baldintzarik txar eta zaurgarrienak dituzten hamar lanpostuetako bat IKTen aholkulariarena dela. Baina, hori nabarmena izan badaiteke ere, beste bederatzi lanbideak prestakuntza-maila txikiko jardueretakoak dira: otordu lasterreko jatetxeetako profesionalak, etxez etxeko banatzaileak, saltzaileak, produktu-sustatzaileak eta supermerkatuko apal-betetzaleak, segurtasun-zaindariak, etxeko langileak, zerbitzu-laguntzaileak eta mendekotasun-laguntzaileak.

Prestakuntza-maila
txikiko jarduerak

534. Galdera hau derrigorrezkoa da, zalantzarik gabe:

Lanaren polarizazioa

Gizarte garatu batek alde batera utz ditzake zerbitzu eta lanbide horiek, edo haietan jarduten duten pertsonen gain utzi lan polarizazioaren ondorio negatiboak, arrazoizko eta behar besteko ongizatea bermatu gabe?

535. Desberdintasunek eragin handia dute zenbait taldetan.

Bereziki zigortutako
giza taldeak

Segmentazio horrek zenbait norabidetan jarduten du, eta faktore anitzekoa da. Sarritan, zenbait egoera (generokoak, sozialak, gizarte-klasearekin eta jatorri geografikoarekin zerikusia dutenak, profesionalak, prestakuntzakoak, negoziazio kolektiboaren bidez eskubide kolektiboak babestekoak...) giza talde jakin batean

pilatzen dira; ondorioz, bazterketa-arriskua areagotu egiten da, baita kronifikatu ere.

536. Desberdintasunek giza talde jakin bati eragiten badiote aldi berean, galdera honi erantzun behar zaio: **Zatitutako gizarte-sarea**
- Esan daiteke gizarte zatikatua gizarte arrakastatsua dela? Eta, zehatzago esanda, sar daitezke bikaintasuneko enpresak eta sektoreak desberdintasun kronikoek zatikatutako gizarte-sare batean?
537. Lan-ordenamendu juridikoaren babes-funtzioa gero eta ahulagoa da. **Lan-ordenamenduaren pixkanakako ahultzea**
- Halaber, tradizioz biztanleria-talde zabalei aberastasunean arrazoiz eta berdintasunez parte hartzeko aukera eman dieten mekanismoak pixkanaka ahultzen ari direla ikusten dugu. Batez ere hiru faktoreren ondorioa da hori. Hona hemen faktoreok: lan-harremanak indibidualizatzeko joera (eta legeen babes-funtzio murrizketa nabarmena), negoziazio kolektiboaren ahultze-prozesua eta enplegu-mota berrien sorrera (oro har, txarto babestuak eta, sarritan, lan-esparru juridikotik baztertuak).
538. Esparru korapilatsu honetan, aldarrikapen-ekintzak enpresetan biltzeko joerak beste dualtasun bat sor dezake, sindikalismo tradizionalaren enpresetan sartzeko indar mugatua baitu. Hori dela eta, hitzarmenen babes-esparrutik kanpo gera daitezke pertsona asko; ondorioz, pertsona horien lan-harremanak apurka-apurka indibidualizatu egin daitezke. Beraz, sindikalismoaren funtzioa berriro zehaztea premiazkoa da, besteak beste. **Lan-harremanen dualtasuna**
539. Orobat, lan-harremanen ereduak aldatzen ari dira, langileek gero eta parte-hartze eta konpromiso handiagoa baitute enpresaren bizitzan. Helburu arrazoizkoa eta desiragarria da hori, baina ezin dugu ahaztu langile askok mikroenpresetan eta jarduera marjinaletan garatzen dutela euren lan-jarduera. **Langile guztien beharrezko babesa**
540. Fenomeno horren aurrean... **Sindikalismoaren funtzioa**
- Indarra galdu du sindikalismo tradizionalak eta ezin du ereduaren oreka-elementu gisa jardun? Edo, aitzitik, berriro legitimatua eta indartua izan behar du, sistemaren kontrapisua izaten jarraitzeko?
541. Gainera, kontuan izan beharra dago produktibitateak zerikusi handia duela enpresa-kudeaketaren kalitatearekin. Eta enpresa-kudeaketaren alorrean hobekuntza-marjina handia dagoela. Argi dago, datu objektiboa baita, lankidetzamaila handitzen duten eta gatazka-egoerak baztertu edo gutxitzen dituzten ereduak garatuz gero, produktibitatea handitu eta soldatak hobetu egingo direla. **Enpresa-kudeaketaren kalitatea**
542. Horretarako, berriro finkatu behar ditugu sindikatuen eginkizunak, eta enpresen gizarte-funtzioaren estatus legitimatzaile berri bat sortu, eta, gero, geure buruari **Gatazka vs. lankidetz**

galdetu...

Enpresa-kudeaketaren paradigma berrietan ere parte har dezake sindikalismo berriak, lankidetzeta-sistemak garatu beharko lituzkeen lan-harremanen testuinguru batean, gatazka-mailak behera egiten duen bitartean?

543. Erantzunkidetasunean, bateratzean eta berdintasunean oraindik ere dauden defizitak. **Erantzunkidetasun-defizita**
- Azken hamarkadetan bizitza profesionala eta pertsonala bateratzeko garatutako formulei esker, emakumeak lan ordainduetan sartu ahal izan diren arren, familietako erantzukizunen eta zereginen banaketa desberdina da oraindik ere; hori emakumeen lan-egonkortasuna eta igoera profesionala eragozten dituen zama objektiboa da.
544. Sexuagatiko zuzeneko diskriminazioez gain, zeharkako diskriminazioak ere debekatuta daude, hau da, itxuraz neutraltasunez hartzen badira ere emakumeei kalte egiten dieten neurri edo erabakien ondorioz sortzen direnak. Debeku hori nazioarteko testu eta Erkidegoko zuzentarau askotan onartutako eta finkatutako legezko printzipioa da, eta, oro har, gizarte aurreratueta konstituzio-testuetan ere ageri da. **Diskriminazio-ezaren printzipioa**
545. Hala ere, errealitateak agerian uzten duenez, emakumeen eta gizonen soldaten artean alde nabarmena dago oraindik. Paradoxikoki, garatuagoak diren gizarteetan, alde hori ez da txikitzen; aitzitik, handitzen ari da. Nahiz eta alde hori kuantifikatzean ezberdintasunak dauden (batzuetan, oso handiak) erakundeen, eragile sozial eta ekonomikoen eta zenbait ikerketa akademikoren artean, ia guztiek onartzen dute % 20tik gorakoa dela, baita euskal lurraldeetan ere. **Soldata-arrakala**
546. Gainera, gaur egungo desberdintasun horrek etorkizunean ere jarraituko du ezinbestean. Gizarte-babesari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handiak eragiten dituzten faktoreak honako hauek dira, besteak beste: emakumeen enplegu-tasa txikiak eta alarguntasun-pentsioen eta bestelakoen egungo eraketa. Alabaina, soldata-arrakalak desberdintasun horiek kroniko bihurtzeko kontribuzio-oinarriko gizarte-babesaren sistemetan; izan ere, emakumeek gizonen baino soldata txikiagoak izaten dituzte, bai eta, beraz, askoz kotizazio-oinarri txikiagoak ere, eta haien aseguru-ibilbideak askoz zatikatuagoak eta etenagoak dira.
547. Beste faktore batzuen artean, egoera horrek agerian uzten du, gizarte-kohesioa mehatxatzen duten arrisku handien testuinguru batean, pobrezia emakume-aurpegia duela, eta, zoritxarrez, eraginkortasunez jardun ezean, etorkizunean ere izango duela. **Pobrezia emakume-aurpegia**
548. Fenomeno konplexua bada ere, soldata-arrakala horien oinarrian, berdintasun **Baldintza soziologiko**

juridiko eta formaletik harago, baldintza soziologiko eta kultural sakonak daude, bai eta bereziki eta argi eta garbi, familia-erantzukizunen, etxeko lanen eta zainketa-lanen banaketa asimetriko eta desberdina ere. Ondorioz, emakumeak lan-munduan sartzen badira ere, haientzat nabarmen kaltegarriak diren baldintzetan sartzen ari dira, nahiz eta azken hamarkadetan gizonen pareko prestakuntza eta kualifikazio profesionalak izan, edo, zenbait kasutan, handiagoak. Beraz, soldatapeko lan-munduan, bateratzeari eta berdintasunari buruzko eztabaidak berriro aztertu behar dira, alde aurretiko premisa jakin bat aintzat hartuta: erantzunkidetasun-irizpideetan oinarritutako gizarte-eredu baten alde egitea.

eta kulturalak

549. Erantzunkidetasunean aurrera egitea helburu desiragarria da, baina baita premiazkoa ere, hainbat arrazoiengatik: ekitatea/justizia, efikazia/efizientzia, talentuaren aktibazioa...

Emakumeen lan-baldintzak berriro negoziatzea

Baina, lehenik eta behin, geure buruari galdetu behar diogu...

Prest gaude ordaindu gabeko lanetan emakumearen eta gizonen benetako erantzunkidetasuna lortzeko beharrezkoa den aldaketa ideologiko eta kultural handia egiteko? Badakigu zer garrantzitsua den, berdintasunaren eta bateratzearen ikuspegitik, emakumeek enpreetan dituzten eginkizunak eta baldintzak aldatzea, ordenamendu juridikoaren eta negoziazio kolektiboaren bidez?

05.2.7. Aurrerapen teknologikoak: iraultza digitala...

550. Oparotasuna, ezagutza, hub globalak eta talentua

Ezagutza aurreratua

XXI. mendeko industriaren ekosisteman, ezaugarri nagusietako batzuk zientzia-eta teknologia-azpiegitura aurreratuak dira.

Duela mende bat, burdina- eta ikatz-meategiak eta portu naturalen hurbiltasuna funtsezkoak izan ziren Euskal Herriko gorakada ekonomikoan; gaur egun, ordea, oparotasun-faktore horiek ezagutza aurreratuarekin daude lotuta.

551. Herrialde garatu guztiak industria aurreratua eta harekin lotutako zerbitzuak (industriaren zerbitzazioa) erakartzeko eta atxikitze planak ari dira abiarazten (esaterako, AEB, Advanced Manufacturing Centres; Erresuma Batua, Catapult Centres + Industrial Strategy; Alemania, Land of Ideas...).

Industria aurreratua

552. Aurrerapen teknologikoak aldi berean ari dira gertatzen zenbait frontetan, eta haietako batzuk elkartuz gero, eraldaketa-ahalmena erruz handitzen da. Bioteknologia, nanoteknologia, medikuntza, adimen artifiziala, ordezko energiak, fabrikazio aurreratuko prozesuak, material berriak... **Aurrerapen teknologikoak**
- Batez ere, XXI. mendeko lehen hamarkada hauetan, komunikazioaren, merkataritzaren edo industriaren (industria 4.0) eraldaketa digitala goitik beherako iraultza ari da eragiten gure harreman-, kontsumo- eta lan-moduetan, besteak beste.
553. Funtsezko inpaktuetako bat enpleguan ari da gertatzen; izan ere, lana polarizatzen ari da: alde batetik, prestakuntza handia duten eta eraldaketa-prozesu horietan eguneratuta jarraitzeko gaitasuna duten profesionalak, eta, beste batetik, eskuzko enpleguak, balio erantsi txikikoak eta lan-kontratu prekarioak dituztenak. **Enpleguaren eraldaketa**
- Bi muturren artean, lanaldi osoko lanbide tradizionalak desagertzen ari dira, makinek (kutxazain automatikoak, telefono bidezko arreta, gidariak, fabriketako langileak...) gero eta gehiago ordezkatzen baitituzte.
554. Mundu osoko fenomeno bat da. Txina eta aurrerapen-bidean dauden beste herrialde batzuk nabarmentzen dira, zientzia- eta teknologia-azpiegiturak eguneratzeko konpromisoa handia hartu baitute. Ezagutza globalaren ardatzak finkatzen ari dira, munduan dagoen hub kopuru jakin baten inguruan. Hona hemen: **Ezagutza globaleko guneak**
- Europako iparraldeko zenbait hiri. Alemania, industria-eragile gisa, eta txikiagoak diren baina I+Gan inbertsio-maila handia duten herrialdeak (Finlandia, Danimarka, Suedia...).
 - Haiekin batera, Erresuma Batuko zenbait eskualde, unibertsitate aurreratuen (Londres, Oxford, Cambridge) inguruan.
 - Estatu Batuetako industrien eta zientzia aurreratuen guneak (Boston, Silicon Valley, Chicago, New York, Seattle...).
 - Asia, Japonia, Hego Korea eta Singapur dira aitzindariak, Txinako (Shanghai, Beijing, Shenzhen...) eta Indiako (Bangalore, Delhi...) zenbait hub ere nabarmentzen dira.
 - Israel ere zerrenda horretan sar daiteke, nahiz eta ezaugarri bereizgarri esanguratsuak izan.
555. Ezagutza-gune horietan, I+Gan egiten den gastua BPGaren % 3 eta % 5 artean dago. Horrek aukera ematen du euren ezagutza-arloetan liderrak diren unibertsitateek eta ikerketa-zentroek ikertzen jarraitzeko. **I+Gko gastu mailak**

556. Talentu globala gune horietan biltzen da, bai aukera profesionalengatik, bai bizileku erakargarriengatik (per capita errenta-maila handiak, azpiegituren kalitate handia, etab.). **Talentu globala**
- Hori dela eta, multinazionalak gune horietara bideratzen dituzte I+Gko zentroetan eta industria aurreratuetan egiten dituzten inbertsioak.
557. Euskadiko eta Nafarroako autonomia-erkidegoek euren autogobernua berreskuratzean, biek egin zuten ezagutzaren aldeko apustua. Hogeita hamar urtetan, I+Garen arloan azken erkidegoen artean egotetik aitzindariak izatera igaro dira Estatuan. Izan ere, Madril gainditu dute, nahiz eta erkidego horretan egon unibertsitate eta CSICen zentro gehien. **I+Gko gastua**
558. Epe luzerako apustua da, gobernantza eta baliabideak behar dituen. Izan ere, zientzia- eta teknologia-azpiegitura aldatzeko eta lehen aipatutako ezagutza globaleko hubekin lehiatu ahal izateko, lan handia eta denboran iraunkorra egin behar da.
- Hala eta guztiz ere, azken hamarkadako krisi orokorrak eta apustu publiko eta pribatuaren gaitasunean izan duen eraginak hasitako ibilbidea etetea ekarri dute.
559. 2009an, 2011n eta 2012an, BPGaren gaineko % 2 baino gehiago inbertitu zen I+Gan, eta % 3ko helburua finkatu zen. Hala ere, 2016an, % 1,77ko inbertsioa egin zen Euskadin, lau urtez jarraian behera egin ondoren (2012an lortutako % 2,09tik). **I+Gko gastua, konparaketa**
- Konparatze aldera, hona hemen 2016ko erreferentzia batzuk: Alemania % 2,94, Danimarka % 2,87, Finlandia % 2,75 eta Suedia % 3,25. AEBek % 2,79ko inbertsioa egin zuten, eta Japoniak, % 3,29koa. Txinak % 2,1 inbertitu zuen.
560. Dena den, Administrazio Publikoa ez da erantzule bakarra; izan ere, eragile pribatuen konpromisoa funtsezkoa da. ELGEren iritziz, hau da I+Gko apustuaren banaketa egokia: inbertsioaren 1/3 publikoa eta 2/3 pribatua. **I+Gko gastuaren finantzaketa**
561. Nafarroan, egoera oso antzekoa izan zen (% 1,62ko inbertsioa 2016an). Ipar Euskal Herrian, berriz, inbertsio-maila txikiagoa da, Frantziako hegoaldeko gainerako lurraldeetan bezala. **I+Gko gastua**
562. Puntako unibertsitateak gabe, I+Gan ELGEko batezbestekoa baino txikiagoa den gastua eginez, arrisku handia dago Euskal Herria XXI. mendean garapen globala gidatuko duten eskualdeen gune horretatik kanpo geratzeko. **Unibertsitateak**

05.2.8. Lehiakortasun globala, irekitasuna eta nazioartekotzea

563. Azken hamarkadetan, gero eta gehiago onartu da lurraldea oso garrantzitsua dela lehiakortasun- eta berrikuntza-politiketan, eskualdeko berrikuntza-sistemak, klusterrak eta beste kontzeptu batzuk sortzeari esker. Dena den, lekuko lehiakortasun- eta berrikuntza-politikarako garrantzitsua dela zalantzan jartzen ez bada ere, kontuan izan behar da lurraldearen kontzeptua konplexua eta maila anitzekoa dela. Herrialde askotan, politikak egiteko eskumenak nazio-mailatik eskualde-mailara igaro dira, eta, ondorioz, eskualdea funtsezko lurralde-unitate bihurtu da, kontuan izan beharrekoa. **Lurraldea eta lehiakortasuna**
564. Kontuan izan behar da, geografikoki, produkzio- eta berrikuntza-ahalmenak zatikatuago daudela European munduko beste herrialde batzuetan baino. Ildo horretan, Europako Batzordeak nazioartekotzea eta lankidetzaz asko bultzatu ditu azken hamarkadan, zatiketa murrizteko eta eskala globalean hobeto lehiatu ahal izateko. Oro har, eskualdeen arteko lankidetzaz funtsezkoa da; alde batetik, berrikuntza-ahalmenen zatiketa gainditzeko, eta, beste batetik, berrikuntza-ahalmenetan eta ugaltze-aukeretan sinergia guztiak ustiatu egiten direla bermatzeko, sektore eta teknologia guztietan. Beraz, lankidetzaz hori ezinbestekoa izan daiteke eskualde-mailan eta European lehiakortasuna sustatzeko; horrek lehentasuna ematen dio eskualdeen arteko lankidetzarako mekanismo eraginkorrak garatzeari, eskala eta irismen handiko ekonomiak lortzeko. **Eskualdeen arteko lankidetzaz**
565. Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak lankidetzarako potentzial handia du, lehiakortasun-ahalmen handia duelako. Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrerak lankidetzaz-maila hau indartu lezake, bereziki euskal lurraldeen garapenari begira. **Akitania-Euskadi Euroeskualdea**
- Jarraian, eskualde mugakide horien (Akitania, Euskadi eta Nafarroa) lurralde-lehiakortasuna aztertuko dugu, eskuarki erabiltzen diren indize makroekonomikoen (biztanleria, barne-produktu gordina, langabezia eta produktibitatea) arabera. Horretarako, Eurostaten oinarritutako metodologia bat erabili da, baina 10 urteko eboluzio-ikuspegia (2006-2016) eta konparazio-ikuspegia (datu nazionalak eta EB28koak ere kontuan hartuta) baliatuz.
566. Barne-produktu gordina (BPG) ohiko adierazleetako bat da lurralde-lehiakortasuna neurtzen denean (Orkestra, 2017). Alborapenak saihesteko eta konparazio errealistak egiteko aukera ematen du; bestela, lurralderik handienen datuak hobeak izango liriateke. Estatuaren ikuspegitik, Frantziak Espainiak baino per capita BPG handiagoa du. Gainera, datu horiek ez dira asko aldatzen denboran zehar: 2016an, Frantziakoa 32.800 eurokoa zen, eta Espainiakoa, 23.200 eurokoa. Halaber, aztertutako aldi guztian, Espainiako datuak EB28koak baino txikiagoak ziren. **Per capita BPG**

567. Arreta eskualde mugakideetan jartzen dugunean, estatuen erodei jarraitzen ez dieten datuak lortzen ditugu, eta joerak alderantzikatu egiten dira. Hain zuzen, Akitania per capita BPGrik txikiena duen eskualdea da, nahiz eta aztertutako denboraldian zehar datuak hobera egin duen. Hain zuzen, 2015ean, Nafarroakoaren antzekoa zen (28.500 eurokoa Akitanian eta 29.100 eurokoa Nafarroan). Bestalde, Euskadik eta Nafarroak finantza-krisiaren unerik larrienekin bat egin duten beherakadak izan dituzte (2009an eta 2013an), eta, 2014az geroztik, susperraldia izan dute. Aurrekoa gorabehera, Euskadi da per capita BPGrik handiena duen eskualdea aztertutako aldi osoan: 2015ean, 30.800 eurokoa izan zen. **Per capita BPG**
568. Azken hamarkadan Europa astindu duen finantza-krisiak hainbat ondorio negatibo izan ditu, eta horrek agerian jarri ditu Europako ekonomien egiturazko ahuleziak. Eragin kaltegarri nagusietakoak eskualde guztietako langabezia-tasa handiak dira. Estatuetakoa langabezia-tasa aztertuta, 2006an oso antzeko ehunekoak zituzten arren, Espainiako langabezia-tasak izan du Europako hazkunderik handiena; hain zuzen, 2016an, ia portzentajezko 10 puntu handiagoa zen Frantziakoa baino (hurrenez hurren, % 19,6 eta % 10,1). Halaber, 10 urtean, Espainiak Europako 2016ko ratioak bikoiztea lortu du (8,6). **Langabezia-tasak**
569. Eskualde mugakideetako langabezia aztertzean, ikus daiteke Akitanian langabezia pixkanaka handitzeko joera dagoela (aztertutako aldian, 3 puntu handitu zen). 2016an, % 10,1ekoa izan zen (Frantziakoaren antzekoa), baina uste da krisialdi ekonomikoan langabezia-tasa apur bat txikiagoa izan dela Frantzian Akitanian baino. Dena den, bestalde, Euskadiko eta Nafarroako langabezia-tasek gorakada handiak izan zituzten 2009an eta 2013an (% 15etik gorakoak izan ziren), baina, 2014tik 2016ra bitartean, behera egin zuten berriro (hurrenez hurren, % 12,5 eta % 12,6). Alegia, Euskal Herriko datua kontuan hartuta, Hegoaldeko langabezia-tasa askoz handiagoa izan zen Europako batezbestekoa baino (2013an izan zuen handiena, % 16,2).
570. Produktibitatea (BPG/langile-kopurua) ohiko adierazlea da lurralde bateko jarduera aztertzerakoan. Estatu-mailan, Frantziak Espainiak eta EB28ak baino jarduera handiagoa du: 2015ean, 83,4 izan zen. Espainiako produktibitate-ratioa, ordea, ez da asko aldatu 2012az geroztik (2012an 59,5 eta 2015ean 60,7). **Produktibitatea**

571. Eskualde mugakideen egoera aztertzean, nabarmendu behar dugu 2006tik 2015era eskualdeen posizioak aldatu egin zirela. Hain zuzen, 2006an, Akitaniako produktibitate-ratioa 66,4koa zen, eta Euskadikoa eta Nafarroakoa, 61,8koa eta 61,2koa, hurrenez hurren. Baina, 2007az gerotik, Akitaniakoak gorakada izan zuen 2010ean, eta beherakada 2012an; hori dela eta, 2015ean, 2012ko datu berak zituen (71,3). Gainera, 2008an Euskadiko produktibitateak hobera egin zuen; 2011z gerotik nabarmen handitzen hasi zen, eta, 2015ean, 76,5ekoa zen (Akitaniakoa 71,3 eta Nafarroakoa 70,4). Nafarroako produktibitate-ratioak ere goranzko joera izan zuen, baina Euskadikoa baino motelagoa. Gainera, hazkunde-itxaropenak positiboak ziren (2006an 59,2koa zen, eta 2015ean, 70,4koa).
572. Lurralde-lehiakortasunari buruzko azterketa bateratu horretatik, eskualdeen arteko lankidetzak lehiakortasun globalerako eta nazioartekotzerako duen potentziala adierazten duten hainbat ondorio atera ditzakegu. Eskualdeen arteko lankidetzak
- Hiru eskualdeek jarduera ertaina edo handia dute euren estatu nazionalekiko.
 - Krisi ekonomikoak kalte handiagoa egin die Euskadiko eta Nafarroako erkidegoei. Akitaniak, dirudienez, hobeto eutsi die krisiaren eragin kaltegarriari.
 - Biztanle-kopurua kontuan hartuta, alde handiak daude lurraldeen artean (Akitaniak ditu biztanle gehien).
 - Hiru eskualdeek per capita BPG desberdina dute. Aztertutako aldietan, Euskadikoa zen hiruretan handiena.
 - Egiturazko ahultasunei (langabezia) dagokienez, hiru lurraldeak egoera desberdinean daude. Akitania da eskualderik sendo eta egonkorrena.
 - Hiru lurraldeek antzeko jarduera-itxaropenak (produktibitatea) dituzte, gero eta hobeak.
 - Euskal eremuan lankidetzak-maila garrantzitsuak bultzatu daitezke, hainbat esparruetan, garapen teknologikoan, elikaduran edo ingurugiro arloan, baita arlo industrialean eta turismoan ere. Esparru hauek indartu daitezke mugaz gaindiko lankidetzaren bidez.

05.3. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak

05.3.1. Euskal egitura ekonomikoa

573. **Produkzioaren eta enpleguaren egitura ez da Espainiako ekonomiaren berdina.** Produkzio-egitura
- 2016ko datuetan oinarrituta, Espainian, industria-sektoreak % 16,2ko pisua du BPGan (manufaktura-sektorearena % 12,9koa da); EAEn, berriz, % 26,3koa da (manufaktura-sektorearena % 23koa), eta Nafarroako Foru Komunitatean % 30,1ekoa (manufaktura-sektorean % 27,2koa).
- Espainian, zerbitzu-sektoreak % 66,9ko pisua du BPGan; EAEn eta Nafarroan, berriz, % 58,2koa eta % 52,7koa dira, hurrenez hurren.
574. **Enpleguaren ikuspuntutik, 2016an, enplegatutako pertsona guztietatik, % 12,1ek industria-sektorean egiten zuen lan Espainian. Euskadin % 20,1ek eta Nafarroan % 23,5ek egiten zuten lan sektore horretan.** Enplegua, sektorearen arabera
- Zerbitzu-sektorean, langileen % 78,3k egiten zuen lan Espainian, eta, EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, % 73,7k eta % 67,9k; hots, gutxiagok.
575. **Alde horiek zenbait abantaila dituzte.** Industria-sektorearen pisua
- Industria-sektoreak zerbitzu-sektoreak baino pisu handiagoa duenez, Euskadiko eta Nafarroako ekonomiek produktibitate handiagoa dute. Azken hiru urteetako datuak oinarri hartuta (BPGak eta enpleguak gora egin dute), Espainiako ekonomiaren batez besteko produktibitatea % 0,6koa izan da, eta Euskadikoa eta Nafarroakoa, % 1,4koa eta % 1,3koa, hurrenez hurren.
576. **Soldatei dagokienez, Soldata Egituraren Urteko Inkestaren emaitzei erreparatuta (eskuragarri dauden azken datuak 2015ekoak dira), EAE eta Nafarroako Foru Komunitatea lehen eta hirugarren postuetan daude (Madril bigarrean), hurrenez hurren, langile bakoitzeko urteko batez besteko soldata kontuan hartuta. Zehatz-mehatz, EAeko langile bakoitzeko urteko batez besteko irabaziak 27.571,3 eurokoak dira, Espainiako Estatukoak baino % 19,3 handiagoak. Nafarroako Foru Komunitatean, 2015ean 24.863,9 eurokoa zen datu hori, Espainiakoa baino % 7,6 handiagoa.** Soldata-mailak
577. **Industria-sektoreak gainerako sektoreek baino soldata-maila handiagoa izaten jarraitzen du. EAEn, industria-sektoreko langile bakoitzaren batez besteko irabaziak 32.254,4 eurokoak dira, eta, Nafarroan, 29.187,9 eurokoak dira; Estatuko batezbestekoa baino % 19 eta % 7,7 handiagoak, hurrenez hurren.** Industria-sektorea

578. Baina zein dira BPGari eta enpleguari ekarpenik handiena egiten dieten jarduera-adarrak? **Jarduera-adarrak**

EAEn, BPGaren % 5etik gorako pisua duten adarrak honako hauek dira (2016 datuak): eraikuntza, metalurgia eta metalezko produktuak, ibilgailuen salmenta eta konponketa, eta higiezin jarduerak (azken horrek % 10,3ko pisua du).

Enpleguari dagokionez, enplegu osoaren % 5 gainditzen duten adarrak honako hauek dira (2015eko datuak): administrazio publikoa eta defentsa, ostalaritza, eraikuntza, zerbitzu osagarriak, metalurgia eta metalezko produktuak, hezkuntza, familien jarduera eta merkataritza, eta ibilgailuen konponketa (azken horren pisua % 13,3koa da).

Nafarroako Foru Komunitateko ekonomia gutxiago dibertsifikatuta dago; izan ere, ibilgailu motordunen fabrikazioa eta elikagaien industria dira nagusi: balio erantsiaren % 33,6 eta enpleguen % 35,1.

579. Eta nolakoak dira euskal enpresak? **Enpresen tamaina**

Enpresa txikiak eta ertainak dira nagusi, eta hori negatiboa da produktibitatearentzat. 2016an, soldatapeko langilerik ez zuten enpresak lehen postuan zeuden. Horrenbestez, 2016an, horrelako 75.193 enpresa zeuden EAEn; autonomia-erkidegoko enpresa-sarearen % 49,7. Hala ere, gutxiago ziren Nafarroakoak (erkidegoko enpresen % 56,2) eta Estatukoak (Estatuko enpresa guztien % 55,4) baino. Soldatapekorik gabeko enpresen ondoren, bai EAEn eta Nafarroan, bai Estatuan, honako hauek dira nagusi (ordena honetan): langile bat edo bi dituzten enpresak eta 3-5 langile dituztenak.

580. Krisiak eragin handia izan du lan-merkatuaren makromagnitude nagusietan. Edonola ere, euskal lan-merkatuak bere ezaugarriak ditu... **Zahartzea**

Biztanleriaren zahartzea lehen mailako erronka da, eta, lan-merkatuan dituen ondorioak konpentsatzeko, produktibitate handiagoa behar da. Arazo horretaz jabetzeko, langileen profilak aztertuko ditugu adinaren arabera, 2016ko datuetan oinarrituta. Gutxi gorabehera, landunen % 60 35 eta 54 urte bitartekoa da, bai EAEn, bai Nafarroako Foru Komunitatean (eta Estatuan, oro har). Eta % 16k baino apur bat gehiagok 55 urte baino gehiago dituzte, aztertutako eremu geografiko guztietan.

581. Baina, bestalde, euskal biztanleria landunaren prestakuntza-maila oso handia da; ildo horretan, alde nabarmena dago Estatuko gainerako erkidegoetako erregistroekin. Zehazki, EAeko landunen % 55,2k goi-mailako hezkuntzako ikasketak ditu; Nafarroako Foru Komunitatean, % 51,2 dira, eta Estatuan, berriz, % 42. **Prestakuntza-maila**

Bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioak antzekoak dira leku guztietan (% 13-17).

582. Datu esanguratsu bat dago: eremu geografiko guztietan, emakumeen prestakuntza-maila handiagoa da gizonena baino. Hain zuzen, EAEn, goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen proportzioa % 59,3koa da, eta gizonena, % 51,7. Nafarroan, proportzioa apur bat txikiagoa da: emakumeena % 56,8 eta gizonena % 46,4. Azkenik, Estatu-mailan, erregistroa % 47,9ra jaisten da emakumeen kasuan, eta % 37,3ra, gizonen kasuan.
- Jakina, horren ondorioz, landunen artean emakumek baino gizon gehiagok dituzte bigarren hezkuntzako ikasketak.
583. Ikerketa eta Garapenaren arloko jarduerak garrantzi handikoak dira deskribatutako ingurunean, produktibitatea baita aldagai nagusia...
- 2016ko Ikerketa eta Garapenaren arloko jarduera gastuaren bidez neurtuta, ikusiko dugu gastu hauek egin zirela EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, hurrenez hurren: 1.302.828 (mila euro) eta 308.606. Alegia, Estatuan guztira egindako gastuaren % 9,74 eta % 2,33, hurrenez hurren.
584. BPGaren gaineko gastua kontuan hartuta, EAEk % 1,89ko gastua izan zuen, beste autonomia-erkidegoek baino gehiago. Nafarroa hirugarren postuan dago, % 1,62ko gastuarekin. Hala ere, Europako batezbestekoak baino gastu txikiagoak dira oraindik.
585. Eta etorkizunera begira, norantz joko dugu?
- Bai Eusko Jaurlaritzak bai Nafarroako gobernuak espezializazio adimenduneko estrategian oinarritzen dituzte beren etorkizuneko planak; hartan, industria-sektorea nabarmentzen da ekonomiaren eragile nagusi gisa. Azken finean, produktibitate handiena duen sektorearen alde egiten dute, politika eskualdeko lehentasun eta erronka garrantzitsuetara bideratuz.
586. EAEn, lehentasunezko hiru esparru zehaztu dira. Lehen biak Fabrikazio Aurreratua eta Energia dira, arlo horietan zientzia-, teknologia-, enpresa- eta dimentsio-ahalmenak dauden ebidentziak baitaude. Hirugarren arloa Biozientziak dira; hartan zientzia-ahalmenak daude, baina enpresa-ahalmen mugatuak.
587. Nafarroako Foru Komunitatean sei arlo ekonomiko estrategiko zehaztu dira: Automobilgintza eta Mekatronika, Elikadura Katea, Energia Berriztagarriak eta Baliabideak, Osasuna, Turismoa Integrala eta Industria Sortzaile eta Digitalak.

Emakumeen
prestakuntza-maila

I+Cko gastua

Espezializazio
adimenduneko
estrategia (RIS3)

Euskadiko RIS 3

Nafarroako RIS3

588. Ipar Euskal Herriaren egoera Hegoaldekoaren oso ezberdina da, batez ere ia gaur egun arte ez duelako inolako onarpen instituzionalik izan. Hala, eskumen propiorik gabe, konpromiso instituzionalaren beharrian handiena duten sektoreak galdu ditu bertako lurralde-egoerak eta ekonomiak. Ondorioz, demografiak ere jasan du galera handia. **Ipar Euskal Herriko egitura ekonomikoa**

Ipar Euskal Herriak industria-masa galdu du azken hamarkadetan, eta bertan bizi den jendearen bizileku-beharra betetzera bideratu da bertako ekonomia. Horiek horrela, Iparraldean jorratzen den prestakuntza eta ikerketa Akitaniako ekonomiara bideratu dira, bertako ekonomiara baino gehiago. Ez dago esan beharrik, beraz, ildo horretan joango diren baliabide gehiagoren eta orientazio handiagoren premia antzematen dela, argi eta garbi. Dena dela, badira industria-hobi interesgarriak Lapurdiko kostaldean eta Maule inguruan, Hegoaldeko industriarekin lotuta daudenak.

589. Ipar Euskal Herriko barnealdean, berriz, pisu handia dute nekazaritzako elikagaien industriak, kulturak eta ingurumenak; horrenbestez, sektore ekonomiko horri eta haren kudeaketa-ereduari lotutako erreferentzia-eremu interesgarria da (batez ere nekazaritza ekologikoaren inguruan). Lapurdiko kostaldeari dagokionez, ekonomiak higadura handia jasan du eta pixkanaka, bizitegietara bideratutako eremu bihurtzen ari da. Izan ere, merkataritzari eta turismoari lotutako higiezinen jarduerak eta zerbitzuek ekonomiari, lurraldeari eta demografiari lotutako alderdi guztiak baldintzatzen dituzte. **Ipar Euskal Herriko egitura ekonomikoa**

05.3.2. Gizarte-egitura eta kohesio-elementuak

590. Erronken atalak testuinguru globalean erkidego gisa kokatzeko aukera eman badigu ere, hori guztia lortzeko aukera izatekotan, ezinbestekoa gertatuko zaigu autogobernu-ahalmena. **Autogobernua**

Ikuspegi horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoak azken hamarkada hauetako politika publikoen hedapenik handiena egin du, hain zuzen berezkoak dituen autogobernu-eskumenak erabiliz. Oraindik transferentzia guztiak bete gabe daudela jakinik ere, agerian diren emaitzek argi eta garbi adierazten dute herri honek zer-nolako borondate humanista duen, gogo hori hezurmamitzeko baliabideak dituenan.

Ondoren, eremu administratibo horretan gizarte-egiturari eta kohesio-elementuei lotuta lortu diren emaitzen laburpena egingo dugu eta, ondoren, zehatzago azalduko ditugu gure gizarte-egiturari eta kohesio-elementuei buruzko kontuak.

591. *Diru-sarrerak bermatzeko sistemak pobrezia hazkundera geldiarazi du Euskadin.* **Pobrezia**

2008 eta 2016 bitartean, pobrezia-egoeren inpaktu objektiboak gora egin du Euskadin. Benetako pobrezia-tasa % 4,2koa zen 2008an, eta % 5,9koa 2016. Halere, diru-sarrerak bermatzeko sistemari esker, krisiaren inpaktua nabarmen mugatu ahal izan da EAEn. Krisia hasi zenetik lehen aldiz, pobrezia-tasak pixka bat behera ere egin du 2016an, eta % 5,7an kokatu da.

Nahi genukeen egoeratik urrun bada ere, inpaktuan ez da oso zenbateko handia, eta txiroenen oinarritzko beharrianak hein handian estalita daude, gainera. Pobrezia-ari lotuta diru-sarreraren eskasia neurtzeari dagokionez, FGT indizeak (2) % 1,76ko pobrezia absolutu metatua jaso du 2016an (0 baliabiderekin, erabateko pobrezian dauden pertsonen proportzioaren pareko zenbatekoan).

592. *Pobrezia- eta desberdintasun-adierazleek Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialderik garatuenetatik hurbilago jartzen gaituzte, hegoaldeko herrialdeetatik baino.*

Euskadi egoera on samarrean dago Europako testuinguruan.

Eta egoera onean dago, zalantzarik gabe, Europako hegoaldeko herrialdeekin alderatuz gero. Hori agerian gelditzen da 2016ko gure egoera Espainia osoko egoerarekin alderatuz gero. Espainiako pobrezia larriaren atalasea (diru-sarreraren batez bestekoaren % 40 baino gutxiago) erreferentziatzen hartuta, Euskadin % 2ko tasa azaleratzen da, Espainian dagoen % 11,2ko tasaren bostena baino gutxiago. Ildo beretik, eros-ahalmenaren parekotasunaren atalaseari erreparatuz gero, Italiako pobrezia larria Euskadikoa baino hiru aldiz handiagoa da (% 9 han eta % 2,6 hemen).

593. Europako esparru orokorrarekin alderatuz gero ere, Euskadi egoera onean dago. Azken garaian bizitza-baldintzek hobera egin izanari esker, 2016an, EAEko pobrezia erlatiboaren tasa (batez bestekoaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak) EBko herrialde guztien batez bestekotik behera dago: % 16,4 Euskadin, % 17,8 EB-28an eta % 17 EB-15ean.

**Pobrezia- eta
bazterkeria-arriskua**

Pobrezia- eta bazterkeria-arriskuaren AROPE adierazleari erreparatuz gero, Europar Batasuneko batez bestekotik behera dago EAE. 2016an, zehazki, EBko batez besteko maila baino 2,5 puntu beherago zegoen EAE (% 23,7 EB-28an, % 23,3 EB-15ean). EAEko pobrezia larriaren tasari dagokionez ere, 2016an EB-28ko eta EB-15 zaharreko batez bestekotik behera zegoen EAE: % 4,9 bertan, eta % 6,3 eta % 6,0, hurrenez hurren, EB-28an eta EB-15ean.

594. Euskadiko pobrezia- eta ezegonkortasun-adierazleak Europakoekin alderatuz gero, ikus daiteke, 2014an eta 2016an izandako beherakada handiaren ondoren, Euskadi Europako maila orokorretatik behera dagoela, argi eta garbi. Bereziki, EAEko Gini koefizienteari erreparatzen badiogu (25,8), ageri-agerian dago EB-28aren batez bestekotik (31,0) eta EB-15aren batez bestekotik (30,9) behera

Ezegonkortasuna

dagoela.

595. *Biztanleria sozialki egonkorra eta joria*

Diru-sarrerak
Bermatzeko Errenta

Euskadin indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko politikak euskal herritarren epe luzerako egonkortasun ekonomikoa ziurtatzen lagundu du eta, ondorioz, egiturazko eta epe luzeko pobrezia-adierazleak nabarmen murriztu dira. Hona horren inguruko daturik deigarrienak:

- Inolako aurrezkirik ez duten etxeetan bizi diren biztanleen kopuruak behera egin du Euskadin: % 42,7 ziren 1996an, eta % 21,6 2016an. Krisialdian ere, murrizteko joerak bere horretan jarraitu du
- Aparteko gastuei heltzeko baliabiderik ez duten familietan bizi diren pertsonak % 18,2 dira Euskadin. Espainian, berriz, % 39,7 dira, EB-28an % 37,3 eta EB-15ean % 36,2. Herrialde zehatzei erreparatuta, Alemanian (% 30,4) baino gehiago baina Frantzia (% 32,8) baino gutxiago dira EAEn. Europar Batasun osoan, Suedia besterik ez dago Euskadi baino hobeto adierazle horri dagokionez (% 15,8).
- Euskadiko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren sistemari esker, herritarren zorpetze-arriskua (hau da, gastuak diru-sarrerak baino gehiago direnean, defizit hori orekatzeko aurrezkirik eduki gabe) kontrolatzea lortu da. Azken urteotan gora egin duen arren, 2016an % 2,4 baino ez da.

596. Deskribatu berri dugun errealitate horrek azaltzen du pobrezia pertzepzio subjektiboak (herritarrek fenomeno horren aurrean duten egiturazko posizioa neurtzeko erabiltzen den adierazlerik garrantzitsuenetako bat da) maila baxuan eta egonkorrean irautea Euskadin krisialdiaren zati handi batean. EAEn, euren burua pobretzat edo oso pobretzat duten familietan bizi diren pertsonen ehunekoa % 3,6tik behera dago 2016an.

Pobrezia

597. 2012-2014an aldian, EAeko gizartean beherako mugikortasun-prozesuak nagusitu ziren, 1996az geroztik lehen aldiz. Parentesi hori alboratuta, ordea, 2014-2016 bitartean «pobrezia/ongizatea» gizarte-eskalan gorako joera argia abiatu da berriro ere. Harrigarria gerta badaiteke ere, 2016an izan zen Euskadiko herritarren kopururik handiena ongizate-egoeran (egoera osoan edo ia osoan), bai zenbateko erlatiboegi dagokienez (biztanleriaren % 74,6, 2008an % 72,5 zen bitartean), bai biztanleriaren bolumenari dagokionez (1,6 milioi lagun 2016an, eta 1,56 2008an eta 2012an).

Gizarte-
mugikortasuna

598. *Krisiaren inpaktu gogorraren gainera ere, enpleguak hobeto eutsi dio Euskadin Estatuko gainerako eremuetan baino.*

Enplegua

Industria-birmoldaketaren ondoren Euskadirako eredu ekonomiko berri bat

lortzeko garapen-politikekin batera, diru-sarrerak bermatzeko sistemak ere lagundu du Euskadiren posizioa goitik behera aldatzen enplegua eskuratzeko adierazleen harira.

1989an, familientzako gutxieneko diru-sarrera (gaur egungo DBEaren aurrekaria) abian jarri zenean, Euskadiko langabezia-tasa % 20,5ekoa zen eta soilik Espainiako erkidegorik pobreenak (Kanariak, Extremadura eta Andaluzia) zituen gainetik. Euskadin industria-birmoldaketak eragin zuen lan-hondamendiaren isla baino ez zen. 1992tik 1997ra bitarteko krisialdian, EAeko batez besteko langabezia-tasa % 21,9ra ere heldu zen. Kasu horretan, ordea, Espainiako % 22,1eko langabezia-tasa baino txikiagoa zen. Halere, Madrilgo edo Kataluniako batez bestekotik (% 19 inguru) hiru puntu gorago jarraitzen zuen artean ere.

599. Aitzitik, mende berriko atzeraldiaren punturik gorenean, 2009 eta 2013 bitartean, Euskadiko langabezia-tasa % 13,3koa izan zen, gure erkidegoan aurretiaz izandako krisietan baino 7 eta 9 puntu gutxiago. Epealdi horretan, EAeko langabezia-tasa Espainiako % 22koa baino 8,7 puntu txikiagoa zen, Estatu osoko txikiena. Madrilgoa (% 16,8) baino 3,5 puntu txikiagoa eta Kataluniakoa (% 19,7) baino 6,4 txikiagoa. Langabezia
600. Krisia krisi, 2014an, susperraldiaren hasieran, 16 eta 64 urte bitarteko Euskadiko herritarren % 63,3 lanean zebilen. 1989ko hasierako (Euskadiko 80ko hamarkadako industria-gainbeheraren ondoren diru-sarrerak bermatzeko sistema abian jarri zen uneko) % 48,4 baino ia 15 puntu gehiago. Immigrazioa
601. *Hein handi samarrean integratutako immigrazioa*
- Atzerritik Euskadira etorritako pertsonen kopuru handiak ezaugarritu ditu, hein handi batean, azken bi hamarkadak. 2014ko EPIEri lotutako datuek adierazten dutenez, ordea, kolektibo hori oso hein handian dago gure gizartean txertatuta. Horixe adierazten dute adierazle batzuek:
- Atzerritik etorritako biztanleen % 89-90ek dio ez duela gizartean txertatzeko arazorik, ez bertako pertsonen eta taldeen harira, ez beste immigrante-talde batzuen harira (berdin euren jatorrikoak nahiz beste jatorri batzuetakoak).
 - Atzerritik etorritako biztanleen % 80,6k euskal gizartean duen txertatze-mailari buruzko posizioen goiko aldean kokatzen du bere burua. Kopuru hori 2010ean jasotako % 80,8aren parekoa bada ere, txertatze-maila handia adierazten duen zatiak % 23,5etik % 29,1era egin du gora 2010etik 2014ra bitartean.
 - Atzerritik etorritako 16 urtetik gorako biztanleen % 76k EAerekiko identifikazio-maila handia du.
602. Arrazakeriari edo xenofobiari lotutako arazoaren inpaktua edo arazo horiei lotutako

arbuio- eta bazterkeria-prozesuak ez dira hazi. EPIEk emandako datuen arabera, atzerriko jatorria duten 16 urtetik gorako biztanleen % 17,5ek arrazakeriari eta xenofobiari lotutako bizipenak jasan ditu EAEn, baina ehuneko horrek behera egin du 2010ean jasotako % 19,6aren aldean. Gauza bera gertatzen da arrazakeria-, xenofobia-, arbuio- eta bazterkeria-modu larriei lotuta, horrek ere beherako ildoan izan du eta (% 6,5 2010ean eta % 4,2 2014an).

603. Datu horiek azaltzen dute Euskadin bizi diren atzerriko herritarrek EAEn **Mendekotasuna** jarraitzeko asmoa adieraztea, hein handi batean. Bost urtera begira, % 87,8k adierazi du hori, eta bizitza osoari begira, berriz, % 80k.

604. *Zahartze-prozesuei lotutako mendekotasunaren presio apal samarrak.*

Beste faktore sozial positibo bat Euskadin: zahartzeari lotutako mendekotasun-prozesuek uste baino inpaktu txikiagoa eragin dute orain arte. 2014ko Osasun Inkesta Nazionalaren arabera, EAEko biztanleen % 10,9k aipatu du osasun-arazoren bati edo adin aurreratuari lotutako mugapen funtzionalen bat duela. Mugapenen inpaktuak oso astiro egin du gora denbora igaro ahala: % 10,5ek esan zuen hori 2006an, eta % 10,8k 2010ean. 2014an 235.862 pertsona zeuden egoera horretan, 2006tik % 4,6 soilik hazita (225.515 izan ziren orduko hartan).

605. 2014an, mugapenen % 49,7k mendekotasun bereziren bat eragin zuen (117.340 lagun). EAEko biztanleria osoarekin alderatuta, % 5,4 dira, 2006an eta 2014an jasotako datuen antzera, baina beherako bidean (% 5,5 2006an eta 5,7 2014an). Mendekotasun arin, larri edo erabatekoei erreparatuz gero, gorabehera handiagoak dira: % 3,0 ziren 2014an, 2006ko % 2,8 baino gehiago baina 2010eko % 3,2 baino gutxiago.

606. *Pobreziaren arazoiei eta arazo horri heltzeko politikari buruzko pertzepzio sozial desberdinak.* **Pertzepzio soziala**

EAEko herritarrek pobrezia buruz eta arazo horri heltzeko politika publikoei buruz duten pertzepzioa elkarren artean desberdina eta, are gehiago, kontraesankorra ere bada. Ezin inolaz esan gai horri buruzko diskurtso sozial bakarra dagoenik. Adibidez, DBEa jende gehiagok jaso behar ote duen galdetuta, herritarren % 41,5ek ez daki zer erantzun edo ez du erantzuten; % 29,2k dio gehiagok jaso beharko luketela; % 18,8k dagoen bezala utzi behar dela; eta % 10,5ek jende gutxiagok jaso beharko lukeela. Ildo beretik, EAEko biztanleriaren heren batek baino gehiagok (% 35,3k) uste du prestazio hori jasotzeko baldintzak gogortu egin behar direla; % 16,2k malgutu egin behar direla; eta % 22,3k dagoen horretan utzi behar dela. % 26,2k, biztanleriaren laurden batek baino gehiagok, ez du jarrera zehatzik hartzen.

607. DBEari buruz herritarrek duten diskurtsoa aztertuz esan daiteke, azken buruan, EAEko gizarteak bere egin duela prestazio hori, onartu eta harro agertzen dela,

nahiz eta beti ere lanari lotuta eta bertakoen lehentasuna azpimarratuta izan. Ez da batere arraroa, adituena esanetan, beste ingurune geografiko batzuetan ere gauza bera gertatzen baita. Hamarkadak, mendeak akaso, igaro beharko dira kosmopolitismo metodologikoak *nazionalismo metodologikoaren* lekua hartu arte.

608. Herritarren gizarte-politikei buruzko diskurtso desberdina ez da DBEa mugatzen: EAEko hamar biztanletik zortzik uste dute ongizate-estatua lehentasunezkoa dela gizarte-elkartasuna bermatzeko, baina ehuneko berberak dio ez dagoela kontrol nahikorik diru publikoaren erabileran. Beste alde batetik, ongizate-estatua ekonomikoki bideraezina dela uste dute eta aldi berean diru-murrizketen bidez ez direla krisiaren ondorioak gaindituko. Berrito ere adieraziko dugu, adituek esandakoaren ildotik, iritzi-aniztasun horren atzean ongizate-estatuaren alderdi positiboak barneratu nahia dagoela, baina aldi berean horrek sortzen dituen arazoak saihestu guran. Alde batetik, herritarrak ongizate-estatuaren defendatzaile sutsu gisa agertzen dira; beste alde batetik, berriz, makineria erraldoi eta erabilezin bihurtu dela uste dute. Azken buruan, etengabe errepikatzen diren gizarte-egien multzoa dugu aurrean: behin eta berrito errepikatzen direnez, dakarten barne-kontraesanaz jabetu gabe onartzen dituzte herritarrek.

609. Gure gizarteak dituen arazo anitzak izaera zein afekzio-mota desberdinetan adierazten doaz, beraz edozein politika publiko diseinatzerakoan horiek kontutan izan behar ditugu. Datozen lerroetan, hauetako batzuen inguruan sakonduko dugu, gure baloreak eta gure kohesio sozialerako erronka oso garrantzitsuak planteatzen dituztelako.

Kohesio soziala

610. Euskal Herrian eta bere lurraldeetan ere gertatzen dira gizarte-egitura eta haren kohesio-elementuak kolpatzen dituzten prozesuak eta gertaerak. Paradisua izan gabe, ukaezina da Euskal Herriaren ondare historikoari esker, elkartasun-, berdintasun- eta kohesio-maila zabaleko gizarte-egitura eratzeko osagai garrantzitsuei eusteko aukera izan dugula. Esan daiteke, halaber, osagai horiek garai bakoitzera egokitzen ere jakin duela euskal gizarteak. Aipa ditzagun adibide gisa EAEko eta NFEko diru-sarrerak bermatzeko sistemak, kooperatiben jarduera, gizarte-ekonomia, 3. Sektorea...

Gizarte-egitura

Halere, gure gizarteak ere jasan behar izan ditu mendebaldeko gainerako gizarteetan izandako tentsioak, gizarte-egituraren sendotasuna ahultzen dutenak: jardun matxistak, landa-eremua mespretxatzea, beste sexu-aukera batzuk gutxiestea, beste lurralde batzuetatik etorritakoak baztertzea (are gehiago larruazala zenbat eta ilunagoa izan) eta abar. Fenomeno horiek ere badira gure artean, eta garaian-garaian eguneratuta ageri dira. Dena dela, euskal gizarteak ezagutzen duen orok badaki tentsio guztiek aurrez aurre dutela bestelako errealitatea gauzatzeko prest dagoen gizarte zibil antolatua.

611. Beharbada, euskal gizartearen osagai konprometitu eta ekintzaile hori da baliotsuena, beste kultura-alderdi propio batzuekin batera taxutzen baitu gure nortasuna. Hain zuzen, autogobernu-mailarik handieneko lekuetan, joera horrek isla instituzionala ere izaten du.

Gizarte-kohesioari
begira, arrisku batzuk

Dena dela, gaur egungo garaietan euskal gizarte-egiturak eta haren kohesio-elementuek jasaten dituzten prozesuak eta tentsioak direla eta, erantzunak eguneratu eta adostasun eta babes zabala lortuko duten formula berriak bilatu behar ditugu. Hona hemen zenbait gai, adibide gisa:

612. Euskal Herriak historia osoan jaso ditu beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonak, eta azken hamarkadetan ere eutsi zaio ildo horri. Izan ere, Euskal Herrian bizi diren biztanleen % 28 bertatik kanpo jaio da (2011). XXI. mendeko lehen hamarkadetan beste kontinente batzuetatik eta lurralde urrunetatik etorritako pertsonekin bizi dugun prozesuei aurre egiteko adibide ederra izan daiteke 60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiatik eta Frantziatik etorritako herritarren naturalizazio-prozesua. Jatorria edozein izan arren, gaur egun euskal biztanleria osatzen duten guztiek atera dezakete zer ikasia prozesu hartatik. Halere, ez dira garai errazak eta, horrenbestez, ez da falta diskurtso erreakzionario eta xenofobo agerikorik ere. Eta ezin da baztertu diskurtso horiek eta bere egiten dituzten pertsonak geroz eta gehiago izatea etorkizunean, lehen aipatutako joera solidarioak baldintzatzeko punturaino.

Migrazioak

Hori guztia gertatzen ari den une historiko eta sozioekonomiko honetan, hain zuzen, ia ezinezkoa da beste kultura batzuetako pertsonen etorrera galaraztea; are gehiago, gure egitura ekonomikoak ezinbestekoa du halakoak gureratzea.

613. Azken hamarkadetan lurralde arteko desorekak areagotu egin dira; are gehiago milurtekoa hasi ondoren, higiezinei eta hirigintzari lotutako jarduera handiaren ondorioz. Zentzu horretan, adreiluaren krisiak (Hegoaldean) moteldu egin du baina ez du galarazi pertsonak metropoli-eremuetan biltzen jarraitzea. Eta, metropolien barnean ere, gero eta nabarmenagoa da adinaren, jatorriaren eta errentaren araberrako banaketa. Bien bitartean, biztanle gutxien dituzten eremuetan aktiboak galtzeko prozesu kritikoek bere horretan jarraitzen dute, dimentsio guztietan: biztanleak galtzen dituzte, jarduera ekonomikoak eta zerbitzuak galtzen dituzte, adineko pertsonak gero eta bakartuago bizi dira...

Gaur egun, lurralde-arteko desoreka horiek oso indartsuak dira Iparraldean. Zuberoan, adibidez, azken hamarkadetan biztanle-galera etengabea da, kostaldearen eta Baiona inguruko udalerrien mesedetan. Are nabarmenagoa izan zen 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Araban industrializazioaren eskutik gertatutako prozesua, haren ondorioz hiriburuan bildu baitzen herrialde osoko biztanleriaren hiru laurden. Hain zuzen makrozefalia horri egotzi behar zaizkio gaur egun Trebiñun, Mendialdean (Kanpezu inguruan) edo Añanako Taldean bizi dituzten zailtasunak. Alabaina, beste leku batzuetan ere azaleratzen dira

egiturazko arazo horiek, hala nola Erronkari-Zaraitzun, Zangozerrian, Tafallan, Baztanen edo Lea-Artibain.

Zenbat eta baliabide publiko gutxiago, areago kaltetzen da lurraldeen arteko oreka. Euskal lurraldeen arteko elkartasuna eta lankidetzak izango dira gure elkartasunerako ohiko joera egokitzeko jarduerak-ardatzak. Akaso, gai hori agerian jartzea da falta den gauza bakarra.

614. Enplegua premia biziko ondasuna da pertsonentzat. «*Ogibidea izateko*» eskubidea ez dago denon esku, ordea. Jarduerarik handieneko sektoreei profesionalki lotuta ez dauden taldeek (emakumeek, gazteek, migratzaileek...) dituzte eskubide hori gauzatzeko zailtasun gehien, eta are gehiago atzeraldiko urteotan. Beste alde batetik, hamarkadetan zehar enplegua ez izatea arazoa izan bada, XXI. mendeko ezegonkortasun-maila (behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, soldata-beherakadak) dela eta, gaur egun enplegua ez da autosufizientzia ekonomikoaren bermea. **Enplegua**
615. Funtsean, XX. mendean pobrezia langabeziarekin lotzen bazen, gaur egun lan-baldintza ezegonkorrekin lotutako pobrezia-mota berri bat sortu da. Europar Batasunak berak aitortu du azpienpleguari lotutako pobrezia-poltsa berriak sortu direla. Jomugan, aurretiaz aipatu ditugun giza taldeak. **Ezegonkortasuna**
616. Horrenbestez, errenta duina izatearen kontua ez da soilik pentsionisten arazoa; aitzitik, langile guztiena ere bada, bereziki emakumeena, gazteena eta immigratzaileena, arlo ekonomikorik ezegonkorrenetan aritzen baitira nagusiki. Emakumeen kasuan, gainera, lan-bizitza, etxeko lanak eta familiaren zaintza uztartu beharrak larritzen du beraien egoera, horren ondorioz intentsitate gutxiko jardueretan aritu behar izaten baitute lan-merkatuan. Azken buruan, aukeraberdintasunari lotutako arazo larria da, ondorengo aukerak ere baldintza ditzakena. **Aukera desberdintasuna**
617. Azken hamarkadetan, pobrezia edo gizarte-bazterkeria Euskal Herriko gizarte-errealitate sozialean txertatu dira, inpaktu apal samarrarekin bada ere. Baliabide propioak (diru-sarrerak bermatzeko errenta edo errenta bermatua) edo kanpokoak (Iparraldeko RSA) erabiliz oinarrizko beharrezkoak bermatzeko sistemari esker, pobrezia-aren fenomenoak Europako batez besteko estandarretik behera mantendu ahal izan da. Dena dela, ezin da errealitate hori gutxietsi: Europa 2020 esparruaren baitan berriki bildutako datuen arabera, Euskal Herri osoan 127.000 lagunek (biztanleriaren % 4,1ek) jasaten dute gabetasun material larria, eta 485.000 lagun (biztanleriaren % 15,5) daude pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan. **Diru-sarrerak bermatzeko errenta**
618. Alabaina, Euskal Herriko errealitatean elementu kezkaririk badago, azpienplegua eta horri lotutako pobrezia da. Izan ere, azpienpleguaren eragina Europar Batasuneko handienetakoa da, eta Estatu Espainolaren aurretik ere **Azpienplegua**

badago alderdi horretan. Euskal gizartearen % 12 oso lan-intentsitate txikia duten familietan bizi da.

619. Orain arte azaldu ditugun prozesuak ez dira berriak, baina azken urteotan erakutsi duten intentsitateak eta dimentsioak harritu egin dute euskal gizartea. Ondorioz, jo eta eta ke ari da irtenbide sozial, politiko eta administrazioak egituratu nahian, euskal gizartearen elkartasun-sentimendua proban jartzeko moduan. **Politika publikoak**

EAEko eta NFEko krisi ekonomikoak eragindako desorekei erantzuteko politika publikoek argi azaleratzen dute gure herriaren izaera. Dena den, azken hamarkadetan garatzen joan diren gizarte-ekimenak, boluntariorik oinarrituak, ere nabarmendu behar dira: GKEak, elkarteak, atzerritarrei laguntzeko gizarte-sareak, adineko arreta eskaintzeko sistema komunitarioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko elkarre-sare trinkoa.

620. Horrenbestez, hainbat gai ditugu aurrean, etorkizunera begira gizarte gisa erantzuna eskatzen dutenak: **Gizarte kohesioa, proposamenak**

- Lan-merkatu berriak eragiten dituen ezegonkortasuna eta desberdintasunak saihestea.
- Dagoeneko jasaten dugun zaintzen krisirako erantzuna bilatzea.
- Giza talde batzuen bakardadea gainditzea.
- Sexua, adina, jatorria, errenta-maila eta beste arrazoi batzuk direla eta, egoerarik ahulenean dauden kolektiboen gizarte-eskubideak bermatzea.
- Helburu horiekin bat etorriko den sistema finantzatzeko formulak aurkitzea. Azken buruan, bazterketa saihesteko, inklusibitatea bermatzeko eta gure gizarteak dituen erronka berrietan aukera-berdintasuna ziurtatzeko sistema eraginkorra ezartzeko moduak aurkitzea.

05.3.3. Ekonomia soziala eta beste ekimen batzuk

621. *Gizarte Ekonomiako erakundeek sustrai sendoak dituzte lurraldean...* **Gizarte Ekonomiako erakundeak eta lurraldeak**
- Erakunde horiek tokian tokiko lurraldean dituzte jabetzak eta enpresa-erabakiak hartzeko ahalmenak; ondorioz, lurraldearen gizarte-kohesioa eta lehiakortasuna handitzen laguntzen dute.

Euskal Herriko kultura sozial eta ekonomikoaren jardunbide tradizionalekin bat datoz. Lankidetzaren, baterako lana eta arriskuaren mutualizazioa dira jardunbide horiek, eta Gizarte Ekonomiaren autolaguntzaren, demokraziaren eta elkartasunaren balioei dagozkie; beraz, Gizarte Ekonomiak kultura sozial eta ekonomikoaren elementu bereizgarriak indartzen ditu.

622. *Euskal Herrian, Gizarte Ekonomia esperientzia eredugarria da, potentzialtasun kooperatiboaren erreferentzietako bat munduan, eta garrantzitsua ekonomian...* **Gizarte Ekonomiaen (GE) garrantzia euskal ekonomian**
- 2014an, euskal gizarte-ekonomiako enplegua Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako landunen % 8,6 eta % 7a izan zen, hurrenez hurren. Oro har, euskal ekonomiaren batezbestekoa baino hazkunde-aurreikuspen hobea zuen, eta lehiakortasuna egokitzen ari zen, dibertsifikazio, berrikuntza eta esportazioaren bidez.
- Gizarte Ekonomia sortutako balio erantsi gordina (BEG) % 5,1ekoa izan zen EAEko BEGan eta % 2,4koa Nafarroakoan. Lan elkartuko enpresak dira batik bat: lan elkartuko kooperatibak eta lan-sozietateak. Euskal Gizarte Ekonomia ezaugarri bereizgarriak.
- Sektoreka, enpleguaren ikuspuntutik: batez ere industria-enplegua da (industria-enplegua Gizarte Ekonomia enpleguaren % 43,6 da; enplegu orokorraren % 22), baina hirugarren sektorea nagusitzen ari da pixkanaka)
623. *Lurralde bakoitzak bere ezaugarriak ditu.* **Lurraldeen arteko aldeak**
- Gipuzkoan GEaren pisua handiagoa da, bertan biltzen baita enplegu orokorraren % 50,8. Bizkaian eta Araban, berriz, ehunekoak % 39 eta % 10,2 dira, hurrenez hurren. Gainera, Gipuzkoan beste bi probintzietan baino landun gehiagok jarduten dute Gizarte Ekonomia (% 9,2). Bizkaian % 4,7 dira eta Araban % 4,1. Irabaziei eta sortutako BEGari dagokienez ere, datu hobekak ditu Gipuzkoak. Izan ere, Gipuzkoan, industria-sektoreko bost lanpostutik bat Gizarte Ekonomia da (Bizkaian, % 8, eta Araban, % 5), eta, gainera, gero eta gehiago esportatzen du.
624. *Nafarroan, Gizarte Ekonomia enpresa gehienak (% 60 baino gehiago) kooperatibak eta lan-sozietateak dira, eta, beraz, haietan daude GEko lanpostu gehienak. Dena den, fundazioak diren erakundeen kopurua ere azpimarratzekoa da, baita haietako enplegua ere: % 20 baino gehiago. Fakturazioari dagokionez, kooperatibek eta lan-sozietateek % 95 fakturatu dute; hain zuzen, nekazaritzako elikagaien kooperatibek fakturatu dute gehien. Nafarroako talde kooperatibo nagusiak Mondragon Korporazioa eta AN Taldea dira (azken hori nekazaritzako elikagaien sektorean).* **Gizarte Ekonomia Nafarroan**
625. *Eta jarduera ekonomikoko arlo guztietan dago.* **Gizarte Ekonomia eta jarduera ekonomikoak**
- Lehen sektorea, industria, hezkuntza, kontsumoa, etxebizitza, kreditua eta garraioa, batez ere; beraz, ia euskal gizarte osoak loturak ditu GEarekin. Horri esker, Gizarte Ekonomia oinarri diren alderdiak (partaidetza, autoerantzukizuna eta elkartasuna) hobetu egingo dira.
- Aipatzekoa da, halaber, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren adiskidetze-

bitartekaritza- eta arbitraje-zerbitzua, eredugarria baita Estatuko gainerako autonomia-erkidegoentzat.

626. *Gizarte Ekonomia enpresa egiteko sozietate-modu berezi bat da...* GEaren balio eta printzipioak
- Enpresa eta sozietate gisa, balio eta printzipioen erreferentziazko corpusa dute. Haren bertsiorik garatuenean (kooperatiba-sozietateak) nazioarte-mailan finkatuta dago, mundu-mailako eta mende batetik gorako erakunde baten bitartez. Gainera, enpresa eta sozietate horiek lurraldeetako legeak iradokitzen dituzte, eta haiek interpretatzeko balio dute, Euskadin esate baterako.
627. Erakunde horietan, sozietateen arteko lankidetzak funtsezko ezaugarrietako bat da, elkartzeko modu guztietan (federazioak) edo enpresak sortzean, bai eta, aldi berean, enpresa eta sozietate gisa finkatzeko eta jarraitzeko tresna garrantzitsua ere. Sozietateen arteko lankidetzak
628. Enpresa demokratikoki kudeatuak eta parte-hartzaileak dira: "enpresa egiteko beste modu bat". Enpresaren ikuspegitik, autoantolaketa eta malgutasuna dira haien ezaugarri nagusiak. Kudeaketa demokratikoa
629. Elkartasunez jokatzeko dute enpresa-antolaketa baten; esate baterako, irabaziak banatzeko sistema zuzenak dituzte eta banatu ezin den ondarea sortzen dute. Beraz, gero eta handiagoa den desberdintasuna txikitzen laguntzen dute. Elkartasuna
630. Estalita ez dauden beharrei erantzuten diete; batik bat, pertsonentzako zerbitzuei lotutako beharrei (autolaguntzaren balioa aplikatuz). Ildo horretan, lehia-abantaila dute. Elkarrekiko laguntza
631. *... Pertsona da jarduera ekonomiko eta sozialaren benetako protagonista. Pertsonen pertsonen laguntzarako sortutako erakundeak dira...* Pertsonen konpromisoa
- Enpresa-mota horiek konpromiso iraunkorra dute pertsonekin; lehenetsia pertsonen ematen diete, hain zuzen, eta ez, ordea, baliabide instrumentalei. Enpresa-garapena eta garapen pertsonala uztartu eta autoerrealizaziorako bizimodu asegarriagoa eskaintzen dute. Kooperatiba eta lan-sozietateetako kideen % 73,1ek arlo horretako prestakuntza espezializatua jasotzen du. 16 lanpostu baino gehiago dituzten enpresen bi herenek prestakuntza-jarduerak egiten dituzte.
- Hori dela eta, enpresa horiek eratzeko eta hedatzeko, ezinbestekoa da bazkideek prestakuntza integrala izatea. Gainera, GEari buruzko prestakuntza onuragarria da gizarte pertsonala eta parte-hartzailea lortzeko.
632. Zailtasun bereziak dituzten talde jakin batzuen inklusio ekonomiko eta soziala ahalbidetzen dute, demokratikoki kudeatutako proiektu kolektibo baten bitartez, eta, proiektu horretan, etorkizuneko protagonistak bazkideak dira. Gizarteratzea
633. *Gizarte Ekonomia enpresek ekarpen handia egiten diote gizarteari, kalitate eta* Kalitate handiagoko

egonkortasun handiko enplegua sortzen baitute...

enplegua

Bazkideak eta aldi berean langileak diren pertsonak osatzen dituztenez, hobeto zaintzen dira egonkortasuna, lan-baldintzak, laneko segurtasuna eta beste elementu batzuk. Krisialdi ekonomikoan, GEko enpresen % 45ek soldatak edota langilekopurua doitzeko modu espezifikoak ezarri ditu. Haietatik, kooperatiben arteko lankidetzak-hitzarmen solidarioak dira aipatzekoak (langileak beste kooperatiba batzuetan kokatzea, eta enplegu-soberakinak eta aplikatu gabeko orduak finantzatzeko funts batean ekarpenak egitea).

Ondorioz, Gizarte Ekonomiako enpresek erresilientzia handiagoa dute krisialdi ekonomikoetan, eta egonkortasun handiagoa ziurgabetasun-egoera globaletan.

634. *...gizarte-kohesioa, elkartasuna eta berrikuntza ekonomikoa handitzen laguntzen dute...* **Gizarte-konpromisoa**
- Orokorrean, euren jardueran tokian tokiko ingurunearekiko gizarte-konpromisoa hartu eta gauzatzen dute, eta, horri esker, elkarrekintza kohesionatzailea bideratzen dute. Eta konpromiso hori eraginkortasun ekonomikoan oinarritzen da, ezinbestean. Eskaera teknologiko eta ekonomikoaren eta balio sozialen arteko oreka-eredua dira.
635. Etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizunez jokatzeko dute, sortutako aberastasuna sendotzen eta handitzen laguntzen duen ondare banaezina sortzen baitute. **Belaunaldi arteko elkartasuna**
636. Berezkoa dute eta landu egiten dute buruz buruko interesen autokonposizioaren kultura; hots, haien artean eta haien barruan dauden askotariko jarrerak adiskidetzeko teknikak erabili eta gatazken aurrean adostasuna sustatzen dute. Hortaz, gizarte-bakea lortzeko faktore garrantzitsua dira. **Gatazkaren aurrean, adostasuna**
637. Eskuarki, Gizarte Ekonomiako enpresek eraldaketa eta berrikuntza ekonomikoa eta soziala bideratzen laguntzen dute. Berrikuntzak funtsezko ekarpena egiten du kohesio handiagoa eta garapen harmoniatsua lortzeko, balio komunak indartzeko kultura indibidualista banatzailearen aurrean, Gizarte Ekonomiaren antolaketa-kulturak ingurune sozialean duen eraginaren ondorioz: ikuspegi ekonomikotik, sozialetik zein kulturaletik. Gizarte Ekonomiak gizartea moldatzen du pixkanaka, eta esparru pribatutik jarduten du (esparru politikoan sartu eta boterea lortu gabe). **Gizarte-eraldaketa**
638. *Etorkizunera begira, Gizarte Ekonomiak erronka handiak ditu. Lurraldearekiko harremanari dagokionez, honako hau egin behar dugu:* **GEaren erronkak**
- Gizarte Ekonomia indartu, Euskal Herriaren nortasunaren eta lehiakortasunaren elementu garrantzitsua den aldetik, ikuspegi partekatua duen lurralde adimenduna sortzen lagunduz.
639. Gizarte Ekonomiaren oinarri diren balioak lurraldeko ohiko ekonomian hedatu edo zabaltu, batez ere bi bidetatik. Lehena gizarte-erantzukizun korporatiboa da, **Gizarte Ekonomia hedatzeko bideak**

lurraldeko interes guztiak egitura batean txertatzen dituen (GEKren ikuspegi komunitarioa). Bigarrena langileek ohiko enpresetan parte hartzea da: kudeaketa, emaitzak eta jabetza.

640. Kontuan hartu behar da Gizarte Ekonomiaren kontzeptua irekia dela eta, nolabait, etengabe birkonfiguratzeko prozesuan dagoela. Langileek enpresetan parte hartzea sustatzen duten ereduak sortzeko eta bultzatzeko joera berriak daude, bai eta arau-errealitate berriak sortzeko ere; esate baterako, Lan-sozietateei eta sozietate partaidetuei buruzko Legea ildo horretakoa da. Errealitate berri horiek Gizarte Ekonomiako enpresen, kapital osoa edo gehiena langileen esku dutenen, eta beste enpresa-esperientzia batzuen (parte hartzeko formulak apurka ezartzeko irekiak) arteko muga zurrinak desagertzen lagundu dezakete.

Parte hartzeko
beste formula
batzuk

641. *Gizarte Ekonomiak, sozietate-mota bat denez, honako hau egin behar du:*

GEaren erronkak

Hizpide ditugun enpresen identitateari (balore sozialetan oinarritua) eutsi, enpresa-ingurune ekonomiko globalizatu eta homogeneousatzaile honetan.

Lankidetzaz-egiturak sendotu eta garatu.

Enpresa-kaudimena sendotu, alderdi sozialak garatu ahal izateko, bereziki finantza-alderdiak: baliabide propioak, enpresen jarraipena bermatzen duten baliabide komunak.

Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzarako bideak bilatu, eta unibertsitateak ere parte hartzea lortu.

642. *Eta pertsoneri begira, Gizarte Ekonomiak honako hau egin behar du:*

Gazteei Gizarte Ekonomiari buruzko informazioa eta prestakuntza eman, garapen pertsonalerako gunea topatuko dutela jakinarazteko. Aldi berean, ereduaren jarraipena bermatuko da, baita belaunaldi-txandaketa ere; gazteek indartu egingo dute, euren gaitasun profesionalen, interesen eta motibazioaren bidez. Gaitasun profesional berriak ekarriko dituzte eta, aldi berean, eraldatu egingo dute ereduak, euren balioak eta printzipioak egokituz. Horretarako, beharrezkoa izango da gazteen artean Gizarte Ekonomia sustatzea, ez soilik gizartean orokorrean.

Beraz, enpresek eta haien federazioek bazkideei ematen dieten prestakuntzaz gain, ezinbestekoa da Euskadiko hiru unibertsitateetan GEan espezializatutako unibertsitate-zentroak sortzea, bai eta unibertsitate aurreko prestakuntzara eta informaziora zabaltzea ere.

Zenbait kooperatibatako bazkideen artean belaunaldi arteko elkarriketa garatu behar da, bizitakoaren eta egindakoaren transmisioa bermatzeko, etorkizuneko eraldaketan oinarria izan dadin.

643. *Eta, azkenik, gizartearentzat, GEak honako hau egin behar du:*
- Erakundean eta, oro har, gizartean duen presentzia indartu, eta hornidurak eta gizartearekiko konpromisoak sendotu, kooperatiben “gizarte-balantze historikoa” eguneratuz.
644. Ipar Euskal Herriko gizarte-ekonomiak badauzka bere berezitasunak, eta berezitasun horiek ulertzeko ikuspegi ekonomiko hertsienetatik atera behar da, historia, soziologia eta zientzia politikoak erabiliz. **IEHko gizarte-ekonomiaren berezitasunak**
645. Gizarte-ekonomiaren egitura garaikideak (mutualitateak, kooperatibak, elkarteak) XIX. mende amaieran agertu baino lehenago jada baziren tokiko gizarteak aspaldian asmatutako elkartasun-egiturak: besteak beste, laborari, arrantzale eta ofizialen kofradia eta batasunak, auzoen arteko partzuergoak edo Joseph-Etienne Harambillet, Itsasuko erretoreak XVIII. mendean ezarritako landa-kreditua. **Narratiba historikoak**
646. Auzolanaren kultura, elkar laguntza, berdintasuna, trukea, eta elkartasuna euskal gizartean nabariak ziren, batez ere baserri munduan. Hala ere ikuspegi horri ñabardura batzuk egin behar zaizkio, kontuan izanik garaiko botere harremanak, jabe eta maizterren artean, edota etxe handi eta txikien artean, elkartasun-bideak desbideratzen zituztenak. **Auzolana, kultura**
647. Gizarte-ekonomiaren historian faktore politikoak ere kontuan hartu behar dira. Iparraldean, XIX. eta lehen XX. mendean eratutako lehen kooperatiba, sorospen-elkarte eta landa-kutxek, zerbitzu ekonomikoak eskaintzeaz gain, gizarte egituratzen zuten eta funtzio politikoak betetzen zituzten. Hau da, tresna ekonomikoak tresna politiko bihurtzen ziren. **Faktore politikoak**
648. Jauzi historiko bat eginez, 1970 urteetan abiatu zen, mugimendu abertzaletik abiatu ere, tokian tokiko garapenaren aldeko mugimendu soziala. Gizarte-ekonomiaren bideak hartu zituen: langile-kooperatiben mugimendua, Hemen-Herrikoa enpresagintzarako lan-babesak, laborantza txiki eta iraunkorraren mugimendua, sindikalismoaren berregituratzea eta abar luze bat. Denbora hartan, ekoizpen prozesuak eta “lana herrian” lemapean, langile mugimendua eta abertzalegoa elkarri lotzeko modu bat izan zen. **Mugimendu abertzaileak**
649. 2000 urteetatik aurrera gizarte-ekonomiaren bigarren belaunaldi bat agertu zen Iparraldean, politizatzen zituen ekoizpen prozesuak bainan baita ere kontsumoa eta, orokorrean, elkartruke ekonomiko gehienak. Ingurumenari lotutako kezkek gero eta gehiago plazaratzen ziren, hala nola garatu dira zirkuito laburrak, bai elikaduran, bai ingurumen mailan, bai zirkuito finantzieroetan. Belaunaldi berri horren lekuko da euskal moneta, 2012an agertu zena, eta gaur egun Frantziako lehen tokiko moneta bilakatua dena. **Kontsumoa politizatzea**
650. Gaur egun, alternatiba ekonomikoak gero eta gehiago dira Ipar Euskal Herrian bertze **Lurralde transizioa**

hainbat tokitan bezala, eta lurralde mailan, *garapena*-ren orde lurralde *transizioa* da aipatzen, zointan nahasten diren kezka ekonomiko, sozial eta ekologikoak. Eboluzio hortan gizarte-ekonomiaren narratiba edo iturri ainitz nahasten dira: iturri abertzalea beti hor da, baina hainbat zubi agertu dira, izan dadin narratiba ekologistarekin, laborantza iraunkorarekin, kontsumitzaileen mugimenduekin, girixtino progresistekin eta abar luze batekin. Eta aldaketa ixil hori iragaiten da lurralde gobernantzak funtsezko aldaketa ezagutzen bitartean, 2017ko urtarrilan xutik ezarria izan den Herri elkargo bateratua dela lekuko.

651. Iparraldeko gizarte-ekonomiaren azken belaunaldiak badauzka ere bere desafioak. Hiru nabarmenduko ditugu hemen.

Gizarte-ekonomiaren gaurko desafioak

Lehendabizikoa, gizarte-ekonomiaren pixua tokiko ekonomian eta lurraldearen bilakaeran. Biziki dinamikoa izanik ere, gizarte-ekonomia oraindik esperientzi xume eta barreiatu batzuetan mugatzen da. Iniziatiba horiek ez dute eredu ekonomiko nagusia hankaz gora jarriko, baina berrikuntza sozial askoren iturri bilakatzen dira, eta hainbat kezka eragile politiko eta sozio-ekonomikoen agendan jartzea lortu dute, esaterako, lurraldearen iraunkortasuna, kostaldea eta barnealdearen arteko harremanak, prekaritate berriak, laborantzaren bilakaera, zirkuito finantzieroen aldaketa, hizkuntza, eta abar. Gainera, ohargarria da Ipar Euskal herriko hainbat esperientzia eredu bihurtzen ari direla Frantses mailako hainbat mugimendu sozioekonomikoetan. Ikus Alternatiba eta Eusko-ak hartzen ari duten fama. Pizu ekonomikoa bat da, baina ideien zirkulazioa ere kontutan hartu behar da.

652. Bigarren desafioa Hegoaldeko harremanari doakio. Ez da gaurkoa. 1970-1980 urteetan jada Hegoaldeko mugimendu kooperatibistak Iparraldeko lehen kooperatiben sortzea hurbiletik segitu eta lagundu zuen. Ahalegin ugari egin dira, baita oztopoak ere sortu dira, izaera desberdineko egiturak eta muga administratiboak tarteko.

Hegoaldearekiko harremanak

653. Hirugarren desafioa Iparraldeko Akitaniako lurraldeekiko lotura da. Ipar Euskal Herriak toki berezi bat badauka eskualde mailan langile kooperatibei dagokionez. 2017an, URSCOP-aren arabera, Akitania (zaharreko) 146 langile kooperatibetatik (*SCOP-Sociétés coopératives et participatives* eta *SCIC-Sociétés coopératives d'intérêt collectif*) 45 Pirineo-Atlantikoetan ziren, eta horietan 31 Euskal Herrian. Azken urte hauetan Iparraldeko hainbat gizarte ekonomiko eragile (batez ere Lan Berri formakuntzan eta enpresagintzan, *Andere nahia* emakumeen enpresagintzan, Herrikoa aurrezki herrikoian, baita laborantza iraunkoraren inguruko hainbat mugimendu). Landesetako Tarnos-en kokatua dagoen Hego Akitaniako Kooperazio Ekonomiko Lurralde poloan (*PTCE-Pôle territorial de coopération économique*) parte hartzen dute. Egitasmo horren sustatzaileek ulertzen dute gizarte-ekonomia ez dela egitura gehiketa soil bat, baizik eta lurralde garapenerako eredu bat. Aipagarri da, esaterako Mugaz gairdiko gizarte Ekonomia Eskola egiasmoa (ETESS), polo honen baitan sortua.

Akitaniako lurraldeekiko lotura

05.3.4. Lankidetzaren publiko-pribatua eta eragileen artekoa

654. *Euskal lurraldeak kooperatiboak izan dira tradizionalki...* Euskal tradizio kooperatiboa
- Tradizioz, Euskal Herrian, beste lurralde batzuetan ez bezala, gauzak egiteko modu bat egon da, lankidetzarekin oso lotua (auzolana, ikastolak sortu zituzten guraso-kooperatibak, arrantzaleen elkarteak, etab.). Haranetako kokapen geografikoa eta horren ondorioz sortutako isolamendua direla eta, norbere burua aski izan beharra sortu zen; ildo horretan, lankidetzaren printzipioan oinarritutako esperientzia asko sortu ziren.
655. Euskal administrazioek eta gizarte- eta enpresa-sareek harreman estuak dituzte, eta, horren ondorioz, aliantza publiko-pribatuak sortu dira. Horrek, gizartearen parte-hartze zabalarekin, lehia-abantaila handia eman dio Euskal Herriari, hain herrialde txikiari. Lankidetzaren publiko-pribatuak edo irakaskuntza- eta ikerketa-erakundeen eta enpresa-ehunaren artekoak eragin dituzte euskal lurraldean sustatu diren lankidetzaren batzuk. Modu irregularrean sustatu dira sare horiek Euskal Herria osatzen duten eskualde guztietan, baina, hala ere, haien nortasun-ezaugarrietako bat dira. Erakundeen arteko lankidetzaren lehiarako abantaila
656. Arrakasta horren arrazoi nagusiak pertenezia-sentimenduekin erlazionatuta daude, bai eta idealak eredu praktikoa bideragarri bihurtzeko gaitasunarekin ere. Lurraldearen tamaina ere kontuan hartzekoa da; izan ere, kapital sozialarekin lotuta dagoenez (hots, pertsonok elkar ezagutzen dugunez), lankidetzaren bultzatu du. Pertenezia-sentimendua eta tamaina, lankidetzaren palankak
657. *Hortaz, esan dezakegu Euskadin azken hamarkadetan gertatutako eraldaketa-prozesuaren ardatza elkarlana izan dela...* Elkarlaneko eraldaketa-prozesua
- 1980ko hamarkadaz geroztik, euskal gizartearen aldaketa lankidetzaren oinarritu da, autogobernuaren berrasmaketan (instituzionalizazio-prozesua), industria-egituraren eta lankidetzaren politika sektorialetan (klusterren bidez), finantzetan (Elkargi eta Oinarri bezalako elkarrekiko berme-baltzuak) azpiegiturretan (hezkuntza-sistema, osasuna, komunikazioak, energia), jarduera-sektore berrietan (gastronomia, kultura-industriak, turismo espezializatua, eta abar) eta *Basque Country* marka nazioartekotzean (Guggenheim Museoa etab.).
- Ipar Euskal Herrian, bere berezitasunarekin, plataforma eta mugimendu anitz sortzeko gai izan dira, konplizitate eta kohesio maila garrantzitsuak lortuz, erakundearen aldetik duen errekonozimendu faltak eraginda, kasu. Aipagarriak dira, zentzu horretan, Garapen Kontseilua, Laborantza Ganbara, edota Batera mugimendua.
658. Duela urte batzuk arte, lurralde-estrategiak bat etortzen ziren gobernuaren estrategiekin. Baina, egia esan, eragile askok funtsezko eginkizuna izan dute lurralde-estrategian (helize laukoitz deritzon printzipioa, unibertsitatearen, enpresaren, estatuaren eta gizartearen arteko lankidetzaren bidez). Haietako batek ere ezin izan du lurralde-estrategia bere aldetik erabaki, eta, beraz, tradizionalki, kontuan hartu Elize laukoitzeko lankidetzaren (unibertsitatea, enpresa, estatua eta gizarte)

izan dira haiek guztiek proposatutako ikuspegiak, lehentasunak ezartzeko (partaidetza-mailak, estrategia ebaluatzeko metodoak, konplexutasunaren eta eragile parte-hartzaileen dinamizazioa...). Etorkizuneko erronka horri aurre egiteko, beharrezkoa izan da gizarte-adostasun handiak sortzea lankidetzaren eredu horren inguruan; alde batetik, garapen orekatua lortzeko, eta, beste batetik, eragile ekonomiko, sozial eta politikoen konpromisoa biltzeko. Gainera, prozesu hori herritarrei ireki behar zaie, parte har dezaten (Euskal Herriko elkarte-sare trinkoaren bidez).

659. Lankidetzaren balioak bat egin du Euskal Herriko zenbait eskualdetako kulturaren (hirietatik kanpokoak) balioekin. Horrenbestez, mundu-mailako erreferentziako enpresa-talde kooperatibo nagusia da. Euskadiko ereduaren *arrakasta* horren oinarriak, lehen aipaturiko unibertsitateen eta enpresen arteko elkarlanaz eta konpromisoaz gain, elkar-lankidetzarako mekanismoak izan dira; horri esker, sektoreko lider bihurtu diren zenbait enpresak aurrera egitea lortu zuten (ORONA, IRIZAR, etab.). **Elkarlana, enpresaren balioa**
660. Botere publikoen, ekimen pribatuaren eta hirugarren sektorearen zeregina berraztertu ostean, eta haietako batek ere ez duenez behar berrien konponbide globalik aurkitu, lurralde-garapeneko beste formula batzuk sortu dira, beste eredu bat sortu da: erakunde *hibridoak*. Haietan, helburu ekonomikoak ez ezik, gizarte-, kultura- eta ingurumen-helburuak ere lehenetsi dira. *Enpresa sozial* horiek ez dira erabat sartzen hiru definizio klasiko horietako batean ere, eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren elkargunean daude; merkatuaren jardueraren bidez, balio partekatua lortzeko aukera ematen dute, baina, betiere, balio etikoak aintzat hartuta. **Erakunde hibridoak eta balio partekatukoak**
- Mota honetako ekimenak Ipar Euskal Herrian maiz gertatu dira, izan ere erakundetze faltak eragin du askotan halako arkitektura hibridoak sortzea, kapital sozial eta instituzional berria sortu dutenak, eta kontsentsurako eta babes sozial haundiko ekimenei bide eman diena.
661. *Hona hemen Euskal Herrian egin den lankidetzaren adibide batzuk...* **Erakunde publikoen arteko lankidetzaren**
- Euskal Herriaren ikuspuntutik, zenbait kategoria ezar daitezke, eragileen arteko lankidetzaren oinarritutako ekonomia agerian jartzeko. Honako adibide hauek dira:
- a) Erakunde publikoen arteko lankidetzaren
Zenbait mailatako erakunde edo administrazioen arteko lankidetzaren oso ohikoa eta eredugarria da Euskal Herrian, eta hainbat ekimen eraldatzaile sorrarazi ditu zazpi lurraldeetan (Gipuzkoa Sarean, Agora Araban, Etorkizuna eraikiz, Bilbao Ría 2000, tokiko garapenerako agentziak, etab.).

662. b) Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak:
 Lankidetzak publiko-pribatuak (besteak beste, Eusko Jaurlaritzak enpresen, hala nola CAFen, kapitalean parte hartuz, edo irakaskuntza- eta ikerketa-erakundeen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez) Euskal Herrian ezarri diren lankidetzak sareetako batzuk sorrarazi ditu.
 Lankidetzak horren beste adibide bat elkarlaneko zuzenbidearen sustapena da. Gatazka konpontzeko modu alternatiboa, berritzailea, elkarlanean oinarritua eta adiskidetsua da, baina, batez ere, defentsa eta justizia ulertzeko era berri bat da, printzipio eta balio jakin batzuetan oinarritua. Eragindako pertsonen edo erakundeen premia eta interesetara bideratutako prozesua da. Sarritan, pertsona eta erakunde horiek ere ez dakite zer premia eta interes dituzten, eta lankidetzak-mota horrek arazoa eta pertsona bereizten ditu, emozioak eta alderdien arteko harremanak kudeatuz, eta alderdiak denentzat egokia den konponbidea bilatzeko eta adosteko prozesuan inplikatur.
- Gizarte-berrikuntzaren elementutzat hartua, haren aplikazio-eremua oso zabala da (enpresa-arloan ere), eta bereziki garrantzitsua da harreman-eredua, gatazkaren kudeaketan eta negoziazioen ikuspegian.
663. c) Enpresaren baitako lankidetzak-mota guztiak: Lana lehenetsi eta kapitalaren mendean dauden pertsonen artean (*S.Coop.*), kapitalaren jabeak diren langileen artean (*S.A.L.*), eta kapitalaren eta lanaren arteko lankidetzan (*S.A.*)
664. d) Enpresen arteko lankidetzak, tipologiak:
 Konpromiso txikia: enpresek interes komunak babesten dituzten erakundeetan parte hartzea, euren barne-funtzionamenduan eraginik izan gabe (*merkataritzak-ganberak, enpresa-elkarteak, klusterrak, esportazioko partzuergoak eta antzekoak*).
- Konpromiso handia kudeaketan: enpresen arteko lankidetzak, barne-eraginkortasuna kudeaketa-teknikak batera aplikaturik hobetzeko, informazioa partekatzeko edo nazioarteko merkatuetan sartzeko. Lankidetzaren ondorioz, zerbitzu komunak sortu, balio erantsi handiagoa duten jarduerak elkarrekin egin edo nazioarteko merkatuetan presentzia bateratua izaten dute (*kooperatiba-taldeak, lan-sozietateak -ASLE-, Ner Group, Olatukoop eta beste batzuk*).
 - Enpresaren egitura aldatuz: enpresen arteko lankidetzak-sistema hauetan, enpresek, euren nortasun juridikoa galdu gabe, erakunde partekatuak sortzen dituzte, horretarako subiranotasun-lagapenak eginez. Egitura-aldaketa horiek enpresa txikien dinamismoari eusten saiatzen dira, baina enpresa-multzo handiagoen abantailekin. Marka komunak, erosketa-zentralak, inbertsio-funtsak, nazioarteko presentzia eta abar dira haien ezaugarri batzuk (*Mondragon Korporazioa eta antzeko beste korporazio batzuk*).

Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak

Barne-lankidetzak enpresan

Enpresen arteko lankidetzak

665. Azkenik, badago gure gizarte-jarduera ezaugarritzen duen elementu bat: sare-motako gizarte-ekimenak (aurretiaz koordinadorak esaten zitzaaien horiek), gizartean ondo errotutako gizarte-era organikoak edo enpresarialak bihurtu direnak. Horien artean ezagunenak ikastolak, gau-eskolak edo erakunde soziokulturalen federazioak (euskal dantzak, bertsolaritza, abesbatzak, herri kirolak, herri musika...) dira; eta, berrikiago, kontsumo-kooperatibak (energia-kooperatibak, tokiko produktuenak, finantza etikoari lotutakoak...), kaltetuen elkarteak (batez ere osasunari eta errehabilitazioari lotuta) eta abar.

Gizarte-ekimenak

05.3.5. Subiranotasuna, fiskaltasuna eta finantza-sistema

666. Baliabide fiskalen kudeaketa (aurrekontu publikoetan jasotako zergak eta gastuak) eta finantza-bitartekaritza (aurrezkiak eta kreditua) herrialde baten arkitektura ekonomikoaren eta gobernantzaren funtsezko oinarriak dira.
667. Zerga-subiranotasunari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak Ekonomia Ituna dutenez, oso autonomia-maila handia dute. Itun horiek ondo eta arduraz kudeatzearen ondorioak funtsezko aktibo bihurtu dira gure sistema politikoan, eta oso aktibo sozial garrantzitsuak dira gure herrikide gehienentzat.
- Ipar Euskal Herriko egoera desberdina da, Frantziako Estatuko sistema komuna indarrean baitago.
- Horren guztiaren ondorioz, argi dago subiranotasun-maila jakin batek, behar bezala erabiliz gero, bizitza-kalitate hobea ematen diola gizarteari.
668. Euskal Finantza Sistemaren esperientzia oso bestelakoa da: zoritxarrez, Estatuko egitura ekonomikoekiko mendekotasunaren ondorio negatiboak argi geratu dira, 2008an hasitako finantza-krisia dela eta. Krisi horrek oso eragin larriak izan zituen Espainiako aurrezki-kutxen sektorean, bai eta, beraz, euskal aurrezki-kutxetan ere.
669. Espainiako aurrezki-kutxen berme-funtsak ez ziren nahikoa izan sektorearen nahitaezko berregitura finantzatzeko. Hori dela eta, Europako Banku Zentralak 40.000 milioi euro baino gehiago eman zizkion Espainiako gobernuari, eta, hortaz, kontuak hartu zizkion Espainiako Finantza Sistemari.
- Hainbat ondorio izan zituen horrek. Esaterako, aurrezki-kutxek banku bihurtu behar izan zuten. Euskadiko kutxek ere egin behar izan dute, nahiz eta kaudimendunak izan eta kanpoko laguntza ekonomikorik ez behar izan; derrigorrez, euren izaera juridikoa araudi berrira egokitu behar izan zuten.
670. Horrek guztiak zerga- eta finantza-arloen egoerari buruzko irakurketa argigarri bikoitza eskaintzen digu, eta ondorioak oso bestelakoak izan dira Euskadirentzat. Bi kasuetan, herri-administrazioak izan edo aurrezki-kutxak izan, administrazio eta

Arkitektura
ekonomikoa

Ekonomia Ituna

Euskal Finantza
Sistema

Finantza-
sektorearen
berregituraketa

Subiranotasun-
mailak

kudeaketa arduratsu eta positiboko esperientziak daude; lehen kasuan (zerga-subiranotasun handia), emaitza onuragarria da guztiontzat, eta, bigarrean (transferitu gabeko finantza-eskumena), Euskaditik kanpoko kudeaketa eta administrazio okerraren ondorioz, finantza-sistema berregituratu beharra dago.

671. Subiranotasun ekonomikoa, eta zerga- eta finantza-harremanak Estatuarekin: Hego Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko zerga- eta finantza-harremanak Euskadiko Ekonomia Itunaren (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoei dagokienez) eta Nafarroako Ekonomia Itunaren bidez daude egituratuta. Hau da, eredu berezi bat ezartzen da, erregimen komunean dauden autonomia-erkidegoetan dagoenaren desberdina; hari esker, zerga-subiranotasunaren arrazoizko maila bat dugu. **Ekonomia Ituna**
672. Zalantzarik gabe, zerga-sistema, esku-hartze publikorako baliabideak lortzeko baliabide nagusia eta, aldi berean, aberastasuna banatzeko funtsezko mekanismoa denez, elementu garrantzitsua da herrialde bat gobernatzeko, eta garapen ekonomikoa orekatua eta gizarte-kohesioa lortzeko oinarriak ezartzeko. **Zerga-sistemaren kontzeptua**
673. Izan ere, Euskadiko zein Nafarroako itunak gure autogobernuaren oinarritzko zutabeak dira, eta zerga-eremuan eta, neurri batean, aurrekontuan jarduteko gaitasuna ematen digute. Horri esker, gure eskualdeetako herritarren behar, balio eta lehentasunekin bat datorren kudeaketa publikoa egin dezakegu, eta, aldi berean, erantzukizun eta eraginkortasun handiagoz erantzun diezaiekegu herritar horien eskakizunei. **Ekonomia Ituna, autogobernuaren ardatza**
674. Dena den, zalantzarik gabe, estatuak zerga-gaietan duten subiranotasun-maila kontuan hartzen badugu, gure autogobernua, zabala bada ere, osatu gabe dago. Gaur egun subiranotasun partziala dugula onartuz gero, aurrera egiteko eta sakontzeko zenbait ardatz identifikatu ahal izango ditugu, egungo esparruaren faktore mugatzaile nagusietako batzuk gainditzeko beharrezkoak. **Zerga-subiranotasun partziala**
675. Ildo horretan, zalantzarik gabe zeharkako zergak (batez ere, BEZ eta zerga bereziak) ezartzeko arau-ahalmenik eza aipatuko genuke. Baina, horrez gain, hau ere azpimarratu behar da: enpresa handietan ikuskapenak egiteko eskumen eskasak edo, nazioarteko harremanen arloan, Estatuaren nahitaezko bitartekaritza, zerga-administrazioen arteko informazioa trukatzeko, itunak eta hitzarmenak sinatzeko, edo aduana-eskumen eskusiboari dagokionez. **Zerga-arloko mugak**
676. Muga horien zuzeneko ondorioak dira zerga-sistema osorik diseinatzeko eta konfiguratzeko ezintasunak. Beraz, zaildu egiten dute eredu integral eta koherente baten oinarriak finkatzea, eta, gainera, izugarri galarazten dute zerga-iruzurraren aurkako borroka eraginkorra ezartzea.
677. Estatuarekiko finantza-fluxuak Kupoaren eta Ekarpeneren bidez bideratzen dira. Hain zuzen, Hego Euskal Herriko administrazioek urtero gobernu zentralari ordaindu behar **Kupoa eta Ekarpena**

dizkieten diru-kopuruak dira, hurrenez hurren, EAEk eta NFK-k oraindik ez dituzten Estatuaren karga orokorrak finantzatzeko. Hauek dira karga orokor horiek: Estatuaren eskumen eskusiboak (Errege Etxea, Defentsa, Gorte Nagusiak, kanpoko harremanak eta azpiegiturak –AHT, portuak eta aireportuak–); propietzat aitortutako baina oraindik transferitu gabeko eskumenak (besteak beste, espetxeak eta Gizarte Segurantzaren); eta partaidetza Lurralde arteko Konpentsazio Funtsean edo Estatuaren zor publikoaren amortizazio eta interesen ordainketan. Beraz, Kupoaren eta Ekarpeneren bidez, Euskal Herrian sortutako aberastasunaren arabera bildutako baliabide publikoen zati handi bat Estatuari transferitzen zaio.

678. Ildo horretan, interesgarria da honako ohar hauek egitea.

Gastuaren helburua

Alde batetik, gastuaren xedeari dagokionez, agerikoa da Estatuak ezarritako lehenetsun politikoaren mende dagoela, ez duela zertan bat etorri gure herrialdean zehaztutako genituzkeen lehenetsunekin. Halaber, azpimarratu behar da gastu horren zati handi bat gure herriaren ongizatea eta garapena hobetzen ez dituzten jarduketak egiteko erabiltzen dela.

679. Beste batetik, Administrazio Zentralari ordaindu beharreko zenbatekoak Estatuaren Aurrekontu Orokorrekin lotutako aldagaien arabera kalkulatu dira, euskal ondasunen bilketa-datuak aintzat hartu gabe. Horrek esan nahi du gure erakundeek alde bakarrek arriskua hartzen dutela euren gain; gure erabaki eta ekintzekiko dugun erantzukizuna islatzen du horrek, baina, bestalde, distortsio eta muga handiak sor ditzake gure esku hartzeko ahalmenean.

Alde bakarrek arriskua

680. Baliabide publikoen eta ematen dituzten gastu-aukeren ikuspegia osatzeko, Gizarte Segurantzari buruzko aipamen bat egingo dugu. Izan ere, zerga-sistemari eta zerga-presioari buruz hitz egitean, zerga-sistemaren ezarpen-elementuez gain (hau da, zuzeneko eta zeharkako zergak), ohikoa izaten da kotizazio sozialak ere kontuan hartzea.

Kotizazio sozialak

681. Gure kasuan, gizarte segurantzako ahalmenak dira euskal autogobernuan gutxien garatutako eremuetako bat. Espainiako Konstituzioak Gizarte Segurantzaren oinarriko legediari eta erregimen ekonomikoari buruzko eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari, baina, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak hau dio: "Estatuko oinarriko legea berriz aurrera eramatea eta betetzea, berorren erregimen ekonomikoa itxuratzen duten arauak salbu", hala nola "Seguru Sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa". Hala ere, egia esan, ez da zentzu horretan mugimendurik izan.

Gizarte Segurantzako erregimena

682. Hori dela eta, gaur egun, pentsio-sistemaren ezaugarriak (prestazioen motak eta zenbatekoak, eta kotizazioen motak eta oinarriak, besteak beste) zehaztea eta sistema horrekin lotutako sarreraren eta gastuen fluxuak kudeatzea Estatuaren esku dago.

Pentsio-sistemak

683. Hala ere, Espainiako sisteman pentsioen arloan dauden gabeziak kontuan hartuta, EAEk zeharkako bide baten alde egin du, esku hartzeko ahalmena duten beste eskumen-esparru batzuk aprobetxatuz (hain zuzen, gizarte-laguntzan eta mutualitateetan, Gizarte Segurantzaren ez baitaude). Ildo horretan, honako hauek dira jarduketak nagusiak: alde batetik, DSBEaren bidez pentsio-osagarri bat garatzea; eta, beste batetik, BGAE-en sektorea indartzea, aurreikuspen osagarri pribatuko eragile nagusi gisa.
684. BGAE-ei dagokienez, azpimarratu behar da garapen-maila handia lortu dutela eta funts-bolumen handia kudeatzen dutela. Hori dela eta, eragile garrantzitsua da, bai gizarte-aurreikuspena sustatzen duelako, bai gure lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialeko jarduketak finantzatzeko erabil daitekeelako (neurri batean, nolabait, jasotzen duten zerga-tratamendu onuragarriaren ordain gisa).
685. Nolanahi ere, eta jakinda pentsio-plan propioa, nahikoa eta bideragarria garatu ahal izateko erabateko erabakitzeko ahalmena behar dela, azpimarratu nahi dugu gaur egungo eskumen-esparruak, osagarriez eta BGAE-ez gain, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa kudeatzeko aukera ere ematen digula. Eskumen hori oso mugatuta egon arren (ez digu sistemaren funtsezko elementuen diseinuan erabakitzeko ahalmenik ematen), aukera emango luke kotizazio eta prestazioen ordainketa eta kobrantzen kudeaketa gure erakundeei transferitzeko. Horri esker, ezagutza zehatzagoa, ikuspegi osoagoa eta eraginkortasun handiagoa izango genituzke, gizarte-ongizateko politikari dagokienez.
686. Txanponaren ifrentzua: Ipar Euskal Herriko kudeaketa-ereduak dakartzan autogobernu-eza eta baliabide propioak kudeatzeko ezintasuna. Ez gara horri buruz gehiago luzatu, liburu berde honen beste atal batzuetan ere aipatu baititugu egoera horren ondorioak.

Gizarte Laguntza
eta Mutualitateak

BGAE,
Borondatezko
Gizarte-
Aurreikuspeneko
Erakundeak

Gizarte
Segurantzaren
arloko eskumena

Autogobernu
gabezia

05.3.6. Kapital soziala

687. Askotariko esanahiak egon arren (Pierre Bourdieu, James S. Coleman, Robert Putnam, etab.), hau da kapital soziala Eustaten arabera: esparru ekonomiko eta sozialean aktiboki eta konfiantza-giroan parte hartzen duten sare pertsonal zabalak. Baliabide hori eskura izateak garapen pertsonala eta soziala ahalbidetzen du, bai eta gizartearen garapen ekonomikoa ere.
688. Hain zuzen ere, Euskal Estatistika Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko kapital soziala neurtzeko egindako inkestan, harremanetarako eta parte hartzeko dimentsioen multzotzat hartzen da kapital soziala. Hona hemen dimentsio horietako batzuk: senide eta lagunaren sare sozialak, pertsona eta erakundeeetako konfiantza, parte-hartze soziala eta lankidetzak, informazioa eta komunikazioa, kohesioa, gizarteratzea, zoriontasuna eta osasuna.

Kapital sozialaren
kontzeptua

Kapital sozialaren
neurketa

689. Kapital soziala neurtzeko egindako azken inkesten arabera, EAeko biztanleek 22 senide eta lagun dituzte batez beste (22,47 zehatz-mehatz). Senide eta lagun horiek herritar bakoitzaren sare soziala osatzen dute. Hauek dira, hain zuzen: bizikidetzak unitatea osatzen duten pertsonak eta herritar horrekin erregulartasunez komunikatzen diren lagunak eta gainerako senideak. **Euskadiko batez besteko sare soziala (senideak eta lagunak)**
690. Desberdintasun handiak daude gizarte-taldeen artean. Pentsiodunek, atzerritarrek, alargunek, banandu edo dibortziatuak eta kide bakarreko familiak osatzen dituzten pertsonak sare sozial txikia dute, eta are txikiagoa dute familian bizi ez eta egoitza establezimendu kolektiboetan duten pertsonak. **Sare sozialik txikiena duten kolektiboak**
691. Inkestek ondorioztatzen dutenaren arabera, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako biztanleen laurdenak sare sozial txikia du (014 kide), erdiak sare sozial ertaina (15-29), eta gainerakoek sare sozial handia (30tik gora). Edonola ere, aurrez aurreko harremanak askoz ugariagoak dira Interneten eta beste sare birtual batzuen bidezko harreman pertsonalak baino, baina azken horiek gero eta sarriagoak dira ikasleen eta gazteen artean. **EAeko batez besteko sare soziala**
692. Beste lurralde batzuekin alderatuta, EAEn, familia-harremanak oso garrantzitsuak dira (% 96k harremanak ditu hurbileko senideekin), eta % 88k familia-harreman biziak dituela esaten du. **Familia-sareen intentsitatea**
693. Homogeneotasunari edo heterogeneotasunari dagokionez, pertsonen ia bi herenak bere berdinak diren lagunak soilik ditu; erlijio-sinesmen, nazionalitate, gizarte-egoera edo joera politiko berak dituzten lagunak. 65 urtetik gorako erretiratuek, etxeko lanak egiten dituztenek eta lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak dituzte sarerik homogeneoenak. Aitzitik, atzerrian jaiotakoek, unibertsitateko ikasleek eta zuzendari eta profesionalak dituzte sarerik heterogeneoenak. **Sareen homogeneotasuna edo heterogeneotasuna**
694. Askotariko datu estatistiko horietatik harago, esan daiteke zuzeneko lotura dagoela kapital sozialaren eta euskal nortasunarekin lotutako balioen artean. Izan ere, balio partekatuek esperientzia sozialaren zentzua antolatzen dute, eta horrek ahalbidetu egiten du gizarteko gizabanakoen sinesmenak, identitateak eta autoerreferentzia egituratzea. Balioek sozialki desiragarria den portaera interpretatzeko moduak egituratu, eta portaera horren inguruko hainbat itxaropeni eusten diete. Erlazio horrek kapital sozialaren kontzeptua aztertzea du helburu: komunitate batean konfiantza, elkarrekikotasuna eta lotura sozialak indartzeko garrantzitsuak diren balioak. Horrela, balio horiek komunitateko kideek elkarri onartutako jokabideak eta sinesmenak egituratzea errazten edo galarazten duten baldintzak aipatzen dituzte. **Kapital soziala eta euskal nortasunarekin lotutako balioak**
695. Aztertu beharko genuke ea pertsonok helburu komunak arabera partekatzen eta antolatzen ditugun gure interesak, edo interesak helburu indibidualen arabera antolatzen diren. Badirudi balio kolektibistek pertsonak taldeetan sartzera bideratzen dituztela eta elkartasun handiagoko identitate-inguruneak garatzen dituztela beren taldeko kideekin beste talde batzuetako kideekin baino. Taldea ez da elkartasun- **Helburu indibidualak vs. komunitatearen helburuak**

eremua soilik, arazoak konpontzeko eremua baizik, eta horretan, helburu kolektiboak nagusitzen dira helburu indibidualen aurrean. Alabaina, taldearen helburuen eta norberaren helburuen artean gatazkarik badago, bigarrenak nagusitzen dira. Kapital sozialaren eta indibidualismoaren arteko erlazioa konplexua da; izan ere, indibidualismorako joera handia badago, elkartasun eta lankidetzaren harremanak hautsi egiten dira, eta, horrenbestez, arau partekatuen eta konfiantzazko harremanen barruan loturak garatzeko aukera desagertu egiten da.

696. Kapital sozialak interes pertsonalei uko egitea dakar berekin; beraz, esan daiteke indibidualismo-maila handiek kapital sozialaren aurka egiten dutela. Dena den, egia da indibidualismoa, autonomia eta autosufizientzia gisa (berekin norberekeria- eta lehiakortasun-mailak dakartzatenak), oinarritzko baldintza dela gizarte modernoetan lankidetzaren eta elkartasun-harremanak garatzeko. Egile batzuek erakutsi dute kapital soziala handiagoa dela kulturalki indibidualistak diren gizarteetan kulturalki kolektibistak direnetan baino.
697. Gure ekonomiak gero eta globalizazio sakonago batean sartzen ari dira, eta, komunikazioaren eta informazioaren teknologien ondorioz, sistema ekonomikoa gehiago desnazionalizatzen eta desmaterializatzen ari da. Zientzia- eta garapen-ahalmena dela eta, ezagutza oso bizkor sortzen da, eta ezagutza horrek azkar aldatzen diren gizarte-harremaneko espazioak sortzen ditu; eta gizakia egoera horretan dago. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek errealitatea sozialki eraikitze modu berriak eskaintzen dituzte, eta horrek gure izateko eta jokatzeko moduak aldarazten ditu. Garapen zientifiko eta teknologikoa, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruan, prozesu ekonomiko, sozial eta politikoen ardatz bihurtu da.
698. Euskal ekonomia bultzatzen duten enpresek maila globalean lehiatu behar dute; beraz, haien harreman-esparruek eta garapen-baldintzek gero eta lotura txikiagoa dute jatorrizko estatu-esparruarekin, eta helmugako merkatuek ezarritako lehiakortasun-baldintzatzaileak gero eta handiagoak dira. Globalizazioaren baldintzetan, eragile ekonomiko nagusiek ez dute euren estatua hainbeste aintzat hartzen. Egun, aberastasuna eta enplegua —eta, hortaz, gizarteko kohesioaren oinarri materialak— sortzeko ahalmena euskal produkzio-ehunaren lehiakortasun-posizionamenduaren mende dago, agertoki global, lehiakor eta gero eta konplexuago honetan. Beraz, globalizazioak, errealitate ekonomikoari ez ezik, gure gizartearen kulturari ere eragiten dio.
699. Gaur egun, gizarte kapitala sekulan baino azkarragoa da Ipar Euskal Herrian. Alde batetik, bide politiko-instituzionalaren arloan 1990 urteetatik, Iparraldeko gizarte zibilak lurralde gobernantza berria deitua izan den prozesu ixilean parte hartu du; eta prozesu hortarik atera dira hainbat erakunde: Euskal Kultur Erakundea 1990an, Garapen kontseilua eta Hautetsian kontseilua 1994-5an, “pays Pays basque” lurraldea 1997an, Euskeraren erakunde publikoa 2005ean, Tokiko lurren egitura publikoa 2005an, eta Herri elkargo bakarra 2017an. Sare erakunde horien bidez, lurraldea

Interes pertsonalak
vs. kolektiboak

IKTen eragina
kapital sozialean

Euskal produkzio-
ehunaren
lehiakortasun-
posizionamendua
agertoki globalean

Gizarte kapitala Ipar
Euskal Herrian

egituratzen ari da politikoki, frantses dezentrazioaren legedia erabiliz modu parte-hartzaile batean.

700. Beste adibide moduan, 2013an abiatutako Euskal moneta, gaur egun Frantziako lehen tokiko moneta osagarrian bihurtu da. Moneta honek, ez ditu bakarrik transakzio ekonomioak baldintzatzen, soberania tresna bat da ere, lurralde baten mugak marrazten dituelako. Kasu honetan, euskeraren defentsari, ingurumenari eta tokiko ekonomiaren aldeko desfioei lotuta dago. **Euskal moneta**
701. Dena dela, Euskal Herrian gizarte-kapital handiagoa sortzera garamatzaten joeren gainera, euskal lurraldeen arteko lankidetzaren dinamika gutxi dira eta esparru jakin batzuetan zedarrituak, gainera (eta, ondorioz, ez dute halako gizarte-kapitalik sortzen). Zaila dirudi halakorik ulertzea Europako esparruan eta mugaz gaindiko lankidetzaren egiturak edukirik. Ez da nolana hiko kontua, sektore batzuek (hezkuntzak, kulturak...) frogatu dutelako egon badagoela lankidetzaren joria jorrazteko aukera, nahiz eta beste esparru batzuetan oraindik ere oso atzetik ibili. Egoera horrek gogoeta sakona egitera eta egoera gainditzeko hitzarmen sendoak lotzera eraman behar gaitu. **Mugaz gaindiko lankidetzaren eskasa**

05.3.7. Denon oinarria, balioak

702. *Estatu gabeko herri txiki bat gara, mundu globalizatu batean...* **Herri txiki bat mundu globalizatu batean**
- Euskaldunona herri txikia da. Eta ez gara beti ondo moldatzen elkarrekin. Izan ere, zenbat garen zehazteko ere eztabaidatzen dugu, edo euskaldunak zein diren erabakitzeke. Mundu globalizatu batean gaude, estatu propiorik gabe, eta zenbait administrazioen mende; proiektu komun bat behar dugu, minimoak soilik jasotzen baditu ere, edo gizarte globalizatu horretan desagertuko gara.
- Gogoratu egin behar dugu, halaber, euskal jendarrea eta Euskal Herriko eremuak kohesionatzeko ekimenek ez dutela lurraldea gobernatzen duten estatuen babesik (batak nahiz besteak izaera jakobino nabarmena baitute), eta batzuetan estatuen kontrako jarrera garbia ere jasan behar izaten dutela (euskararen ofizialtasuna, euskarazko hedabideak eta hezkuntza, euskal lurraldeen arteko lankidetzaren esparru legala...).
703. *...eta etorkizuneko proiektu partekatu bat sortu behar dugu...* **Proiektu eta helburu komunak**
- Proiektu komunak gauzatu eta helburu komunak zehazteko baditugu, beharrezkoa da denok partekatu eta defenda ditzakegun oinarriko zenbait balio adostea. Etorkizuneko proiektu komun hori zein izan litekeen eta zer balioak susta dezaketen zehaztea izango da lerro hauen helburua.

704. Etorkizuneko Euskal Herrian gauzatu beharreko proiektu komunak gizarte zuzen, orekatu, arduratsuagoa, errukitsu, atsegin eta lagunkoiagoa sustatu beharko luke, planetari ekarpena egiten dion gizartea: industrian, ekintzailertzan, arte eta zientzietan, berrikuntzan, etab. Bertako pertsonak eta euren bizitza gure artean garatzera eta etorkizuneko euskal nazioa eraikitzen etorritako beste pertsona batzuek –ez aldi baterako daudenek– osatutako gizartea. Harrotasun arduratsuaz “ni euskalduna naiz”, “yo soy vasco”, “soc basc”, “je suis basque”, “I am basque”, “Ich bin baskisch” eta abar esan dezakeen herri bat.
- Euskal Herriko etorkizuneko proiektuaren ezaugarriak
705. *Kultura-aniztasuna ez da identitate-galeratzat hartu behar.*
- Elkartasun unibertuala ezinbestekoa da, baina ez dakar, inolaz ere, euskaldunok gure historian, gure tradizioetan, eta gurasoen eta aitona-amonen herentzian sustraitzen gaituzten balioak eta jarrerak desagertzea. Jatorrizko identitateak, baldin eta baztertzaila ez bada, euren jatorrizko identitatea –gure kasuan, euskal identitatea– bizi eta amesten duten pertsonen onena bereganatzen jakingo du, eta identitate hori gurekin partekatu nahi dutenak hartuko ditu, jatorria, arraza, hizkuntza, erlijioa eta abar edozein direla ere, eta haiei uko egitera behartu gabe. Historiak hala erakutsi du, eta erakusten jarraitzen du, Euskal Herrian jaio ez diren euskaldunen proportzioa handia da eta.
- Euskal identitatea eta kultura-aniztasuna
706. *Balioek lehentasunen eta aukeren (hautaketak) berri ematen dute.*
- Elkarren osagarri diren bi dimentsio hartzen ditugu balioztat: alde batetik, gure ustez lehentasunezkoa eta funtsezkoa den dimentsioa, borrokatzea merezi duena, eta, bestetik, irizpide etiko bat, ekintzak justuak edo bidegabekoak, baliozkoak edo baliogabeak, bikainak edo gaitzesgarriak direla erabakitzeke erabiltzen duguna. Ondoren, balioak aukerak dira, ez ditugu berezko ezaugarriekin nahastu behar. Euskaldun gehienok zuriak gara, europarrak. Hori ez da balio bat, ezaugarri bat baizik. Adibidez, hau izango litzateke balio bat: gaur egungo mundura egokitutako berrikuntzaren alde egitea (zientzia-, gizarte- eta giza mailan, besteak beste), desberdinak diren pertsonak onartzea eta gure artean hartzea, etab. Balioak historikoak dira. Duela bi mende arte, esklabotza onartu zuten Mendebaldean. Baita emakumeen gizarte-diskriminazioa ere. Gaur egun, arbuiatu egiten ditugu. Aukera bat da. Halaber, kontuan har dezagun gizartean ezartzean aukera bihur daitekeen ezaugarri bat. Esate baterako, euskara Euskal Herriaren ezaugarrietako bat da, baina aukera ere izan daiteke, indartzea edo munduan gehiago erabiltzen diren beste hizkuntza batzuen bultzadaren aurrean ahultzen uztea erabaki baitaiteke. Gure esku dago!
- Jatorriak eta oinarri komuna
707. *Eta indibiduala eta kolektiboa gogo handiz eta bizitasunez uztartzen dituzte.*
- Baina gizarte justu, atsegin eta solidarioago baten proiektuan aurrera egiteko, zenbait balio sustatu behar ditugu; hain zuzen, norberak aurrera egiteko dituen asmo zilegiak ezinbesteko proiektu kolektiboekin bat eginarazten dituztenak. Baina ez gara
- Balore kolektiboak

ezerezetik abiatzen.

708. Atzera begiratuta, esan dezakegu euskal gizarte zibilak, euskal herritarrek, bizitasuna erakusten duela, historikotasuna, bere burua eraikitzeke ahalmena, inbidiagarria. 2000ko Europako Balioen Ikerketan oinarrituta: "Euskaldunek arreta handiagoa jartzen dute galderan, gogo eta bizitasun handiagoz hartzen dute galdetzen zaiena, axolagabekeriak, pasibotasunak eta utzikeriak alde batean utzita. Dirudienez, horixe bera gertatzen zaio 1999ko euskal biztanleriari, inkestaren bidez hauteman daitekeenez".
709. *Pribatua eta publikoa uztartzen jakin dugu euskaldunok.*
- Cure aldetik, euskal gizartearen ezaugarri bereizgarri bat gehituko genuke: arlo publikoaren eta pribatuaren arteko osagarritasuna. Ez ditu uzten gizartearen nondik norakoei lotutako erabakiak eta erantzukizuna administrazioaren esku soilik (nahiz eta gizarteko zenbait kidek tentazio handia izan); izan ere, gizarte zibilak aurrea hartzen du hainbat arlotan, eta kontuan izan behar da gizarte zibilik gabe gizartea desagertu egiten dela. Ekintzaitza-maila handia duen gizartea da, herrian errotua, langilea, eta lana eta festa bateratzeko gaitasun berezia duena. Kulturak, sorkuntzari, transmisioari eta herritarren parte-hartzeari dagokienez, asko lagundu du ahalegin horretan.
710. *Cure balio demokratikoak defendatzen eta desberdinak diren pertsonak onartzen ikasi dugu.*
- Euskal gizartearen gehiengoak ETaren erronka gainditzen jakin izan zuen, balio demokratikok irmotasunez babestuz, gatazkak modu baketsuen bitartez konpondu behar direla esanez, eta desberdinak diren pertsonak (jatorria, sexu-identitate, erlijioa, etab.) onartuz. Hori egiaztatzeke oinarri bat dago, aurkako iritziak izan arren.
711. *Gero eta laikoagoa den gizarte batean.*
- Euskadi da kristautasun-egoera arazorik eta traumarik gabe gainditu duen herrialdeetako bat da. Horren ondorioz, gizartea laikoa da eskuarki. Hala ere, sektore batzuetan, erlijio-adierazpena Euskal Herriko pertsonen edo erlijio-zentroen intimitatearen arlora mugatzea proposatzen da.
712. *Eta etorkizunera begira...*
- Lehenik eta behin, esan behar dugu etorkizuneko balioak guk geuk sustatu nahi ditugunak izango direla, eta etengabeko eta amaierarik gabeko eztabaida batean aukeratu behar ditugu. Balioak ez daude hor, tiradera batean, eta ez da beharrezkoa hura irekitzeko giltzarik bilatzea. Balioak giza eraikuntzak dira, askotariko jatorri edo iturriak izan ditzaketenak.

Europako Balioen Ikerketa

Publikoaren eta pribatuaren arteko osagarritasuna

Desberdintasunak onartzea

Laikotasuna vs. erlijiozkotasuna

Balioak giza eraikuntza gisa

713. 2010ean, Innobasquek *Balioen liburu berdea* landu zuen, non lau balio nagusi proposatu genituen, 2030. Urterako berrikuntzaren mundu-erreferentzia izateko helburuarekin. Hauek dira baliook: ezagutzaren balioa, lankidetzaren balioa, aldaketara irekita egotearen balioa eta globalizazioaren balioa. **Balioen liburu berdea**
714. *Zenbait bizitza-lehentasun eta balio instrumental ditugu.* **Balio instrumentalak eta balio finalistak**
- 2010eko hausnarketarekin jarraituz, gaur egun, hemen, aurreikuspen-ariketa batean, hiru balio finalista proposatzen ditugu, Euskal Herriaren etorkizunerako lehentasun garrantzitsu gisa, eta hiru balio instrumental ere bai, lehentasun horiek gauzatzeko aldera.
715. *Balio finalistak.* **Balio finalistak**
- Oinarrizkoa eta funtsezkoa: gure historia oinarri hartuta, Euskal Herria eraikitzeko borondatea, ahalegin horretan parte hartzen duten guztiekin. Hori besteen esku soilik utzi gabe (administrazioa, botere politikoa, Europa, etab.). “Ez galdetu Euskadiri zer egin dezakeen zugatik; galdetu zeure buruari zer egin dezakezun Euskadirengatik”.
 - Elkarbizitzan, Euskadin eta gainerako herrieekin eredu demokratikoen alde egiteko konpromiso irmoa.
 - Espirituaren garrantzia planetaren dimentsio kosmikoan: pertsonak, animaliak, landareak... Lurra, gaur egun arriskuan.
716. *Haiekin batera, erreferentziazko zenbait balio instrumental.* **Balio instrumentalak**
- Lankidetzaren balioa.
 - Aldaketara eta berrikuntza positibora irekita egotearen balioa.
 - Globalizazioaren/mundualizazioaren balioa eta kultura-aniztasunaren balioa. Europako euskaldunon identitatean oinarrituta, hurbileko eta berehalako erreferentzia gisa.

05.4. Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak

05.4.1 Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz

05.4.1.1. Nola jarrai dezakegu oinarrizko berdintasun-mailak bermatzen?

717. *Benetan berdintasunezkoa da gizartea?* **Desberdintasuna**
- Erronka eta aukera globalak eta haien Euskal Herri mailako irakurketa aztertzean esan dugunez, euskal lurraldeek desberdintasun- eta pobrezia-tasa txiki samarrak izan dituzte, Europaren testuinguruan. Edonola ere, errentaren —eta

aberastasunaren— berdintasun erlatibo horrek ezin ditu beste elementu kezkarriago batzuk ezkutatu, hala nola: a) beste eremu batzuetan dauden desberdintasun handiak (osasun-egoera, ugaltze-jarduerarekiko erantzukizuna, parte-hartze politiko eta soziala, hezkuntzarako sarbidea edo aisialdiaren erabilera, adibidez); b) faktore biografiko jakin batzuek (generoa, adina, jatorria...) errenta- eta aberastasun-desberdintasunetan duten eragina; eta c) gizarte-babeseko sistema publikoen gero eta zailtasun handiagoa desberdintasun horien azpian dauden arazoiei aurre egiteko, eta ondorioak prebenitu eta arintzeko, gizarte-mugikortasunak gero eta oztopo gehiago dituen testuinguru honetan.

718. Lehenengo bi galderari buruzko datuak oso ugariak dira. Horietako batzuk aipatzearen: emakumeen batez besteko soldata gizonen batez besteko soldataren % 75 da; ama langileek gizonen baino 500 ordu gehiago ematen dituzte urtean seme-alabak zaintzen; irakurmenari dagokionez, gizarte-egoerarik ahulenean eta onenean dauden ikasleen arteko aldea ia bi ikasturteren baliokidea da; parte-hartze politiko eta sozialen tasari erreparatuta, ekonomia-egoerarik onenean dauden pertsonen tasa lau aldiz handiagoa da egoerarik ahulenean daudenena baino; Euskadin, pertsona guztiek goi-mailako hezkuntza duten pertsonen heriotza-tasak izango balituzte, 4.000 heriotza saihestu edo atzeratuko lirateke urtean (gizonen heriotzen % 21 eta emakumeen heriotzen % 18a).

719. *Cehien duenari gehiago ematea: Nola saihestu Mateo efektua? Nola aktibatu gizarte-igogailua?*

Gizarte-
mugikortasuna

Gaur egun, herri-administrazioek gero eta zailtasun gehiago dituzte desberdintasun horiek murrizteko, nahikoa banatzailea ez den ongizate-estatu baten esparruan; izan ere, kontribuzio-prestazioen pisuaren ondorioz, gehiago laguntzen diete gehiago duten pertsonen. Ildo horretan, euskal lurraldeak ez daude Mateo efektutik kanpo, batik bat prestazio ekonomikoak langileen lan-ibilbideko kontribuzio-historiarekin eta soldata-mailarekin oso lotuta daudelako. Euskal Herrian –agian, Hego Euskal Herrian nabarmenago— indarrean dagoen gizarte-babeseko ereduak produkzio-sistemarekin estuki lotutako biztanleriari laguntzen dio bereziki; hau da, duenari eman egiten zaio, eta gehiago izango du, eta ez duenari duen apurra ere kenduko zaio. Izan ere, PGEIaren datuek EAEn kasuan agerian jartzen dutenez, ongizaterik gabeko egoeran dauden pertsonen (% 10,8) gizarte-prestazio guztien % 5,8 soilik jasotzen dute. Aitzitik, ongizate-egoeran dauden biztanleen % 75ek prestazio horien % 80 jasotzen dute.

720. Ongizatearen Estatu behar bezain birbanatzailea ez izatearekin lotutakoaz gain, beste zenbait kezka daude: batetik, gizarte-mugikortasuna galarazteko oztopoekiko kezka, eta, bestetik, Ongizatearen Estatuaren orientazio gerontokratiko nabarmenarekikoa (adibidez, Euskadin); izan ere, gastu sozialaren % 60, hezkuntzako gastu publikoa barne hartuta, zahartze- eta gaixotasun-funtzioei aurre egiteko erabiltzen da.

Gastu soziala

721. *Testuinguru horretan, zer politikak lagundu dezakete oinarrizko berdintasun-mailei eusten –errentan, baina baita bizi-aukerei, denboraren erabilgarritasunari, eta erabakiak hartzeko eta politikan eragiteko ahalmenari dagokienez ere– aberatsen eta pobreen artean, emakumeen eta gizonen artean, eta haur, heldu eta adinekoen artean?*

Aukera-berdintasuna

Esparru horretan, Europako erakundeen eta gizarte-babesaren alorreko aditu askoren arabera, beharrezkoa da gizarte-politikak berraztertzea, gizarte-ongizatearen eredu klasikoa eguneratzea, lotura estua duten bi ikuspegi edo paradigmaren bultzadatik abiatuta. Hona hemen paradigma horiek: aurrebanaketa eta gizarte-inbertsioa. Nahiz eta haien artean desberdintasunak egon, gure gizarte-babeseko ereduak –Estatuan eta, neurri txikiago batean, Europan hartutako erabakiek baldintzatuta– aurrera jarraitu behar dute euren printzipio, praktikak eta mekanismoak berbideratzen.

722. Ikusten denez, Ipar Euskal Herrian ezarritako gizarte-babeseko ereduak, zenbait muga baditu ere, antz handiagoa du Europako erdialdeko eta iparraldeko sistemekin zenbait arlotan (esaterako, familia-politikan), Hego Euskal Herrikoak baino. Ezin da ukatu azken urteotan aurrerapenak egon direla, baina, hala ere Euskadiko eta Nafarroako ereduak Mediterraneoko ereduakin bat datoz hainbat alderditan, neurri handi batean Estatuko araudiek gizarte-babeseko politikan duten eraginaren ondorioz.

Gizarte-babeseko eredu desberdinak

723. Berbideratze hori gauzatzeko, hainbat galderari erantzun behar zaio: Nola berma ditzakegu goranzko gizarte-mugikortasuna eta aukera-berdintasuna haurtzarotik? Nola berma dezakegu hezkuntza-berdintasuna, eta saihestu gurasoen kultura- eta harreman-kapitalak seme-alaben hezkuntza-maila baldintza dezan? Nola lortu belaunaldien arteko itun bat, aldi berean adineko, gazte eta haurren beharrak asetzeko? Zer neurritan jarraitu behar du kontribuziotasunaren printzipioak gizarte-babeseko politikak gidatu behar duen oinarrizko printzipioa izaten? Zer onura lortuko dute gizarte-babeseko politiketatik batez ere babesa eta konponketa behar dituztenek? Nola uztartu aurrebanaketa eta birbanaketa? Zer erakundek –estatuz azpiko mailatik– susta ditzakete gizarte-babeseko, aurrebanaketako eta birbanaketako politikak euskal esparruan?

Birbanaketa

05.4.1.2. Zer oinarritan eta zer mekanismoren bidez sustatu gizarteratzea?

724. *Euskal biztanleriaren % 15 inguru gizarte-bazterketako egoeran bizi da.*

Gizarte-bazterketa

Gizarte-bazterketaren fenomenoak zaila da zehazten eta neurtzen. Edonola ere, adostasun handiz onartuta dago gizarte-bazterketako prozesuek askotariko arazoak dituztela; eguneroko bizitzako hainbat arlotako gabeziak eta zailtasunen ondorioz hartzen da. Hona hemen arlo horiek: diru-sarrera ekonomikoak, enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte-harremanak eta parte-hartze soziala.

725. Gizarte-politikek eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuek tradizioz landutako beste kontingentzia edo behar batzuek (pobrezia, mendekotasuna, ezgaitasuna, zahartzea...) ez bezala, fenomeno horren hedapena neurtzeko eta eraginik handiena jasaten duten kolektiboak identifikatzeko tresnak ez dira behar bezain fidagarriak. Nolanahi ere gurean egin diren inkestek jakitera ematen dutenaren arabera, Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 15 inguru bazterketa-prozesu moderatuan edo larrian dago. Bestalde, gutxi gorabehera, familien erdiak daude gizarteratze osoko egoeran (Nafarroan, % 46, 2013an, eta Gipuzkoa, % 56, 2014an), eguneroko bizitzako esparru guztietan gabezia esanguratsurik gabe.
726. *Proletariotzatik prekariatura: Euskadiko biztanleria aktiboaren herena enplegu-ezgonkortasuneko egoeran edo langabezian dago.* **Prekariatua**
- Nahiz eta, esan dugunez, gizarte-bazterketaren ikuspegitik dimentsio bakarra izan ez, enplegurako sarbidea funtsezkoa da gizarteratzearen eta gizarte-bazterketaren prozesuak azaltzeko: hain zuzen, EAEko biztanleriaren diru-sarreraren % 63 enplegutik dator, eta, enplegua lortu aurretiko kontribuzio-prestakuntzak ere kontuan hartuta, ehuneko hori % 88 da. Funtsezko errenta-iturri gisa duen funtzioaren gainetik, enplegurako sarbidea gizarteratzearen giltzatzat hartu izan ohi da, errealizazio pertsonala, parte-hartze soziala eta ongizate psikologikoa eragiten dituen neurrian. Baina lan-merkatua, krisia hasi baino askoz lehenagotik, aldatu egin da, eta zalantzan jar dezakegu iraganean zuen gizarteratze-ahalmena izatea gaur egun. Enpleguak pobrezia eta bazterketaren aurka babesten du, baina ez lehen bezala: esate baterako, Nafarroan, gizarteratze-egoeran dauden pertsonen % 63 lan-merkatuan dago, baina baita gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen % 33 ere.
727. Zalantzarik gabe, lan-merkatua prekarizazio-esparru batean dago, eta enpleguaren gizarte-araua hautsi egin da, lan-harremanen globalizazio, digitalizazioa eta desarauketarekin lotutako aldaketa sakonen ondorioz, eta, gauzak horrela, enplegua gizarteratze-prozesuetan zeukan garrantzia galtzen ari da. Izan ere, hainbat urtetan lan-integrazioa gizarteratzeko eta pobrezia aurka babesteko tresnarik eraginkorra dela pentsatu izan da. Gaur egun, ordea, nabarmen txikitu da soldatapeko enpleguak gizarteratzea eta langile askoren eta haien familien ongizatea bermatzeko zuen ahalmena. Hona hemen zenbait arrazoi: soldatapeko enplegua gero eta ezgonkorragoa da; langile pobreen fenomeno sortu da (berriro), eta biztanleria aktiboaren zati handi baten (bereziki, emakumeak eta gazteak) lan-ibilbideak zatikatu egin dira. Proletariotzak prekariatuari eman dio bidea. Adibide gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017an, lan egiteko adina zuen biztanleriaren % 32 langabezian edo lan-ezgonkortasuneko egoeran zegoen (soldata txikiak, lan-pobrezia, aldi baterako kontratazioa eta/edo lanaldi partziala).
728. *Isolamendu- eta bakardade-egoeren eragina.* **Bakardadea**
- Langabezia eta enpleguaren prekarizazioa ez dira bazterketaren eragile bakarrak; baditu beste gabezia eta zailtasun batzuk. Besteak beste, isolamendu- eta

bakardade-egoerek, diskriminazio-bizipenekin batera, eragin nabarmena dute pertsonen bizi-baldintzetan eta gizarteratze-mailetan. Horrenbestez, EAEn, biztanleriaren % 2,5ek (ekonomia-gabeziako egoeran dauden pertsonen % 6k) adierazi du arazo sozial larriren bat duela harreman pertsonal, familiar eta sozialetan. Nafarroan, biztanleriaren % 6,3 dago gizarte-gatazkako egoeran, eta % 2,7, gizarte-isolamenduko egoeran: gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen kasuan, ehunekoak halako hiru dira. Bestalde, adineko pertsonen laurdenak bakarrik bizi dira, eta gero eta adineko gehiago daude isolamendu-egoeran.

729. *Testuinguru horretan, zer oinarriren eta zer mekanismoren bidez susta dezakegu gizarteratzea? Izan daiteke aurrerantzean ere soldatapeko enplegua gizarteratzearen oinarria eta gizarte-eskubideetarako sarbidearen atea?* **Gizarte-eskubideak**

Esparru horretan, zenbaitek adierazten dute “enpleguaren gizarte-arauaren krisiaren paradigma onartu behar dela (azkenean), eta enpleguaren krisia benetako aro-krisialdi baten elementutzat hartu (sakontasun osoarekin)”. Oinarrizko galdera da, hain zuzen ere, ea enplegua diru-sarrerak lortzeko tresna nagusitzat hartzen jarraitu behar dugun, eta gizarte-eskubideetarako sarbidearen atetzat eta gizarteratzearen bermetzat. Langabe guztiei lanpostua bermatu behar eta ahal diete administrazioek, bermatutako lanaren aldekoek uste duten bezala? Edo, aitzitik, diru-sarrera ekonomiko bat, baldintzarik gabekoa eta indibiduala, bermatu behar diete Euskal Herriko administrazioek biztanle guztiei, oinarrizko errenta unibertsalaren defendatzaileek eskatzen duten bezala? Aurrera egin daiteke gure egungo errenta bermatuen sistema selektibo eta baldintzatua baino irekiagoa den eta hain selektiboa eta baldintzatua ez den eredu batera? Prekarizazio-testuinguru batean, langile pobreen soldata txikiak konpentsatu behar dituzte administrazioek, Euskadiko DSBEak, Nafarroako Errenta Bermatuak edo Frantziako Jarduera Sariak bezala? Enpleguaren banaketa eta lanaldiaren murrizketa langabezia txikitzeko formula baliagarriak dira?

730. Galdera horien erantzunak argi izango bagenu ere, beste galdera sakon batzuk egin beharko genizkioke geure buruari: Nola susta dezakegu enpleguaren mundura bakarrik iristerik ez duten edo oso denbora laburrerako lortuko duten pertsona guztien gizarteratzea? Gizarte-eskubideak gauzatu ahal izateko oinarrizko baldintza izaten jarraitu behar du lana eskuratzeko borondateak? Legez, zer baldintzatasun-maila, zein meritu-irizpide eta zer elkarrekikotasun-maila eskatu ahal zaizkie herritarren elkartasunaz baliatzeko asmoa dutenei? Zer eskubide sozial eta ekonomiko onartuko dizkiegu heldu berriei eta, baita ere, hemen aldi baterako daudenei? Digitalizazioaren testuinguru honetan, nola saihestu isolamendua eta bakardadea, nola aktibatu herritartasun aktiboko eta parte-hartze sozialeko sareak? **Baldintzatasuna**

05.4.1.3. Nola erantzun zainketen krisiari?

731. *Nork eta nola zaindu behar ditu mendeko pertsonak? Arreta pertsonarengan jartzen duen zainketa-eredu baterantz.* **Zainketen krisia**

Europako gainerako gizarteetan bezala, zainketen krisia eguneroko errealitate bat da euskal lurraldeetan ere. Ekonomia feministaren ekarpenen arabera, honetaz ari gara zainketen krisiaz mintzatzean: biztanle askok euren burua zaintzeko, beste batzuk zaintzeko edo zainduak izateko dituzten zailtasunak agerian jartzeaz eta areagotzeaz. Zailtasun horiek arrazoi hauengatik jarri dira agerian: alde batetik, zainketen gaineko erantzukizunen banaketa-eredu tradizionala ezegonkortu egin delako eta sistema sozioekonomikoa goitik behera berregituratu delako; eta, beste batetik, etxeko lanaren sexu-banaketa eta lan-merkatuko genero-segmentazioa aldatu ez direlako. Gizarte-ongizatearen sistema zabaltzeko eta hobetzeko, ezinbestekoa da ugalketa- eta zainketa-lanen azpian dauden genero-harremanak berriz hausnartzea, bai eta, zentzu zabalago batean, zainketen desfamiliarizazio- eta desmerkantilizazio-maila berraztertzea ere.

732. Baina, gainera, zainketa horien edukiari buruz hausnartu ere egin behar da, adinekoei eman beharreko arreta-motari buruz, pertsonarengan ardaztutako arretaren ikuspegitik. Euskadin adinekoen edo mendeko pertsonen zainketen arloan lan egiten duten erakundeek pertsonarengan ardaztutako arreta lotzen dute arretaren pertsonalizazioarekin, hautatzeko ahalmenarekin, bizi-kalitatearekin, autodeterminazioarekin eta kontrolarekin (erabiltzaileen aldetik); aurreko ereduan, ordea, profesionalak eta erakundeak dira protagonistak. Zalantzan jarri ezin diren aurrerapausoak eman diren arren, gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ez du paradigma hori guztiz barneratu, eta haren eskaintza, nagusiki, egoitza-erakundeetan (oraindik ere zaharren egoitzen formatuekin, batzuetan) eta prestazio ekonomikoetan oinarritzen da.

733. Esparru horretan, ez dira beti beharrezkoak diren baliabideak erabiltzen pertsonak euren etxean, euren ohiko bizitza-ingurunean, zahartzea ahalbidetzeko. Gainera, gizarte-zerbitzuen arloko koordainketek gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboaren printzipioa hondatzen dute, eta Erdiko eta Goiko klaseei zerbitzu horiek erabiltzeko asmoa kentzen diete, merkatu pribatu alegal eta desarautu batean lor baititzakete (prezio hobean eta malgutasun handiagoarekin). Testuinguru horretan, baliabide gutxi eta oso premia handiak edota oso laguntza-sare ahulak dituzten pertsonak erabiltzen dituzte, bereziki, teorikoki unibertsalak diren gizarte-zerbitzu publikoak. Osasunaren alorrean, osasun-sistemek gaixotasun larrietan gehiegizko arreta jartzen jarraitzen dute, eta ez dira oraindik gai izan —ez antolaketa-aren aldetik, ez kontzeptualki— kronikotasunaren erronkara egokitze.

734. Egoera horretan, erronka eta galdera asko daude: Zer laguntza eman behar zaizkie mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei? Nola indartu prebenitzeko eta norberaren autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak, mendekotasunik izan ez baina egoera ahulean dauden biztanleentzat? Nola diseinatu koordainketa Gizarte Zerbitzuetan? Nola ahalbidetu mendekotasuna duten adinekoek euren etxean jarraitzea? Nola orekatu prestazio ekonomikoen eta zerbitzu profesionalen hornidura? Nola bermatu mendeko pertsonen autodeterminazioa? Nola lehenetsi zaindutako pertsonen eskubide, behar eta itxaropenak, haiek zaintzen dituzten erakundeen eta erakundeen beharren aurretik? Mendekotasuna
735. *Nola iraunarazi, finantzatu eta antolatu gizarte-ongizateko eredu zabal bat?* Zerga-sistema
- Gizarte-babes publikoa zergen bidez finantzatzen da. Ipar Euskal Herrian ez bezala, Hego Euskal Herriko lurraldeek zergak biltzeko ahalmen txikia dute, Europako gainerako lurraldeekin alderatuta, zerga-bilketa lurralde bakoitzeko BPGren arabera neurtuta, bederen. Baina historikoki zerga-presio handia izan duten Estatuak ere, hala nola Europako iparraldekoek eta Frantziak, gero eta zailtasun gehiago dituzte Ongizatearen Estatuak behar dituen baliabide ekonomikoak biltzeko. Herrialde guztietan, zergekin lotutako iruzurra, ihesa eta saihespena gero eta zailtasun gehiago sortzen ari dira, jarduera ekonomikoen globalizazio, uberizazio eta digitalizazioaren testuinguru honetan.
736. Bestalde, ezinbestekoa da gizarte-ongizateko politikak egiteko behar den lurralde-eta eskumen-esparruari buruz hausnartzea. Alde batetik, Gizarte Zerbitzuena da udalerriei oinarrizko funtzioak ematen dizkion ongizate-sistema bakarra (Hegoaldean gehiago Iparraldean baino, eta Euskadin gehiago Nafarroan baino), betiere, beharrezko baliabide teknikoak eta ekonomikoak eman gabe. Horrez gain, kudeaketa-, plangintza- eta arauketa- eskumenak Estatuak, erkidegoko eta foruko administrazioen artean banatzen dira; pentsioak, berriz, Estuari dagozkio, eta Gizarte Segurantzak kudeatzen ditu. Azkenik, behar-beharrezkoa da, beste herrialde batzuetan egiten ari diren bezala, biztanleriaren premia desberdinei, baina elkarrekin lotutakoei, modu estankotan erantzuten dieten zerbitzu publikoen koordinazioa hobetzea, baita integratzea ere. Hain zuzen ere, gizarte-premiarik konplexuenak gizarte-, hezkuntza-, enplegu- edo osasun-zerbitzuen arteko zirikitueta daude; hortaz, premia horiei erantzuteko, gizarte-eta hezkuntza-esparru, gizarte- eta osasun-esparru edo gizarte- eta lan-esparru arinagoak behar dira. Lurralde-antolamendua

737. Bestalde, kontuan hartu behar da gizarte-zerbitzuen horniketa publikoaren eta pribatuaren arteko oreka ezegonkorra dela, eta komunitate-elkartasunaren eta herritartasun aktiboaren sareak indartu behar direla. Zalantzarik gabe, azken urteetan, irabazi-asmorik gabeko ekimenak berpizten ari dira, eta gizarte-politikak garatzeko lotura komunitarioen eta erlazionalen garrantzia handitzen ari da. Izan ere, zerbitzu publiko konbentzionalak agortu egin dira, nolabait, eta gizarte-politikek gero eta zailtasun gehiago dituzte gero eta konplexuagoak diren beharrei erantzuteko. Biztanleria, gainera, eredu malguagoak eta arinagoak eskatzen ari da, euren itxaropen, eskaera eta beharrei erantzuteko aukera gehiago dituztenak. Herritarren partaidetzarekiko konpromiso horren ideia nagusia hau da: administrazioek eta herritarrek elkarrekin jardun behar dute auzoen eta haietan bizi diren pertsonen arazoak konpontzeko. Toki- edo lurralde-mailarekin batera, borondatezko lana herritartasun aktiboaren aldeko apustu horren funtsezko elementuetako bat da, biztanleriak borondatez komunitatearen garapeneko zereginetan parte hartzean oinarritzen baita. Horrek guztiak hurbiltasuneko boluntarioritza-eredu baten garapena dakar berekin, eta, eredu horretan, komunitateko pertsonak eta baliabideak (bizilagunak, saltokiak, elkarteak, auzoetako baliabide publikoak...) autoantolatuta egiten dira, zerbitzu publikoek konpondu ezin dituzten zenbait premiari (laguntza, zainketa, prestakuntza, etab.) erantzuteko.

Borondatezko
lana

738. Testuinguru horretan, askotariko galderak daude, eta konplexuak dira, gainera: Zer zerga-presio izan daiteke nahikoa eta, aldi berean, bideragarria euskal lurraldeetan? Zer zerga sustatu behar dira gizarte-babesa finantzatzeko? Frantzia edo Alemanian bezala Euskadin ere sortu beharko genituzke zerga edo kotizazio finalistak, zahartzeak sortzen dituen gastuak finantzatzeko? Nolakoa izan behar du gizarte-zerbitzuen eskumen-egiturak? Zer zeregin izan behar dute tokiko erakundeek gizarte-ongizateko zerbitzuak ematean? Nola uztartu ditzakegu ekintza publikoa eta ekintza pribatua (irabazi-asmoa duena zein irabazi-asmorik gabekoa)? Zer zerbitzu eman behar dituzte herri-administrazioek soilik, eta zein utz ditzakegu merkatuaren edo herritarren elkartasunaren esku? Nola berpiztu komunitate-elkartasuna eta auzo-elkartasunaren sareak, herri-administrazioek gizarte-premiak asetzeko duten erantzukizuna murriztu gabe?

Zerga-sistema

05.4.2. Lehiakortasuna, lurralde estrategiak eta jasangarritasuna

739. *Estrategia ekonomikoaren lurralde mailako dimentsioa ukaezina gaur egun. Beti ez da horrela izan...*

Lurraldea estrategia
ekonomikoetan

Ekonomia konbentzionalaren eredu teorikoetan lurraldea aintzat hartzea gertaera berria da. Hau da, lurraldea gizartearen ekintzez sortutako espazioa, non jarduera ekonomikoa gauzatzen den, berriki jarri da balioan. Estatua izaten zen azterketa enpirikoetan azterketarako oinarrizko unitatea, betiere, estatua nazio moduan ulertuta.

740. *Globalizazioan nork bere lekua topatu behar du, ordea...*

Baina globalizatzearen bizkortzeak, ordea, egitasmo ekonomikoaren eremu naturala zehaztean estatuaren erabateko protagonismoa zalantzan jartzea ekarri zuen. Horrezaz gain, edo horrekin batera, estrategia ekonomikoen gaineko aztertzaileak jabetu ziren jarduera ekonomikoak bezala berrikuntzak ere leku jakinetan kontzentratzen direla eta beraz, kontzentrazio horiek estatuz azpiko mailetan jokatzeko duten faktoreez azaldu behar zirela. Horrela, 80 hamarkadaren bukaeraz geroztik, petrolioaren krisia gainditzeko estrategia desberdinen eraginkortasuna ikusita, erregioen lehiakortasuna aintzat hartzen zuten ikuspegiak ugaltzen hasi ziren.

741. *Lurraldea errealitate konplexu eta aberatsa izan ohi da, gatazkatsua ere bai...*

Lurraldeko
eragileak

Erregioen ibilbidea aztertzean, ordea, lurraldeko aktoreen eragina, edota lurraldearen baitako azpi mailen eragina oso aintzat hartu ezean, ezinezkoa da kasu bakoitzean lortu dena azaltzea. Lurraldea ere konplexua da aktoreen izaera, eginkizun, ardura eta interesei dagokionean.

742. Puntu honetara, helduta, beraz, beharrezkoa da aipatzea, lurraldean bertan aktoreen artean interes desberdinak dauden aldetik, lurralde estrategia ez dela bide laua eta zuzena. Halaber, sistema erregionaletan, lurraldearen garapen eta berrikuntza ekimenetan politika publikoak transbertsalak dira, alegia, askotariko sail eta politiken parte-hartzea ezinbestekoa da, eta gainera erabateko eragina du gainerako aktoreen lanak ere, beraz, estrategia orok elementu horiek hartu behar ditu aintzat.

743. Beraz, lurraldea bada estrategia ekonomikoari dagokionez lehen mailako osagai bat Munduan. Euskal Herriak berak eman du horri buruzko hainbat adibide (bai eskumen faltak eragiten dituen ondorioena, bai tokian tokiko proiektu kolektiboek lor dezaketena ere). Lurraldeari lotutako estrategia ekonomikoen diseinu, inplementazio zein analisisian, konplexutasuna ulertzeak, ordea, erabateko garrantzia hartzen du. Ikuspegi horretatik, Euskal Herriko lurraldearen baitako konplexutasunak aintzat hartu eta esperientzia zein aukerak balioan jarri beharko genituzke. Bai iragana ulertzeko zein etorkizuneko lan ildoak formulatzeko. Euskal Herriak badu lurralde bat aski aberatsa lurraldeari lotutako estrategia ekonomikoak garatzeko eta elkarren artean uztartzeko. Ez da autogobernuari edo kokapen geostrategikoari lotutako aukera bakarrik, tokian toki eraikitako kultura eta kapital sozialak ere berebiziko egitekoa dute lurralde estrategian.

Lurralde estrategia
ekonomikoetan

744. *Europar Batasuna ere bere buruarekin kritiko, bide berriak bilatzen...*

RIS3, Espezializazio
adimentsua

90eko hamarkadaren lehenengo erdialdetik aurrera erregioek berrikuntzako eta garapen ekonomikoko strategiak egitea bultzatzen hasi zen Europako Batzordea. Azken urteotan Europako batasunak "Espezializazio Adimentsurako Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategiak" (Research and Innovation Smart Specialisation Strategies, laburtze aldera RIS3 edo S3 ere deitzen direnak) sustatu ditu aurreko hamarkadetakoa

gabeziak gainditzeko asmoz. Ingurumari berri honek aukera egokia eskaintzen digu gure iraganari erreparatzeko. Estrategia berri horrek aurreko esperientzietatik azpimarratzen dituen gabeziak honakoak dira, besteak beste:

745. *Lurralde estrategia ez da enpresa estrategia...*

Lurralde estrategia

- Esplizituki zehaztuta edo hausnartuta ez egotea lurralde bateko garapen-estrategia zerk mugatzen edo karakterizatzen zuen. Bai helburuetan, bai edukian eta bai prozesuetan (edo bestela esanda, “zertarako”, “zer” eta “nola” galderetan) lurraldearen strategiak eta enpresarenak ezberdintasun galantak dituzte.

746. *Lurralde strategiak ikuspegi integrala eta bateratzailea behar du...*

- Lehentasun edo politika horizontalak bakarrik kontsideratzea, eta lehentasun edo politika bertikalak bazter uztea. Lehentasun eta politika horizontalak era guztietako enpresek eta sektoreek dituzten arazoak konpontzera bideratzen dira (adibidez, erregioko berrikuntza-sistemako I+Gko azpiegituretatik enpresetarako jakintzaren transferentzia eza gainditzera). Lehentasun eta politika bertikalek, aldiz, zientzia, teknologia, kluster, sektore... edo jarduera ekonomiko zehatz batzuegatik apustu egiten dute.

747. *Lurralde strategiak behetik gorako joerak behar ditu...*

- Oso goitik beherakoak (top-down) ziren, lurraldearen strategiaren diseinuan eta abian jartzean parte hartu ohi zuen aktore bakarra gobernu erregionala zen (gehienetan, kanpoko aholkularien laguntzaz), eta gobernuak ez ziren gainerako aktoreak (jakintzari lotutako erakundeak, enpresak eta gizarte zibila) alboratuta gelditzen ziren.

748. *Lurraldea bere osotasunean aktibo garrantzitsua da, baina lurralde bakoitza bere ezaugarriekin...*

Finean lurraldearen gaineko eztabaida dago auzitan. Nahiko kontsentsu zabala dago honetan: lurraldea ez da soilik eragile sozialen, erakundeen eta bestelako aktibo fisikoak, instituzionalak edota ukiezinak gordetzen duen “edukiontzia”. Giza garapena eta paradigma posdesarrollista gehienetan lurraldea eragile aktibo gisa irudikatzen den subjektua da. Bertan gauzatzen dira eragile sozial eta ekonomikoen arteko eta hauek ingurugiro fisikoarekin dituzten harremanak. Baina, harreman saredun lurraldea, botere erlazioen arabera aldakorak diren kultura, balio eta instituzio-oinarri batzuen gainean komunitate garapen proiektu baten inguruan ardazten da, eta beste lurralde batzuekin loturak ditu, helburu gisa duelarik komunitatearen gaitasun indibidualak, kolektiboak eta sistemikoak hobetzea.

749. *Euskal Herria lurralde atomizatua eta eskumen mailan asimetrikoa...*

Euskal lurraldeak

Euskal Herriaren egituraketa administratiboak tokian toki singularitate handiak ditu. **eta lurralde estrategiak** Alta, autogobernu maila eta aukera desberdinen arabera lurralde eremu bakoitzak bere estrategia gauzatu du. Agerikoa da Ipar Euskal Herrian, aitortza faltak lurralde estrategia adostu, hornitu eta gauzatzeko baliabide gabezia, oso oinarri sozial sendoko dinamikek baizik ez dutela lortu estrategia moduan gauzatzea. Era berean, Ipar Euskal Herriko lurraldea desorekatzen joan den aldetik lurralde estrategian bi polo nagusi osatu dira, kostaldea eta barnealdea. Lehena oso emana ekonomia egoilarrari eta zerbitzuei, bigarrena laborantza eta industriari atxikia. Lehenak inguru fisiko eta soziala eraldatzea izan du xede, bigarrenak inguruarekin batera doan estrategia bat garatzea. Esan gabe doa, Ipar Euskal Herrian, lurralde estrategia bat artikulatzeko ezarri zaizkion mugek, besteak beste, erabateko eragina izan dutela garai bateko oinarri industrialak galtzen uzteko. Hor egon zitezkeen Hegoalde industrialarekin lankidetzak gotorrak eraikitzeak aukerak.

750. Hego Euskal Herrian, halaber, bi autonomia erkidego nagusitan banaturik, lurralde estrategiak bi gidaritzak desberdin izan ditu. Antzekotasunak eta osagarritasunak medio bion ekonomien artean interakzio ekonomiko indartsuak izan diren arren, ez da egon lurralde estrategian lankidetzarik, aukera eta premia egon den kasuetan ere, hala nola Baztan-Bidasoan eta Goierri-Sakanan. Edonola ere, biek ala biek autogobernurako tresna garrantzitsuak izan dituzten aldetik, lurralde estrategiak diseinatu eta artikulatu dituzte, bakoitzak bere helburuekin.

751. *Euskal lurraldetasuna askotarikoa, espezializazio gune ugari eta dinamikoekin...*

Lurralde estrategiaz ari garela, azpimarratzekoa da tokian toki, sektore zenbaitek protagonismo nabarmena izan dutela. Kostaldeak eta barnealdeak arrantza eta laborantzarekin, barnealdeko bailara malkartsuek metalgintzarekin, hiriburuek zerbitzu aurreratuekin eta formazioarekin. Gauzak horrela, esan daiteke tokiko espezializazio nabarmeneko lurralde ekonomikoa izan dela Euskal Herria. Bizi izandako krisiek eta lurraldearen gaineko ikuspegi mugatuek, ordea, hainbat sektore tradizionalen gaineko sustapena mugatu dute.

Halaber, Trebiñu eta Villaverde Burgos eta Kantabriaren administrazioaren mendekoak izanik, administrazio horien interes faltak ere ez du lagundu inguruko lurraldeen ahalegina indartzen, ahultzen ez bada.

752. *Lurralde estrategia beti ez da hemen erabakitakoa izan...*

Lurralde strategiaren gaineko bilakaerak gure iraganaren ezaugarri xeheak identifikatzen lagundu beharko liguke. Izan ere Euskal Herriko lurralde desberdinek bilakaera horren pausoak bere baitan bizi izan dituzte.

753. II. Mundu Gerraz geroztik, oso nabarmenak dira aro bakoitzaren ezaugarriak euskal lurraldeetan. Hego Euskal Herriko industrializazio intentsiboak 60 eta 70eko hamarkadetan goitik-behera ezarritako estatu politika baten ezaugarri guztiak ditu.

**Lurralde estrategiak
Euskal Herrian**

Halaber, Ipar Euskal Herrian garai beretsuan Parisko diseinu ekonomikoarekin ekonomia erresidentzialean oinarritzeko erabakia antzeko patroiaz sortua izan zen. Ondorioak batean eta bestean, ordea, oso desberdinak izan ziren, ezaguna denez.

754. *Ondorio sakonak utzi zituen Hegoalden zein Iparralden...*

Batak zein besteak ondorio argiak izan zituzten lurraldean. Hegoaldeko industria pisuak kapital metaketa handiak, jarduera kontzentrazio eremu zabalak eta trebakuntza apaleko eskulangile saldo handia behar zituen. Ipar Euskal Herriko ekonomia egoiliarak bertatik bertara emandako zerbitzu ekonomia, kanpoko biztanleari zuzendutako kostaldea... Batean zein bestean, garai hartan jarritako oinarriek egungo lurralde estrategian inertzia garrantzitsuak izaten jarraitzen dute hainbat arlotan, bai lurralde eremu zein sektore produktibo batzuren posizio estrategikoa indartzeko eta beste batzuen itzala apaltzeko ere.

755. *80ko krisiak Hegoalden eskumen berriekin lurralde estrategia bertakotzeko aukera eskaini zuen...*

Hego euskal Herrian aro instituzional berria abiatu zen autonomi estatutuen ezarpenarekin. Horrela Euskadiko Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak, berebiziko lana izan dute aurreko erregimenetik zetorren eredu gainditzen. 80 hamarkadan petrolioaren krisiaren inguruan ehun industrial zaharren krisiak ezinbestean lurralde strategiari zegozkion oinarriak berrikusi eta metodologia berriak ezartzeko aukera eta betebeharra ekarri zuten. Emaitzen argitan Euskadiko Autonomia Erkidegoaren baitan arrakasta nabarmenez lortu zen sistema produktiboaren birmoldaketa eta berpiztea. Arrakasta horren ezaugarrien artean dago osagai industrialaren garrantzia, teknologia eta berrikuntzari lotutako kultura, formazioari eta inteligentziari emandako egitura baten gorpuztea. Horren baitan ulertu behar da geroztik indarrean egin den lurralde estrategia. Nafarroako Foru Erkidegoak bere lurralde strategiaren diseinuan eredu arras zentralizatzailearen alde egin zuen aldetik, agerikoa da, oso "mapa" sozioekonomiko desberdinak eragin ditutela urteen poderioz. Lehenak ehun ekonomikoa lurraldean hedatuagoa izatea lortu du, bigarrenak ostera garai bateko barriadura galdu du. Baina horrez gain, lehenak lurraldean errotutako enpresa eta inteligentzia sarea eraikitzea lortu du eta bigarrenak, ordea, hiriburuaren inguruan metatu du ekonomiari lotutako kapital soziala eta inteligentzia sarea, baina, enpresa sarearen errotzeari dagokionez, arras ahulagoa izan da.

756. *Ipar Euskal Herrian autonomiarik eskuratu gabe ezin joera irauli...*

Ipar Euskal Herriaren kasuan, lurralde mailan bere berezitasunarentzat aitortzarik gabe eta tokiko administrazioaren eskumenak arras mugaturik, bilakaera oso bestelakoa izan da. Izan ere, estrategiarik gabe, gehienez ere, eragile sozioekonomikoen arteko konplizitate eta adostasunak eraiki ahal izan dira. Baina horrek ez du lortu garai batean industriak zuen pisuari eustea eta are gehiago, ez du

ekidin giza kapitalaren galera (milaka izan dira Frantziako beste lurraldeetara ikastera eta lanera joandako euskal herritarrak, aukera gabeziak eraginda etxera nekez itzultzen direnak), ez lurralde mailako estrategiarik garatzea ere (erabatekoa da kostaldearen eta barnealdearen arteko desoreka, eta higiezinaren sektorea eta honen interesetara etorri behar izan dute aldagai sozioekonomiko nagusiek). Bertako eragile sozioekonomikoen aliantzak urtetako lan kritikoari esker Garapen kontseilua eratu eta bi plan estrategiko egitea lortu zuten (PB2010 eta PB2020). Halaber, lurralde estrategia baten beharrak eragindako adostasunak ere ekarri du, halako batean, Ipar Euskal Herria lurralde elkargo bakar batean biltzea.

757. *Lurralde mailako estrategia ekonomikoa garai berrietara egokitzeko lan egin behar...*

Lurralde
estrategietan
desorekak

Lurraldeka oinarriak eta bilakaerak desberdinak izan badira ere, urte hauetako bilakaerak ondorio argi batzuk utzi ditu, are nabarmenagoak 2008ko finantza krisiaren ondoren. Aipatzekoa da, besteak beste, garai berriei begira jarritako oinarriak (biztanleria formatua, inteligentzia sarea, enpresen maila teknologikoa, nazioartekotze gaitasuna...) oso modu desorekatuan kokatu direla lurraldean. 2008ko atzeraldiak desoreka hori are gehiago handitu du. Izan ere, enpresen sektorean honek bizi izandako itxiera ugariekin batera itzali da eta trantsizio ekonomiko eta produktiboaren oinarri berritzaileena duten ekimenak oso eremu gutxitan metatuta daudela ikusi dugu. Esandakoa berrestera etorri da Europako Berrikuntza Panela 2017, zeinak adierazi baitu Hego Euskal Herrian, berrikuntza maila garrantzitsua bada ere, hau enpresa handietan kokatzen dela eta enpresa txiki-ertainetara dagoen transferentzia maila apal dela. Kontuan har dezagun enpresa txiki eta ertainen ehuna dela lurraldean hedatuena, beraz, lurralde estrategia bati begira tokian tokiko ehun produktiboa indartu ezean ez dagoela lurralde estrategian orain arteko ibilbidea hobetzerik. Gainera, jardueren kontzentrazioak biztanleriaren eta bereziki biztanleria formatuenaren kontzentrazioa ere ekartzen du, alta, gainerako lurraldeek galtzen dute gaitasun hori.

758. *Lurraldearen luze zabalean estrategia egituratu ala gune gutxi batzutan metatu...*

Lurralde estrategia trantsizio ekonomikoari lotu beharra izan da, besteak beste, bizi izandako atzeraldiek, 80 hamarkadako atzeraldi industrialak batez ere, tokian tokiko problematikak izan dituztelako. Beraz, esan daiteke Euskal Herrian oso presente izan dela estamentu orotan lurralde estrategiak dimentsio "lokalizatua" behar zuela. Baina, estrategia horizontaletan jarritako indarrak sektore eta enpresa handienak indartu dituen bezala, hainbat zonaldeetan ez dute gainerakoetan bezainbesteko eraginik izan. Biztanleriari begira aipatzen den metropolizazioak ehun produktiboan izan zuen lehen atala, estrategia horizontalak aplikatu ziren moduan aplikatu izanagatik (eta estrategia horiek berez dituzten gabeziengatik). Era berean, kontzentrazio hori onuragarria gertatu da hainbat sektoretan aurrera urrats garrantzitsuak emateko, beraz, garapen polo indartsuak ere sortu ahal izan dira. Bestalde, goitik beherako politikek behetik gorakoentzat lekurik utzi ez duten aldetik parte hartzeari

dagokionez (eta ondorioz ekintzailletza eta konpromiso mailan) hutsune larriak izan dituzte, sarri interes talka garrantzitsuak gertatu direlarik sektoreen artean.

759. *Espezializazio adimentsua, sektore "gogorretan" zentratzea eta kontzentratzea ez da nahikoa...* **RIS3, Espezializazio adimentsua**
- Trantsizio ekonomiko horrek, halaber, egun bizi dugun munduaren premiei erantzuteari begira jarri ezinak beste gabezia zenbait utzi du agerian. Besteak beste, espezializazio adimentsua gai edo sektore "bigunetan" arreta jarri gabe egin izana, alegia ingurugiroaren aldekoak direnak eta berrikuntza soziala bilatzen dutenak. Segur aski, hala jokatu ez izanak hainbat sektore ekonomiko "bigunen" garapena makaldu du, eta horrek lurralde mailako ondorio argiak izan ditu. Maila honetan aipatzekoa da landa-giroko herrietan dibertsifikazio ekonomiko indartsuagoa lortu ez izana, enplegua emango ziena bertako herritarrei, migratzeko bidean jarri ordez. Ipar Euskal Herriko barnealdean eta Hego Euskal Herrian hiriburuetatik urrunen kokatutako eskualdeek nozitu dute arazo hori hamarkadaz hamarkada.
760. *Helburu sozialeko ekonomiak sustapen handiagoa behar zuen...* **Lurralde estrategien helburuak**
- Halaber, errentagarritasun ekonomiko eta mozkinenez haragoko helburuak zituzten estrategiek ez dute aski sustapen izan (kooperatibak, intserzio enpresak, entitate solidarioak, mutuak, fundazioak, enpresa sareak,...) ez eta sarean garatzen ari den ekonomia kolaboratiboak (software libreak, p2p plataformak, sareko negozioak,...) edo ekonomiaren forma berriek (ekonomia zirkularra, ekonomia feminista, zaintzaren ekonomia, ekonomia urdina...) eta, oro har, prokomuna indartu.
761. *Eta organizazioak horizontaltasun handiagoz eratu garai berrietara egokitzeko...* **Lurralde estrategiak eta organizazioen barne kudeaketa**
- Organizazioen barne kudeaketak ere nabarmen bertikala izaten jarraitu du, gardentasuna eta parte hartzea indartu beharrean. Enpresa askoren gabeziak betikotu ditu eredu honek (antolaketa mailakoak, teknologikoak...) eta hortxe egon zen 2008ko atzeraldiaren inguruan enpresa askoren gabezia (enpleguak desegin eta enpresa itxierak eragin zituen).
762. *Iraunkortasun paradigmak (sozialak zein ingurugiroari zegozkionak) ere ez dira behar den sendotasunez artikulatu...* **Lurralde estrategien helburuak**
- Enpresen estrategia desberdinetan ez da sentsibilitaterik izan solidaritatea eta iraunkortasunaren aldeko balioak bultzatzeko, alta, enpresa askok iskin egin diote bere inguruarekiko harremanean arduratsu izateari, bai inguruarekiko izandako harremanean, bai inguru sozioekonomikoarekiko konpromiso zehatzetan.
763. *Lan legediak eta lan harremanek ez dute erraztu pertsonen bizimodua edo belaunaldi berrien laneratzea...* **Lan arloko eskubideak eta harremanak**
- Aurreko puntuek, halaber, lotura handia dute lan arloko eskubide eta harremanak

garatzeko moduarekin, bai eta lanaren banaketarako neurriekin ere. Gazteen laneratze eraginkorrak, esaterako, zailtasunak izan ditu, eta gabezia larria gertatzen da hori langile espezialdu eta trebatuak behar dituen ekonomia batean. Hori da euskal ekonomia sektore guztietan. Horren ordez, lan ordu bereziak ugaritu dira, bai eta kaleratzeko legedia arindu ere, enpleguaren deuseztea erraztuz. 2008ko atzeraldia gainditzeko hasi garenean ohartu gara enplegu berriak ez direla baldintza parekoak ez kualifikazioari dagokionez, ez lan baldintza edo errentari dagokionez ere.

764. Enpresa txiki eta ertainak, gehiengoa izaki, ez dute handiek bezainbesteko bultzada jaso sendotzen laguntzeko... Enpresa handi eta dinamizatzaileen aldeko hautuak, halaber, enpresa txiki eta ertainen tokiko sare trinkoa eta aurreratua eraikitzea eragotzi dute, azken hauek bezero handi bakar batzuentzat lanean eta hauekiko mendeko izatea ekarriz. Ez dugu enpresa txiki eta ertainen kasuan balio kate produktiboetako beraien kokapen egokia eta bidezkoa ziurtatzea lortu. **Enpresa txiki eta ertainak**
765. *Posible al da estrategia dibertsifikatua eta hein berean integrala?* **Lurralde estrategia dibertsifikatua eta integrala**
- Airean dagoen galdera, beraz, oso lotuta dator ondorio horri: posible al da lurralde estrategia(k) modu integralean eta dibertsifikatuan ulertzea, tokian tokiko espezializazioari edo espezifikotasunari ekonomikoki garatzeko aukera emanez, eta aldi berean eremu administratibo bakoitzaren baitako estrategia nagusi batetan integraturik egotea ?
766. *Eta lurraldeen arteko euskal lankidetzaz?* **Lurralde estrategia eta lurraldeen arteko lankidetzaz**
- Honaino helduta, bigarren galdera ere berez dator: posible al da eremu administratibo desberdinetako zonaldeen arteko lankidetzaz indartzea bateko eta besteko aukerarik onenak profitatuz?
767. *Orain arte falta izan dugu, ordea, euskal lankidetzaz Europak bidea erraztu arren...*
- Galdera horiek aurrera begira erantzutekotan Liburu Zuria osatu bitartean itxaron beharko da. Atzera begira jarrita, ordea, agerikoa da mikro-errealitatei erreparatu beharra dagoela irudi argi bat izatera iristeko. Agian erantzuten errazena bigarrena da, eremu administratibo desberdinen arteko sinergiarik ez da izan lurralde strategiari dagokionez, ez berariaz eraikitakorik (euskal lankidetzaz dei dezakegunak Frantzia eta Espainiako estatuen aldetik ez du babesik izan, oztopatzailea izan ez denean) ez bidenabar eraikitakorik (Turismoaren inguruko estrategiena izan daiteke adibide argiena, izan ere, lurralde bakoitzak, herrialdeka, marka eta estrategia propioak izatera iritsi da. Baina antzekoa esan daiteke gainerako sektoreetan ere, hala nola adar industrial eta transformatzaileetan zein hauei bideratutako zerbitzu aurreratuetan ere.) Hamaika lankidetzaz ekimen izan dira maila indibidualean abiatutakoak, izan dira, halaber, Europako Batasuneko mugaz gaindiko harremanak sustatzeko egindakoak ere. Baina arloko analisiek adierazi bezala, azken hauek ez

dute balio izan harremanak sendotu eta egonkortzeko, ez bada, diru-baliabideak eskuratzeko. Politika bertikalen eremuan egon zitekeen arrakastarako aukera gehien, baina ikerketa edo formazio alorrean ere, lurraldeen arteko etena handia izan da.

05.4.3. Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak

768. Enpresa-ereduaz hitz egiten dugunean, kapitalaren eta lanaren arteko harremani, jabetzari eta erabakiak hartzeari buruz ari gara. Gizarte Ekonomia kapitalaren eta lanaren arteko borroka-harreman klasikoen alternatiba gisa sortu zen, eta asko garatu da Euskal Herrian; izan ere, gure ekonomiaren ezaugarri nagusietako bat da. Gizarte-ekonomian, hainbat figura juridiko eta modalitate daude, eta etengabe aldatzen ari den sektore bat da. **Enpresa-eredua**
769. Bestalde, enpresa konbentzionalak ere euren antolaketa-moduak aldatzen ari dira. Ezagutzaren Ekonomian, talentua da abantaila lehiakorraren iturri nagusia enpresentzat, eta, beraz, giza talentua atxikitzeko eta eurena garatzeko formulak jorratzen ari dira. Orobat, kudeaketan, emaitzetan eta kapitalean parte hartzeko beste formula batzuk ere sortzen ari dira (oraingoz pixkanaka bada ere), eta sindikatuen zeregina eta lan-harremanak aldatzen ari dira. Gainera, gizarte-asmoa duten enpresak sortzen ari dira, edo enpresen gizarte- eta ingurumen-eragina neurtzeko ekimenak ere bai, lorpen ekonomikoak alde batera utzita, nolabait. Baina, bestalde, egungo zalantza-testuinguruaren ondorioz, lan-indarra gero eta ezegonkorragoa da, eta ezohiko enplegu-motak agertzen ari dira. Lan-merkatuan, dualtasun bat gertatu da, edo, hobeto esanda, hainbat dualtasun. Elkarrekin konbinatzen dira, eta, beste hainbat faktoreekin batera (generoa, lan-egonkortasuna, estaldurarik eza negoziazio kolektiboan...), ezegonkortasun-poltsak sorrarazten dituzte. **Lan-merkatuaren dualtasunak**
770. Gizarte- eta ingurumen-erronka handiei aurre egiteko, beste paradigma ekonomiko batzuk sortzen dira, besteak beste, guztion ongiaren ekonomia, elkarlaneko ekonomia, ekonomia zirkularra eta ekonomia feminista. Eredu hasi berriak dira oraindik (haietako batzuk disruptiboak edo polemikoak), baina gai dira gure garaiko dilemei erantzun berritzaileak emateko. Batzuk, hala nola elkarlaneko ekonomia, hazkunde esponenziala izaten ari dira, eta, erregulaziorik ez dagoenez, tirabirak, zalantzak eta polemika sortzen dira. Bestalde, eredu horiek berrikuntza-iturri garrantzitsua dira Gizarte Ekonomiarentzat. Baina badaude hainbat zalantza paradigma horien inguruan. Adibidez, desberdintasuna txikitu eta gizarte-kohesioa handituko duten enpresa-ereduak eta lan-harremanak sortzen lagundu dezakete, betiere, eraginkortasunari uko egin gabe? **Enpresa-eredu berriak**
771. *Zenbait indargune, aurrean ditugun erronken konplexutasunaren aurka egiteko: Industria-ehun sendoa eta zerbitzu aurreratuak.* **Industria-ehun sendoa**
- Euskal Herrian, eskuarki, zenbait indargunek, hala nola industria-ehun sendo eta indartsuak, on egin dio enpleguari. Industriak kalitate handiagoko enplegua sortzen

du, eta aukera ematen du pertsonak pixkanaka trebatzeko eta talentua pilatzeko; horri esker, lan-egonkortasun handiagoa eta lan-baldintza hobeak daude. Neurri batean, horixe bera esan dezakegu gure zerbitzu aurreratuen sektoreari buruz. Indartu eta mantendu beharreko ezaugarriak dira horiek, baina ahaztu gabe arriskuak enpleguaren pixkanakako polarizazioan jarraitzen duela, horren ondorioz sortzen baita lan-pobrezian dauden edo egon daitezkeen pertsonen segmentu bat.

Horrez gain, askotan, enpresa sendo eta indartsu horiek eta sektore publikoak beraien ibilbiderako funtsezkoak ez diren gero eta jarduera gehiago zerbitzatu, esternalizatu eta azpikontratatu dituzte.

Era berean, laguntza-premian daude historikoki industria-enpresa ertain eta txikien sehaska izan diren eremuak, gaur egun teknologia- eta antolakuntza-joera berrietara egokitzeko garapen nahikorik ez dutenak. Horiek galtzeak eremu askoren atzerapen sozioekonomikoa eragingo luke; horiek suspertzeak, berriz, eremu horietarako bizitasuna eta etorkizuna ekarriko lituzke. Dibertsifikazio ekonomikoaren erronkak gure geografiaren eremu zabalak hartzen ditu. Debagoienak eta beste adibide batzuek helburu egingarria dela erakusten digute.

772. *Eta lurralde-mailako erronka batzuk ditugu*

Lurralde-mailako
erronkak

Gaur egun, berrikuntza-maila handieneko jarduerak oso sektore jakinetan biltzen dira, eta lurraldeka metatuta, gainera. Bestela esanda, gure geografiako eremu zabalek aurretiaz biztanleria eta aberastasuna sortzeko izan zuten gaitasuna galdu dute. Eta galera horrek ekonomia endogenoaren osagaiak galtzea ere eragin du.

773. *Eta, hain zuzen ere, ekonomia endogenoa da baliabide propioak dituzten eremuak (berdin biztanle askoko hiriak nahiz udalerririk isolatuak) garatzeko arloetako bat. Hurbileko merkataritza-zirkuituentzako elikagaien ekoizpena izan, zaintza eta osasuna izan, energia berritzaileen sorrera izan... guztiak ere aztertu eta ustiatu beharreko alorrak dira, are gehiago beste aukerarik ez dauden lekuetan: aniztasun ekonomikoa sustatzeko politika aktiboak behar dituzten landa-eremuetan, aldirietakoetan, eta batez ere ardatz nagusietatik urrunen daudenetan. Ipar Euskal Herria eta bertako nekazaritza-kooperatibak izan daitezke jorratu beharreko ildoaren adibide bikaina.*

Ekonomia
endogenoa

Era berean, laguntza-premian daude historikoki industria-enpresa ertain eta txikien sehaska izan diren eremuak, gaur egun teknologia- eta antolakuntza-joera berrietara egokitzeko garapen nahikorik ez dutenak. Horiek galtzeak eremu askoren atzerapen sozioekonomikoa eragingo luke; horiek suspertzeak, berriz, eremu horietarako bizitasuna eta etorkizuna ekarriko lituzke. Dibertsifikazio ekonomikoaren erronkak gure geografiaren eremu zabalak hartzen ditu. Debagoienak eta beste adibide batzuek helburu egingarria dela erakusten digute.

774. Cure mugaz gaindiko errealitateak, gainera, gure erakundeak garatzeko pista berriak ekar diezazkiguke. Enpresen antolakuntzan elkarrengandik ikasteko ez ezik, aliantzak lotzeko eta mugaz gaindiko erakundeak sortzeko ere balio lezake. Esku-eskura dugun erronka ekonomiko eta soziala da.

Eta geure buruari galdetzen diogu...

Esternalizatutako jardueren "beste lan-baldintza horien" ardura alde batera utz dezakete enpresek eta erakundeek?

775. *Kohesioan eragin positiboa dute beste indargune batzuekin batera: hirugarren sektorea, elkartasuna, parte-hartzea, gizarte-ekonomia.*

Eredu zuzenagoa lortzen lagundu dezaketen beste ezaugarri eta esperientzia batzuekin batera dauden indarguneak: hirugarren sektore indartsua, elkartasuneko esperientziak, gizarteratze-esperientziak, kudeaketan edo jabetzan parte hartzeko formulak, gizarte-ekonomiaren garapen nabarmena...

776. Euskal gizarteak balio demokratikoak defendatzen eta desberdintasunak onartzen ikasi du, "...bere burua eraikitzeke ahalmena du, inbidia garria" (Alain Touraine, Javier Elzok aipatua), gogoberotzeko gai gara, bizitasun handia dugu, ez gara pasiboak eta ez dugu utzikieririk onartzen, pribatua publikoarekin uztartzen jakin dugu, eta alderantziz, zer eman dezakegun galdetzen diogu geure buruari, lankidetzan aritzen ikasi dugu, eta aldaketara eta berrikuntzara irekita gaude.

777. Cure etorkizuna bermatuko badugu, neurri handi batean, gai izan behar dugu indargune horiei eusteko, garatzeko eta aurrera egiteko; eta ondo kudeatu behar dugu gure etorkizuna maila guztietan, familian, esparru pribatuan eta esparru publikoan.

Eta indargune horiek ondo kudeatuz gero...

Ez gara gai izango gure seme-alabei, bilobei eta euskal herritarrei guk izan duguna baino herrialde oparoagoa, desberdintasun gutxiagokoa eta zoriontsuagoa eskaintzeko?

778. *Ekonomia berriak erronka eta aukera handia izan daitezke gure etorkizunerako, eta enpresa-eredu berriak sortzea eragin dezakete.*

Aro digitalaren eraginaren inguruko galderarik ohikoena lanaren etorkizunari buruzkoa da. Ez da bakarria, ordea. Ez dute enpresa-eredu tradizionala aldatu behar? Enpresa-antolaketako eredu berriak eta enpresa-mota berriak sortuko direlako – dagoeneko sortzen ari dira –, baina baita enpresak beraiek aldatu egingo direlako. Alde batetik, enpresa-monopolioen logika baretzeko gai izan behar dugu; izan ere, merkatuaren dinamismoa murrizteaz gain, logika horrek langileen eta familia-ekonomiaren errenta erabilgarria murrizten du. Eta, beste batetik, aginduetan

oinarritutako enpresa-eredu konbentzional eta tradizionalak bide eman beharko dio balioak, ukiezinak, pertsonak, konfiantza eta enpresaren erabakien ondorioekiko gardentasuna aintzat hartzen dituen eredu bati.

779. Eta enpresek ez ezik, ordenamendu juridikoak ere aldaketa sakonak egin behar ditu, sozietateen zuzenbidean, besteak beste. Esaterako, aukera eman beharko du enpresaren helburu sozialean akziodunen interesez bestelako interesak sartzeko. Langileek, hornitzaileek, gizarteak eta ingurumenak ere lekua izango dute enpresen estatutuetan. Frantziak martxan jarri du dagoeneko. **Aldaketak ordenamendu juridikoan**
780. XXI. mendeko enpresa ez da XX. mendeko kapitalismoaren berezko emaitza hura; orobat, XX. mendeko langileak ez dira XIX. mendeko proletarioak. **Kudeaketaren kalitatea handitzea**
- Enpresen produktibitatea ez dago langileen produktibitatearen hobekuntzaren mende soilik; izan ere, langileen produktibitatea enpresa-kudeaketaren kalitatearen ondorioa da. Enpresa-kudeaketa kalitatezkoa bada, produktibitateak gora egingo du, baina, askotan, ahaztu egiten dugu. Eta, arlo horretan, gure enpresa askok hobekuntza- eta aldaketa-potentzial izugarria dute. Guztiok dugu interesa horretan.
781. Enpresak, oro har kapital pribatuko sozietatetzat hartuak, nagusi izaten jarraituko du gure eredu ekonomikoan. Baina garai berrietara egokitu beharko du, bai eta eraldatua izan ere, haren baitan sinesten dutelako, beharrezkoa delako, legeak agintzen duelako. Edo desagertu egingo da. **Ekonomia berriak**
- Enpresa konbentzionalarekin batera, enpresa-eredu berriak sortu ziren eta sortuko dira, edo ez hain berriak. Mundua aldatzen ari da, eta izugarri azkar, eta erantzun egokiak eskatzen ditu. Horrek, erantzun gisa, *beste ekonomia-mota batzuk* sorrarazten ditu, gizartearen eztabaida, erronka eta premiak hobeto aintzat hartzen dituztenak.
- Ekonomia-, gizarte-, hezkuntza- eta politika-birsorkuntza eragingo duten hainbat ekimenen hastapen xume, ikusezin eta marjinaletan gaude. Balioa sortzeko estrategia hibridoak formulatu behar ditugu, eta berrikuntzak eta benetako gizarte-baliagarritasuna uztartu, paradigma ekonomiko berrien bila.
- Errotikako aldaketak egin behar dira pertsonak jarduera ekonomikoetara hurbiltzeko, eta sistema ekonomikoaren eta enpresa-eredu parte-hartzaileagoak sortu nahi dituzten eredu disruptiboen kanpo-efektuei erantzun ere bai.
782. Ekonomia hauek ditugu hizpide, hain zuzen: Berdea, Urdina, Zirkularra, Funtzionaltasunarena, Digitala, Elkarlanekoa eta Partekatua, Irekia (Kodekoa) eta Librea (Ezagutzakoa), Leheneratzailea, Positiboa, Inpaktukoa, Guztion Ongiarena, Soziala, Soziala eta Solidarioa, Feminista, Trantsiziokoa, Beherapenekoa.
783. Baita Lankidetzaren Ekonomia ere. Honako baldintza hauek ditu: a) komunitate- **Lankidetzaren**

kontzeptu berri bat sortzea, b) erakunde politiko, ekonomiko, kultural edo sozialetan parte hartzeko bideak irekitzea, c) komunitatearen ahaleginen helburu nagusitzat pertsona hartzea, eta d) pertsona fisikoen eta juridikoen arteko lankidetzeta-modu solidarioak abiaraztea.

Ekonomia

784. Azken finean, ekonomia *konbentzionala* izango da oraindik ere garrantzitsuena, baina, bizirauteko, XXI. mendean birformulatu beharra dago, eta ekonomia horiek elkarrekin bizitzen ikastera behartuta daude.

Ekonomia Berriak

Eta geure buruari galdetu diezaiokegu...

Ekonomia berri horietako gehienek iraun egingo dute edo denboran zehar ahulduko den moda iragankor bat baino ez dira? Eredue horietako batzuen garrantzia handitu egingo da edo garrantzirik ez izaten jarraituko dute? Enpresa konbentzionalak alde batera utziko dituzte kudeaketa-eredu tradizionalak?

785. *Gure garapenaren etorkizuna. Ekonomiaz harago.*

Hazkundera eta ongizatea

Badirudi *hazkunde ekonomiko* ahalguztiduna, Barne Produktu Gordinaren (BPG) gehikuntzaren bidez neurtua, munduko herrialde guztiek lortu beharreko lehen helburua eta bakarra dela. Baina hazkunde horrek ongizate ekonomikoaren hazkunde bera eragiten duela pentsatu ohi dugu, eta arazo bat dago hor.

BPG haztea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa. Izan ere, hazkundera iraunkorra izango bada, herritarren ongizate-maila handiagoak eragin behar ditu.

786. Eta lehenengo zailtasuna da lehenetsitako helburuak lortzeko aukera emango digun adierazle/neurgailu/tresna bat aurkitzea.

Adierazleak

Ongizate ekonomikoa, gizarte-ongizatea, aurrerapen soziala, aurrerapen ekonomikoak... ez dira berdinak; errentaz eta aberastasunaz gain, hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan: gure erakundearen legimitate demokratikoa, garapen pertsonal eta sozialerako gaitasuna, askatasuna, segurtasuna, zoriontasuna eta, jakina, osasuna, ingurunea, klima, hezkuntzarako sarbidea, desberdintasunaren aurka egiteko sistema, pobrezia desagerraraztea, etab. Ondo neurtu behar ditugu jarduera ekonomikoa, bizi-kalitatea eta sortutako aberastasunaren banaketa.

787. Garapen sozioekonomikoaren gure ikuskerari buruzko barne-eztabaidetan, kontuan hartu beharreko funtsezko zenbait elementu identifikatu ditugu, ez oso zehatzak: pertsona eta Giza Eskubideak ardatz nagusi gisa, gure balio-sistema, gure kapital soziala, ukiezina baina baliosua, gobernantza demokratikoa, tokikoaren balioa, etab.

788. Garapena eta lehiakortasuna bateratzeko esparru egokia sortu behar da, garapenari buruzko eztabaida ekonomikoaz gain beste gai batzuk jorratzeko eta aurrerapen ekonomikoa eta aurrerapen soziala behar bezala bereizteko, gure helburu ugariak ondo adieraziko dituen aurrerapen sozialeko indize-kontzeptu bat finkatzea lor

Giza garapena eta lehiakortasuna

dezagun.

Eta, derrigorrez egin beharreko galdera...

Oro har, gure aurrerapena neurtzeko BPG baino adierazle osoagoak erabiliko ditugu? Gure garapen-ereduak euskaldunen ongizate orokorra garatzen lagunduko du?

789. *Lanaren modu, gaitasun eta muga berriak, aro digitalean.*

Enplegua vs. lana

Lanaren esanahia aldatzen hasi da gero eta jende gehiagorentzat. Nola azaldu jarduera bera *lan klasiko* bat izan daitekeela pertsona batentzat, etxeko jarduera bat beste pertsona batentzat, eta *zaletasun* bat beste batentzat? Orain, aro digitalean, ulertu egin behar ditugu lan egiteko mota hibrido horiek. Ordainsaririk gabeko edo oso ordainsari txikiko etxeko lanak egingo ez balira, Euskal Herriak ezingo lieke enplegurik eman soldata baten truke lan egiten duten pertsona guztiei. Betidanik izan da horrela, baina, orain, horretaz jabetu gara. Gaur egun oraindik emakumeek egiten duten etxeko lana murgildutako izeberga da. Azalean dagoena soldatapeko enplegua da.

790. Aro digitalaren aukerak etengabe erabiltzen dituen mundu baterantz goaz, eta soldatapeko lanaren, zaletasunen, etxeko jardueraren edo ordainsari ekonomikorik ez duten beste jarduera batzuen arteko mugak lausotzen hasi dira. *Bestelako lana, lan irekia* ere esaten zaio. Dagoeneko gertatzen ari diren aldaketak kontuan hartuta, lan ordainduaren eta *bestelako lan* horien arteko tarte argi hori lausotu daiteke? Kontua ez da *norbera lanetik askatzea, lana askatzea* baizik; aro digitalean, lan egitea ez da soilik edo nagusiki betebeharrak, gure jarduera-multzoa (ordainduak, etxekoak, aisiakoak, borondatezkoak eta zaletasunak) ulertzeko modu bat baizik.

Lan irekia

791. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) "Lanaren etorkizunari buruzko ekimena" jarri du martxan; informazio-oharretan (gaur egunera arte, lau eman ditu) lanaren munduan eragina izango duten aldaketei buruzko eztabaidak eta galderak egiten ditu.

Etorkizuneko lana

Eta, LNEk kaleratutako galdera horiek gure egiten baditugu, pentsatu beharko genuke...

Nola lor dezakegu enplegu betea egungo eta etorkizuneko aldaketa teknologikoen testuinguruan? Teknologia eragindako polarizazioa saihestu daiteke? Nola kudeatuko dugu produktibitatearen irabazien (bir)banaketa desberdintasuna murrizteko? Zer politika egin behar dira lan ordaindua eta ordaindu gabeko lana bateratzeko eta sustatzeko? Zer aldaketa egin behar dira lan-ordenamendu juridikoa aro digital berrira egokitze eta Oinarrizko Eskubideak babesten jarraitze? Nola hobetu erakunde-esparruak, langileen ordezkaritza eta partaidetza indartzeko? Nola egokitu daiteke gizarte-elkarrizketa joera berrietara?

792. Cure historian egiazat hartu ditugu gezur asko, aldez aurretik egiaztatu gabe. Oso zaila da sasiegiak ezeztatzea, eta arriskutsua da baieztapen horiek susmoaren irizpidearen mendean jartzea. **Cure esanak egiaztatzea**

Orobat, enpresa-arloan, ekonomian eta lan-harremanetan, esanaren esanez, egiaztapen enpirikorik gabe, ontzat hartzen diren gauzak esaten dira.

Eta, hori dela eta, geure buruari galdetu behar diogu, zintzotasunez...

Immigrazioa mugatuz langabezia murriztu dezakegu? Lan-denbora murriztuz lanpostu gehiago sortuko genituzke? Adinekoek har dezatela erretiroa, lanpostu guztiak gazteentzat izateko? Gutxieneko soldatak enplegua sustatzen du? Lehia txarra da negozioetarako? Zenbait zerga altuak dira? Zein? Teknologiak erabiltzean, enplegua murrizten dugu?...

06 / AURKIBIDE ANALITIKOA

Abiapuntuzko indar-ideia nagusiak e5	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.3. Abiapuntuzko indar ideia nagusiak	332
Adierazleak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak	786/787
Adina	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3.Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Desberdintasunak eta desorekak	507
Adinekoak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz	732
Administrazioa	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Azpiegitura kapitala	389
Adostasun eza	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Euskal Herrirako izan ditzakeen onurak	282
Adostasuna	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital soziala	377
Adostutako izena	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Euskal Herria markaren erronkak	293
Agenda	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Euskal Herria markaren erronkak	294
Aisialdia	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Azpiegitura kapitala	396
Akitania-Euskadi Euroeskualdea	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3.Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Lehiakortasun globala, irekitasuna eta nazioartekotzea	565

Akitaniako lurraldeekiko lotura	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Ekonomia soziala eta beste ekimen batzuk	653
Aktiboak	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.4. Kontzeptuen definizioa	340/341
Akumulaziorako jarraibideak	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.5.Lurralde narratiba nagusiak eta hauen ondorio materialak	322
Aldaketa soziala	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboaren mapa: Kapital soziala	385
Aldaketak enpresetan	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak	778
Aldaketak ordenamendu juridikoan	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak	779
Aldaketen ondorioak	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Kohesio bidean	200
Aldaketen ondorioak Euskal Herrian	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Kohesio bidean	202
Alde bakarreko arriskua	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Subiranotasuna, fiskaltasuna eta finantza-sistema	679
Amatasunaren adina	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Erronka demografikoa: zahartzea, migrazio-prozesuak...	487
Amestutako eszenarioen	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak	04.2. Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak	329

konstelazioa	Elkarrekin Eraikitzen (e5)		
Aniztasun askotarikoa	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Aniztasuna	184
Aniztasun nazionala	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Aniztasuna	183
Aniztasuna	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital soziala	375
Aniztasuna / Eleaniztasuna	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital kulturala	434
Aniztasuna eta identitatea	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Aniztasuna	182
Aniztasuna eta kohesioa	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Kohesio bidean	190
Aniztasunaren kudeaketa	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Aniztasuna	188
Antropozenoa	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Krisi ekologikoa	449
Arakatze Apreciatiboa	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.2. Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak	331
Arazoak negoziazio kolektiboan	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Ezagutzaren eta enplegu-erlaketaren gizartea	524
Ardatz geostrategikoen aldaketa	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa: Munduko egoera	66
Arkitektura ekonomikoa	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Subiranotasuna, fiskaltasuna eta finantza-sistema	666

Arnasguneak	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital kulturala/Giza kapitala	364/436
Atxikimendua	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Giza kapitala/Kapital soziala	359/376/379
Aukera desberdintasuna	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Gizarte-egitura eta kohesio-elementuak	616
Aukera-berdintasuna	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Desberdintasunak eta desorekak. 05.4.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz	508/721
Aurrerapen teknologikoak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian:Aurrerapen teknologikoak: iraultza digitala...	552
Autogobernu gabezia	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Subiranotasuna, fiskaltasuna eta finantza-sistema	686
Autogobernua	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Gizarte-egitura eta kohesio-elementuak	590
Auzi geopolitikoak	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa: Munduko egoera	64
Auzolana, kultura	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Ekonomia soziala eta beste ekimen batzuk	646
Azpiegitura kapitalaren definizioa	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Azpiegitura kapitala	386

Azpienplegua	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Gizarte-egitura eta kohesio-elementuak	618
Aztarna ekologikoa	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Krisi ekologikoa	452/460
Babes soziala	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital politikoa	418/419/423/ 424/425
Baby boom	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Erronka demografikoa: zahartzea, migrazio-prozesuak...	494
Bakardadea	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz	728
Baldintza soziologiko eta kulturalak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Ezagutzaren eta enplegu-erlaketaren gizartea	548
Baldintzatasuna	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5.Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz	730
Baliabide naturalen agortzea	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.2.Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Krisi ekologikoa	456
Baliabideak	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital ekonomikoa	404/408/410
Balio demokratikoak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5. Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak	776
Balio erantsia	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital ekonomikoa/Kapital kulturala	403/407/409/ 442

Balio finalistak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	715
Balio funtzionala eta emozionala	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Nazio markaren balioa	273
Balio instrumentalak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	716
Balio instrumentalak eta balio finalistak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	714
Balio partekatuak	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Kohesio bidean	203
Balio proposamena	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Nazio markaren kudeaketa	277
Balio sinbolikoa	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen mapa: Kapital kulturala	435
Balioak eta kohesioa	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.1. Gure jendeak: Kohesio bidean	196
Balioak giza eraikuntza gisa	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	712
Balioen liburu berdea	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	713
Balio-sistemak	01/ Historia, kultura, borondatea		18
Balore kolektiboak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Denon oinarria, balioak	707

Barne-lankidetzaren enpresan	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Lankidetzaren publiko-pribatua eta eragileen artekoa	663
Barrura begirako onurak	03/ Gure jendeak: gizartea eta kultura	03.4. Euskal lurralde(ar)en marka: Euskal Herrirako izan ditzakeen onurak	279
Behetik gorako kohesioa	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan: Euskal lurralde-ardatzak eta sinergiak	172
Belaunaldi arteko elkartasuna	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.4. Euskal ekonomia, enpresa eta gizartearen ezaugarri /balio bereizgarriak: Ekonomia soziala eta beste ekimen batzuk	635
Belaunaldi berriak	04/ Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)	04.6. Euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboaren mapa: Giza kapitala	365
Belaunaldi-txandaketa	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Erronka demografikoa: zahartzea, migrazio-prozesuak...	495
Bereziki zigortutako giza taldeak	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.3. Erronka / Aukera globalak eta haien irakurketa Euskal Herrian: Ezagutzaren eta enplegu-erlaketaren gizartea	535
Berezitasun juridiko-politikoa	01/ Historia, kultura, borondatea		13/14/15
Berezitasun kulturalaren balioa	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa: Tokikoaren eta globalaren arteko elkarreragina	36/37
Berezko botere judizialaren beharra	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan: Euskal lurraldeen erabakitze gaitasuna	104

Berezko ongizatea	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan: Euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna	97
Berme falta	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.2. Egituraketa politiko-instituzionala eta gobernantza demokratikoa euskal lurraldeetan: Euskal lurraldeen erabakitzeko gaitasuna	101
Berrikuntza teknologikoa	02 / Geopolitika eta erakundeetara hurbilketa	02.1. Euskal lurraldeen kanpo-egituraketa eta globalizazioa: Globalizazio-prozesuaren ezaugarriak eta lurraldea ikusteko modu berriak	30
Beste indargune batzuk	05/ Garapen Sozioekonomikoa	05.5. Liburu Zuriari begira, hausnarketa gaiak: Enpresa-ereduak, lan-harremanak eta ekonomia berriak	775
